



*Generoari eta
Ekintza*

Positiboko

Politikari buruzko

Nazioarteko

J. J. Batzarra



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

I. TOMOA

Generoari eta

Ekintza

Positiboko

Politikari

buruzko

Nazioarteko

J. J. Batzarra

EMAKUNDE/
Emakumearen Euskal Erakundea

Gasteiz 1999

IZENBURUA: "Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzarra
EGILEA: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36.
01005 Vitoria-Gasteiz

**MAKETATZAILEA ETA
KOORDINATZAILEA:** Ana Rincón
DATA: Uztaila, 1999
ALE ZENBAKIA: 500
DESKRIBATZAILEAK: Berdintasunerako politikak, simposioak
IRUDI DISEINUA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
ILUSTRATZAILEA: M^o José Gamboa
FOTOMEKANIKA: Esda Fotocomposición. Hurtado de Amézaga, 27. 48.008 Bilbao
INPRIMAKETA: Industrias Gráficas Marcal, S.A. Enrique Eguren, 3. 48.012. Bilbao
ISBN (Lan osoa): 84-87595-75-8
ISBN (I. Tomoa): 84-87595-76-6
LEGEA GORDAILUA: BI-1752-99

GENEROARI ETA EKINTZA POSITIBOKO POLITIKEI BURUZKO NAZIOARTEKO II.BATZARRAREN EGITARUA

1998KO EKAINAREN 10, 11, 12A
Miramar Jauregia, Donostia-San Sebastián

Ekainak 10

Helburua Ekintza Positiborako politika publikoen erreferentzi esparrua ezartzea.

Goizeko saioa
09,00-09,30o. Dokumentazioaren banaketa.

09,30-10,00o. Hasiera
José Antonio Ardanza Garro jn. txit garaia
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
Txaro Arteaga Ansa and. txit prestua
Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

Koordinatzailea:
Itziar Fernandez Mendizabal and. txit prestua
Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

10,00-11,00o. **"Politika publikoen nazioarteko ikuspegia, Pekingo Deklarazioaren eta Ekintza Plataformaren esparruan"**
Gertrude Mongella andrea
Emakumeei buruzko Munduko IV. Batzarreko idazkari nagusia.
Kristen Timothy andrea
ONUko Emakumearen Aurrerapenerako Saileko zuzendari atxikia.

Elkarrizketa

11,00-11,30o. Atsedenaldia

11,30-13,00o. **"Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako politikak Europan. Filosofia eta Helburuak".**
Olöf Olafsdottir andrea
Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Batzorde Zuzentzailearen idazkari nagusia. Europako Kontseilua.
Soledad Blanco Mangudo andrea
Europako Batzordeko V. Zuzendaritza Nagusiaren ordezkaria.

Elkarrizketa

- 13,00-14,30o. **“Esparru Juridikoa: Aplikagarritasun prozedurak Ekintza Positiboarekin lotuta”**
- Eliane Vogel-Polsky andrea
Europako Kontseiluko eta Europako Batzordeko aditua. Bruselako Unibertsitate Librea.
- Javier Balza Aguilera jauna
Araubide Juridikoko idazkaria. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetza.
- Elkarrizketa
- Arratsaldeko saioa
- Koordinatzailea:
M^a Jesús Conde Zabala and. txit prestua
Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Landiketzaren zuzendaria. Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- 15,30-17,00o. **“Esparru Ekonomikoa: Europako Batasuna, Maastricht-eko Ituna, Amsterdam-eko Itunaren aldaketak”**
- M^a José Aubet Semmler andrea
“Colectivo de Mujeres Divergentes”. Bartzelona
- M^a Carmen Gallastegi Zulaika andrea
Azterketa Ekonomikoaren Oinarriak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Elkarrizketa
- 17,00-18,30o. **“Baloreen bilakaera Berdintasunari dagokionez. Europar Hiritartasuna”.**
- Marysa Navarro Aranguren andrea
Dostmouth-eko Unibertsitatea. Estatu Batuak.
- Edurne Uriarte Bengoetxea andrea
Politika eta Administrazio Zientziak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Elkarrizketa
- 20,00o. Harrera Donostiako Udaletxean. Poesia emanaldia.

Ekainak 11

Helburua Esparru bakoitzeko politika publikoen eskuhartze estrategiak eta gaur egungo joerak aztertzea, nazio desberdinetako esperientziak ebaluatuz.

Goizeko saioa Aldi bereko panelak

09,00-11,30o.

Esparru Juridikoa

Koordinatzailea:

Elisabete Bizkarralegorra Otazua andrea

Abokatua. Bilboko Udala.

Txosten egileak:

Mertxe Agundez Basterra andrea

Arartekoaren ondokoa.

Felipe Gómez Isa jauna

"Pedro Arrupe" Giza Eskubideen Institutua. Deustuko Unibertsitatea.

M^o Isabel Rofes i Pujol andrea

Europako Elkarretetako Justizi Auzitegia.

Hezkuntza

Koordinatzailea:

M^o José Urruzola Zabalza andrea

Hezkidetzako aholkularia. Deustuko PAT.

Txosten egileak:

Georgia Henningsen andrea

Europako Batzordeko XXII. Zuzendaritza Nagusiko ordezkaria.

Begoña Salas García andrea

Hezkidetzan eta irakasleen prestakuntzan aditua.

Osasuna

Koordinatzailea:

Garbiñe Sarriugarte Irigoien andrea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Txosten egileak:

Elizabeth Lagerlöf andrea

Lanaren bidezko Osasun arloko Hezkuntza eta Prestakuntzan aurreratzeko Europako Iparraldeko Institutuko zuzendaria. Finlandia.

M^o Luz Esteban Galarza andrea

Gizarte Lana Saila. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

11,30-12,00o. Atsedena

12,00-14,30o.

Lan Merkatua

Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren banaketa

Koordinatzailea:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Txosten egileak:

Socorro Álvarez Fernández andrea

Enplegu arduradura. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea.

Arantza Rodríguez Álvarez andrea

Ekonomia Aplikatua Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Komunikabideak eta Publizitatea

Koordinatzailea:

Arantza Zugasti Arizmendi andrea

Kazetaria eta generoaren arloan aditua.

Txosten egileak:

Natividad Abril Vargas andrea

Kazetaritza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Blanca Muñoz López andrea

Humanitateak, Politika Zientziak eta Soziologia Saila. Carlos III Unibertsitatea. Madril.

Bazterketa Soziala: Mugak

Koordinatzailea:

Patxi López Cabello jauna

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Txosten egileak:

Blanca Fernández Viguera andrea

IPES (Gizarte Ikerlanak sustatzeko Institutua).

Arratsaldeko
saioa

“Adiskidetze-egintza: esparru pertsonala, familiakoa eta profesionala”

Koordinatzailea:

Begoña Arregi Gorospe andrea

Soziologia II. Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

15,30-17,00o.

“Ongizate eta Zerbitzu Soziokomunitarioen Estatua”

M^a Jesús Agirre Uribe andrea

Gizarte Ongizateko diputatua. Arabako Foru Aldundia.

“Ipar Europako herrietan behar berezidun pertsoneri zuzendutako laguntzarako zerbitzu sozio-komunitarioen egoeraren ikuspegia”

Ignasi Vila Mendiburu jauna

Gironako Unibertsitateko irakaslea. Psikologia fakultatea.

Elkarrizketa

17,00-17,30o.

Atsedena

17,30-19,00o.

“Pribatasuna etxeko korrespontsabilitaterako bidea”

Soledad Murillo de la Vega andrea

Soziologia Saila. Salamancako Unibertsitatea.

“Lan ordaindua eta ez ordaindua etorkizunean”

M^a Ángeles Durán Heras andrea

Demografia Institutua. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusia.

Elkarrizketa

Ekainak 12

Helburua	Ebaluazioa Esperientzien trukaketa Ekintza Positiborako politiken ebaluazioan: metodolo- gia, adierazleak, aplikaziorako zailtasunak, emaitzak.
Goizeko saioa	Koordinatzailea: Pilar Pérez Fuentes andrea Historia Garaikidea Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
9,30-11,30o.	"Kategoria eta erakusle sozialak" Judith Astelarra Bonomí andrea Politika Zientziak eta Soziologia Saila. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. "Esperientzia Komunitarioak" Soledad Blanco Mangudo andrea Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako unitateburua. V. Zuzendaritza Nagusiko ordezkaria. Europako Batzordea. "Esperientziak Estatuan" Concepción Dancausa Treviño andrea Emakumearen Institutuko zuzendaria. Joaquima Alemany i Roca andrea Kataluniako Emakumearen Institutuko zuzendaria. "Esperientzia Euskadin" Ana Alberdi Zubia andrea Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Azterlan, Plangintza eta Dokumentazioko arduraduna. Maite Erro Jauregi andrea Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Soziala Saila.
11,30-12o.	Elkarrizketa
12-12,30o.	Atsedena

Helburua Emakumeen presentzia erabaki hartzeko unean, partaidetza politikoan, lobby-en bidez eta gizarte mugimenduetan.

“Erabaki hartzeko unetan emakumeen sarbiderako estrategiak”

Esparru Ideologikoa

12,30-14o. Isel Rivero y Méndez andrea
Espainian ONUk duen Informazio Zentroko zuzendaria.
Robin Evonne Morgan andrea
Nazioarteko aholkularia genero gaietan.

Elkarrizketa

Arratsaldeko
Saioa

Esparru Instituzionala

15-17,30o. Francisca Bennasar Tous andrea
Europako Parlamentuko Emakumeen Eskubideen Batzordeko lehendakariordea.
Cristina Alberdi Alonso andrea
Diputatua eta Gizarte Gaietarako ministro ohia.
Talde parlamentarioen ordezkariak. Eusko Legabiltzarra:
Belén Greaves andrea. PNV
Teresa Rodríguez Barahona andrea. PSEE
Katty Gutiérrez andrea. IU-EB
María Carrera andrea. EA

Gizarte mugimenduak

17,30-18,30o. M^a Ángeles Ruiz-Tagle Morales andrea
Emakumeen europar Lobby-aren espainiar lehendakaria.
Nieves Pérez Alonso andrea
Euskadiko Emakumeen Elkarteen Batzorde Aholku-emailearen ordezkaria.

18,30o. Amaiera
M^a Carmen Garmendia and. txit prestua
Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta Kultura Sailburua.

AURKIBIDEA

INAUGURAZIOA	15
José Antonio Ardanza Garro	17
POLITIKA PUBLIKOEN NAZIOARTEKO IKUSPEGIA, PEKINGO DEKLARAZIOAREN ETA EKINTZA PLATAFORMAREN ESPARRUAN	21
Gertrude Mongella	23
Kristen Timothy	25
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO POLITIKAK EUROPAN. FILOSOFIA ETA HELBURUAK	31
Olöf Olafsdottir	33
Soledad Blanco Mangudo	39
ESPARRU JURIDIKOA: APLIKAGARRITASUN PROZEDURAK EKINTZA POSITIBOAREKIN LOTUTA	47
Eliane Vogel-Polsky	49
Javier Balza Aguilera	58
ESPARRU EKONOMIKOA: EUROPAKO BATASUNA, MAASTRICHT-EKO ITUNA, AMSTERDAM-EKO ITUNAREN ALDAKETAK	69
M ^a José Aubet Semmler	71
M ^a Carmen Gallastegi Zulaika	80
BALOREEN BILAKAERA BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ. EUROPAR HIRITARTASUNA	91
Edurne Uriarte Bengoetxea	93
ADISKIDETZE-EGINTZA: ESPARRU PERTSONALA, FAMILIAKOA ETA PROFESIONALA	109
— ONGIZATE ETA ZERBITZU SOZIOKOMUNITARIOEN ESTATUA	
M ^a Jesús Agirre Uribe	111

—	PRIBATASUNA ETXEKO KORRESPONSABILITATERAKO BIDEA	
	Soledad Murillo de la Vega	117
—	LAN ORDAINDUA ETA EZ ORDAINDUA ETORKIZUNEAN	
	M ^o Ángeles Durán Heras	127
	EBALUAZIOA	143
—	ESPERIENTZIAK ESTATUAN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN	
	Judith Astelarra Bonomí	145
	Soledad Blanco Mangudo	157
	Concepción Dancausa Treviño	164
	Joaquima Alemany i Roca	169
	Ana Alberdi Zubia, Maite Erro Jauregi	174
	ERABAKI HARTZEKO UNETAN EMAKUMEEN SARBIDERAKO ESTRATEGIAK ..	195
—	ESPARRU IDEOLOGIKOA	
	Isel Rivero y Méndez	197
	Robin Evonne Morgan	201
—	GIZARTE MUGIMENDUAK	
	M ^o Ángeles Ruiz-Tagle Morales	207
	Nieves Pérez Alonso	216

**JOSÉ ANTONIO ARDANZA
GARRO**

**Eusko Jaurlaritzako
lehendakaria**

Inaugurazioa

Euskal Herrira etorri zareten guztioi ongi etorria ematearekin batera, esan behar dizuet benetan atsegina zaidala, urteak pasa eta gero, gizon eta emakumeak eta aukera berdintasunari buruzko bigarren Mundubiltzarra honi hasera ematea. Gogoan dut, Ekintza Positiboen inguruan burutu zen Lehenengo Biltzarra egin zenean, Gasteizen duela bederatzi urte, nolako ilusio eta interesarekin entzuten genituen han esaten zirenak.

Garai haietan, Gobernu honek berdintasunaren bidea jorratzeko asmotan apostu tinkoa egin zuen Erakunde bat eraiki (gaur Emakunde dena) eta Ekintza Positiboen Plangintzak martxan jarri. Gizarte honek eskatzen zigun aldarrikapen bati erantzuna emateaz aparte, garbi genuen Administrazioaren inplikazioa beharrezkoa zela, gizaldiz gizaldi jarraipena izan duen diskriminazio honi konponbidea emateko. Demokraziaren funtse berean dagoen zeregina genuen eta dugu helburutzat, hau da, gizon eta emakumeak gizartearen eraikuntzan partehartze parekatua. Tango famatu baten bertsoa erabiliz, urteak, Emakunderen kasuan hamarkada hau, ez da alperrik pasa eta esan daiteke Erakunde honek bultzatuta, gogor eta gogoz egin duela lan Administrazio honek aukera berdintasunean aurrera pausuk emateko. Baina orainartekoa azpimarratzekoa bada ere, hasera haseratik bagenekien eskuartean hartutako lana ez zela bi egunetako gauza. Urteak eta behar bada belaunaldiak pasa beharko dira gure asmo guztiak betetzeko baina gure eskutan dagoen heinean, beharrezkoak diren aldaketak azkartzen saiatuko gara.

Guzti hau kontutan izanik, oso interesgarritzat ikusten ditut gaur hastera doan Batzar hau bezalako lan saioak, aukera paregabeak baitira, beste herrialdeetan gauzatzen diren iniziatibak ezagutu eta amankomunean burutu daitezten estrategiak aurrera eramateko.

Izan ere, gero eta harreman estuagoak dituen mundu honetan, non gizarte solidario eta demokratikoago bat lortzearren hainbat arlotan adostasunera iritsi baitira, Munduko Biltzar hau bezalako ekimenak, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren inguruan politika publikoetan izaten ari diren aurrerapenak bateratu nahi dituztenak, behar-beharrezkoak dira. Are gehiago, esango nuke ezinbestekoak direla, zeren eta milurte honen bukaeraren ezaugarrietako bat zera da, mugarik ez izatea, herri bakoitzak, bere nortasunaren ezaugarrietan oinarriturik, komunikazio eta harremanetarako bide malguak ezar ditzakeela, etorkizuneko gizarteak elkarrekin berdintasunean bizi daitezten.

Esan genezake hainbat aldiz aipatzen den globalizazioaren abantailarik handienetako bat horixe dela, eta globalizazio horrek inkognita batzuk baldin baditu ere beste esparru batzuetan, bide ematen du, egun hauetan jorratuko den gaia bezalakoetan, esperientziak elkarrekin trukatzeko eta batez ere une honetako estrategiarik eraginkorrenak ezagutzeko, beste hitz batean esanaz emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunean aurrera bidean jarriko gaituzten "praktika on horiek" ezagutzeko. Biltzar honen programa hain osotua eta partaideen jatorri hain desberdina eta anitza ikusirik, ziur nago balio handiko aportazioak egingo direla helburu honen alde lanean jarraitzeko.

Puntu honetan on litzateke oroitaraztea, gainera, Biltzar honetan jarri den xedea, esperientziak elkarrekin trukatzearrena, alegia, lor daitekeela, kontuan hartzen baldin bada sexuan arrazoituriko

diskriminazioa munduko emakume guztien arazoa dela, kultura eta gizarte mota guztietan gertatzen dena. Horregatixe hagitz interesgarri iruditu zaigu emakumeen errealitate desberdinak eza-gutzeko halako sare batzuk ezartzea, batzuen eta besteen proiektuak trukatzeko eta, egoera batzuei, beste batzuk baino larriagoak diren neurrian, era guztietako laguntzak emateko.

Eta hain zuzen ere, hauxe da hasierako ekitaldi honetan adierazi nahi nukeen alderdietako bat, bada, Euskal Autonomia Erkidegoa gure erreferentzi eremua izan arren, kanpoko errealitatea ez zaigu arrotz egiten. Horrela gure herrialdean jorratzen ari diren Ekintza Positiborako Planekin batera, gure Gobernu apostu tinkoa egiten ari da garapen bidean diren herrialdeekiko elkartasunaren alde, eta hori gorpuzten ari da emakumeei zuzendutako lankidetzako proiektu konkretu batzuetan, beren gaitasuna hobetzeko eta errealizazio pertsonala lortzeko aukerak izan ditzaten.

Aukera berdintasunean aurrera egiteko estrategiei buruzko eztabaidan funtsezkoa da gai honen dimentsio politikoa, arlo honetan ematen diren eskuhartze asko argitzen baititu. Dimentsio politiko horren arabera, gizarte eta gobernu desberdinek bere egin dute faktore batzuen gainean lan egin beharra, ohartu direlako faktore horiek direla medio balore batzuk, gure eguneko antolaketa soziala erakarri dutenak gaurdaino iraun dutela, eta antolaketa sozial horretan emakume eta gizonen artean eginkizunen banaketa jakin bat dago, arrunt estereotipatua, gaur egun ere.

Ez da batere harritzekoa emakumeek boterean, lanean eta, azken buruan, autonomia pertsonalean, mailarik handienak, hala ekonomiaren aldetik nola gizarte eta kulturaren aldetik aurreratuenak diren herrialdeetan lortu izana. Herrialde horietako gobernuak gogor egin dute bide horretatik aurrera egiteko, oraindik gelditzen diren oztopoak kentzen; eta gizarte horietan ulertu dute garapen ahalmena zinez murrizturik gelditzen dela populazioaren erdiaren aportazioa eta lana baztertzen baldin bada.

Hain zuzen ere, horixe da eraiki nahi dugun herrialdea eta helburu horren aldeko apostua gogoz egin dugu. Horregatik, duela hamar urte Emakumearen Euskal Erakundea/Emakunde abian jarri genuen, gaur egun errealitate bihurtu dena eta orain dela hamar urte bezala Erakunde honen alde nago tinko. Arlo pertsonalean ezezik baita instituzionalean ere, izan ere, urte hauetan zehar lehendakari izan naizeneko Gobernu guztiak inplikatu dira Emakundek prestatu dituen Ekintza Positiborako Planak aurrera eramaten. Plan horien zeregina da ekintza positiboa antolatzea, eta maiz aski Administrazioaren funtzionamendu moduak egokitu behar izan dira, bere hiru mailak (Gobernua, Aldundiak eta Udalak) beren ekintza elkarrekin batera dezaten, ahaleginak koordinatu eta gure lana eraginkorrago izan dadin.

Emakunde eratu zen ekintzak bultzatzeko eta koordinatzeko Erakunde gisa eta ez zuzenean berak burutzeko, hasieratik ikusi baitzen Euskal Administrazio osoa zeregin honetan inplikatu beharra zegoela. Horrek lan ugari sortarazi dio Erakunde honi, baina, nire iritziz, lortu dituen emaitzen frogara da ez bakarrik aukera berdintasunaren gaia, baita horretan aurrera egiteko neurriak eta estrategiak ere dagoeneko gure instituzioen agenda politikoa daudela.

Baina, ondo baino hobeto dakigu lana ez dela hor bukatzen. Hasi besterik ez gara egin eta aurrerantzean ere izango dugu lana franko gai hau lan publiko guztian agertarazteko eta gure gi-

zarte honetako eremu guztietan gora doan emakumeen partaidetzaren aurrean gertatzen ari diren aldaketen ondorioz gero eta handiagoa den eskaera honi Administrazioak erantzuna eman diezaion.

Ziur nago lan honetan biziki interesgarriak izango direla Biltzar honetan egingo diren aportazioak, eta oso-osorik segituko ez baditut ere ez dut zalantzarik arrakasta izango dutela, programan agertzen den partaideen kalitatea ikusi ondoren. Gobernu honetako lehendakaria naizen aldetik, nire eskerrona adierazi nahi nizueke, zuen lanagatik eta zuen aportazioengatik, gure lana hobetzeko baliagarri izango direlako eta datorren milurtearen aurrean estrategia berriak planteatzeko, elkartasun, berdintasun eta partaidetza handiagokoa izan dadin.

Zorion beroenak zuen lanagatik eta honekin hasiera ematen diogu Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Biltzarrari.

GERTRUDE MONGELLA

**Emakumeei buruzko Munduko
IV. Batzarreko idazkari nagusia**

KRISTEN TIMOTHY

**ONUko Emakumearen
Aurrerapenerako Saileko
zuzendari atxikia**

*Politika
publikoen
nazioarteko
ikuspegia,
Pekingo
Deklarazioaren
eta Ekintza
Plataformaren
esparruan*

Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentziak onetsitako Vienako Adierazpenaren Ekintza Programak honako hau aitortu eta berretsi zuen:

"giza eskubide guztiak pertsonari datzekizkion duintasun eta baloreetan oinarrituta daudela, eta gizakia giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen gai zentrala dela, horrenbestez haien onuradun nagusia izan beharko lukeelarik, eta era aktibo batean parte hartu eskubide eta askatasun horien hezuramitzean".

Nolanahi ere, errealitateak adierazten du emakumezkoen giza eskubideak hainbat nazioarteko konferentzia eta nazio konstituziotan hartutako egoera eta asmo idealetatik urruti daudela.

Horren arrazoia, funtsean, gure gizarteetan dagoen sexuen arteko desberdintasuna da, eta desberdintasun hori areagotu egiten da sinesmen kultural, tradizional eta erlijiosoek emakumea gizonarengandik desberdintzat hartzen dituztelako.

Sexuen arteko desberdintasuna, kasu gehienetan, emakumeentzako kalte askoren kausa da, hala nola: giza eskubideen bortxaketa, injustiziak, indarkeria, baztertze eta diskriminazioa, lan munda sartu eta bertan aukerak izateko ukapena, baita emakumeek baliabideak eskuratzekoa ere. Emakumeen eskubideak giza eskubide bezala hartuta, horien alde elkarlanean jarduteko orduan, sexuen arteko desberdintasuna arazo nagusia da.

Herralde desberdinetan eta zehazki Nazio Batuetan sexuen arteko desberdintasunari aurre egiteko eginiko ahaleginak ez dira makalak izan; esaterako, arraza diskriminazio mota guztien deuseztapenari buruzko nazioarteko Konferentziak, nazio eta nazioarteko mailako elkarte zibilen talde eta sare ugariak, GKEak eta antzeko beste taldeek erakusten dute nolako ahaleginak egin dituen gizarteak emakumearen giza eskubideak sustatzeko.

Kairoko Biztanleriaren Garapenaren aldeko Konferentziak (1995) eta Emakumearen aldeko 4. Mundu Konferentziak (Pekin) beste bulkada bat eman zioten emakumearen eskubideak giza eskubidetzat hartzeko dagoen premiari.

Ahalegin horiek guztiak gorabehera, zenbait alorretan beharrezkoak dira arreta berezia eta ekintza espezifikoak.

1. Haurren Eskubideak.
2. Neskaren Eskubideak.
3. Emakumeen aurkako indarkeria.
4. Emakumeen eskubideak demokrazian eta zuzendaritza politikoan, emakumearen botua emateko ahalmena barne.
5. Bere posizioa hobetzeko botua emateko eskubidea.
6. Kudeaketa-gatazken konponbidean emakumeak bete beharreko papera.
7. Heziketan eta politika ekonomiko, sozial eta politikoak gauzatzean emakumeak bete beharreko papera.
8. Emakumearen eskubideak herritar gisa.
9. Emakumearen eskubideak dirua edukitzeari eta jabeagoak kontrolatzeari dagokienez, hala nola lurak eta natur baliabideak.
10. Emakumearen eskubideak erabakiak hartzeko orduan bizitza publiko zein pribatuan.

Emakumearen eskubideak sustatu eta babesteko, beharrezkoa da zenbait neurri hartzea honako alor haueetan:

- Gizartearen sistema sozial, politiko eta ekonomikoen berregituratzea.
- Hezkuntza emakumearentzat eta giza eskubideei buruzko heziketa gizon zein emakumearentzat.
- Emakumea gizakitzat hartuko duen jardunbide kode multzo berri bat.
- Sexuen arteko desberdintasunaren kontzientzia duen sistema juridiko bat.
- Emakumearen partehartze handiagoa erabakiak hartzeko orduan, giza eskubideen aldeko erakunde sare indartsu bat eratuz.
- Emakumeek beren eskubideen kontzientzia hartzea.

Lehenik eta behin Emakunderi esker diezaiodan ekimen eder honengatik eta ni hemen mintzatzera gonbidatuz, Nazio Batuei erakutsi dien begiruneagatik.

1. *Aitzinsolasia - Emakumeen eskubideak legitimatzea*

Aurten, nazioarteko komunitateak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena ospatzen ari da, eta Giza Eskubideen gaineko Vienako Biltzarraren bost urtez behingo berrikuspena egiten ari da ere. Aldi berean abiatzen ari dira ere, 1995. urtean, Pekinen egin zen emakumeen gaineko Munduko Laugarren Biltzarrean erabakitako Ekintza Plataformaren 2000. urteari dagokion bost urtez behingo berrikuspena. Lortu dugunaren balantzea egin eta ekimen berriak eta dagozkien ekintzak proposatuko ditugu, halatan erdiets ditzagun, ahalegin handiz azken hogeita bost urte hauetan zehar diseinatu ditugun helburuak.

Berrogeita hamar urte baino gehiago eman dituzte Nazio Batuek (NB) bereizkeria ezaren aitzindari izaten, baina izan ere, 1979. urtea arte, hau da, nazioarte mailan emakumeen lehenengo "Eskubideen Aldarrikapena" eta Emakumeen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Hitzarmena eman arte, ez ziren batera jarri emakumei bereziki zihoazkien arau guztiak. 1979. urtean, hitzarmena sinatu zenean, gure gobernuak onartu behar ukan zuten, giza eskubideak babesteko arau unibertsalak zeudelarik ere, emakumeen aurkako bereizkeria erruz zabalduriko ohi-tura zela. Kontzientzia kolektibo berria hasi zen orduan sortzen, historian lehen aldikoz, NBek 1975.ean, Mexikoko Hirian antolatu zuten nazioarteko lehen biltzarrak bultzaturik, bai eta NBek ere urte horretan bertan abian jarri zuen Emakumearen Hamarkadaren eraginez ere; Hamarkada hau, 1985eko Nairobi-ko Biltzarrean burutu zen.

Giza eskubideen unibertsaltasuna, NBen azken garaiko biltzar orokor guztien azpian izan den gaia izan da. Halarik ere, tamalez argi zaigu guztioi, emakume eta nesken eskubide unibertsalak ez direla unibertsalki gordetzen.

Emakumeen eskubideak zabarki arbuatuak izan ohi dira, toki eta nazio eremuetaz gain, nazioarteko eremuan ere. Gure planeta honetan emakumeak dira, oraindik ere, proportzio izugarrian askoz ere gehiago, lanik ez dutenen artean, pobrezian direnen artean, eritasun kronikoren bat dutenen artean eta heziketa jasotzen ez dutenen artean.

NBen Emakumearen Hamarkadan zehar, hau da 1975etik 1985era bitartean, emakumeek munduan bizi genuen egoerari arreta handiagoz begiratzen hasi zitzaion. Ondoren, 1993.eko Vienako Giza Eskubideen Biltzarrean, emakumeen eskubideak giza eskubidetzat izan ziren izendatuak. Honekin batera, Kairo-n Biztanleria eta Garapenari buruz eta Pekin-en Genero Berdintasunari buruz egin ziren Biltzarrek ere lagundu zuten Agenda Globala erabat aldatzen.

Madeleine Albright, Estatu Batuetako Kanpo Arazoetarako Ministroak esan zuen bezala, emakumeen egoera hobetzea ez da soilik moralezko agindua, baizik eta egin behar den zentzuzko eta bidezko gauza.

NBen egoera ezin hobetik ikusirik, hau da, beti emakumeen abantzamenduaren alde agertzen eta laguntzen saiatu den erakunde honen ikuspuntutik ikusita, mende honetan askatu den indar handiena munduko emakumeen indarra da. Emakumeen aitzindaritzaren eremu pribatutik publikora hedatzen joan da. Aldaketa ia-ia iraultzaile honen seinale nabariena tokiko eremuan eman da eta mantsotxo joan da, aldiz, emakumeak goi mailako zuzendaritza eta botere politikoko lekuetan sartzen saiatu direnean.

Agenda global aldakorrak gaur egun emakumeak legearen aitzinean eta praktikan ere berdin tratatuak izan daitezela eskatzen du. Mendetako bereizkeria zuzentzeko baiezte eta berreste ekin-tzak eskatzen ditu. Kulturak ezarritako portaerak eta emakumeak bigarren mailako zereginetan mantendu dituzten, sexuei loturiko zenbait jarrerak aldatzea eskatzen du. Berdintasuneko eta bereizkeriak ez egiteko arauak ezartzen saiatzen ari da, hala bizitza pribatuaren eremuan nola publikoaren ere.

Viena-n argi eta garbi agertu ziren generoari zuzenki loturiko giza eskubideen urraketak, hauen artean emakumeen aurkako indarkeria sartuz, eta onartu zen emakumeen giza eskubideak serio-ski hartu behar direla kontuan giza eskubideen gaineko eztabaida orotan, direla eskubide ekonomikoak, direla sozialak, edo kulturalak, zibilak edota politikoak ere.

Kairo-n berriz, emakumeek osasunerako eta ugalketa moduak aukeratzeko duten eskubidea onartu zen. Pekin-en erabat berretsi ziren emakumeen eskubideak, giza eskubide eta funtsezko askatasunen parte besterenezintzat.

2.

Emakumeak gaitzeko eta berdintasunerako agenda globalean eginitako aldaketaren eragina ebaluatzea

Emakumeen eskubideen aldeko nazioarteko borrokan une gogoangarriak izan diren biltzarren oiartzunetik bizirik diraute oraindik. Gu, NBen Emakumeen abantzamendurako Sailean, arduratu egiten gara, biltzar horiek eguneroko bizitzan duten eragina aztertzeaz. Gaur egun, Nairobi-ko 2000. urteko Estrategiak aztertze prestaketa lanetan ari gara, bai eta Pekin-go Ekintzarako Plataforma aztertze prestaketa ere. Biltzar hau, NBen Biltzar Nagusiaren saio berezi moduan emanen da, New York-en, 2000. urteko ekainaren 5etik 9ra.

Emakumeen munduko mugimenduaren tresna indartsuenetakoa izan da emakumeen eta nesken egoeraren gaineko informazio zehatza biltzeko egin den indarra. Datuak behar beharrezkoak baitzaizkigu, neurriak hartu aurretik. Sexuaren arabera bereizirik datuak biltzeak, bai Afrika eta Asiako herriska ñiminoenetan ere bildu direlarik, emakumeak eta neskatxak argira atera ditu eta

erakutsi du, argi eta garbi erakutsi ere, zein egoera desberdinetan bizi diren gizonak eta emakumeak eta zein funtsezkoak diren desberdintasun horiek. Gaur egun informazio hori Interneten bidez zabal dezakegu eta gero, eskura ditugun ohiko bideetatik jarrai daiteke zabaltzen.

Emakumeak aspaldidanik ari dira informazioa bide alternatiboen bitartez zabaltzen. Gure Sailak, UNIFEM eta INSTRAW-ekin batera, lehiatila bateratu bat ireki du munduko sarean emakumeen gaineko informazioa emateko; norabidearen izena "Womenwatch" da. Erabil ezazue, arren, nazio mailan nola nazioartekoan gertatzen diren gauzen gainean izan zaitezten. Adibide baterako esan diezaiuzket CEDAW hitzarmeneko Kide diren Estatuaren Ekintza Planak ematen ari garela "on-line". Hainbat eta hainbat emakumek honako hau beste modurik ez dute informazio hori eskuratzeko. Madrilgo Emakumearen Institutuak jakinarazi digu NBen Womenwatch proiektura lotuko dela eta hasi berria da sarean duen norabidea erabiltzen.

Informazioa hobetzeak argi uzten digu, zehatz asko utzi ere, nolako amildegi sakona eman ohi den, herrialde baten garapen ekonomikoaren maila ematerakoan Giza Garapen Maila (UNPD) hartzen bada kontuan edo generoa kontuan hartuz egiten bada. Interesgarri gerta dakizueke jakitea, Espainiaren Giza Garapenaren maila, behin generoko aldeak kontuan hartuz gero, 1997an 11. postutik 19. postura jaitsi zela. Honi gainera diezaiokegu, konparazio baterako, nola Suedia 10. postutik 3. postura igotzen den generoko desberdintasunak kontuan hartuz gero. Frantzia, berriz, bigarrenetik seigarrenera jaisten da. Giza Garapenaren Maila zenbait osagarritz osaturiko indizea da (eros ahalmena, ikasketak eta osasuna), eta generoko indizea kontuan harturik egiten denean, aldiz, adierazle hauek eta beste batzuk aztertzerakoan kontuan hartzen ditu beti emakume eta neskatxek horietara iristeko duten ahalmenaren arabera.

Badakigu ere, emakumeak gaitzeko tresna indartsuenetako bat heziketa dela. Baina halaberean erabakiorrak dira ere diruzko baliabideak eta bestelako onurak ere eskuratu eta kontrolatu ahal ukaitea, hala nola lurra, legezko eskubide eta ezagutzak, emakumeak bigarren mailan jartzen dituzten ohiko praktikatik askatuko dituen gutxieneko modernizazio maila, generoko estereotipo ezkorrak kenduz sortzen diren norbere buruarekiko konfidantza eta gizarteratzea, esate baterako testu liburuetan eta komunikabideetan eman ohi diren estereotipoak, eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea, gehienetan etxeko indarkeria izan ohi dena baina baita ere gatazka egoeretako indarkeria.

Gaitzeak esan nahi du nork bere bizitzaren kontrola eskuratzeko. Gaitzea prozesua da, hasieran emakumeen egoerari buruzko kontzientzia egoera sortzen du, dituzten eskubideak edo nola falta dituzten, bai eta dituzten aukerak erakutsiz. Maiz norbanakoei indarra emateaz gain, talde nortasuna ere ematen du eta ekintza kolektiboaren indarra erakusten. Gaitasuna lortzeko zenbait baldintza eman behar dira: nahimena eta trebetasunak garatzea, partehartzea, erabakiak hartzerakoan kontrol handiagoa: etxeko erabakiak, komunitatearenak eta gizartearenak, eta gizonekin elkartasun handiagoa lortzeko ekintzak.

Emakumeen gaitasuna sustatzeko eginiko ahalegin handien adibide ezagun asko eta asko ditugu. Horien artean aipa ditzadan BRAC edo Bangladesh-eko Landako Abantzamendurako Komitea, Grameen Bankua, Asiako Hego ekialdeko Emakumeen Elkarte, garapen bidean diren herrialde-

etakoak aipatzearren. Estatu Batuetan, Emily-ren zerrendak lagundu du kargu publikotarako hautagai ziren emakumeentzako baliabideak martxan jartzen.

Ugalketa eskubideek, izan ere denbora luzez emakumeak zapaltzeko aitzakia izan direnak, Pekin-en eztabaida gogorrek piztu zituzten, biltzar ofizialean ziren 185 gobernu eta 2.550 inguru GKEen artean. Azkenerako, emakumeen osasunari doakionean lortu ziren akordioak dira deigarrietakoak. Maiz entzuten dugu 96. parrafoa aipatzen dela, aipatu ere, honela dioelarik: "Emakumeen giza eskubideek barne hartzen dute beraiek dutela bere sexualitatea eta ugalketako osasunari doakionean ardua eta kontrola eta libreki erabaki dezaketela gai hauetaz, inolako derigortze, bereizkeria edota indarkeriarik jasan gabe". Ez Pekin-ek eta ez Kairo-k ere, ez dute abortua onartzen, baina Pekin-en erabaki zen, legearen aurkako abortuak jasaten dituzten emakumeak zigortzen dituzten legeak berrikusi behar direla.

Gutako askok geure sexualitatea kontrolatu eta erabakitzeko eskubidea dagoeneko eginiko gauzatat har dezakegu. Alabaina Estatu Batuetan bertan ere eskubide horiek ahulak dira eta zalantzan jartzen ari dira. Munduko beste zenbait lekutan, sexu organuen ebaketak bezalako praktikek osasunerako dituzten kalteak gero eta ardua handiagoa sortzen ari dira.

Pekin-go hitzarmenak eguneroko bizitzan dituen eragin praktikoak herrialde bakoitzaren barruan garatu behar dira, kontuan harturik bertan diren erlijio eta gizartearen usteek nola ikusten dituzten ezkontzaz kanpoko harremanak eta kontrazepzioari buruz eta abortuari buruz dauden jarrerak. Zalantzarik gabekoa da, halere, honen gaian hartu diren erabakiak oso esanguratsuak direla, emakumeek bizitzeko nola ugaltzeko dituzten aukerak erabakitzerakoan.

NBen Emakumeen Egoerari buruzko Batzordeak 1999an eginen duen hurrengo biltzarraldian aztertuko ditu, Ekintza Plataformaren osasun arloa aurrera eramatearekin lortu diren hobekuntzak. Zenbait gertakizun garrantzizko aztertuko dira orduan.

Ugalketako osasunaren arloan eta intereseko gainerako arlo kritikoetan, NBen Emakumeen Abantzamendurako Sailak, Emakumeen Egoerari buruzko Batzordeko 45 batzordekideei eta Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komiteko 23 adituei lagunduz, informazioa biltzen du, jakin dezaten zein neurri eta programek ongi martxatu duten edo eragina ukan duten, Plataformaren xedapenak aurrera eramaterakoan.

2000. urteko Berrikuspenerako prestaketetan ere eskatuko dugu jakitera eman diezagutela zein konpromisu berri edo berrituak hartzeko prest dauden, hala gobernuak nola nazioarteko komunitatea, milurte berrian sartzera goazen une honetan. Ezin onar dezakegu beste milurteko bat pasatzea emakumeen gaitasuna eta berdintasuna lortu arte!

Emakumeentzako gizarte eta ekonomi eskubideak lortzea

Emakumeen eskubideetaz mintzatzerakoan sortu ohi den eztabaida izaten da hauek gizonezkoen eskubide berberak ukan beharko lituzketela. Alabaina, emakumeak, funtsezko giza eskubideen araudian, gizonaren parean eskubideen titularra izatea esanahi eskasekoa zaie emakume askori, zeren eta eskubide horiek gizonen bizitzaren arabera definitu baitira, gizonena eta gizonen moduan gizarteraturiko emakume urrien bizitzaren arabera.

Emakume gehienek bizitzak esaten digu emakumeek agian oso bestelako eskubideen multzoa nahiko luketeela eskatu —ausaz familiaren barnean autonomoak izateko eskubidea, generoan oinarrituriko indarkeriaz libre izateko eskubidea, ugalketa ziur eta osasuntsurako eskubidea, bere burua eta bere familia mantentzeko adina baliabideak edukitzeko eskubidea, aterpe eta janari egokiak edukitzeko eskubidea. Emakume gehienentzat, mamia lukeen eskubide sistemak beharko luke gizonekiko berdintasuna bermatu bi sexuei doazkien bizitza eremutan eta gizarte zuzentasuna bultzatu beharko luke, hala bizitza pribatuan nola publikoan ere. Gizadi osoaren interesak asetzeko helburua luke, baina emakumeen ikuspuntua kontuan hartuz betiere.

Gaur egun giza eskubideen gaineko araudiak bermatzen dituen eskubideen definizioak, gizonen mundu bateko gizonen bizitzari erantzuten dio, alde batera utziz, neurri handi batean, emakumeek jasaten duten indarkeria. Esate baterako, torturetatik libre izateko eskubideak, giza eskubideen gaineko nazioarteko legeriak definitzen duen moduan, ez du famili barneko indarkeria hartzen, indarkeria hau zenbait herrialdeetako kulturaren onargarria da, beste zenbaitetan barkatu egiten da eta ez da kontuan hartzen edo behintzat ez behar bezala, legezko sistema askotan. Areago, definizioak sexu erasoak bazter uzteko balio du, izan ere, gai hau zenbait herrialdek ez baitute onartzen legezko edota administrazio ekintzaren beharrik duen gaitzat, ez eta honakoaren biktima direnei arta berezia eman behar zaienik ere. Are eta okerrago oraindik, isildu egiten ditu, asaldura ekonomiko, zibil edo politikako garaitan edota gerra zibil edo nazioartekoetan emakumeen aurka gero eta gehiago zuzentzen diren indarkeriazko ekintzak, itxuraz bakanka ematen direnak baina maiz sistematikoak direnak.

Emakumeen eskubideen urraketa gehienak bizitzaren eremu pribatuetan eman ohi dira eta norbanako pribatuek egiten dituzte eta halatan ez dira Estatuaren erantzukizuntzat hartzen. Alabaina, Estatuak bakarrik eta beraien eragileek urra omen dezakete nazioarteko legea. Etxe barruko indarkeria, lan eremuan emakumeek jasaten duten sexu erasoak, emakumezkoen salerosketak eta ugalketa aukerak ez ematea, emakumeek jasaten dituzten giza eskubideen urraketa dira. Urraketa hauek ezin egotz dakizkioke Estuari zuzen zuzenean, nahiz eta alde askotatik Estatuak mantentzen duten kulturazko, gizarteko edota legezko sistemak urraketa horiek onartu egiten dituen edo behintzat ez ditu hartzen, urraketa horiek gerta ez daitezela hartu beharko lituzkeen neurri positiboak.

Famili barruko bereizkeria ez da Estatuaren eta bere eragileen bereizkeria, baina hemen ere Estatuak mantentzeko, eremu honetan berdintasuna ukatzen duen kultur ingurunea.

Emakumeen interesak baztertuak izan dira giza eskubideen gaineko nazioarteko legerian, eskubide zibil eta politikoei eman baitzaie lehentasuna. Gizarte, ekonomi eta kultur eskubideak bigarren mailan utziak izan dira nazioartekoan eta horren ondorioz emakumeen eguneroko bizitzaren arazo larriak baztertuak izan dira, hala nola egitura egokitzeko politikak edo ingurugiroaren degradazioa. Areago oraindik, giza eskubideen alorrean indarra duten nazioarteko zirkuluetan ez da, ahal bezainbeste hartu kontuan, emakumei funtsezko eskubide zibil eta politikoak eskatzea eragozten dien menpekotasun ekonomiko, sozial eta kulturala.

Badira halere, nazioarteko eremuan, itxaropena sortzen duten gertakizunak. CEDAW delakoak bateratu egin nahi ditu eskubide zibil eta politikoak, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturekin. Irlandako Lehendakari izandako Mary Robinson, Giza Eskubideetarako NBen Mandatari Goren izendatu izanak sendotu egin du emakumeen eskubideen alde erakunde horrek zuen jarrera. Halaberean, Angela King, Sexuen berdintasunerako eta Emakumearen Gaietarako NBen Idazkari Nagusiaren Aholkulari Berezi izendatzeak garrantzi handiagoa eman die emakumeen eskubideei doazkien gaiei, hala nazioartekoan nola NBen barnean bertan.

CEDAW pean diren eskubideen urraketak salatzeko, norbanakoen eskariak egiteko eskubidearen gaineko hautazko proposamena onartzeko akordio batera iristeko egiten ari diren ahaleginak ere itxaropen sortzaile dira, akordio honek modu nabarian indartuko bailuke Hitzarmenaren ikuskipena eta Estatu Kideek, emakumeen eskubideak babesteko dituzten betebeharrak betetzea hobe ziurtatuko.

Datorkigun mende berriari eta 2000. urteko Pekin-go berrikuskapenari aurrea harturik, Guk, NBen, gure indarrak batuko ditugu agenda globalean sartu beharko diren gai eta ekimen berrien gainean, halatan Pekin-go funtsezko erabakiak aurrera eraman daitezkeen eta munduko emakumeek nabari dezaten, egin berri diren munduko biltzarren eragina. Baldin eta emakumeen mugimenduak jarraitzen badu orain arte bezala, bere arazoak nazioarteko komunitatearen aurrean arrakastaz aurkezten, emakumeen eskubideak datorren mendean izan daitezkeenaren aurreikuspenak ustegabeko emaitzak erakutsi ditzake, nahiz eta aldi berean erakutsi ere, oraindik bide luzea dugula egiteko, gure planeta honetako leku askotako emakumeek lortu arte bere eskubideak bete betean baliatu ahal ukaitea.

OLÖF OLAFSDOTTIR

**Emakumeen eta gizonen
arteko Berdintasunerako
Batzorde Zuzentzailearen
idazkari nagusia. Europako
Kontseilua**

SOLEDAD BLANCO MANGUDO

**Europako Batzordeko V.
Zuzendaritza Nagusiaren
ordezkaria**

Emakumeen

eta gizonen

arteko

berdintasunerako

politikak

Europar.

Filosofia eta

helburuak

Jaun Andreoki:

Pozik naukazue hemen Donostian, eta Emakunderi eskertu nahi nioke, Europako Kontseiluak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari doakionean daraman politikaren gainean mintzatzera etor nadin egin didan gonbitea.

Zehatzago esanez, ene Erakundeak gai honi buruz dituen filosofia eta helburuak aurkez ditzazuedan eskatu didate. Helburua hitz gutxitan definitu beharko banu, esanen nuke ziur aski helburua dela gizon eta emakumeen giza eskubideak bete betean begiratuko dituen eta praktikan jarriko dituen Europa osatzea. Gizonek eta emakumeek eskubide berberak baliatu ahalko dituzteneko Europa, non gizonak eta emakumeak berdin hartuak izanen diren, berdin gaituak eta berdin hartuko duten parte bizitza publiko eta pribatuko alor orotan.

Europako Kontseiluaren emakume eta gizonen arteko berdintasunaren gaineko lanaren oinarrian beti izan den filosofiari doakionean, uste dut bere puntu garrantzitsuena izan dela arazoa argi azaldu duela, giza eskubideen gaineko eztabaidaren barruan. Jadanik 1988. urtean, Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena definitu zuen, giza eskubideen eta benetako demokraziaren sustapen eta babesaren barruan zen ataltzat. Hauexek ditugu Erakundearen funtsezko baloreak, Estatu kide guztiek —gaur egun 40tik gora— bere egin behar dituztenak. Honek esan nahi du gizon eta emakumeen arteko berdintasuna serioki hartu behar dela kontuan eta tratatu behar dela gizarteak aurre egin beharreko erronka garrantzitsuenetako bat bezala, halaxe da eta, bai gizartea ezegonkor den garai hauetan ere, zeinetan Europa aldaketa sakonak jasaten ari baita politika eta erakundeen mailan eta ekonomian eta gizartean arazo larriak agertzen baitira.

Aipatu beharko nizueke ere, zein den berdintasunerako jardunen esparrua. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Zuzendaritza Komitea (CDEG) da, Europako Kontseiluak gai honetan daraman politikaren definitzaile eta kontrolatzailea. Hainbat gaietan lanean ari diren eta mintegiak, lantegiak eta hitzaldiak antolatzen dituzten Adituen Taldeak ditu. Batez ere gobernuetako adituen eta espezialisten artean ideiak azaldu eta trukatzeko eztabaidalekua da. Alabaina lan egin dezake ere, eta hala egin ere egiten du, gero eta gehiago, beren aldetik Estatu kide desberdinen arteko berdintasunaren alde lanean ari diren GKEekin zuzenean.

Europako Kontseiluaren Legebiltzarrak arestian sortu du aukera berdintasunerako bere Batzorde berea. Pentsa daiteke batzorde honek lagundu egingen diola Komiteari bere lanetan, Europar Parlamentuko Emakumeen Eskubideetako Batzordeak Europar Batzordeari lagundu dion bezala.

Aipatu nahiko nuke ere, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gero eta gehiago sartzen joan dela, Europako Kontseiluak Estatu kideentzako antolatzen dituen lankidetzeta programa berezietan. Programa hauei jarraituz, berdintasunari loturiko Informazio Mintegiak antolatzen dira herrialde desberdinetan, bai eta aukera berdintasunaren gaineko lege zirriborroei buruzko azterketa eta aholkularitza teknikoko bisitak ere. Programa hauek oso ezagunak egin dira eta lagundu dute nazio mailan martxan jartzen Emakumeen gaineko Pekin-go Munduko Laugarren Biltzarrean onarturiko Ekintza Plataforma.

Biltzar garrantzitsu honen gaia generoa eta ekintza positiboko ekintzak dugu. Galde genezake, beraz, ea Europako Kontseiluaren legezko tresnetakoren batek aukera ematen ote duen edota bulzatu egiten duen politika horiek egiteko.

Ez da erraz ulertzen, Giza Eskubideetarako tresna nagusia den Giza Eskubideen gaineko Europar Hitzarmena, bere Giza Eskubideetako Auzitegi eta Batzordea eta guzti, horren eragin gutxikoa gertatu izana emakumeen eskubideen alde. Sinesgaitz gertatzen bada ere, Giza Eskubideetako Auzitegiak ikusi dituen berdintasunaren gaineko auzi gehienak gizonen eskariz iritsi ziren Auzitegira eta gizonaren eskubideei buruzkoak ziren. Badirudi hala gertatzen dela, Giza Eskubideen gaineko Europar Hitzarmenean ez delako berdintasuneko klausula aske, menpekotasunik gabekoa. Sexu bereizkeria zeha daiteke, beraz, soilik Hitzarmenak edota honen proposamen erantsietako batek bermatzen dituzten eskubide eta askatasunetakoren bat edo batzuk urratzeari loturik badago. Azken aldian, auzi hauetako asko, umeen zaintzari buruzkoak ziren.

Azken urteotan Europar Kontseilua saiatu da aztertzen nola hobetu daitekeen emakumeen eskubideen babesa Giza Eskubideetako Hitzarmenaren bitartez eta nola lekua egin ekintza positiboko politikari. Zuzendaritza Komiteak hasieran proposaturikoa, alegia gizonak eta emakumeek berdintasunerako duten funtsezko eskubide berezia onartzea, berriro proposatu da eta ez da onartua izan. Halatan bada, orain saiatzen ari dira Hitzarmenari erantsirik proposamenaren zirriborroa egiten, non bereizkeriarik ez egiteko klausula emendatua ezarriko bailitzateke. Proposamen honek arrakasta ukanez gero, Estatu kideak behartuak izan litezke, eskubideak benetakoak izan daitezkeen neurriak hartzea —ekintza positiboa— eta ez soilik bereizkeriaren aurkako babesa ematera. Estatu kideetako konstituzio gehienek onartzen dute gizon eta emakumeen arteko eskubideen berdintasuna eta esplikatzeko zaila da gaur egun kontuan ez hartzea emakumeek gizartean duten egoeran zereginean eta ekarpenetan eman diren aldaketak, 1950. urtean, Hitzarmena —gizonek— idatzi zutenetik. Mendearen amaieran egonik, indarra egin beharra dugu aldaketak eman daitezkeen. Horrez gain, oraindik ere askoz lan handiagoa egin behar dugu, Giza Eskubideen gaineko Europar Hitzarmena, generoko ikuspegi batetik modu eraginkorragoan balia dezagun, emakumeen giza eskubideak babestu eta aurrera eramanez ditagun. Giza eskubideen legetako kultura gizonen menpe izan da eta gizonentzat dago antolatua. Emakumeek parte handiagoa hartu behar dute alor honetan, aldaketak gertatuko badira. Adorea ematen du ikusteak zortzi emakume izan direla aukeratuak Giza Eskubideetako Auzitegi berrirako, zeina, Hitzarmenaren organuen berriztatze handia amaiturik, 1998ko azaroaren lehenean hasiko baita lanean. Gaur egun Auzitegian lekua duen emakume bakarrarekin erkatuz gero, aurrerapen nabaria dirudi.

Europako Gizarte Gutuna hobe erabili beharko litzateke; honako hau, Giza Eskubideen gaineko Europar Hitzarmenaren parekoa da eskubide sozial eta ekonomikoen alorrean. 1961ean sortutako gutun honen bertsio berrikusia 1996eko apirilean onartu zen eta indarrean sartuko denean —badaiteke 1998. urtea amaitu aurretik izatea— handitu egingen du emakumeak bereizkeriatik babesteko ahalmena. Gutunaren erakunde ikuskatzaileak, hau da, Aditu Askeen Komiteak esan du Estatuak behartuak direla "ez soilik emakumeak enplegu mota zenbaitetan hartuak izateko dau-

den legezko oztopoak kentzera" baizik eta "neurri positibo eta praktikoak hartzera" ere, halatan "gai honetan erabateko berdintasuna benetan ziurtatua izateko egoera sor dadin".

1995eko ekainan, Ministroen Komiteak onartu zuen Gizarte Gutunaren Proposamenak, Aditu Askeen Komiteraino irits daitezkeen kexu kolektiboen sistema bat antolatzen zuen. Aurreko astean indarrean sartu zen Proposamen honen arabera, Europako langileen erakundeek, eta bidezkoa denean patronalaren erakundeek, bai eta zenbait GKEek ere, aurkeztu ahalko dituzte kexu horiek. Proposamen honek izugarri sendotu dezake emakumeen eskubideen babesari. Ezagutzera eman behar da, beraz, eta berdintasunaren alde ari diren erakunde eta norbanakoek indarrak batu egin behar dituzte berretsia izan dadin, bai eta, indarrean sartuko denean kexuak aurkezteko dituzten aukerak baliatu ere baliatu behar dituzte.

Giza eskubideetako tresna nagusi hauez gain, Europako Kontseiluak bere esku du "lege biguneko" tresna sail handia ere; "Gomendio" izenez ezagun dira eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alorreko legeria eta nazioko politiken gaineko jarraibideak dituzte. Emakumeen giza eskubideei buruzko hiru gomendio garantzitsu ari da orain bertan prestatzen, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Zuzendaritza Komitea. Honako hauek dira gomendio horiek: 1) Aukera askatasuna ugalketa eta sexualitate gaietan; 2) Sexu esplotaziorako gizakiak salerostea galerazteko neurriak; 3) emakumeak eta neskak indarkeriaren aurka babestea. Espero dezagun gomendio horiek guztiak onartu eta erabiliko direla nazioko lege eta politikak garatzeko, bai eta gai hauen gainean Estatuaren artean lankidetzaz handiagoa izan dadin. Testu hauek, adituen taldeek eginiko lanen ondorio ditugu. Garrantzi handikoa da Estatu kideetako GKEek dokumentu eta tresna hauek ezagutzea eta emakumeen eskubideetan aurrera egiteko erabil ditzatela.

Aipatu nahiko nizuke orain, Europako Kontseiluak, berdintasunaz mintzo garenean, dituen zenbait jardun eremu, kasu berezia eginik, 1997ko urrian eginiko Estatu eta Gobernu Buruen 2. Gailurra ondoren lehentasunezko hartuak direnei.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko neurriak luzaz izan dira, eta oraindik ere hala dira, Europako Kontseiluaren lehentasuna. Jadanik 1985ean, Ministroen Komiteak aztertu zuen gai hau, Estatu kideei eginiko Gomendio batean. 1993ko urrian, Erroman egin zen gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko Europako Ministroen Biltzarrak "Europa demokratiakoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko politiken Aldarrikapena" eman zuen. Aldarrikapen honetan oin harturik, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Ekintza Plana idatzi da. Tresna probetxugarria da emakumeen aurkako indarkeria ezabatze lanetan ari direnentzat, neurri multzo oso bat eskaintzen baitu ikerketa, gizarte arta eta laguntza, osasun, heziketa eremutan, bai eta, jakina, lege eremuan ere.

Maizegi gertatzen da emakumeen aurkako indarkeria bizitzaren gertakizun "arruntzat" hartzen dela. Gizarte orotan ematen da, gizarte maila orotan, nahiz eta langabeziak, pobreziak eta zen-

baitetan bazterketa ekartzen dituzten arazo ekonomikoek areagotu egin dezaketen ere. Hala gertatzen da sexuz esplotatzeko salerosten diren emakumeen kasuan; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria bereziki basa eta nardagarria den hau krimen antolatuaeren parte da eta azkar baino azkarrago garatzen ari da europar kontinentean.

Aurten, Europako Kontseiluak arta berezia eskainiko dio emakumeen aurkako indarkeriari eta sexuzko esplotaziorako salerosketari aurre egiteari. 1998ko ekainaren 29tik 30era, Estrasburgon, GKEentzako mintegia egingen da. Bertan parte hartuko dutenek aztertuko dituzte GKEek alor honetan duten zeregina eta gizarte mugimendu eta gobernuen arteko elkarrekintza. Mintegi honen jarraipena irailan egingen da, komunikabideetako langileentzako gai berari buruzko lantegi bat prestatuz. Lantegi horren asmoa da komunikabideetako langileei kontura araztea komunikazioa, esklabotasun gogorreko modu berri horren aurka borrokatzeko tresna izan daitekeela.

Azkenik, Bukarest-en, azaroaren 26tik 28ra, berdintasunaren alorreko nazioko politiken gaineko Informazio Foroa izanen da, aurten etxe barruko indarkeriari buruz arituko dena. Bertan parte hartuko dutenak —adituak eta GKEetako kideak— etxe barruko indarkeriari eta dituen ondorioei aurre egiteko moduz arituko dira, biktimei laguntza eta sostengua eskaintzeko moduz, tratu txarrak egiten dituztenekin lan egiteko moduz eta etxe barruko indarkeriari aurrea hartzeko moduz.

BERDINTASUNA ETA DEMOKRAZIA

Denbora luzez Europako Kontseiluaren lehentasunezkoa izan den, eta oraindik ere hala den beste gaia berdintasuna eta demokraziarena dugu.

1997ko azaroan Istanbul-en egin zen gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko Europar Ministroen 4. Biltzarrak, "Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna demokraziarako funtsezko irizpidetzat hartzearen Aldarrikapena" eman zuen. Aldarrikapen hau laneko urte luzeetako ondorioa dugu. Parekotasuneko demokraziaren kontzeptua, orain dela hamar bat urte azaldu zen lehen aldiz Europako Kontseiluan. Parekotasuneko demokraziak duintasun berdina onartzen die gizadiaren bi kideei, gizon nola emakumei. Halatan, emakumeek, bizitzaren alderdi guztietan gizonen eskubide berdinekin parte hartzea, demokrazia ordezkatzailaeren hobetze eta garatze zeinutzat hartzen da, zuzentasunaren adierazgarri izateaz gain. Ideia hauek Istanbul-eko Adierazpenean agertzen dira, nahiz eta "parekotasun" hitza ez den aipatzen.

Izan ere, parekotasunaren kontzeptua oraindik oso eztabaidatua da eta hortik demokraziaren ikuspegi berria sortu da, generoko alderdia kontuan hartzen duelarik, orain arte inoiz hartu den baino askoz modu zabalagoan. Ene ustez, nahiz eta emakumeen presentzia, hala bizitza politikoan nola publikoan oraindik urria den (Europako Kontseiluko kide diren Estatuetako Legebiltzarretako emakumeen batezbestekoa %15aren ingurukoa da), gero eta zailagoa egiten ari zaie boterea dutenei, emakumeak erabakiguneetatik at uzteko aitzakiak aurkitzea. Bereizkeriazko jarrera eta praktiken bitartez emakumei kargu publikoetara iristeko gogoia ken dakieke, etsiarazi dakieke. Ezagun baino ezagunagoa da erakunde politikoaren egitura eta funtzionamendua eragozpen handiak direla emakumeen partehartzerako eta baldin eta aukeratuak izatea

lortzen badute, duten eragina mugatu egiten dietela. Halere, horregatik utziko al dugu jardun politikoa gizonen eskutan? Ez al lukete emakumeek saiatu beharko, erabaki guneetara kopuru handitan iristen eta aukera dutenean gizonekin elkartu eta lankidetzan aritu? Honakoa dateke, ziur aski, emakumeak denbora luzez bereiztu dituzten egiturak aldatzeko bide bakarra.

Europako Kontseiluak jarraituko du, Estatu kide guztietako emakumeentzat eta bereziki kide berrietakoentzat hain garrantzi handikoa den berdintasun eta demokraziaren gaiari kasu egiten. Estatu kide berrietan antolatzen ari diren mintegietan arrakasta handienetako gaia da, hain zuzen ere, erabakiak hartzen emakumeak gaitu eta partehartzearena.

GENEROEN NORMALKUNTZA

Aztertu nahiko nukeen azken gaia generoen normalkuntzarena da. Generoen berdintasuna sustatzeko estrategia hau ez da ongi ezagutzen, nahiz eta berorretaz luzaz mintzatzen ohi den, eta halere maiz gaizki ulertua izaten da. Horrexegatik, bada, Europako Kontseiluak generoen normalkuntzari buruzko txostena eman berri du, non ezarri baititu beronen strategiaren definizioa, mar txan jartzeko metodologia eta praktika egokietako adibideak.

Txosten hau eskatuko duenaren eskura dago eta Estatu kideei zabaltzen ari zaie; bete dezaten. Interneten aurkitu ahalko da 1998ko ekainaren 25az geroztik (www.dhdirhr.coe.fr). Txosten honek generoen normalkuntza definitzen du politika guztien antolaketa edo berrantolaketa, hobekuntza, garapen eta ebaluazio bezala, halatan, politikak prestatzeko lanetan ari diren agenteek generoen berdintasunaren ikuspegia beregana dezaten, maila eta etapa guztietan. Zehazki esateko, honek eskatzen du kontuan hartzea, hala emakumeen nola gizonen beharrak, interesak, gaitasuna eta trebetasunak, politika horiek gauzatu eta garatzeko etapa guztietan. Europako Kontseiluak, berandu gabe gauzatu nahi du estrategia hau bere egitura beretan ere. Aurreikusten ari da ere, normalkuntza gauzatzeari buruzko biltzarra antolatzea 1999ko udaberrirako, Europako Kontseiluaren 50. urteurrena horrela ospatuz.

Generoen normalkuntzak ez ditu gaur egungo berdintasuneko politikak, hala nola ekintza positiboak, ordezkatzen eta ez lituzke ere ordezkatu beharko, zeren eta politika hauek beharrezkoak baitira normalkuntzak arrakasta ukanen badu. Ekintza positiboko Espezialisten Talde batek ekin berri dio lanari, ekintza positiboko praktika egokiak izendatu eta kontzeptua definitzeko asmotan. Gauza askotaz nahiko nintzaizukeen mintzatu hemen, hala nola emakume etorkinei buruz edo sexuzko ugalketako gaietan aske aukeratzeari buruz (gai honi buruzko gomendio baterako zirriborroa idatzi da eta laster eztabaidatu eta —hala espero dugu— onartuko du Ministroen Komiteak). Denbora ia joana zait, ordea, eta normalkuntzarekin amaituko dut ene jarduna.

Normalkuntza izanen ote da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko etorkizuneko estrategia? Goizegi da oraindik, baieztapen orokorrak egiteko. Alabaina, benetako saioa dugu, ordea, berdintasunaren gaia aspaldidanik bizi duen ghetotik ateratzeko, berdintasunaren gaia gizarteko leku nagusietara ekartzeko. Normalkuntzak ekarriko du gizonek, ohiko berdintasun politikekin baino parte handiagoa hartzea berdintasuna sustatzen, eta badaiteke ere normalkuntzarekin hobeki hartzea kontuan emakume talde desberdinen interesak.

Normalkuntza, bereizkeriarik ez egiteko eta tratu berdintasuneko printzipioetaz harat doa—hauek emakumeak gizoneratzeko joera baitute—eta lagundu beharko luke erakusten generoen berdintasuna gizartearentzat oso onuragarria dela. Lagun dezake erakusten generoen berdintasuna sustatzea gizarte osoaren arazoa dela. Ikuspuntu honetatik begiratuta, arazoa ez da gehiago emakumeena soilik, “emakumeen gauza” bat, eta agertzen zaigu, ordea, gizonaen hierarkia-ko arazo bezala, gizonaen menpekotasuneko arazo, bezala eta gizarte funtsean zuzengabea sortzen duten gizonaen egitura eta arauetako arazo gisa. Gizonaen egitura eta hierarkia horiek dira, hain zuzen ere, normalkuntzaren bitartez zalantzan jarri nahi ditugunak.

Egun on jaun-andreaki:

Ohorea zait gaur egun zuekin egotea, EMAKUNDEk antolatutako Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzar honetan, Europako Batzordearen ordezkari gisa.

Lehenik, eta hala gaur egun hemen izaterik ukan ez duen Flynn Komisari jaunaren izenean nola neurean ere, zoriondu nahi dut EMAKUNDE hamar urte hauetan egin duen lan ederragatik, bai eta desiratu nahi diot ere, euskal gizartearen zerbitzurako duen zeregin horretan arrakasta handia ukan dezala.

Egitarauak dakarren gaiari heltzeko, hau da "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak Europan, Filosofia eta Helburuak." izeneko horri heltzerakoan, diot, Erromako Itunarekin hasi nahiko nuke, 1957. urtean, ondoren aipatzeko 70. eta 80. urteetan legezko nola bestelako ekimenetan erabili zen estrategia; gero aztertuko nuke 90. hamarkadan emaniko bide aldaketa eta berdintasun gaietan eginiko aurrerapauso nabarmenak, eta azkenik mintzatuko natzaizue, heltzeaz dugun mende berrian berdintasun-politikak aurrean dituen erronka nagusietaz.

Gizon-emakumeen arteko berdintasuna aho batez onartzen da, demokraziaren eta gizadiarenganako begirunearen oinarritzko printzipiotzat. Gizon-emakumeen arteko berdintasun-eredu europarrak, ezagupen, lege eta jardunen esparru bakarra osatuz, emakumeei eskubide formalak eskaini dizkio eta beraien egoera hobetu du Europar Batasunaren esparruan.

Erkidegoak berdintasunaren alorrean daraman politika paregabea da erkidegoaren politiken artean, bertan legegintzak aurrea hartu baitie gizarte-aldaketei. Erromako Itunaren 119. artikulua eskainiriko lege-oinarri soilaz baliatuz, lege-xedapen multzo koherente bat garatu da 1975. urtetik hona, emakumeei ziurtatu nahian, lana, lanbide-heziketa, laneko baldintzak eta gizarte-babesa gizonekiko berdintasunean eskuratu ahalko dituela.

Nahiz eta Erromako Itunaren 119. artikulua, gizon nola emakumeei lan berdinetan lanbide berdina ezarri, helburu ekonomiko soila bilatzen zuen, alegia: enpresen arteko lehia gerta zitezkeen aldeak berdintzea, indarrean jarri zenetik artikulua honen erabil eremua zabaltzen joan da, hainbat Artezara eman, bai eta lege-neurri "bigun" asko eta asko, hala nola Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren ebazpen eta gomendioak.

Era berean Luxenburgoko Europako Justizia Epaitegiak 100 bat kasu ditu berdintasunaren inguruko gaiei buruz, jurisprudentzia garrantzitsua osatuz. Tribunal honek, arteztarauak hedaturiko ordainsari-berdintasunaren printzipioa ulertu du lan harremanetan edozein sexu-bereizkeria debekatzeko printzipio orokor moduan.

Beste alorrean gertatu den bezala, honetan ere nazioen politikak europar politikak bilakatu dira ezari-ezarian: "europartu" egin dira. Europar Erkidegoak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean egindakoa, nazio eta eskualdeen egitura eta legerien sorrera eta hedapenerako benetako sustatzailea izan da.

Berdintasun-gaietako Erkidegoaren lege-esparrua hirurogeitamargarreneko hamarkadan abiatu zen, lehen hiru Arteztarauak eman zituenean:

Kontseiluaren lehen Arteztaraua 1975eko otsailaren 10ean (75/117/EEE), gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioaren aplikazioari buruzkoa.

Bigarrena, urtebete beranduago, 1976ko otsailaren 9koa (76/207/EEE), gizonak nola emakumeak lana eskuratzeari doakionean, lanbide formakuntza eta igoeran eta lan baldintzetan berdintzatzearen printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Arteztarau honek bere artikuluetan aukera ematen die partaide diren Estatuei, desberdinkeriak baztertzeko bide bezala, ekintza positiboetaz baliatzeko. Batzar honetan zehar ukanen dugu gai honetan sakontzeko aukera, eta azkenik,

Hirugarren Arteztaraua, 1979ko abenduaren 19koa (79/7/EEE), non ezartzen baita gizonezko nola emakumezkoen tratua berdina ematearen printzipioa aplikatzeko esparrua gizarte-segurantzaren alorrean.

Laurogeiko hamarkadan, Europako Batzordeak, kontuan harturik eskubideen berdintasuna beharrezko baldintza izanik ere, ez dela aski aukeratan berdintasuna ukaiteko, abiarazi zituen, aldi berean eta mailakaturik, zenbait urtetan garatuko ziren egitarauak, hartara legegintzaren eragina areagotu, iritzi publikoa emakumeen dagozkien arazoan aurrean sentikor bihurtu eta gizonak eta emakumeak, lan esparrutik at ere, aukeratan berdintzat izan zitezela sustatzeko.

Ekimen hauekin bat, emakumeen beharretara bereziki egokituriko lanbide-heziketako egitarauak finantzatu ziren, emakumeen kooperatibak, emakumeak enpresetako koadro izateko gaitzeko formakuntza egitarauak, hartzaindegia, berdintasun-politikaren gaineko informatze kanpainak, eta abar luze bat.

Aukera-berdintasunaren alde Erkidegoak antolatutako lehen egitarauak, 1982-1985 artean gauzatu zenak, nola edo halako aurrerapena ekarri zuen emakumeen lanbidearen egoeran eta batez ere nabarmendu egin zuen arlo politiko, sozial eta ekonomikoan ekintza bateratuaren beharra.

Abiapuntu honetatik aurrera, bigarren egitarauak (1986tik 1990era) bi osagai nagusi ukan zituen:

— Bat arras juridikoa, bi arteztarau emanez: 1986ko uztailaren 24ko arteztaraua (86/378/EEE), gizarte-segurantzako lanbide-erregimenei dagokienez gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tratua-berdintasunaren ingurukoa, eta

1986ko abenduaren 11ko arteztaraua (86/613/EEE) langile autonomo eta beren ezkontideen arteko tratua-berdintasunari buruzkoa.

— Bigarren osagaiak hainbat ekintza positiboko proposamenak zekartzan berekin, lantokian benetako berdintasuna eragozten zuten oztopo lege-mailakoak ez zirenak gainditzeko.

Argi da laurogeiko hamarkada izan zela, Erkidegoaren esparruan, ekintza positibotako politikak aurrera eramane zituen garai biziena. Ekintza hauek datorren ostiralean zehazteko aukera ukaitea espero dut.

Aukera-berdintasuna sustatzeko berriazko bi egitarau hauek, berriazko aurrekontua zuten eta Europar Batzordeak zuzenean kudeatzen zituen; baina hauek gain aipatu behar dira ere, 80ko hamarkadan, emakumeek lan-merkatuan zuten egoera hobetzeko sortu ziren bi egitarau osagarriak: L.E.I. egitaraua (Local Employment Initiatives- Tokiko Lan Ekimenak), emakumeen beren enpresa berea sortzen laguntzeko antolatua, eta IRIS sarea, emakumeen lan-heziketarako.

Ekimen hauen jarraia N.O.W. izan zen (New Opportunities for Women-Emakumeentzako aukera berriak), 1990ean, Europako Fondo Sozialaren barruan sortu zena, oraingo honetan emakumea lan-merkatuan hobeto integratzen laguntzeko.

Egitarau hauek, zati batez Europako Fondo Sozialaren diruz ordainduak, eta beste partea partaide diren Estaturen diruz, nazio mailan kudeatzen ziren eta haien eragina ez zen inondik ere estatu guztietan berdina izan, betiere estatu bakoitzak ematen zuen diruak baldintzatzen baitzuen horien arrakasta.

Guztiarekin ere, erruz lagundu zuten, berdintasunaren agenda politikoa zabaltzen emakumeen enpleguaren alorretik, izan ere ekonomi mailan lehenetsutako zena, "alboko"tzat hartzen ziren beste sektoreetara, hala nola: etxeko lana, umeen zaintza, emakumeen osasuna, lantokiko sexu-jazarpena, etab. Ez baitziren azken hauek erraz kabitzen Itunak ematen zuen lege-babes bakarren eremuan, hau da: lansariaren berdintasunari buruzkoan.

Europako Batzordeak eta Estatu kideek aurrera eramaniko egitarauak eragin handia ukan zuten laurogeiko hamarkadan, eta gainera gizarte-giroa aldekoa zenez, berdintasunaren aldeko azpiegiturak Europa osoan garatu ziren.

Estatu kideen berdintasunerako erakunde gehienak, nazio nola eskualde mailan, hamarkada honetan sortu ziren (Aukera-berdintasunerako Nazio-Batzordeak, Emakumeen Institutuak, Emakumeen Aurrerapenerako Ministeritzak, etab.). Hain zuzen ere, 1988ko otsailan, Eusko Legebiltzarrak Emakumearen Euskal Erakundea sortzen zuen legea onartu zuen.

Europako Batzordeak 1981ean sortu zuen Aukera-berdintasunerako Komite Aholku-emaileak ere, erruz lagundu zuen Europako Batzordearen eta nazioetako berdintasunerako erakunde edo agentzien arteko harremanak hobetzen.

Erkidegoaren hirugarren egitarauak bete zuen aldia, hau da: 1991-1995 garaia, inflexio-puntua suertatu zen Erkidegoaren politikan, bai eta Europako esparrua finkatzen.

Inflexio-puntua izan ere, garai horretan eman zelako, geroxeago aipatuko ditudan beste gauzen artean, 1992ko urriaren 19an eman ere, (92/85/EEE) Arztejaraua, haurdun dauden edo erditu berri diren edota edoskitzaroan diren emakumeen laneko segurtasun eta osasunari buruzkoa.

Arztejarau honetan erabiltzen da lehen aldiz emakumeei buruzko testu batean, trataera berdinari buruzko 119. artikulua ohikoa ez den beste lege-oinarria. Izan ere, Itunaren 118. artikulua, laneko segurantzaren eta osasunari buruzkoa erabiliko da, eta artikulua hau erabiliz onartzen da lehen aldiz, emakumeak eta gizonak desberdin tratatu behar direla, lan-aukeratan berdintasuna sustatu nahi bada. Lehen aldiz erabiltzen da genero-ikuspegia Erkidegoaren lan-politikatan.

Maastricht-eko Ituna indarrean jartzearekin, 1993an, beste urrats garrantzitsua egin zen, Itunari erantsirik gizarte-politikari buruzko Akordioaren ahalmenak aztertzei aukera eman baitzuten. Gizarte Protokolo honek mekanismo berria eskaintzen zuen, lege-neurriak sor zitezkeen gizarte-solaskideen artean, ugazabak eta sindikatuak alegia, lortzen ziren akordioetatik abiatuz.

Aukera-berdintasunari buruzko Arztejarau bat emateko erabili zen lehen aldiz Gizarte Protokoloa oinarri juridikotzat, izan ere, 1996ko ekainaren 3ko Arztejaraua (96/34/EE), guraso-baimenari buruzkoa, gai honi buruz gizarte-solaskideek lorturiko akordio-markoa gauzatzen duelarik.

Arztejarau honek, amek eta aitek guraso-baimenaz baliatu ahal ukaiteko moduetaz mintzo delarik, bete beharreko gutxienezko baldintzak ezartzen ditu baimenaz eta ordaindutako orduetaz gozatzeko.

Arteztaraua hasieran Gizarte Protokoloaren sinatzaile ziren 14 Estatuetan jarri zen indarrean: ondoren, Erresuma Batuak Gizarte Protokoloarekin zuen salbuespen-klausula ezeztatzeko, 1997ko ekainan Amsterdam-en lorturiko akordioaren ondorioz, Kontseiluak, 1997ko abenduaren 15ean Arteztarau egitasmo berria prestatu zuen, guraso-baimena Erresuma Batura ere zabalduz.

1990-1995 aldia ezin atzean utzi, lehenik aipatu gabe, 1995ean izandako Emakumeari buruzko Nazio Batuetako Munduko Laugarren Biltzarra. Gertakizun esanguratsua izan zen eta argi eta garbi utzi zuen nolako adostasuna dagoen emakumeen arazoak, arazo global eta unibertsaltzat hartzen, bai eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko faktoretzat hartzen gizarte zuzen eta demokratikoak antolatzeko.

Europar Batasunak zeregin handia ukan zuen Pekin-go Biltzarrean. Espainiak Kontseiluaren lehendakariatzatik koordinatu zituen, Europako Batzordearen laguntzaz, Europaren partehartzea eta prestakuntza. Partehartze hau funtsezkoa izan zen, Biltzarretik atera zen Ekintzen Plataforma ezartzeko. Erkidegoak eta bertan partaide ziren Estatuak Ekintzen Plataforma sinatu eta hartu zituzten erantzukizun horiekin osatu dute Europan XXI. mendean aurrera eramango diren berdintasun-politiken eredu.

Europar Erkidegoak Pekin-go Biltzarrean emaniko ekarpen garrantzitsuena edota garrantzitsuenetarikoa "mainstreaming" kontzeptua izan zen.

"Mainstreaming"ek erran nahi baitu berdintasunaren aldeko lanak eta indarrak ez daitezela bakarrik erabili emakumeen aldeko neurri bereziak hartzen, baizik eta —berdintasuna helburu— ekintza eta politika orokor guztiak eragin ditzatela, politika eta ekintza hauek diseinatzerakoan kontuan harturik betiere, modu eraginkorrean eta argi, emakume eta gizonen egoera desberdinetan politika eta ekintza horiek ukan ditzaketan eragin desberdinak.

Horretarako, ekintza eta politika horiek sistematikoki aztertu egin behar dira, eta haien zehazterakoan nola aplikatzerakoan ere eragin posible horiek kontuan hartu. Batzordeak kontzeptu hau bere berea egin zuen, Erkidegoaren politika eta ekintza guztietan aukera-berdintasuna sartzeari buruz 1996ko otsailaren 21ean emaniko Jakinarazpenean.

Integrazio estrategia honen aplikazioa prozesu korapilatsu eta luzerakoa da, ikuspuntu desberdinen beharrean dagoena gainera. Behar du, esate baterako, egungo egoeraren azterketa, gizonen eta emakumeengan politika desberdinek dituzten eraginak ezagut ditzagun, behar dituzten bananduak, finantzamendu egokia eta hartu beharreko erabakiak hartzerakoan bi sexuen partaidea orekatua izan dadila ere.

Integrazio estrategia honek arrakasta ukanen badu, ezinbestekoa da maila gorenean konpromisua hartzea. Politika deberdinetako egileen arteko koordinatze eta galdetze mekanismoak ahal den modu eraginkorrean erabili behar dira ere. Bi helburu hauekin Batzordeak, Lehendakariaren laguntzaz, osatu du batzordekide-talde bat Erkidego mailan eta Batzordean bertan ere, gizon-emakumeen arteko aukera-berdintasunari buruzko gogoeta sustatzeko ardura duena.

Gaur egun gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Erkidegoaren politika orotan integratzeko joera nabarmena den arren —gero emanen dut horren hainbat adibide—, Batzordeak uste du es-

trategia horrek ez dituela ahaztu behar berdintasuna sustatzera bereziki zuzenduriko politikak. Ikuspuntu biak elkarren osagarri dira eta bata bestearekin eman behar dira. 1996-2000 arteko garaia hartzen duen aukera-berdintasunerako laugarren egitaraua, estrategia bikoitz horren adierazpena dugu.

1996 arte garatu ziren egitura eta ekimen anitzek eragin handia ukan zuten Erkidegoan informazioa hedatu eta praktika egokiak trukatzeko. Laugarren egitarauari ekiteko garaian pentsatu zen orduarteko ekintza horien ordeztatu behar diren jardueren kudeatze kokatuagoa eta estrategia integratuagoa behar zirela, hartara Erkidegoaren berdintasun-politika koherenteagoa eta nabariagoa izan zedin. Laugarren egitarauak sustatu nahi du, aukera-berdintasunaren aldeko lanetan eskualde mailan nola nazio edota erkidego mailan ari diren guztien arteko elkar-lana. Egitarau honekin Erkidegoak lagundu nahi die partaide diren Estatuak eta eskualde egitura desberdinei beren eginahaletan Pekin-en harturiko konpromisua betetzeko.

Egitarauaren beste balioa da ere, berdintasunerako jardura egokiak bilatu eta suspertzen dituela, jardun berritzaileak bultzatzen dituela eta berdintasunaren gaineko legeria, Batasunaren esparru osoan modu koherentean aplikatu dadin laguntzen duela. Honi buruz erran behar da berdintasun gaitan Erkidegoaren lege-esparrua osatu duen azken artetara 1997ko abenduaren 15eko delak, lanean sexu-gatiko diskriminazio kasuetako probaren kargaren ingurukoa hain zuzen ere.

Heltzear dugun mendean Erkidegoaren berdintasun-politika zein izanen den jakin nahi izanez gero, Amsterdam-eko Ituna hartu behar dugu abiapuntutzat. Itun honek, zenbait Estatu-dagoneko berretsia edo berresteko bidean dena, ahalmen handiagoa ematen dio Europar Batasunari emakume eta gizonen artean berdintasuna eraikitzeke. Berdintasuna ez da, gaur egun, hasierako Europar Erkidegoaren sortze printzipioetako bat soilik, ez eta gizarte-politikaren oinarrietako bat besterik gabe, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gaur egun, Europar Batasunak, heldu diren urteotan dituen funtsezko egitekoen arteko bat da.

Itun berriarekin, gizon eta emakumeen arteko berdintasunak badu orain lege-oinarri argi eta zehatza. Hala legegintza berria nola oraingo legeen beharrezko aldaketak errazago egingen dira. Enpleguari buruzko erabakiak gehiengo koalifikatuarekin har daitezke, eta ez Estatu-kide guztien adostasunaz soilik. Eragin handikoa da hau lantokiko berdintasun arazoak konpontzerakoan. Itunak ahalmen berriak eman dizkio halaber Europar Batasunari, edonolako bereizkeriari —sexu-gatikoari ere bai— aurre egiteko.

Aukera-berdintasuna Europar Batasunaren lehentasuna izanik ere, enplegua ere halaxe da, noski. Enplegua gaur egun, "Guztion intereseko arazoa" da Europar Batasunarentzat. Iaz, Europar Batasuneko Estatu eta gobernu buruak ados jarri ziren European lana sortzeko estrategia baten inguruan, emakumeontzako egundoko ondorioak ekar ditzakeen estrategia izan ere.

1997ko azaroko Luxenburgoko Europar Gailurrak lehentasunezko lau ibilbide seinalatu zituen Europar Batasunean lanaren ugaltze globala finkatzeko; horietako bat gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna dugu. Ibilbide hauek Batzordeak proposatuak ziren, Europako langabezia arazoak gaintzeko modu egokiena zirelakoan, arazo hauek emakumeek pairatzen baitituzte gizonak baino oraindik ere latzago.

Azken urteotan emakumezko eta gizonetzkoen arteko enplegu-tasen aldea izugarri gutxitu da Europan. Emakumezkoen enplegua 1975ean gizonetzkoenaren %50 izatetik 70 izatera iritsi da 1995ean. Eta bide horretatik jarraituko du etorkizunean ere. Segurutzat eman dezakegu hamar urte baino lehen emakumezkoen enplegu-tasa, gizonetzkoenaren %80a izatera helduko dela, eta beste hamar bat urtetan berriz, parekatuxeak izanen direla.

Demografi ikerketek erakusten dute lanerako adinean diren biztanleen kopurua jaisten ari dela biztanleria orohar harturik; honek erran nahi du enplegua handituko bada, lan merkatuan emakumeak sartzen diren neurrian handituko dela batez ere.

Etorkizun baikor horregatik ere, oraindik aldea dago gaur egungo gizon eta emakumeen artean batezbesteko lansarian. Gainera, generoko desberdintasunak ez dira lansarira mugatzen. Lanpostua lortzerakoan ere nabarmenak dira, lanpostuaren kualifikazioan ere bai, hala nola lan baldintzetan, lanalditan, eta oro har emakumeen eta gizonen karrerak zertzen doazen moduan. Halatan bada, behar beharrezkoa dugu enplegu-politikatan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren integrazioa sendotu dadin eta aurrera egin dezan. Egiteko honek hartuko du lehentasuna, dudarik gabe, Erkidegoaren etorkizuneko berdintasun-politikan.

Aurtengo martxoaren 4ean, Batzordeak bere lehen txostena argitaratu zuen “mainstreaming” —hau da: gizon-emakumeen arteko aukera-berdintasuna Erkidegoaren politika eta ekintza orotan ezartzea— delakoaren politikari egindako segimendua azalduz. Txosten honek, egindako aurreapenak erakusten ditu eta zehaztu ere zehazten du, enplegu-politikaz gain, zein eremu politikotan duen lehentasuna mainstreaming delakoaren integrazioa, heltzear ditugun garaitan. Mainstreaming-a aplikatzeko lehentasunezko eremu hauek, europar politikaren agendako gai nagusiak ditugu, non emakumeek parte izan nahi duten eta izan behar ere duten: bi besterik ez aipatzeagatik aipa ditzadan Egitura-fondoan aldaketa eta Europar Batasunaren hedapena.

Egituren politikak Erkidegoaren tresna indartsuenak ditugu, orekatu gabea orekatu eta kohesioa handitzeko; nahitaezkoak dira, batez ere Batasunera etorri nahi duten herrialdeak hartzeko garraian.

Berdintasuna hasiera hasieratik dago integratua, hasi besterik egin ez duen aldaketa prozesuan, Europar Batzordeak martxo honetan onartu zuen fondo berrien araudi-proposamenean argi agertzen baita, fondo horiek baliatu behar direla enplegu eta gizarte-babes handiak sustatzeko, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, eta garapen jasangarria eta kohesio sozial eta ekonomikoa sustatzeko ere.

Batasunera sartu nahi duten herrialdeak sartzeak ekarri behar du beren gizarteetan handiagotu behar dutela gizon eta emakumeen artean duten berdintasun-maila. Berdintasun formala “egitatezkoa” bihurtu behar dute, berdintasunerako erakunde eta egiturak sortarazi eta gizarte zibilaren partaidetza bultzatu, bolondresen lana sustatuz.

Lehen erran dudan bezala, berdintasunaren elementua politika guztietan txertatzeko estrategiak berekin behar du ere, berdintasuna lan eremuan eta beste eremutan ere sustatzera bereziki zuzenduriko ekintza sendoa. Ezin pentsa dezakegu, beraz, Europar Gizartearen etorkizuna, emakumeek bertan partehartzeko galdegina duten eta legez zor zaien lekua ez badute, ez badira gizonen indar berdinarekin erabakiak hartzen, eta hasteko erabaki politikoak hartzen.

Europar Erkidagoak giza eskubideak babesteko konpromezua hartu duenez, emakumeen aurkako indarkeria eraztea lehentasunezko egitekoa zaio, indarkeria hau giza eskubideen urratze nabarmena baita.

Amaitzeko, heldu diren urteetako beste helburu bakar bat aipatu nahi nuke, hau da: Dirutruk nola diruz ordaindu gabe egiten den lana hobeto partitu beharra dago gizon eta emakumeen artean, funtsezkotzat hartuz umeak eta familiko beste behardunak zaintzen gizonezkoen parte hartzea handitu beharra.

Helburu hauek eta bestelakoak ere sakonkiago aztertzeari ekin nezaioke orain, baina eztabaidarako zertxobait utz dezadan, zuen laguntzarekin bizi bizia izan daiteke eta. Zuen arreta bihotzetik eskertuz, zuen galderei erantzuteko prest naukazue.

Esker anitz.

ELIANE VOGEL-POLSKY

**Europako Kontseiluko eta
Europako Batzordeko aditua.
Buselako Unibertsitate Librea**

JAVIER BALZA AGUILERA

**Araubide juridikoko idazkaria.
Eusko Jaurlaritzako
lehendakariordetza**

Esparru

Juridikoa:

aplikagarritasun

prozedurak

ekintza

positiboarekin

lotuta

Gure biltzar hau garrantzi handikoa eta behar beharrezkoa zaigu, zeren eta Europako auzitegi askok, hala naziotakoek nola Erkidegoarenek, aurka egin baitiete ekintza positiboak (E.P.) eta biltzar honek, berriz, arazo honi aurre egitera behartzen gaitu. Onartu behar dugu, bai, ekintza hauen oinarri juridikoa okerra dela eta maiz irtenbiderik gabeko zuloetara eraman gaituela, besteren artean, berdintasunerako eskubide formala (sexu baten alde eta bestearen kalterako neurriak hartzea debekatzeko duena) eta berdintasunerako eskubide substantziala elkarren aurka jartzearen gorpil erora.

Ikuspuntu juridikotik ikusita, E.P.en auzia ezin bereiz daiteke, sexuen berdintasunerako eskubidea ikusteko ohiko ikuspegitigik. Bigarren milurtekoaren amaierara heldu garelarik, ikusten dugu tamalez munduko inongo herrialdeak ezin esan dezakeela gizon eta emakumeen arteko berdintasun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala erdietsi duenik. Balantze hau oso ezkorra da, beren kultura eta balioak printzipio demokratikoetan (hiritarren eta pertsona ororen arteko berdintasuna) eta giza-eskubideak begiratzean (1948ko Aldarrikapen Unibertsala) oinarritu dituzten Estatuentzat.

Sexuen berdintasunari buruzko kritika juridikoko lanen ezinbesteko ondorio gisa atera daiteke, hala nazioarteko zuzenbidean nola Europako Estatuaren Konstituziozko zuzenbideetan, Erkidegoaren zuzenbidean eta nazioetako zuzenbide positiboetan ere, gaur egun ematen ari den berdintasunaren eraiketak jatorrizko akatsa duela eta akats honek berdintasun hori ezinezkoa bihurtzen duela.

Behingoz alde batera utzi behar dugu emakume eta gizonen "arteko" berdintasunaren tresna kontzeptuala, legearen aitzineko berdintasun neutro eta abstraktura daramana edota sexuagatiko bereizkeriarik gabeko tratu berdintasunera (tresna hau, arrazoi objektiborik gabeko bereizkeria dela erabakitzen dena ezabatzeko erabiltzen den ezezko tresna da eta ez du ematen berdintasun substantziala ezartzeko aukera). Aukera-berdintasunaren edukari eman behar diogun esanahia ez dugu mugatu behar, asmoz, soilik norbanakoen kategoria jakin batzuentzat eta aldi baterako, onartzen diren prozeduretara. Zuzenbidean nagusi den ikuspegi honek, gizartearen geruzei doakienean, orokortze okerra ekartzen du, zeren eta berdintasunerako bidea pertsonen arteko lehia librean jartzen baitu. Ez du, beraz, arazoa konpontzen, hau da, berdintasuna nola lortu, beste pertsonak "kaltetu" gabe (ikus, adibidez, Estatu Batuetan, REVERSE DISCRIMINATIONS-en teoria eta Europar Batasunean, berriz, Europako Erkidegoaren Justizia Auzitegiaren arrazoiketa, KALANKE epaiari doakionean).

Sortzen dituen zailtasunak bi mailatakoak ditugu: — 1. maila juridiko eta teorikokoak, zalantzan jartzen baita, sexu jakin bati zuzenduriko lehentasunezko neurrien zilegitasuna, eskubide-subjektuen berdintasun formala hautsiko luketelakoan; eta — 2.: prozesu mailakoak, oso zaila baita neurri hauek ezartzea derrigorrez bete beharreko legezko edo arauzko xedapenen bitartez, eta borondate hutsean oinarriturik abiatu diren Ekintza Positiboak, aldiz, eragin mugatukoak ditugu eta zalantzan jarriak dira etengabe.

NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA GOGORATUZ

Munduko bigarren gerra ostean, nazioarteko zuzenbideak aldaketa nabaria egiten du, gizakiaren eskubide subjektiboak aintzat hartzeko bidean abiatuz eta gizakiaren duintasuna begiratuko dela bermatzera joz, bai eta pertsona ororentzako berdintasunaren eskubidea ziurtatzera ere, arraza, kolore, sexu, erlijio etabarren gainetik.

Ekintza Positiboak aipatzen dituzten nazioarteko zuzenbideko lehen testuek izendatzen dituzte ekintza hauek, "sexua, adina, ezintasuna, famili kargak edota gizarte edo kultur maila bezalako arrazoiengatik arta eta babes berezia behar dituzten pertsonak direla uste direnen egoera berezia kontuan hartzeko neurri berezi gisa". (LANE) Lanaren Nazioarteko Erakundearen 111. HITZARMENA, 1958koa, enpleguko bereizkeriari buruzkoa eta 1960az geroztik indarrean dena.

Bigarren testua Nazio Batuek eman zuten eta arraza bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Hitzarmena da. Testu hau, bereizkeriaren aurkako ikuspegian sakonki errotua da eta proposatzen du, ezen zenbait arraza eta etniako taldeei, giza-eskubideak berdintasunean gozatu eta baliatzeko bermea eskaintzeko helburu bakarrekin hartutako neurri bereziak ez daitezela arraza bereizkeriazko neurritzat hartuak izan, betiere denboran mugatuak badira eta lortu nahi zituzten helburuak lortutakoan bertan behera uzten badira. cf. 1. artikulua 4. apartatua.

Alabaina, aipa dezagun ere, 2. artikulua 2. apartatua ezartzen bide diela Estatu kideei, talde hauetako kide diren norbanako edota taldeen gaineko neurri berezi zehatzak hartzeko beharra. Ezarritako adierazpenak honela dio: Estatu kideek, egoerak hala eskatzen badu, neurri bereziak hartuko dituzte, etab. Arraza bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Hitzarmena. NBE.

Azkenik, hirugarren tresna gure solasaldiari zuzenki loturik dago, izan ere, emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko NAZIOARTEKO HITZARMENA dugu, 1979koa eta 1981az geroztik indarrean dena.

Ekintza Positiboaren ikuspegi juridiko kontzeptuala, aurretiko testuen arabera zehazten da: 4. artikulua esaten du: "Estatu batek, gizonen eta emakumeen artean benetako berdintasuna ezartzea azkartzeko harturiko aldi baterako neurri bereziak ez dira bereizkeriazko egintzak, hauek hitzarmenaren 1. artikulua definitzen ditu eta halatan "emakumeen aurkako bereizkeria" esamoldeak bere barne hartzen ditu, sexuan oinarrituz eginiko bereizte edota baztertze oro, helburuz edota ondorioz, giza-eskubideak, gizon eta emakumearen arteko berdintasunean oinarriturik gozatzea eta ziurtatuak ukaitea eragozten baditu edota arriskuan jartzen baditu.

Ikus dezakegu hiru Hitzarmen hauetan Ekintza Positiboek hiru ezaugarri dituztela:

- Gizon eta emakumeen tratu berdintasunaren legezko indargabetzea dira.
- Aldi baterako dira.
- Hautazkoak dira.

Bereizkeriak ezabatu nahi dituzte eta berdintasuna azkarrago ezartzen lagundu besterik ezin dute egin.

Horrelako oinarri juridikoen gainean, Nazioarteko eta Konstituzioetako Auzitegiek iritzi dute Ekintza Positiboak berdintasuna sustatzeko direla eta ez zuzenean berdintasunaren ondorioa indarrez ezartzeko.

Jurisprudentziaren interpretazio hau sortzen da, aukera-berdintasunaren kontzeptua (equal opportunities) ez delako behar bezain zehatza, izan ere, soziologikoa baitugu honako kontzeptu hau, eta ez juridikoa.

Mendebaldeko Konstituzio demokratikoak aztertuz gero ikusten da sexuen berdintasunaren konstituziozko eskubidearen definizioa era desberdinetan egiten dela, herrialde desberdinetan.

Herrialde zenbaitek legearen aitzineko hiritarren berdintasunaren kontzeptua dute —neutro eta abstraktua—, sexua aipatu ere gabe, hala Belgika eta Irlanda.

Zenbait konstituzioek legearen aitzineko berdintasuna aipatzerakoan gizonak eta emakumeak aipatu egiten ditu, hala nola Alemaniako Konstituzioaren 6. artikulua.

Eskandinaviako Herrialdeetan eta Suitzan, Konstituzioak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu egiten du, baina sexuagatiko bereizkeriak ezabatzeke beharraz gain legegileari edota agintari publikoei betebehar positiboa ezartzen die ere, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasunaren alde aktiboki aritzeko konpromisua har dezaten (Suitza, 4. artikulua).

Suedian, Konstituzioak duen Gobernatzeko tresnak dio ezen “Inolako lege edota arauzko testuak ezin du sexuagatiko bereizkeria ekarri, ez bada delako xedapena, emakume eta gizonen arteko berdintasunera iristeko asmoz, Komunitatea egiten ari den ahaleginetako bat dela.” (16. artikulua).

Italian, Konstituzioaren 3. artikulua dio ezen “hiritar orok dute gizarte duintasun berdina eta berdinak dira legearen aitzinean, sexu, arraza, hizkuntza, erlijio, iritzi politikoengatik eta norbanakoen edota gizarteko baldintzengatik bereizketarik egin gabe”; testu honetan oinarriturik, Konstituzio Auzitegiak indargabetu zituen hauteskunde zerrendetan sexu bat edo bestearen aldeko kuotak aurreikusten zituzten hauteskunde legeak, konstituzioaren aurkakoak direlakoan eta alderdien eta hautesleen askatasun politikoaren aurkako bereizkeriazko erasotzat hartuz.

Espanian, 9, 10, eta 11. artikuluek, adierazpen neutroa badute ere, Konstituzio Auzitegiari aukera eman diote ahalik eta jurisprudentzia aurreratuena garatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari doakionean eta garatu ere, bereziki laneko eta segurantzaren sozialerako arloetan garatu du. Seinalatu behar dugu ere Konstituzioak leku pribilegiatua eskaintzen diela norbanakoen funtsezko eskubideei eta zehazten duela interpretazioa egin beharko dela Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren arabera eta Espainiak berretsiriko, gai horien gaineko nazioarteko hitzarmenen arabera. Horraz gain, 14. artikulua espainiar guztiak legearen aitzinean berdinak direla esaten du eta debekatzen ditu ere ohiko arrazoiengatik bereizkeriak, sexua ere barne harturik.

Konstituzioak agintari publikoak behartzen ditu norbanakoen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna ziurtatzen dituzten baldintzak ezartzera, beren eskubideak bederazka nola taldeka bete behar erabili ahaliko dituztela ziurtatuz.

Hauteskundeetarako zerrendetan edota hautaturiko batzarretan gizon eta emakumeen arteko partekatutasuna ezarriko lukeen hauteskunde legea ongi egokituko litzaiotke Konstituzioaren izpirituari. Alabaina horrelako legeak ez luke oinarritzat ekintza positiboen esparru mugatua hartu beharko (gogora dezagun ekintza positiboen bitartez harturiko neurriak indargabe utzi daitezkeela eta aldi

baterako soilik eta hautazko edo borondatezko bereizte baimenduak direla], honelako legeak, beraz, Konstituzioaren 9.2. artikulua aipaturiko betebeharrak positibo eta derrigorrezkoan luke oinarri posible bakarra. Puntu honetantxe datza kontraesan nagusia, zeren eta orain artean Ekintza Positiboak ezin inposa baitzitezkeen, borondatezkoak behar zuten izan eta printzipio honek kontra egiten dio ordea, emakumeek beti eta orain bertan ere, gizarte talde bezala eta norbanako gisa ere, behar duten berdintasunerako eskubidearen eskariari.

Europako Kontseiluaren giza eskubideen Europako Hitzarmenak erakusten digu, bereizkeriaren aurkako berdintasunaren ikuspegiak markatzen duen muga edo geldiduna kontzeptuala.

Hitzarmen hau, geure Konstituzio gehienetik oso urrun geratzen da, ez baitu funtsezko eskubideetat hartzen gizon eta emakumeek hala bederazka nola gizarte talde gisa, berdin tratatuak izateko duten eskubidea.

Hitzarmen honek, norbanakoen gainean ari delarik, kide diren Estatu menpe den pertsona orori ziurtatzen dizkio, gizakien funtsezko eskubide zibil eta politiko zenbait.

Bere xedapen batek, 14. artikulua, hain zuzen ere, debekatzen du bereizkeria egitea Askatasunen eta Eskubideen berme eta gozamenen eta bereziki sexuagatiko bereizkeria egitea.

Halarik ere, 14. artikulua eskaintzen duen babes hau eragin mugatukoa da, osagarria baita, hau da, bereizkeria dagoela argudia daiteke, soilik sexu-berdintasuna ez den beste funtsezko eskubidea erabiltzerakoan ematen bada, sexu-berdintasunaren eskubideak ez baitu berez existitzen, eta bereizkeria ematen da, beraz, Hitzarmenak jasotzen dituen eskubideetako bat erabiltzerakoan. Honako hau Giza Eskubideen Europar Auzitegiak maiz aipatu du, alegia: 14. artikulua ez du helmen autonomorik.

"Honako hau kontzeptualki kezagarria da, zeren eta sexuaren irizpidea, onarturiko gainerako bereizkeriazko arrazoiak ez bezala, ez baita aldatzen gizarte, kultura, geografia edota ekonomiazko testuinguruaren arabera. Bereizkeriazko gainerako arrazoiak —arraza edota kolorea bezalako arrazoi biologikoak bera ere barne— gizon edo emakume batengan eman daitezke. Eta egiaztatu ohi da gizarteko kategoria apalenetan sexuak modu desberdinez jokatzen duela eta gutxietsiriko taldeetan —esate baterako etorkinak, pobreak, errefuxiatuak edota beltzak— bereizkeriak gogorrago jo ohi dituela emakumeak, talde horietako gizonak baino edo bereizkeriak emakumeengan elementu bereziak dituela. Sexu bereizkeria zeharkakoa da eta bereizkeriazko gainerako irizpide guztietan zehar ematen da".

Halatan bada, legelariei eta legeetako testuak idazten dituztenei ohartarazi behar diegu zein garrantzi handikoa den berdintasunaren printzipioa ez dezatela gizon eta emakumeen "artean" adierazi, honek eramaten baikaitu sarritan, emakumeen eta gizonen egoerak konparatzera, halatan irteerarik gabeko bidera ekarriz, abiapuntura, alegia.

Gizon eta emakumeen artean konparatzeko sistemak berez daukan amarruak bi ondorio ditu:

1. Hierarkia ezartzen du, gizonaren egoera eredutzat hartuz.
2. Emakumeak gizonezkoen egoeran sartzeko mekanismoa dakar, baina emakumezkoek beren berezitasuna gordetzeko eskubidea dute, ordea, berezitasun hori biologikoa eta kulturalki, gizarte jakin batean ematen diren generoko loturen bitartez osatua ere da.

Azterketa honek laguntzen digu ulertzen zein beharrezkoa zaigun, sexuen berdintasunaren oinarri juridiko guztiz berria hartzea, alegia benetakoko Funtsezko Eskubide baten helmena ukanen duena, autonomia (eta ez beste eskubideei loturikoa), Generoaren dimentsioa kontuan harturik egindakoa. Prozedura mailan gehien zabalduko aplikazioa "estatutu berdintasuna" litzaike. Etorriko gara geroxeago berriro honetara. Ikuspegi honek gaindi dezake Ekintza Positiboek sorturiko kontraesan nagusia: sexuen berdintasuna hartu behar al dugu, pertsonaren norbanako eskubidetzat soilik eta jurisdikzioko baliabideen bitartez bermatu, hala sar ote genezake, aitzitik, eskubide kolektiboen ikuspegian, emakumeek —emakumeen kolektibo osoak— sexuagatik sistematikoki jasaten dituzten tratu txarragoak eta desabantailak ezabatzeko balioko lukeen eskubidetzat hartuz?

Halatan bada, sexuen berdintasun eskubidearen izaera juridikoaren ikerketak sortzen dituen zalantzak konpontzeko, berdintasuna bere dimentsio formal hutsera muga daiteke edo aitzitik, gizartearen generoko egitura eta portaeren eremu kolektibora zabaldu, horretara egokituriko arauzue juridikoa ezarritz. Soberan ezagutzen ditugu norbanako berdintasunaren eta berdintasun formalaren kritika nagusiak: "Tratu berdintasunaren gainean dauden arau juridikoek, helburutzat norbanakoaren zenbait eskubide ezartzea dute eta ez dira aski egitezko desberdinkeria mota oro ezabatzeko, baldin eta gobernuek, gizarteko eragileek eta dagozkien erakundeek ez badituzte aldi berean, gizartearen egitura, portaera eta jarrerak emakumeei sortzen dizkieten kalteak berdintzeko egintzak abiatzen". Kontseiluak Ekintza Positiboek buruz eginiko Gomendiotik, DOCE. L 331 1984, ateratako testu honek gomendatzen du ikuspuntu bikoitzetik begiratzea tratu berdintasun eta aukera berdintasuneko printzipioen izaerari, aldi berean begiratzat norbanakoei bermaturiko eskubideari eta Ekintza Positiboko neurrien generoko dimentsio kolektiboari.

Kalanke eta Marshall epaietan, Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak ez du gainditzen eskubide formala eta eskubide substantziala kontrajartzeak berez dakarren kontraesana. Erabateko nagusitasuna ematen dio tratu berdintasuneko eskubide formalaren norbanakozko izaerari eta debekatu egiten du berdintasuna berehala gauzatzea posible eginen lukeen aukera berdintasuneko eskubidearen interpretazioa. Baldin eta norbanako bakoitzak, hala gizon nola emakume, tratu berdintasuneko banakako eskubide subjektiboaren jabe bada eta, Auzitegiak egiten duen bezala, uste badugu eskubide hori ezin muga daitekeela gutxietsirik talde baten kideen alde berdintasuna ezartzeko politikek eginiko bereizte positiboek bitartez, eskubide honek, legeak aurreikusirik indargabetze hertsia eta mugatuak besterik ezin dezake jasan eta indargabetze horietarako ikerketa objektiboa egin beharko da, faboraturiko taldeko pertsonaren interesak kontuan hartuz.

Ergelkeria iruditzen duen arren, geldiune honetara garamatza tratu eta aukera berdintasunaren kontzeptua eskubide neutro eta abstraktutzat hartzeak.

Eskubide honek aukera berdintasuna mugatu egiten du piskanakako borondatezko berdintze estrategia hutsa izatera, izan ere, berdintasuna sustatzeko asmoa duten neurri desberdinen nahaspila, urratsez urrats, poliki-poliki ibiliko direnak, gizonezkoen erreferentzi puntuetako norbanakoen eskubide formala ez urratzearen, zeren eta neurri hauek gizonezkoen kaltetan izan baitaitezke. Alabaina, argi baino argiagoa ageri da, bide eraginkor bakarra, lortu nahi den emaitzera be-

hartzea dela, zeren eta lortu nahi diren helburuak baitira gizon eta emakumeen berdintasuna egia bihurtzea eta generoan oinarrituriko sexu zatiketa eta bereizketa ezabatzea.

Horretarako, Ekintza Positiboaren definizioa eta edukia atera behar ditugu berdintasunaren banakako eskubide abstraktuaren aldi baterako indargabetze bereziaren esparru juridiko desegokitik. Aukera berdintasunaren eta Ekintza Positiboaren kontzeptuen funtsek ezin har dezakete oin indargabetze baten izaeran, gaur egungo zuzenbide gehienek egiten duten bezala.

Ekintza Positiboa, izatez, ez daiteke berdintasun eskubidearen salbuespen mugagarria izan. Indargabetze gisa hartzen badugu, xedea ukatzen diogu, zeren eta horixe baitu, hain zuzen ere, xedea: berdintasuna egi bihurtzea, alegia. Berdintasun substantziala sortzea ahalbidetzen duen mekanismoa dugu ekintza positiboa, generoko harremanek sorturiko bereizketa bertikal eta horizontalari aurre egitea ahalbidetzen duena, alegia, zeren eta gizon eta emakume orok, bederazka, berdintasunez tratatua izateko eskubidea duela dioen berdintasun eskubidearen ikuspegi abstraktuak ez baititu generoko harremanak ikutzen. Generoko harreman hauek eragin kolektiboa dute oraindik ere, bai norbanakoen arteko harremanetan bereizkeria agertzen ez denean ere.

Geldiune honi ihes egingen badiogu, Ekintza Positiboaren zilegitasunaren gaineko argudioak oinarritu behar ditugu sexuen berdintasunaren funtsezko izaeran eta zilegitasunean, eta halatan, beraz, eskubide honen esanahi, eduki eta xede kolektibo eta banakakoan. Ekintza Positiboak ez dira une jakin baterako jarritako adabakiak, baizik eta demokraziaren funtsezko printzipioak diren giza eskubideen begiramenduak eta batez ere gizon eta emakumeen berdintasunak agintzen dituzten derrigorrezko neurriak.

Hala izanik ere, onartu beharra dugu gaur egun utopikoa dela pentsatzea Estatu demokratiko baten erabat ordainduko duela, eskumenean dituen alor guztietan, emakumeen berdintasun substantzialarekin duen zorra. Zenbait herrialdetan (Eskandinavia), emakume eta gizonen partehartzea orekatuagoa da eremu politikoan, baina halarik ere, berdintasuna lortzeke daukate eremu ekonomikoan eta bereziki lan alorrean. Mendebaldeko herrialde askotan, berdintasuna formala da soil soilik, nahiz eta pentsamoldeak aldatu diren, generoko estereotipoak higituak dauden eta emakumeak hezkuntza maila orotara sartu diren. Konstituzioko baloretzat aldarrikatua izan bada ere, berdintasunerako eskubideak eduki ahul eta malguak dauka eta betearazi nahi dugunean topo egiten dugu eskubide "gogorrago" eta errotuagoekin, inork zalantzan jartzen ausartzen ez den eskubide legitimatuekin, alegia.

Halatan bereizi egiten dira berdintasunaren eskubide sexugabe eta abstraktua eta, esate baterako, enpleguko merkatura sartzeko eskubidea, enplegurako eta segurantzaren sozialerako eskubidea edota hiritarren eskubide politikoak. Nahiz eta nabarmenki egiaztatzen den emakumeek presentzia urria baino urriagoa dutela erabaki ekonomiko, politiko eta sozialak hartzen diren alor orotan, lansarrietan alde nabarmenak daudela, langabezia tasa oso desorekatua dagoela eta emakumeak gizartearen baztertuak daudela, legez ezin zaio kontra egin gizon eta emakumeen estatutu berdintasuneko eskubide zehatzari.

Nahiz eta berdintasun juridiko formala gordetzen den, eskubide horiek guztiek sortzen dituzte, emakumeak beren sexuagatik bereizten jarraitzen duten mekanismoak.

Ekintza Positiboak antolatzerakoan lehentasuna eman behar diegu, beren sortzearen arrazoiari eta beren xede kolektiboari.

Ekintza Positiboak, duten dimentsio kolektiboan berdefinitu beharko ditugu, seinalatuz nola Ekintza Positibo baten onuradun den emakume bati emaniko berehalako abantaila baten bitartez, banakako emaitzak lortzeko diren. Alabaina, emakume hori izanik ere neurri horren onuradun bakarra, neurri hau sortzen da Agintari publikoei eta norbanako pribatu, moral edota fisikoei ezartzen zaien, gizon eta emakumeen estatutuaren berdintasuna egin eta bermatzeko betebeharr juridikoaren indarrez. Ratio legis delakoa, izaera kolektibo edo gizartezkoa duen Funtsezko Eskubidean ezartzen da eta hau gauzatzeko banakaturiko neurri zehatzak hartu behar dira, inoiz ere alderantzizko bereizketa izan ez daitezkeenak, ez eta onura beretik at dauden pertsonen estatutu berdintasuneko eskubidearen aurkako bidegabeko eraso ere; adibide baterako: emakume bat laneko zeregin batera igotzen da gizon baten ordeztu, legeriak edo araudiak esaten duelako kalifikazio berdina edo parekoak emandakoan, baldin eta zeregin horretan ari direnen artean sexuzko talde batek presentzia urria badu, talde horretako hautagaia izan dela izendatua. Neurri honek ezinbestean banakakoa behar du izan, baina giza kolektibitatearen interesetan oinarritua da eta ez da ulertu behar sexu bat hobesten dela eta bestearen kalteko neurria hartzen denik.

Presentzia urria dela egiaztatzean, ikusten da azpian sexu desberdineko eta kalifikazio berdineko bi hautagai elkarren aurka jartzea baino fenomeno zabalagoa dagoela, hau da, egiaztatze puntual horrekin batera doa, egin diren generoko txostenek erakusten dutela zer nolako oztopoak topatzen dituen sexu-etako batek estatutu berdintasunaz gozatzeko. Presentzia urriak zilegi egiten du, beraz, sexua kontuan hartua izan dadila, langileak izendatzerakoan edota lanpostuz igotzean.

Politikaren eremuan, non emakumeek presentzia urria baitute, hala gobernuetan nola legebiltzarretan eta botere organu eta erakundeetan, egiaztatze honek premiazko egiten du, sexu biek erabakiak hartzerakoan presentzia berdina dezaten benetan lortzeko hauteskunde legeak ezartzea. Alabaina, zer dakusagu, ordea?

Gizarte demokratiko batean emakumeek eta gizonen partehartze eta ordezkari politiko berdina ukaitzearen emaitzatik urrun dauden arren, sexuaren araberrako kuota ezartzen dituzten legeak konstituzioaren aurka doazela esaten da, hautesleen eskubide abstraktuak eta alderdi politikoen elkartze askatasuna urratzen dituzteneko aitzakiaz.

Inolako nazioarteko hitzarmenak, inongo Konstituzioak, ez du argi eta garbi bermatzen gizon eta emakumeen berdintasunerako Funtsezko Eskubidea, ez eta honen ondorio diren estatutu berdintasuna eta botere politikoen eta norbanakoen, berdintasuna benetan gauza dadin, neurri positiboak hartzeko duten obligazioa ere.

Berdintasunaren eraikuntza juridikoak jarraitzen badu berdintasunaren funtsezko eskubide autonomoa ez onartzen, berdintasunerako ekintza positiboen bitartez ezarriko diren prozedurek jarraituko dute eztabaidatuak eta eztabaidagarri izaten, hautazkoak eta ezartzen dituzten borondate onaren menpeko, eta testuinguru semantiko adierazgarriekin: aukera berdintasuna, hasie-

rako baldintzen berdintasuna, famili bizitza eta lanbide bizitza elkarrekin eraman, berdintasuna sustatzea, parekatzea, etab.

Gizon eta emakumeen berdintasunerako funtsezko eskubidea onartzeak aukera ematen digu, funtsezko eskubideen hirugarren belaunaldian sartzeko, non taldeen eskubidea onartzen baita edo ingurugiroarena edota etorkizun diren belaunaldiena, kolektibo gisa harturik.

Europako Estatuak lehenbailehen berrikusi beharko lituzkete beren Konstituzioak eta berdintasunerako eskubideaz bertan eginiko interpretazioa.

Europa osoan, Espainiako Konstituzio Auzitegiak bakarrik garatu du, Rodríguez Piñero irakaslearen ahaleginei esker, ekintza positiboari loturiko jurisprudentzia dinamikoagoa. Jarrera horren aurkako muturrean, Italiako eta Frantziako Konstituzio Auzitegiek beste atzerapausoa eman dute oraindik orain, berdintasunerako eskubide formalaren bermearen argudioan oinarrituz.

Sexuen berdintasunaren eskubidea funtsezko eskubidetzat hartzearekin batera interpretazio dinamiko behar zaio egin, Estrasburgoko giza eskubideetako Europar Auzitegiaren jurisprudentziari jarraiki, zeren eta auzitegi honek doktrina egin baitu, Estatu batek funtsezko eskubide bat bermatzeko konpromisua hartu duenean, horren aldera Estatu horrek duen "obligazio positiboa" dela eta.

Auzitegiak beharrezkotzat hartzen du, pertsonak nazioarteko Hitzarmen batetik edota konstituzio batetik ateratzen dituzten "eskubide horiek babesteko zentzuzko neurri egokiak hartzea". Zenbait eskubide ezin berma daitezke, baldin eta Estatuak ez badie haien erabilerari lotzen, gizabanakoei, eskubide horiek benetan erabiltzeko behar dituzten bitartekoak eskainiko dizkien prestazio positiboak.

Gauza da "benetako eskubideak babestea, ez eskubide teoriko edo alegiazkoak soilik, baizik eta eskubide jakin eta benetakoak".

Estatuak ezin du geldirik geratu eta eskurik ez hartu. Funtsezko eskubideen interpretazio dinamikoak eskatzen du aldarrikaturiko eskubideen kontzeptua zabaltzea, hasieran eskubidetzat hartu ez ziren eskubide berriak azaltzeraino ere zabaldu.

Dinamismo honen iturria, funtsezko printzipio edo kontzeptuaren garapen logikoa da. Halatan, Auzitegiaren interpretazioari jarraiki, ezinbesteko atxikiduraren teoriak dio Estatuak obligazio positiboak dituela, delako eskubidea benetan gordetzeari atxikirik.

Zorigaitzez, giza eskubideak babesteko Europako 1950eko Hitzarmena sinatu zen garaian, sexuen berdintasuna ez zen berariazko eskubide autonomotzat hartzen eta halatan, Estatuaren obligazio positiboaren interpretazio dinamiko ezin aplikatu ziezaikeen 14. artikuluari eta artikuluenek, lehen esan dugun bezala, bereizkeriaren aurkako ohiko ikuspegia dauka.

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. artikulua ez du helmen autonomoa. Hitzarmenean onarturiko funtsezko eskubideen bermerako eskaintzen du, besterik gabe, zerrendatzen dituen arazoien karira bereizkeria egiteko debekua. 14. artikulua ez du berdintasun eskubidea onartu eta bermatu nahi, aitzitik zenbait funtsezko eskubide zibil eta politikoren erabilerari bermatzeko bereizkeriaren aurkako kudeaketa ezartzen du besterik gabe. Esparru juridiko honetan, berdintasunerako eskubidea ez da bere horretan, autonomoki onartzen. Ez omen da pertsonaren funtsezko

eskubidea. 1998an, Amsterdam-eko 13. artikuluko berriak ez du iraganaren irakaspenik hartu. Xedapen hau ez baita autonomoa eta ez du zuzeneko eraginik. Kontseiluak aho batez erabaki behar du kasu berezietarako neurri bereziak hartzea.

Tamalgarrria da, bereizkerien aurkako sistemak mende erdia pasa ondoren behin eta berriz ustel gertatzen eta berdintasuna gauzatzeko dituen mugak eta ezintasuna egiaztaturik ere, hitzarmenak negoziatzen dituzten arduradunek eta idazten dituztenek ez horretatik irakaspenera atera eta ikuspuntu berri eta dinamiko batetik hasia gizon eta emakumeen berdintasunerako funtsezko eskubidearen bermea ezarriko duten xedapenak hartzen, esaten duten bezainbeste bermatu nahi badute.

*Sarrera***1.**

Ekintza positiboaren azterketa juridikoak nolabaiteko erronka dakar berarekin, zuzenbidearen ikuskera mugikorra eskatzen baitu.

Arauren eraikitze eta intepretatze ez linealak baizik konplexuak eskatzen ditu ere.

Konplexu, ezin delako erabili ohiko planteamendua, non gizarte-egoera jakin baterako legegileak aterabide jakin eta beti berdina ezarri behar duen, eta zuzenbidearen interpretatzaile edo erabiltzaileak, dela herritar, dela administratzaile, edo dela epaile, arau zehatz eta aurretik finkatutako hori baliatuz, aurrean duen kasuaren irtenbidea aurkitzen duen.

Ez. Ekintza positiboak salbuespen terminoari begiratzen dio, honako hau bere esanahi juridikoan harturik. Aurreko silogismoarekin jarraituz, ekintza positiboak eskatzen dio legegileari (araugin-tzan ari bagara), gizarte egoera baten aurrean aterabide ez beti berdina ezartzea, baizik eta tratamendu berezia behar duen norbanako edota kolektibo baten behar legitimoen arabera, edota salbuespena eskubidearen sorreran bertan agertu ez zenean, eta horregatik aterabide uniformea eman zelarik, arauaren interpretatzaile edo erabiltzaileak, ekitateari eta justizia materialari begiratuz, ezohiko erabakia har dezala.

Hortaz, ordenamenduaren eraikitze asimétrikoaz mintzo gara.

Hasierako planteamentu hau erabiliz gero pentsa dezakegu zer nolako zailtasunak azalduko zaizkigun, abiatzera goazen ibilbide honetan. Hauxe dugu, ukan ere, hasieran aipatu dudana erronka hori.

Erronka juridikoa dugu, noski, baina ez ditzagun halere arazoaren terminoak alderantziz jarri; juridikoa da erronka, hain zuzen ere erronka politiko, kultural eta sozialaren aurrean garelako.

Juridikoa da, salbuespena baztertzeko ohituraren kontra doalako, salbuespena baztertu ere, oinarritzko eskubideen ikuskeran halako unibertsaltasun teorikoaren izenean baztertu ohi da, gureak eginak baititugu hemezortzigarren mendeko frantziar iraultzaileen planteamentu formalak. Garai berean sortu ziren amerikar ereduarenak ere berdinak dira, Virginia-ko Adierazpenean emanak dira eta batez ere, edota bereziki, Lehen Zuzenketa delakoan, Amerikar Konstituzioan Bill of Rights delakoa ezartzen dutelarik.

Unibertsaltasuna oinarritzko eskubideen ikuskeran, izan ere ideia hau mende honetan finkatu da, jarrera kolektibistetatik abiatuta, eta, oinarri desberdinekin bada ere, sozialdemokraziaren nola liberalismoaren filosofien muina dugu.

Milurteko honen amaierako urte hauetan hasia dugun ohiko ikuskeren hausteak, ordea, bidea ireki diezaioke, sistema orokorretan presentzia gutxiegi duten edota babes gabeen diren kolektiboen benetako babesari, alegia geuk ekintza positibo deitzen dugunari.

Gutxiengoaren benetako babesa, zuzenbide unibertsalaren erronka nagusienetakoa zaigu datozen hamarkadetarako.

Nazioarteko erakundeek gaur egun duten gabeziak bat da, norbanakoaren oinarritzko eskubideen bermeari lotzea gutxiengoa osatzen duen subjektu kolektiboa. Eta gogoetarako eskema, arrazoibidea, berdin berdina da Hego Afrikako bantustan batekin pentsatzerakoan, nola Europako hizkuntz-gutxiengo bati buruz ari garenean ere. Argi gera bedi adibide hain elkarren bestelakoak

aukeratu izanak ez dituela parekotzat eman nahi, ez eta elkarren konparaketa egin ere, diren alde dramatikoak ahaztuz, baizik eta arras desberdinak izanik ere biei dagokielako nire gogoeta.

Heltzeaz dugun iraultza juridiko eta kulturalak, ene ustez, gizartea antolatzeko ohiko ereduaren eta sistema juridiko klasikoaren erraustea eskatzen du. Ezin diogu XXIgarren mendeari aurre egin, antolamendu jerarkiko eta piramidaleko ohiko ideiekin.

Gizartearen eta politikaren antolamendua eta herriaren gauzetan parte hartzea ez dira jadanik, orain arte bezala, elementu klasikoetan oin harturik zuzenbideak ezarritako bide bakar, ezagunen bitartez gertatzen.

Herri-arazoetara heltzeko gaur egungo bideak honako hauek ditugu: informazioaren sozializazioa, ezagutza unibertsala eskuratzea eta orain arte indarrean ziren interes-taldeen (partiduak, sindikatuak eta Estaduen botere ofizialak dei ditzakegunak) bestelakoak diren taldeetan antolatzeari.

Gainera, iraultza hau, orain artean patxadan zeuden ohiko agente hauen oinarria mogitzen ari da, eta hauek, beren burua lekuz kanpo ikusiz, orain artean zuten lekua berriro eskuratzeko bidea bilatu nahiean dabilta. Eta lekuz kanpo dira benetan, galdutako lekua berreskuratu nahi baitute, orain dagokien leku berria eta arau berriak onartu beharrean, beraiek usatuak zituzten arau zaharrak baino askoz irekiagoak direnak gainera.

Barkatu ahalko didazue, uste dut zuzenbide-zientziaren hiru mendetako nondik norakoak bost minutuko deskribapen pertsonalean laburbiltzeko hutsean erori naizela, labirintoa are eta katramilatuagoa bihurtuz. Halarik ere, eta Borges gogoan, gizadia kontsola dezakeen gauza bakarra, unibertsoa labirintoa denaren uste oso eta finkoa dateke, ezen labirintoak, nahasia eta korapilatsua izanagatik ere, gunea baitu, nondik dena abiatu eta antolatzen den, eta kaosa, berriz, inolako arau eta zentzurik gabekoa da.

Sarrera gisako gogoeta honek adierazi nahi du ekintza positiboak, hala eskubidearen sortze garaian nola interpretatze eta aplikatze garaian ere, salbuespen izaera horrekin, ohiko zuzenbidearen filosofiaren kontra doala, eta hain zuzen ere, salbuespenaren ideia hau gertatu da juridikoki muga eta seguruenik intelektualki ere bai, Luxemburgoko Justizia Epaitegiaren aurrean, zeren eta Kalanke izenez ezagun den epaiaren 21. puntuan, halaxe baitio:

“Dena den, zehaztu behar dugu 2. artikuluan 4. apartatua (76/207 Artetzarauaz ari delarik, izan ere desberdintze positiboari babes ematen dion agindua baita), Artetzarauak onartzen duen norbanakoen eskubide baten salbuespena den bezainbatean, zentzu murriztailean ulertu behar da”. (Eta aipatzen du Epaitegiak 1986ko maiatzaren 15eko Johnston izenez ezagutzen den epaiaren aurrekasua)

Behin eta berriz arazo juridikoak sortzen dituen gaia dugu beraz, honako hau, izan ere salbuespena arautzea, gutxiengoa onartu eta zaintzea. Eta salbuespen orok bezala, arauaren aurka jotzeko joera dauka. Horrexegatik hain zuzen ere, zuzenbideak ezin etsi dezake, zilegi diren interesen azterketan bere orekatze lanari ekin gabe.

Jar gaitezen, beraz, ekintza positiboaren kontzeptuaren garapena gure ordenamendu juridikoan aztertzen. Egin ere, edo egiten saiatuko, ordenamendu konplexu hau antolatzen deneko maila desberdinetatik, kasu eginik bai Erkidegoaren zuzenbideari, bai Espainiako sistema konstituzionalari, bai eta euskal ordenamenduari ere.

Alde batera utziko ditut, hortaz, ekintza positiboa aztertzeko nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntua eta Erkidegoaz kanpoko zuzenbide alderatuaren ikuspuntua. Azken hau aipatu ere nahi dut, maiz esan ohi delako bereizketa positiboaren sorreran edo erreferente zuzena bezala hartu dela, ipar amerikar zuzenbidearen eboluzio juridikoa arraza-gutxiengoaren babesaren alorrean. Ez nauzue ni iritzi horretan hain segur.

Nabaria da ipar amerikar kontzientzian berdintasunaren gaiak bizi duen goren aldia, batez ere emakumeei eta arraza-gutxiengoei doakienean, izan ere gai hauek gizartearen obsesio izateraino kasik iritsiz.

Ez dut halere uste eredu hori gure artera ekar daitekeenik, beste arrazoen artean, hango indibidualismo amorratuak eta hango gizartean esku hartzen duen sistema publikorik ez izateak geure kultur juridiko eta politikoetatik oso bestelako kulturaz ari garelako.

Egia esan behar badut, eta barkamenarekin, European gauza horiek hobeto egiten dakigula uste dut. Eta horren aurrekari nabariak ditugu geure tradizio juridikoan.

Europa eraikitzeko prozesuan bertan badugu adibide argi bat, Europa osatzearen oinarritzko kontzeptutzat tratamendu asimetriko edo bereizgarria hartzen dugunean. Erraz mintzo gara "Europa kartara" edota "Lastertasun desberdinetako Europa" bezalako esamoldez, eta esate hauen atzean agertzen zaigu, nola errealitate kolektibo desberdinen aurrean tratamendu desberdinak erabili behar diren. Argi zaigu guztioi, prozesu politiko eta juridikoak, proiektu berean partaide diren subjektuen beharretara egokitu behar direla.

Beste aurrekaria aipatzeagatik aipa dezagun ere zein ederki onartu den, bai europar zuzenbidean, bai Espainiaren barnekoan ere, bereizketa positiboaren kontzeptua bera koofizialtasun egoera batean hizkuntz-gutxiengoak kontuan hartzeko modu bezala.

Oraindik orain bizi ditugu zenbait ukatze eta arbuizate edota behaztopatze, emaitza praktikotant, baina guztiarekin ere, Espainiako zuzenbideak bere egin du dagoeneko, normaltasun osoz egin ere, koofizialtasunaren testuinguruan presentzia eskasa duen hizkuntzaren aldeko ekintza positiboaren kontzeptua, eta kontzeptu hau gizarteratu ere egin da eta sektore publikora ere zabaldu da, hala lana eskuratzeko baldintzetan, nola lanbidean igotzeko ere, eta oro har zerbitzu publikoak eskaintzearen diseinuan.

Azkenik aipatu nahi dut, gero itzuliko banaiz ere aipatu, zuzenbidearen adar oso bat den lan-zuzenbidearen azken helburua, izan ere, espainiar zuzenbidean behinik behin, hala nola Italiakoan eta Portugalekoan ere, lan harremanetan egoera eskasenean edo babes gabetuenean dagoen kolektiboaren jagole edo zaintzaile izatean datzana. Kontuan har dezagun honetan, lan eremuan, ekintza positiboaren kontzeptua erabiltzen dela bai araua sortzerakoan eta baita ere aplikatzerakoan.

koan, baina batez ere judizialki interpretatzerakoan, funtsapen juridikoen eta erabakien ohiko irizpidea ere delarik.

Ekintza positiboaren kontzeptua ez da, beraz, gure sistema juridikoan arrotz. Areago, gaur egun onartu eta garatua izan da, gizartean nola ohiko zientzia juridikoan aurkako jarrerak izanagatik ere, zenbait alorretan, baldin eta honelako egoerak ematen badira:

- Baliogabeturiko edota presentzia urria duen kolektibo bat egotea;
- gizartearen kontzientzian errotu bada, tratamendu desberdin positiboz sustatu behar duela;
- eta hirugarrenez, legezko nola administrazioko neurrien bitartez horren gainean zerbait egiteko erabaki politikoa hartu baldin bada.

Erkidegoaren zuzenbideari dagokionean, hala jatorrizkoan nola eratorrian, Erkidegoaren ondarean, beraz, ekintza positiboa etengabeko bilakaeran den kontzeptua dugu, eta berrikuntza handiak ekartzen dituena.

Esatera noana esan beharrik ere ez legoke, baina halere komeni du oraindik esatea: Erkidegoaren zuzenbideaz ari garenean, barne-zuzenbideaz ari gara, geure ordenamenduaz aritu ere. Ez dut uste begi bistakoa den hau noiz edo noiz azpimarratzea soberan denik.

Erkidegoaren zuzenbidearen bost iturritara joko dut, ekintza positiboaren kontzeptua eraikitzeko erabiltzen diren oinarritzko puntuak ateratzeko:

- 76/207 Arteztaraua, otsailaren 9koa, lan baldintzei dagokienean, lanbide-formakuntza eta lanbidean igotzeari dagokionean eta lana eskuratzeari doakionean gizon-emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioari buruzkoa.
- 1989ko Gizarte Gutuna, zeinetik eratorri izan zen Europako Erkidegoaren Itun Eratzailearen 14 zenbakidun Protokoloari Erantsia den Gizarte-politikarako Akordioa.
- Kontseiluaren 1984eko abenduaren 13ko Gomendioa, emakumeen alde ekintza positiboak sustatzeko.
- Kontseiluaren 97/80 Arteztaraua, sexuagatiko bereizkeria kasuetarako probaren kargaren ingurukoa.
- Justizia Auzitegiaren azken jurisprudentzia, izan ere eztabaida ekarri duena: 1997ko azaroaren 11ko Marschall deituriko epaia.

Hau guztia aztertzerakoan kontutan hartu behar dira Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren bertsio finkatuak dakartzan aldaketa handiak, 1997ko urriaren 2an sinaturiko Amsterdam-eko Itunak ezarritako aldaketen eraginaz.

Amsterdam-eko Ituna sinatu zen garaian Emakundek "berdintasunaren printzipioa, bereizkeria eta ekintza positiboa" izenpean antolaturiko mintegi batean aritu ginen, Ituna oraindik hain berri eta ezezagun zitzaigularik ere, Itunak zekartzan berrikuntzak komentatzen.

Itunaren gaur egungo testu finkatua, orduko testu lehenarekin alderatuz gero, ikus dezakegu:

1.- 2. artikuluari jarraituz, Erkidegoaren helburuak zehazterakoan, ordukoek erabat garapen ekonomikoari begiratzen ziotela, eta orain, aldiz, gizarte-kohesioa, elkartasuna, ingurugiroaren babesa, eta baita ere gizon-emakumeen arteko berdintasunaren sustapena bezalako betebeharrak agertzen zaizkigula.

2.- 3. artikuluan ezartzen dira, 2. artikuluan zehazturiko helburuak iristeko Erkidegoak erabiliko dituen prozedurak, eta halatan aipatzen ditu Erkidegoak bere egiten dituen politika eta ekintza amankomunak, eta artikuluaaren amaieran esaten du: "ekintza hauetan guztietan... Erkidegoak bere egin behar du gizon-emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua".

Garrantzi handikoa dugu honako hau bi arrazoiengatik. Lehenik, berdintasunaren helburua horizontalki ikusten delako politika eta ekintza amankomunen garapenean.

Eta bigarrenik, ekintza positiboaren ideia agertzen delako, Erkidegoaren helburua ohiko modu deklaratuazilean emateaz gain (gizon-emakumeen arteko desberdintasunak ezabatu), modu positiboan ere egiten baita (berdintasuna sustatu). Sustatze aktiboko formula hau, gainera, Estatuaren Konstituzioetan edota barne-ordenamentuetan agertzen den formularekin bat dator edo baliokide zaio.

3.- Hainbat arrazoiengatik —sexua barne— bereizkeriaren aurkako ekintza positiboa aipatua agertzen da jadanik Kontseiluaren tresna bezala, Batzordearen proposamenari jarraituz eta Europar Parlamentuari kontsulta egin ondoren, 13. artikuluan.

4.- Itunaren XI titulua, Gizarte-politikari buruzkoa, Hezkuntza eta Lan-formakuntzari buruzkoa eta Gazteriari buruzkoa dena, erabakiorra zaigu darabilgun gai honetan.

136. artikulua ezartzen ditu, aurreko artikulua zehazturiko helburuak lortzeko prozedurak edota tresnak (Erkidegoaren Printzipioei buruzkoa den Itunaren Lehen Parteak duen sistematikaren parte sistematika erabiliz), Itunaren barneko Gizarte Itun antzeko bat osatzen duelarik.

Artikulu honetan finkatzen da Erkidegoak partaide diren Estatuari "Lan-merkatuko aukerei eta laneko tratuari doakienean gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko" emango dien laguntza eta osagarria.

Itun finkatuaren alderatzearekin amaituz, 141. artikulua ezartzen dio Estatu bakoitzari, lan berdinetan ordainsari berdina ematearen printzipioa bermatu beharra (119. artikulua ere zekarrena), berdintasunaren kontzeptua gaineratzen dela oraingoan "balio bereko" lanetarako ere, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak garatua zuen ideia harturik.

Ordainsari eta ordainsari-berdintasun terminoak zehazten dira, sexuagatiko bereizkeriarik gabek, eta ekintza positiboa berriz ere agertzen da, Kontseiluaren esku, Komite Ekonomiko eta Sozialari kontsulta egin ondoren, gizon-emakumeen arteko tratua berdintasuna eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko.

Azenik, 141. artikulua honen 4 zenbakian agertzen zaigu, bereizte positiboaren adierazpen biziarena, esaten duelarik:

"Lan-bizitzan gizon-emakumeen arteko berdintasuna benetan emango dela bermatzeko, tratua-berdintasunaren printzipioak ez dio, Erkidegoan partaide den inongo Estatuari eragotziko, presentzia gutxien duen sexuari jardun ahal ukaiteko edota lan-karreratan oztopoak gainditzeko laguntza ematea."

Halatan konstituzionaldu egiten da Itunaren Estatuaren bereizte positiboa, sexuagatiko tratua-berdintasunaren arauari salbuespen eginaz. Bereizketa positibo, desberdintze eta bereizte neurriak onar-

tzen direlako, lan-jarduera batean presentzia gutxien duen sexuaren alde, hartara, dagoeneko fin-
katuak dauden gizarte-egoerak aldatzeko.

Itunera eramán da horrela, lehen salbuespen gisa 76/207 Arteztarauaren 2. artikuluaen 4 apar-
tatuán zegoen arau juridikoa, eta Kalanke eta Marschall epai eztabaidagarriek kontuan zutena.
Erkidegoaren zuzenbidearen laburpen den honetatik, ekintza positiboaren kontzeptua ulertzeko
eta Erkidegoaren ordenamenduan duen definizioa ikusteko oinarrizko lau arau atera ditzakegu.

LEHEN ARAUA. EKINTZA POSITIBOA SORTZEN DA, ARAU JURIDIKOEN ESKASIAREN ONDORIOZ

Izan ere, Marschall epaiaren 29. parrafoak dioen bezala, oztopo sozial baten aurrean gaude,
lan-harremanetako joera kultural baten aurrean, zeinengatik gizonezkoak kontratatzearen aldeko
gogoá hedatzen baita. Auzitegiak honela zioen:

“...Gizonezko hautagaien aldeko joera dago, emakumezkoen kaltetan, batez ere laneko bizitzan
emakumeek dituzten egitekoen eta ahalmenen gaineko ideia estereotipatuak direla medio, bai eta
emakumeek beren lan-karrera eten dezaketaren beldurrez, etxe eta famili beharrei kasu egiteko,
lanaldia modu ez horren malguan antolatuko dutelakoan, edota haurdunaldiak, erditzeak eta
edoskitzaroak direla medio lanera gutxiago agertuko direneko beldurrez.”

Gizarteán hedaturiko kultur-aurreiritziz eginiko egoera baten aurrean, jakin behar da tratu-berdin-
tasunari buruz dauden arau juridikoak, huts hutseán, ez direla nahikoak ematen diren desberdin-
tasun oro ezabatzeke, baldin eta aldi bereán ez badira ekintza orekatzaileak aurrera eramaten
(eta horixe da ekintza positiboaren zentzua), gizartearen egiturek eta portaera eta jarrera ikasiek
sorturiko kalte eta desorekak berdintzeko.

Ekintza positiboaren kontzeptua ulertzeko oinarrizko ideia hau agertzen zaigu, hala Kontseiluaren
84/635 Gomendioaren zergatien adierazpeneán, nola jurisprudenzian ere, bai Kalanke epaián
(20 p.), bai Marschall izenekoan ere (28 p.).

BIGARREN ARAUA. EKINTZA POSITIBOAK ESKATZEN DU AURRETIK EGIAZTATZEA TRATU- -BERDINTASUNAREN URRATZEREN BAT

Arava begi bistakoa da, seinalatu nahi dut, ordea, Erkidegoaren ordenamenduak kontzeptu fin-
duagoak eskaintzen dizkigula berdintasun-printzipoa noiz urratzen den esateke.

Halatan bada, berdintasun-tratutzat ez da ulertzen egoeren erkatze formala, izan ere, arau juridi-
kotik atera ohi dena, baizik eta errealitateán, egoera jakineán, inolako bereizkeriarik ez izatea,
bereizkeria zuzen nola zeharkakoei dagokien bezainbateán.

Bestalde, zeharkako bereizkeriatzat ulertzen da xedapen, irizpide edota jardun itxuraz neutro de-
nak, nabarmenki sexu batekoak bestekeak baino gehiago ukitzen dituenéan.

Dena den, kontuan harturik zuzenbidea dela batera topatzen diren interes legitimoen neurtze araua, lehen aipaturiko zeharkako bereizkeria dela ulertu behar da, baldin eta xedapen, irizpide edota jardunak ez badu sexuaz besteko arrazoi objektibo eta beharrezkoaren zergatia.

HIRUGARREN ARAUA. EKINTZA POSITIBOA ESTATU BAKOITZAREN BARNEKO BORONDATE POLITIKOARI LOTUA DAGO FUNTSEAN

Nahiz eta, Amsterdam-eko erreformaz geroztik Itunak, aurreko testuetan gertatzen zena baino gehiago lotzen dituen Erkidegoaren erakundeak, bereizketa positiboko neurriak erabaki eta aurrera eramatea, funtsean Estatuaren barneko borondate politikoaren esku dago.

Aipatu behar da, Erkidegoaren ondareari dei bat dariola, bereziki sektore publikoari eta gizarte-ko agente eta solaskideei zuzendua, bi alor hauek gizartearen bultzatzaile eta aitzinalariak direlakoan eta egiteko hau beren esku har dezaten.

Ene ustez puntu hau kritikagarria da. Lehen egin dizkizuedan gogoeten haritik, sektore publikoari eta gizarte-solaskideei dei egitea, beharrezko izanagatik ere, eskas samar ere da gaur egun.

Egungo gizarteak baditu, egitura ofizialaz kanpoko bestelako plataformak herri arazoetan parte hartu eta mintzatzeko, garai bateko agente klasikoak ez direnak, eta aktiboagoak eta ausartagoak izanik, gizartean estimu eta eragin handiak dituztenak. Ez dut uste aldaketarako agente hauek bazterrean utz daitezkeenik, gaur egungo aitzinatzearen bultzatzaile izanik, etorkizunekoan areago bailitezke.

Hirugarren arau honen argira sortzen zaidan beste alde nabarmen bat azpimarratu nahiko nuke. Ekintza positiboa ez da oraindik Erkidegoaren manu bezala definitua. Partaide diren Estatuaren barneko borondate politikoaren menpean agertzen baita funtsean.

Erkidegoaren benetako manua berdintasun formalaren erreferentziarekin amaitzen da. Tratu-berdintasunaren printzipioarekin, alegia, betiere lehen esan dugun modu zabalean ulertzen delarik.

Ekintza positiboa beste aurrerapauso bat da. Berdintasun arau orokorrari eginiko salbuespen aktiboa dugu, izan ere presentzia gutxiegi duen kolektiboaren alde eginiko salbuespena.

Zehazki esateko, ordenamenduak deklaratu egiten du, arrazoinaturiko kasuetan, Estatuak salbuespen hori balia dezaketela, eta horrekin ez dela berdintasunaren printzipio orokorra urratzen.

Kalanke eta Marschall epaietako eztabaidaren oinarria zen 76/207 Arteztarauaren 2. artikulua-ren 4. apartatua oso adierazkor zaigu, esaten duenean, Arteztaraua ez dela eragozpen, berdintasuna sustatzeko Estatuak har ditzaketen neurrietarako.

Ildo beretik, lehen aipaturiko Itunaren 141.4 artikulua berriak, errealitatean benetako berdintasun osoa gerta dadin bermatzeko agintzen du, ezen tratu-berdintasunaren printzipioak ez diola partaide direnetako inolako Estatuari eragotziko, abantaila jakinak eskaintzen dituzten neurriak hartu edota aurrera eramatea.

Bestalde, Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia ideia horretaz beterik da. Berdintasun-printzipioaren eta Estatuak har ditzaketen salbuespen positiboen arteko alderaketak egiten baititu.

Alor honetan, alde batetik Estatuen barneko borondate politikoak, eta bestaldetik gizarteko agenteen aitzinatze ekimenak dute zeregin nagusia.

**LAUGARREN ARAUA. IREKITZE KLAUSULAREN IDEIA.
EKINTZA POSITIBOA TRATU-BERDINTASUNAREN
PRINTZIPIOAREN SALBUESPENA DA ETA,
HALATAN, MUGATUA ERE DA**

Gai hau arras juridikoa da eta ponentziaren izenburuari loturik dago: Ekintza positiboaren esparru juridikoa. Esparru juridiko bati erreferentzia egiteak, inkontzientetik etorri ohi dela jakinda ere, inguramenduen bilatze eta zehaztea esan nahi du, kontzeptu juridiko baten joka eremuaren bilatze eta zehaztea, benetan zein eduki duen argituz eta zein alderdi kanpoan gelditzen zaizkion agertuz.

Ekintza positiboa berdintasun-printzipioaren arau orokorraren salbuespena deneko ideia, eta salbuespen izanik mugatua behar duela eta hertsiki interpretatu behar dela, etengabeaz azaltzen da Europako jurisprudentzian, eta baita Espainiak berdintasun-printzipioari buruz duen jurisprudentzia konstituzional ugarian ere.

Zuzenbide erkatzailean beti agertzen den elementu hau izan zen, ene ustez, Kalanke epaiaren oinarrian zegoena.

Laburki esateko, epai honek zioen, ezen bereizte positiboko neurriak arauaren salbuespenak izanik, ezin erabil bataitezke erabat automatikoki, beste elementurik kontuan hartu gabe.

Kalanke epaiak, beste askok bezala, ez zuen Kalanke jaunaren kasu jakin hori epaitzen. Bremen-go Land-eko Lege jakin bat epaitzen zuen. Lege horrek, emakumeak presentzia eskasa zuen sektoreetan beroni automatikoki lehentasuna emateko erabateko araua sortzen zuen. Salbuespena arau orokor bihurtzen zuen, bertara bil zitezkeen bestelako interes zilegiak kontuan hartzeko aukera eman gabe. Eta automatizatze horrexegatik zuen Itunaren berdintasunaren aurkakotzat hartu.

Bertara daitezkeen interes desberdinak kontuan hartu ahal izatearen ideia hau, Espainiako ordenamendu konstituzionalean ere agertzen da, noski.

Marschall epaiak aurrerapauso garrantzitsua egiten du, interes zilegien haztapenaren kontzeptua sakonduz, sakondu ere irekitze klausula deitzen duenaren bidetik.

Ikus dezagun nolako edukia ematen dion Justizia Auzitegiak irekitze klausula honi:

1. Lehenik, bereizketa positiboa onartzen da, berdintasun-printzipioaren bermearen beraren osagai bezala.
2. Bereizte positiboa den salbuespenaren jokoan automatizazioa erabiltzearen aurka dago irekitze klausula.
3. Arauak ziurtatu behar du emakumezko nola gizonezko hautagaiak objektibitatez aztertuko direla, hautagai bakoitzaren gaineko irizpide guztiak kontuan harturik, salbu sexuarena.
4. Emakumezko hautagaiaren lehentasuna baztertu beharra dago, baldin eta bertaraturiko irizpideen artean batek edo batzuek balantza gizonezkoaren alde jartzen badute.

5. Argi da baloraziorako bilduriko irizpideek ezin dutela, emakumezkoaren kaltetan sexuari lotuak izan.

Justizia Auzitegiak ez digu argitzen, erabakia hartzerakoan automatizazioa baztertuz erabili behar diren hautagaien irizpide horiek zeintzuk izan daitezkeen.

Pentsatzen dut irizpide horiek lotuak izango direla Itunak berak eta partaide diren Estatuetakoa Konstituzioek babespean jartzen dituzten baloreei.

Izan ere, Itunak berak, bereizkeria pairatzen duten beste kolektiboen aldeko ekintza positiboaren aukera ematen du: hala nola arrazagatik, edo etnia bati, edota erligio bati lotuta egoteagatik bereizkeria pairatzen dutenak, bestelako usteak dituztenak, edota minusbaliotasunaren bat, adina, etab.

Honako hauek balore argiak ditugu, babes positiboaren beharrea egon daitezkeenak, eta irekitze klausularen aplikatze haztatuan sartuko lirateke inolako dudarik gabe.

Badira, ordea, beste sektore nahasiagoak. Nola jokatuko luke, Konstituzio orotan aldarrikaturiko eskubidea den lanerako eskubideak, langabezia egoera jarraitua eta familiarenganako obligazioengatik baztertze egoera bat alde batean egonik, eta bestean berriz, emakumearen lehentasuna kontrataziotan.

Interesen haztaketan termino horiek garatu beharko ditu Estatuaren legegileak.

3. *Espainiako ordenamendu juridikoa*

Lehen aipatu dut bereizte positiboaren ideia ez dela Espainiar ohitura juridikoan arrotz.

78ko Konstituzioa onartu aurretik ere, bazen, zuzenbidearen erabilera alternatiboa izenez eza gutzen den Italiako jurisprudentziako eraikin iraultzailea hartzen zuen doktrina, Kode Zibilaren Aurretiazko Tituluaren 3.1 artikuluan oinarrituz.

Teoria hauek indarra hartzen zuten Kode Zibilaren Aurretiazko Titulua, ordenamenduaren sektore orotara aplikatzen zelako, eta arauak aplikatzen zireneko garaiko errealitate sozialaren arabera interpretatu behar zireneko irizpidean aurkitzen zuten behar adina euskarri, zuzenbidearen erabilera interpretatzailearen alde argudiatzeko. Erabilera interpretatzaile hau, erabilera alternatiboaren Italiar aurrekaria baino mugatuxeago zen, baina helburu berera zuzentzen zen: zuzenbidearen interpretatzaileak, epaileak bereziki, kasu jakinak ebazterakoan, arauaren gainean joka zezan, harreman batean ahulenaren aldeko interpretazioa eginez, nahiz eta arau itxuraz neutroak zirenek bermaturiko berdintasun formaleko egoeren aurrean egon.

Teoria aitzindari honen ondorio urriak, lan-zuzenbidean bildu ziren bakarrik, eta harremanaren alde "ahula"ren —langilearen— babesle edo jagole izaera areagotu egin zuten.

Espainiar Konstituzioak fase hau gaingituko du eta berdintasunaren printzipio formala ohiko terminoetan eratzearekin batera, 14. artikulua ezartzen duen jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, iritziagatik, edota beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik bereizkerien debekuarekin bat, beste bi agindu ditu ere, zuzenean ekintza positiboaren kontzeptuari lotuak.

Bata, 149.1.1 artikulua, Estatuari ematen diona, espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzen arauketa.

Legegilearentzako agindua dugu honako hau. Legeak behar du izan, benetako berdintasunerako baldintzen bermatzaile aktiboa.

Zuzenbidea eraikitzerakoan kontuan hartu behar den eta benetako berdintasunaren aldeko dagoen balore handienaren aurrean gaude.

Pietro Barcelonak zioenez, gaur egun, garai bateko zuzenbidearen interpretatzaile edo erabiltzaileari gomendatzen zitzaion erabilera alternatiboaren italiar eraikinetik haratago fasean gaude.

Haratago gaude, gaur egun gizartea gidatzearen funtzio politikoa ezin utz daitekeelako une juridikzionalean, alderdi edo parteen arteko gatazka sortua denean, baizik eta ekintza, iturburuaren sistemaren hastapenean bertan kokatu behar da, arauen sortze garaian, ordenamenduan zuzenean bilduz benetako berdintasunaren balorea eta honen bermatzeko baliabide positiboak.

Konstituzioaren 149.1.1 artikulua honek gero eta eragin handiagoa har dezakeen espainiar ordenamenduan, baldin eta erre ez bazen, erre den bezala, Estatuaren aldeko tresnatzat baliatuz, haren eskuduntza tituluak emendatzeko, Autonomia Erkidegoen autonomia mailaren kaltetan.

Baina ekintza positiboaren ideia Konstituzioan indartu egiten da eta botere publiko orori beteazten zaie, eta ez legegileari bakarrik, 9.2. artikuluan.

Artikulu honek behartzen ditu "botere publiko guztiak, norbanakoen eta norbanakoek osaturiko taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzera, eta berdintasun betea eragozten edo zailtzen dituzten oztopoak kentzera".

Izan ere, ekintza positiboaren osagaiak aipatzen dira:

- Berdintasun egoerak sustatzea.
- Gizabanakoaren eta kolektiboaren berdintasuna.
- Ez berdintasun formala, baizik eta benetakoa eta eraginkorra.
- Eta, berdintasun hori zailtzen edo eragozten duten oztopoen kentze positiboa.

Auzitegi Konstituzionalak, Konstituzioaren interpretatzaile gorenaren denez, irizpide hauek sakondu ditu.

14. artikulua berdintasun-printzipioa izan da eta oraindik ere da, 24. artikulua benetako babes judizialenarekin batera, jurisprudentziako pronuntziamentu gehien ukan dituen oinarritzko eskubidea.

Gaur egun jurisprudentzia ugaria dugu, beraz, berdintasun materialeko printzipio horrek espainiar ordenamenduan jokatzen duen moduz.

Laburpen lasterra eginez, jurisprudentzia konstituzionalak, berdintasun-printzipioaren gainean egiten duen interpretazioaren oinarriak honako bi hauek ditugu:

Lehena. Benetako berdintasunak eskatzen du egoera desberdinak desberdin tratatzea.

Bigarrena. Tratamendu desberdina erabiltzerakoan zentzuzkotasun eta proportzionaltasuneko irizpidea ezarri, bai arauak sortzerakoan eta bai arau hauen aplikazioan ere.

Lehenengo oinarria, alegia egoera desberdinetan tratamendu desberdina erabiltzearena, Auzitegi Konstituzionalak espreski aplikatu du, presentzia urria duen lekuetan emakumearen alde egiteko ekintza positiboak konstituzionaltzat hartzen dituelarik.

Esate baterako, 3/93 eta 16/95 epaiek esan zuten:

“arauetan tratamendu desberdina ematearen arrazoi bezala hartuko dira, hartu ere, emakumearen aldeko ekintza positiboko neurriak, zeinen bitartez emakumeak, arauen babespean dagoenez (...) baina batez ere bere osatze pertsonalaren subjeto aktiboa den bezainbatean, bizitza sozial eta juridikoan jasaten dituen baldintza txarragoak gainditu ahal ditzan, lana lortzeko eta laneko jardunean aurkitzen dituen oztopo anitzak esate baterako.”

Auzitegi Konstituzionalaren interpretazio honi loturiko ideia bat azpimarratu nahi nuke.

Lehen esan dugunez, Erkidegoaren zuzenbideak ez du bereizketa positiboko agindurik ematen, baizik eta Estatuek har dezaketen neurritzat uzten duela, Itunak dakarren berdintasun formaleko printzipioarekin bateragarria dela esanez.

Hala eta guztiz ere, doktrina konstituzionalaren argitan agindua indartua agertzen zaigu. Konstituziotik eta Auzitegi Konstituzionalak egin dion interpretaziotik ikusten da Espainiako ordenamenduak berdintasun-printzipioa ulertzeko duen moduak eskatzen duela eta horretara behar-tzen, gizartean presentzia urria duen kolektiboren bat dagoenean, ekintza positiboaren irizpidea erabiltzea.

Itunarekin bateragarri izatea, betebeharrak konstituzionala bihurtzen da.

4.

Euskal ordenamendua

Amaitu aurretik, euskal ordenamenduaren aipamentxo bat.

Hasteko, orain arteko guztia ekarri behar dugu. Gernikako Estatutuak, 9.2.d) artikuluan, Konstituzioaren berdintasuna bene-benetan sustatzeko eta aurka zaizkion oztopoak botere publikoek ken ditzateneko agindua bere egiten du.

Aipa dezagun ere, botere publikoei eginiko agindu orokor hori gauzatzen dela gaur egun, Eusko Jaurlaritzari doakionean, “Euskadiko Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II. Plana”ren bitartez.

Plan hau, gai honetan sektore publikoa programatzeko tresna izanik, Jaurlaritzaren Sail guztien ekintza publikoak koordinatzera abiatzen da, ekintza positiboko neurri zehatzak azalduz, haiek aurrera eramateko arduradunak izendatuz, burutzeko epeak ezarriz eta koordinazio bideak irekiz.

Ekintzen eta baliabideen batura hutsaz harat joateko antolatzen da, tratu-berdintasuna bermatzeko helburura eraman dezakeen sistematika erabiliz.

Planaren ideia nagusia Sarreran bertan azaltzen da argi eta garbi, eta egin dugun hausnarketa honen laburpen ona izan daitekeelakoan hemen doakizue:

“Ez zaigu aski aukera-berdintasuna bermatzea; bestelako eskuhartzeak behar dira, emakumeek baldintza berdinetan parte hartzeko dituzten oztopoak ken ditzagun.”

M^o JOSÉ AUBET SEMMLER

**"Colectivo de Mujeres
divergentes" Bartzelona**

**M^o CARMEN GALLASTEGI
ZULAIKA**

**Azterketa Ekonomikoaren
Oinarriak Saila. Euskal Herriko
Unibertsitatea**

Esparru

ekonomikoa:

Europako

Batasuna,

Maastricht-eko

Ituna,

Amsterdam-eko

Itunaren

aldaketak

*Sarrera***1.**

“Amsterdam-eko Ituna ez da emakumeen aldekoa” esan zuen bere garaian Gertrud Wartenberg, Emakumeen Europako Lobbyko lehendakariak.

“Amsterdam-eko Itunak ez zion aurreikusitakoari erantzun. 2000-2006 denboraldirako aurrekontuen sorta den 2000 Agendaren eztabaidak nekez joango dira, aurretik helburuak argi zehazten ez baditugu, eta Ekialderako hedapenerako eztabaidak gaitzak gertatuko zaizkigu, aurretik nolako Europa handia nahi dugun argitu ez badugu”.

Hitz hauek ez ditugu, Erkidegoaren azken itunen aurka den “ezkertiar gorri” batenak, baizik eta Jacques Delors, Batzordearen lehendakari-ohia eta itun horien azken egile izan denarenak. Hitz hauek uzten digute ikustera:

1. Moneta bakarras haratagoko Europako proiekturik ez dela, ‘gainerakoa’ —hau da, proiektua, helburua— egiteko dago.
2. Amsterdam-eko Itunak porrot egin zuen Erkidegoaren erakundeak erreformatu eta demokratiatzeko zuen helburuan.
3. 2006 urte arteko “aurrekontuen sorta”ri arazo konpongaitzak gehitu eta pilatu zaizkio.
4. Aurrean dugun etorkizuna (pentsa daiteke batez ere hegoalde eta ekialdeko herrialde periferikoek dutena) latza izan daiteke, kontatu eta agindu dizkiguten zorionezko ipuinetatik urruna.
5. Hitz hauek orain esateak, eta ez 1992.ean, orduan partaide ziren 12 herrialdeetan Ituna aurkeztu eta berretsi zen garaian, adierazten du Batzordeak eta gobernuek nahita saiatu direla informazioaren zati garrantzitsua ‘ezkututzen’ eta ‘zatika’ ematen.

Ez dira inondik ere arinegi ateratako ondorioak. Bizi ere, azken urteotan bizitzen ari baikara: Gizarte-arazoetako, Laneko, Ekologia, Osasun edota Hezkuntzako ministeritzetan, edota Autonomia Erkidegoetako hauen parekoetan aurrekontuen murrizketak. Eta berdin gertatzen ari da Europar Batasuneko beste herrialdeetan, iparraldeko Ongizate “ereduzkoak” ere barne: Suedian, Danimarkan eta Finlandian.

2.*Itunaren esparru historikoa*

Gogora dezagun, Maastricht-eko Ituna, aste urritan idatzirikoa, larrialdi egoera batean sortu zela (Alemania berriro batzea, Frantziako liberaren gaineko estutze saioak), eta honek ekartzen duela Mitterrand eta Kohl-en arteko laster beharreko paktua, Alemania batu berria ez zedin Europaren eraikuntzaz bazter jarri eta Europako botere nagusia berriz bihurtu. Frantziak ez zuen Alemaniaren eskualde bat izan nahi. Halatan beraz, Ituna, Frantzia-Alemaniaren seinale nabarmenarekin jaio delarik, idatzi egiten da lehenik eta Europar Batasuneko partaide diren Estatu guztiei ematen zaie berrest dezaten, batere kontu egin gabe, Europan ordurako nabariak ziren atzeraldi ekonomikoari eta eskubide sozialen atzerantzko aldaketari. Gogora dezagun halaber, Suitza-k, Islandia-k eta Norvegia-k Europar Batasun honetan sartzeari uko egin diotela (ezezko botoa nagusi izan zen emakumeen artean), eta gogoratu era Danimarka eta Erresuma Batuak “opting out”

klausulari lotu direla, hau da, heldu den urtean abian jartzen den monetaren batasuneko azken fasean automatikoki ez sartzeari. Europako biztanle anitzek esan dute ezetz. Kontuan hartu beharrekoa dugu hau, herrialde horietan luze eta zabal eztabaidatzeko aukera demokratikoa izan baitute aldeko eta aurkakoen gainean, ondoren, erreferendumean beren iritzia emanez.

3. *Itunaren esparru ekonomikoa*

Maastricht-eko Itunak, eta honen gehigarri den Amsterdam-ekoak, moneta bakar bat proposatzen dute, merkatu bakar baterako politika ekonomiko bakar baterako, hartara betez, Erromako Itunak bigarren faserako aurreikusitakoa, alegia ekonomia eta monetazko batasuna (EMB). Itunaren edukaren alde eta bateratze irizpideen alde erabili eta erabiltzen diren argudioak era askotarikoak dira: bakearen bermea omen da; elkarrekin lan egiteko esparru amankomuna instituzionalizatzen omen du; salneurrien egonkortasunerako oinarritzko esparru juridikoa eskaintzen omen du; eredu zaion alemaniar markua bezain indartsu eta egonkor izango den moneta ziurtatzen du eta, Europako moneta anitzak kenduz, lansariak, zerbitzuak edota salneurriak erkatzerakoan argi handiagoa egiten du. Eta ahulen diren moneten estuasunei eta debaluazioei ekiditen zaie. EMBa beharrezkoa litzateke, beraz, nazio edota enpresa txikiek bloke handien aurrean (japoniarra eta amerikarra) duten ahuldadea gainditzeko, bai eta finantz-merkatuen indar eskerga eta kontrolaezinari aurre egiteko ere, laster eta epe motzera aritzen baitira hauek, eta etekinei besterik ez baitiote begiratzen. Kontuan hartu beharreko onurak dira, noski.

Alabaina, politika eremuan beti gertatzen den bezala, garrantzitsuena, proiektu bat definitzen duena, ZER baino NOLA da, eta hor beste upelako sagardoarekin egiten dugu topo. Aipatzen dituzten egiteko horietarako Itunak hizkuntza harrapaezina erabiltzen baitu, eta antolatzen dituen tresnak eta helburuak MONETAZKOAK besterik ez baitira, sortu zituen itxaropen eta erronketarako inolaz ere erantzuteko gai ez direnak. Hauxe du, izan ere, arazo nagusia, herrien bat ez etortze eta desadostasunen kakoa. Eta horrexegatik, hain zuzen ere, ez da erreferendumean jarri Batasunaren herri orotan, ez Batasunaren erdigunea den Alemanian bertan ere.

3.1. LEHIA LIBREKO MERKATU-EKONOMIA

Itunak izendatzen du lehen aldiz Europako espazioa honako terminoetan: 'lehia librea deneko merkatu-ekonomia irekia', bestelako muga edo ñabardurarik gabe. Horrela:

- ordurarte bitarteko bat izandakoa —ekonomi-hazkuntza eta politika makroekonomikoa— izatez helburu bihurtzen da (Itunaren B art.);
- ekonomiaren bateratzerako irizpideak (mugak ezartzea inflazioari, interes-tasei, defizit publikoari, eta zorrari) zurrunk dira, ausazkoak eta desberdinak diren ekonomientzat beti berdinak, eta bateratze-epea arras eskasa da, sei urtekoa besterik ez (1993-1999), eta honek dakartzan kostuak lan eta gizarte gaietan, desberdinak dira herrialde eta kolektibo desberdinetan;

- “merkatu-ekonomia”ren inposizioak apurtzen du Europak erdiespen sozialetan dituen tradizio eta ondarearekin; liberalak ez diren bestelako politika ekonomikoak (sozialdemokratik, sozializatzaileak, etab.) erabiltzea zaildu —ezindu— egiten du, eta halatan, oraindik merkatuak harapatu gabeko guneentzako mehatxu zuzena da (sektore publikoaren zati handia: osasuna, hezkuntza, pentsioak, etab.);
- bi Itunek aipatzen dituzte, nolabait aipatu ere, “gizarte-aurrerapena” eta enplegua, erdietsi nahi diren azken helburuak bezala, baina ez dituzte ordea, garatzen. Eta Amsterdam-eko Itunaren hitzaurrean oinarritzko eskubideei egiten zaien lekua erretorikoa besterik ez da, ez baita Europar Batasuneko emakumezko gehienei dagozkien gizarte-arazo nagusiei aurre egingo dien xedapen edota aurrekonturik zertu. Eta honek, edozein politika ekonomikoren eta hiritartasunaren beraren legitimatze-oinarri azkenak izan beharko luketen eskubide sozial, zibiko edota lanekoen eskasia nabarmenak dakartza;
- ez dira hartzen ere, EBaren mailan zergak bateratzeko neurriak, ez eta Erkidegoaren benetako aurrekonturik antolatzen, denon artean sortutako ondasunak modu justuan birbanatzen direla ziurtatzeko (txikiegia baita aurrekontu hori, horrelako egitekoaren aurrean), eta honek uzten digu pentsatzera, heldu den hamarkadan, gizarte desberdintasunak eta generokoak ere, handitu egingo direla, eta ondasunak, bai nazio mailan, bai Erkidegoaren mailan ere, desberdinki banatuko direla.

3.2.

MAASTRICHT/AMSTERDAM ETA GIZARTE ARLOKO ESKASIAK

Maastricht-eko Ituna, errealitatean, gizalegezko eta gizarteko eskubideekin uztarrezina dela erakusten digu Amsterdam-eko Itunak erakutsi duen isiltasuna Gobernuen Arteko Biltzarraren aurrean (GAB) eta Jakintsuen Komiteak gizarte eta gizalegezko gaietan eginiko deliberamenduen aurrean (1995), nahiz eta oso tentuz eta neurriz eginak ziren. Gogora ekar dezagun, komite hau Batzordeak ofizialki deitu zuela, Maastricht-eko Itunak oinarritzko eskubideen eta eskubide demokratikoen arloan zituen eskasiak zuzen zitzaizkien.

Enpleguak, beraz, eta ‘gizarte-gaiak’, moneta-bateratzearen menpeko bigarren mailako lekua hartzen dute egiazkoan. Gizarte-segurantza, pentsioak, gutxieneko lansaria, enplegua, langabezi-laguntzak, gizarte-laguntzak, kultura, ingurugiroa, “nazio” esparruan dira oraindik, edota EBean “ahobatezko” erabakien menpe; honek erruz zailtzen du gai hauek ‘erkidegotzea’, epe laburrean bederen. Ezen gizarte-gaietan ez bada bateratzea lortzen, moneta bakar (debaluaezin) baten esparruan lehiatsu izateko tresna bakarra lansarien politika, beherakakoa, noski, edo gehienez ‘izoztutakoa’ (behe eta erdi mailako funtzionarioekin jadanik gertatzen den bezala) izango da. Beste hitzetan esateko, gizarte-helburuek ez dute autonomia beste helburu makroekonomikoen aurrean, hau da: gure lan eta gizarte etorkizuna Europako Banku Zentralaren menpeago izango dira, Europako Kontseiluko edota gobernuetako kideen ideologiaren menpe baino. Halaxe, gordinean, esatea komeni zaigu, argi eta garbi gera dadin, erkidego-mailako estrategiak diseinatzerakoan ez gaitzezen ezjakinean gal.

3.3.

DEFIZITA, ZORRA, INFLAZIOA...GUTXITU

Itunen leitmotiv-ak, alegia defizita, zorra eta inflazioa gutxitzeak, bere alde on eta txarra ditu. Ona da inflazioa txikia izatea, ekonomia txikiei handiei baino kalte gehiago egiten dien "zerga" delako. Zor gehiegi ez izatea ere, teorian bederen, ona da, batez ere Estatuei eginiko kreditu eta mailaguen prezioak garestiak diren garaian. Irizpide horiek abstraktuan erabilia ordea, gizarte-erreferentzia jakinik gabe, honelako egoera sor dezakete, eta sortzen ari dira: "dena da zilegi zenbaki handiak urte bukaeran bat badatoz" "Guztion ondarea saltzen da (enpresa publikoen pribatizazioak) diru-sarrerak ziurtatzeko, eta gastu bezala ikusiak diren sektoreetako aurrekontu-sailak murriztu egiten dira, sektore publikoko inbertsioak urrituz, ez baitira jadanik, etorkizunerako inbertsiotzat hartzen, baizik eta eragozpen edo enbarazutat. Etorkizunerako inbertsioa esaten dugunean esan nahi dugu: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, haurtzaindegi publikoak, eguneko eskolak, adinekoen eta erien arta eta zaintza, etab.

4.

Batzordeak Ekofinei eginiko gomendioak

Itunaren edukiak, idazgabeko Egonkortasun-Paktuak, Europako Banku Zentralak eta bideratutako joerek sekulako nagusitasuna ematen diete ekonomia eta finantzetako ministroei —izan ere, demokratikoki aukeratu gabeak direnak—. Gainerako ministerioak, hala nola lanekoa, gizarte-arazoetakoa, osasunekoa, hezkuntzakoa, "Ekofin" izenaz ezagun diren ministeritza nagusi hauen irizpide eta gomendioen menpe gelditzen dira. Denbora laburrean benetako ezkutuko azpigobernuak bihurtu zaizkigu hauek, kontrol demokratikotik at eztabaidatzen eta erabakitzen dutenak eta herritarrei kontu eman gabe. Beraiek edota banku zentraletako lehendakariak paktatu edota han hemen hamarren bat mugitzen dutenean, —inflazioan, defizitean, edota interes-tasan— milioika pertsonen zoriarekin, eta beharbada haien pobretzearekin, jokutzen ari dira, eta batez ere emakumeenarekin.

Horrexegatik dute halako garrantzia, Eliane Vogel-Polsky-k dagoeneko aipatuko zizuen bezala, Ekofinen Batzordeak egindako gomendioak, etorkizun hurbilerako politika ekonomikoen nondik norakoei doakienean, lansariak areago kontrolatzeko eskatuz —inflazioaren azpitik betiere—, bai eta lan-merkatuan malgutasuna gomendatuz —hau da: segurtasun eta egonkortasun gutxiago— eta defizit gabeko aurrekontu-politika proposatuz —amerikarren modura, sektore publikoa hedatzeko aukera eskasekin. Gomendio hauek, behin Erkidegoaren ministroen kontseiluan, gomendatutakoaren ildotik abiatuta, gizarte, lan edota zerga alorretan mugak ezartzeko erabakiak bihurtzen dira gehienetan.

Europako emakumeen egoera Ituna ondoren

Europa osoan hasiak dira gizarte-murrizketa handi edo txikiagoak egiten. Maastricht eta Amsterdam-eko Itunek moneta eta ekonomi bateratzeetaz mintzo dira. Errealitatean, ordea, indar guztia moneta bateratzean jarri da. Eta moneta-bateratze zurrun horrek ez dio leku uzten ekonomien benetako bateratzeari, hau da, EBean lansariak, pentsioak eta salneurriak bateratzeari. Bestela esateko, moneten bateratzea posible izan da eta izango da, herrialdeen artean, klaseen artean eta sexuen artean diren ekonomi-aldeak (lansariak eta salneurriak) mantenduz gero.

Izan ere, imajina dezagun momentu batez, Europa osoan emakumeen lansariak gizonezkoenekin parekatzen direla (oro har "lansari-masa" deiturikoa %25 eta 30 bitartean igoko litzatekelarik, eta Espainian, berriz, %34,5). Halakoan berehala entzungo genituen "ekofinak" eta 'adituak' bi deskalabru behintzat iragarritz, alegia: a) erosteko ahalmen emendatu horrek, kontsumoa areagotzean, inflazioa ere areagotuko luke eta beraz 'gaizto'tzat hartuko litzateke; b) enpresek lehiakortasuna —honako hitz magikoa— galduko lukete eta edo itxi edo lan-kostuak jaitsi beharko litzateke, hau da, langileak bidali edo lansariak jaitsi beharko litzateke, gu aukera berdinean baten aurrean jarritz: lehoiaren ahoz nahi dugu hil? (lanetik bidaliak, langabezian), hala otsoarenean? (ezegonkortasuna edo lansari eskasak).

Nazioarteko Moneta Fondoaren gomendioak irakurtzea besterik ez dugu (1997ko iraila), esaten duenean EBean lan-merkatuak "malgutzen" ez badira, langabezia areagotu egingo dela moneta bakarra indarrean jartzean, "herrialdeek ezin erabiliko baitute truke tasa lehiakortasuna hobetzeko, eta kontuak garbitzeko enpresen kostuen jaitsiera erabili beharko da, lanpostuak murriztuz... eta honek eskatuko du gizarte-laguntzak eta lan-merkatua 'aldatzea'..."!

Ekonomiak eta defizitak bateratzearen aurkako politika hau, Europako Ongizate Estatua desegiten ari da gero eta gehiago, bereziki gizarte-zerbitzu eta eskubideen arloan eskasak diren herrialdeetan, hala nola Espainia, Italia, Portugal eta Grezian. Eta desegite honetan emakumeak dira kaltetuenak, zeren eta:

- gizarte eta publiko alorrean murrizketak gertatzen direnean, emakumeek galtzen dituzte lanpostuak, izan ere, alor horietan emakumezkoen lanpostuak dira edo izan daitezke lanpostu gehienak;
- gizarte-sektorean eta osasun-hezkuntza-zaintza arloetan murrizketak direnean, emakumeoi lan handiagoa ematen zaigu —estatistikoki ikusezina eta ordaindu gabea— etxean egiteko;
- emakumeek zerbitzu eta azpiegitura gutxiago izango ditugu, etxez kanpoko lan egoki eta ordaindurikoa aukeratu ahal izateko.

Zenbait datu argigarri eskaintzen dizuet:

- Espainiako biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina (BPG), Erkidegoaren batzbestekoarekin konparatuz, %79tik %75 bitarte jaitsi da 1975-1995 bitartean (*Le Monde Diplomatique*, maiatza, 19. orr.).
- Emakumeen langabezi-tasa, munduko altuenetakoen artean mantendu da, eta altuena da, alde arras handiz, EBren barnean. Espainian ia 7 milioi emakume daude "lanik gabe", eta hauetako gehienak estatistikoki "ikustezinak" dira, ez baitira Lan bulegoetan (INEM) zerrendatuak. Multzo honi lotzen bazaizkio, Estatuaren diru laguntza dutenak eta lansari eskasaren truke, nolabaiteko baldintzen pean lan egiten dutenak, emakumeen autonomia eza handi handia agertzen zaigu, nork bere bizitza gidatu ahal izateko orduan.
- Espainiako "gizarte-estatu" dugu, lanpostuen emendatze-tasa txikiena duena: sektore publikoan ez da %22 emakume baizik lanean, EBean %50a delarik. Gizarte-zerbitzu publikoen eskasia hau, espainiar emakumeek bere kargu hartu behar izaten dute, Europako beste herrialdeetan Estatuak hartzen dituen bitartean.
- Espainiak gastatzen du pertsona bakoitzeko gizarte-laguntza, osasun eta hezkuntza publikoetan, EBeko estatu gehienek baino gutxiago, eta ume-eskola publikoetan eta adinekoak zaintzeko etxez etxeko zerbitzu publikoetan izugarritzko eskasia dugu.
- Bizi-itxaropena, herrialde baten ongizatearen seinaleetako bat, izan ere, jaitsi egin da Espainian azken hamar urteotan (OMS, 1997), eta klase xeheen kaltetan agertzen zaigu (hamar urteko aldea agertzeraino klase batetik bestera zenbait eskualdetan, hala nola Catalunya-n).
- Herritarren diru-sarreraren arteko aldeak ere handitu dira. Alargunentzako pentsioko 48.000 ptatik, goi-kargu publiko batek irabazten duenera mundu bat dago. Italiak eta Espainiak dute inork baino alde handiagoa gutxieneko lansariaren eta diputatu baten lansariaren artean (1/10), izan ere kultura berdinzaleagoa duten Danimarka edo Suediakoek dutena baino hiru aldiz ere gehiagokoa.
- Espainia, Turkia eta Portugalekin batera, heziketa eskasa duen jende heldu gehien dutenen leku lotsagarrian ageri da, eta hezkuntzako hiru mailatako azpiegituratan gutxien gastatzen duen herrialdea da. Unibertsitateko ikasle bakoitzagatik gastua, OCDEren batezbestekoaren erditsua da (V.Navarro, *El País*, 18.5.98). Eta halere, hezkuntzarako bitartekoak murrizten ari gara.

Bidea zabalik da, beraz, talde ahulenak babes gabean uzteko (emakumeak, gazteak, umeak, etorkinak) eta "aukera-desberdintasunerako". Neoliberalismoaren logika makroekonomikoak ez du beste irtenbiderik eskaintzen, baizik eta "etekin pribatu handiagoa, eskasia publikoarekin". Eta logika horri egin beharko diogu aurre emakumeek.

7.

Denboraren egitura

Denbora generoaren arabera desberdinki antolatzen —eta ordaintzen— da, hartara emakumea “dagokion lekuan” matentzearren. Geure ahalmen guztiak garatzeko, bizitza politikoan parte hartzeko, denbora behar dugu. Eta honek eskatzen du, ez bakarrik emakumeentzako gizarte-zerbitzuak orotara zabaltzea, baizik eta eskatzen du ere, etxeko ekonomia publikoki aintzat hartzea (ondasunak sortzen baititu, gizarteratze lanengatik, kultur-lanengatik, etab.). Denbora ezinbesteko bitartekoa zaigu, baina ez dago berdin banatuta eta ordainduta bi generoengan. Denbora ezak ez digu gizarte-bizitzan eta bizitza politikoan parte hartzen uzten. “Denbora” sexuen arabera instituzionalizatu da eta lan ordaindua lortzeko garrantzi handikoa da (nahiz eta gaur egun dugun lan hori ez oso zorionekoa izan eta gainera maiz egunean lanaldi bikoitz eta hirukoitzak egin beharra ekartzen digun); garrantzi handikoa da ere eskubide sozial eta politikoak eskuratzeko, bai eta onura sozialak ere. Emakumeok, lan-merkatuan eskuhartzen dugun modua oztopo zaigularik (lanaldi murriztaz, aldikako edota egonkortasun ezaz, azpiko ekonomian, etab.) eta besteak zaintzeko erabiltzen ditugun denbora eta ezagupenak aintzat hartzen ez zaizkigunez, “denboraren egitura” aldatzeko beharra dugun lehenak gara, denen onerako izango bada ere. Ezin horrelako aldaketarik egin, ordea, lana, gizartearen maila orotan eta oro har, beste erara antolatzen ez bada.

8.

Mainstreaming, kuotak, ekintza positiboa, etab.

Erromako 119. artikulua gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen zuen jadanik. Berrogei urte beranduago, nahiz eta zenbait alderditan aurrera egin dugun, bestetan trabaturik gaude, eta emakumeontzat funtsezkoak zaizkigun beste batzutan, aldiz, atzera egin dugu. Gaur egun, mainstreaming hitza erabiltzea, edota kuotak hitza, edo, ekintza positiboak, etab, ohikoa bihurtu zaigu, Erkidegoaren hizkera eta ondarearen parte bihurtu dugu, itxuraz zerbait aldatu, baina benetan inolako aldaketa gerta ez dadin egiten dela dirudi. Proposamen horiek emakume askok erabiltzen dituzte, asmo onez erabili ere, egoera honetan estrategia zuzen eta egokia den ustetan, baina ez dira egoera jakin batzuetarako baizik eraginkor, herrialdeen arabekoak, eskualdeen arabekoak, eta kulturen arabekoak, eta edozein kasuan, gutxiengo batentzat besterik ez dira baliagarriak. Eta horien erabilera aztertuta ikusten da ez dutela arazoaren muina inondik ere ikutzen, desberdintasunaren benetako arrazoira ez dutela iristen. Besterik gabean bazterrean utz ez badaitezke ere, eta “praktika egokiak” sortzen badituzte ere, haien huts nagusia da ez direla ezarriak —hirurogei eta hirurogeitamarreko hamarkadetako mogimendu feminista berriak ezarriak diren bezala— mende amaiera honen errealitate sozioekonomiko, ideologiko eta kulturalaren kritika eta aldaketa sakona egin dezakeen estrategia zabal eta luzerakoan.

Beste estrategia sakonagoen ordeaz agertzen zaizkigu, eta ez osagarri gisa. Ez dute inondik ere, emakumezkoen menpekotasun maila arras handia (Europako hegoaldean bereziki handia dena) aldatzen, ez eta denboraren egituraketa ere (parte hartzeko garaian, lan egiterakoan, dirua hartzerakoan, zaintzerakoan, zahartzerakoan, etab, desberdintasunak mantentzearen funts dena); ez baitute gehiengoaren aukera-desberdintasuna geldiarazten (Espainian bederen), ez eta milaka emakumezkoen pobrezia eta eskasiako etorkizunari bestelako aukerarik eskaintzen. Mainstreaming edota kuotetaz, edo ekintza positiboetaz hitz egitea, zerrenda itxi eta blokeatuak erabiltzera behartzen dituen hauteskunde-legea duen herrialdean, lansari egokia hamar emakumeetatik hiruk besterik ez dutenean, eta gainerakoak besteren bitartekoen eta denboraren kontura bizi direnean, halako herrialdean, bada, xeble da, besterik ez bada, horrelako hitz potoloak entzutea. Erakusten du nolako tarte itzela dagoen kaletik —Espainiako kaleetatik— Bruselara, eta emakumeengandik 'emakume politiko' gehienengana.

9. *Benetako ekonomia eta emakumeak*

Sakonean, benetako ekonomian, merkatuaren legeak gailentzen dira, gailendu ere etekin pribatuaren legeak, indartsuena. Lege itsu eta ilun horiek (eta egunetik egunera bihotz-gogorragoak), azpiko korrante nagusiak dira, azalean brisarek sortzen dituzten kixkur txiki batzuegatik aldatzen ez direnak. Oztoporik ez duen indar hori eman daiteke, hainbat erakunde eta toki politikoan AGERI diren emakumeen kopurua handia izanik ere (legebiltzarrak, udaletxeak, etab.), baina ezin da uztartu, ordea, politika —kultura— benetan berdinzalearekin. Maastricht-eko Itunak ezarritako sistema, eta sistema neokapitalista oro har, askoz hobeto aritzen da eta eraginkorragoa da berdintasunik GABE, hau da, emakumeek, emakume diren bezainbatean dituzten interes eta beharrak kontuan hartu gabe, eta havei bezala, bestelako talde erdeinatuei ere beren beharretan erantzun gabe. Kapitalismoa jaio zen eta joka dezake soilik alor pribatutik baztertzen bada, edo, hobeto esatearren, Publikoa eta Pribatuaren artean ezin pasazko tarte finkatzen badu, bizitzaren eta ugalketaren alorra ikustezina bihurtuz. Bestelako hitzetan, emakumeen etxe-lan —ugalketa— ordaindu gabea behar du; edozein garaian diru txikiaren truke denerako prest dagoen lan-eskua behar du (haurdunaldiak, amatasun-bajak edota lan-utzialdiak, oztopo zaizkio bere 'martxa onerako'); eta emakumeen parte batek parte har dezala behar du ere, zirikatzailer badira ere, hartara legitimatua ager dadin. Honen guztiaren frogagarri agertzen zaizkigu, merkatuz kanpoko alor handiak gorde dituzten herrialdeak (Eskandinaviar herriak, zenbait herrialde sozialista), non genero eta gizarte berdintasun maila handiagoak lortu baitituzte.

Itunek —edota Batzordeak— ezarritako esparruaren barruan Batzordeak eta gobernuek, eztabaidatzen dituzten generoko politikak erro gutxiakoak dira, ez baitituzte bizi dugun sistema ekonomikoaren oinarriak inondik ere aldatzen, edota areago mantentzen ere laguntzen dute, nahiz eta kostuak handiak diren (gaur egun, 50 milioi behartsu eta 18 milioi langabetu ofizialak EBean). Beste mende oso bat eman genezakeen, parte hartze apurño bat hemen, berdintasun apurño bat han eskatzen, defentsiban jarriak beti. Ez da ordea, gure buruko osasunerako ona, ezerk ez baiti-

gu ziurtatzen, lorpentxo hauek ez direla gaurtik biharrera, kolpe batez galduko, eskuin muturreko alderdiren batek boterea lortu duelako gu baino lehen...!

10.

Arken utopia moduan

lkas dezagun, bada, geure memoria eta borroketatik, Afganistan-engandik, Iran-engandik, Aljeriarengandik, eta onar dezagun oneski:

- Berdintasun apurrak, mainstreaming eta kuotak eskatzen jarraitzeak, momentuko aurrerapena gertatuta ere, benetan, posible diren estrategia bakarren moduan azaltzen zaizkigunez, haria galtzera eraman gaitzake eta ahantzarazi "kontsigna" horiek ez dituztela ezertan ere ikutzen gizarte eta generoko desberdintasunen oinarri diren egiturak, eta 1998an eraginik izan dezaketaren arren, ezerk ez duela ziurtatzen 2000 urtean ere eraginkorrak izango direnik.
- EBeko gobernuak Kairo eta Beijing-eko Biltzarretan emakumeen alde sinatutakoa ez datorke bat gaur egungo EBarekin eta Maastricht eta Amsterdam-eko Itunekin. Emakumearen autonomia eta berdintasuna garestiak baitira eta merkatuaren ikuspegitik 'probetxugarri' ez diren sektore publikoetan inbertsioak eskatzen baitituzte.
- Emakume guztiok ez gaude egiteko beretan. Batasunerako dei errepikatuak eginagatik ere, batzuk heldu den ekainean Erkidegoaren Gailurraren alde agertuko dira, eta beste batzuk Kontragailurrean bilduko gara; batzuk —erakundeetatik gertuen direnak— kuotak, ekintza positiboak eta mainstreaming ideiekin ibiliko dira, eta besteok Erkidegoaren egitura guztien legitimazio falta salatzen arituko gara.

Hirurogeitamargarren hamarkadako Europako mogimendu feministak —eta batez ere jendez ugariak, hala nola italiarra, danimarkatarra eta norvegiarra— eraginkorrak izan ziren, neurri handi batean, gauza asko zalantzan jartzeko gai izan zirelako, hainbat arau hankaz gora jartzeko eta sistemaren ahuldadeak ikusteko gai izan zirelako. Haiek gogoratzen digute nondik nora behar dugun jo, bai eta zein handi izan daitekeen emakumeen indarra, talde kritiko bihurtzen direnean.

Gizatasuna galdutako kultura eta diruaren kultura dira mende amaiera honetako sistema honen puntu ahuletako bi, emakumeekin kontatu gabe eraikitzen ari den Europa honetan. Gure banku-kontuetatik bizi da, gure zerga eta kontsumotik. Piskanaka haizebide horiek ixten badizkiogu arnasa buka dakieke. Eta kulturak gizatasuna galtzen duenean —edota hutsalke-ria/manipulazioa bihurtzen denean— geure informazio eta komunikazio sare geureak sortzea pentsa genezake, telebista gurea, egunkari gurea,... Ametsak dohainik dira oraindik!

Sarrera

1.

Ez dirudi dudarik dagoenik, edo nik behintzat dudarik gabe ikusten dut, bizi dugun testuinguru honetan, alegia XX. mendearen amaierako Europan, egiteko handia dagoela oraindik emakumeen alde, geure garapen osoaren alde, bizitzaren alderdi guztietara sar gaitezen eta geure buruarekin gustura senti gaitezen. Egiteko handia dagoela, beraz, gehienei aurkituko badiegu dagokien tokiak, denon artean egiten ari garen gizarte honetan.

Ziur samar ikusten dut ere, garapen ekonomikoak erraztu egiten duela emakumea zientziara sartzera eta oro har erabakiak hartzen direneko toki pribatu eta publikoetara. Horren ondorioz guxtiagi ordaindu behar du emakumeak, dagozkion erantzukizuneko tokiak iristea.

Areago, badirudi eskarmentuak erakusten digula ekonomi garapenak eta hazkuntzak hain behar handia dakartela zientzia eta teknologia arloetan langile berriak hartzeko, ezen azkenean inor ez baita konturatzen kontratatzen diren langile horiek gizon ala emakumeak diren, eta hala txikiagotu egiten direla bereizkeriako arazoak; hau guretzat interesgarria bada ere, oso interesgarria da, bereziki, datozen belaunaldientzat.

Emakumeok geure gaitasun guztia garatuko badugu, bereizkeriak desagertu egin behar du; halatan beraz, oso garrantzi handikoa da jakitea zer gertatuko den Europan, datozen urteotan, gizarte eta ekonomi alorretan, Biltzar honen gaiatik urrun dela badirudi ere.

Ekonomi garapena ematen denean, hezkuntzan erabiltzeko baliabideak daudenean, gurasoek, goi mailako heziketa ematerakoan seme eta alaben arteko bereizkeria egiteari uzten diotenean, errazago da emakumea ez sentitzea sistemaren bereizkeriaren menpe. Ekonomi garapena eta enplegua daudenean ez da gizonen egoera bakarrik hobetzen, emakumeen egoera ere hobetzen da, nahiz eta, kontuan harturik zenbait herrialdetan, hala nola Espainian, zein baxu den emakumezkoen artean den biztanleria aktiboaren maila eta duten langabezia tasa handiak, esan behar den lan handia geratzen zaigula oraindik eta bide luzea dugula aurretik.

Aitzinsolas hau egin dizuet, ekonomiaren inguruko solasa eginen dizuedalako eta horren zurigarrri, ezin baitizuet, biltzar honetan, besterik eskaini eta esan dezadan ere itxaropenez, Europa modu eutsi eta kohesionatuan sendotu eta garatzen bada, emakumeok ere espero dezakegula talde bezala areagotuko dugula gizartean dugun presentzia eta lehen postuetan dugun lekua sendotuko dugula, larrua borrokan utzi gabe.

Uste dut, beste alorretan bezala —ingurugiroaren alorra dugu horren adibide ona— emakumeentzako tratu berdinzaleak, emakumeen askatasunak eta beren garapen pertsonal osoak duten portaera berezia dela, alegia, ekonomilariok “luxuzko onura” deritzoguna. Zenbat eta errenta handiagoa, orduan eta gehiago kontsumitzen dira.

Ingurugiroa babesteko joera handiagoa ohi dugu, aberats eta garatuak garen neurrian eta gizarteak emakumei mundu kultural, politiko, ekonomiko eta gizarte mundura orohar, sartzeko aukera gehiago ematen die kultura maila igotzearekin batera, eta kulturaren maila hazkuntza eta garapen mailari lotua da.

Peilokeria galanta da esatea emakumeok gizonen adina adimen, lan ahalmen, egokiera, harremanetarako gaitasun eta pentsa dezakegun beste edozein ezaugarri dugula. Alabaina, orain arte

eman izan da eta oraindik ere ematen da emakumearen aurkako bereizkeria, orain artean izan dira eta oraindik ere badira lan mundura sartzeko zailtasun handiak dituzten emakumeak, lanegun bikoitza dutenak, oztopoak oztopo borrokan aritu behar dutenak eta halere ez dute lortzen, baldintza berdinekin erraz lortuko zuketena.

Iragarpen moduan esanen dut gure ekonomia hazten denarekin batera haziko eta garatuko dela ere guk gizartean dugun zeregina, baina iragartzen dut ere, emakumeak mundu ekonomiko, politiko eta zientifikoan duen zereginaren sendotze hau ez dela bakarrik eta berez etorriko; edozein atzerapenaren barrandan izan beharko dugu, erne, kontrako edozein mugimenduaren seinalearen aurrean eta beti kontuan eduki, tradizioaren pizua jasangaitza dela eta ausardiaz egin behar zaiola aurre.

Emakumeetaz eta ez ekonomiaz mintzatu behar ukan dudan gutxietan, nire lanbidean aztertu behar ukan dudanean zergatik bereizten gaituzten gure kaltetan, beti esan dut erakundeek jokaeratik eta inguratzen gaituzten kultura baliotatik at, berezko alde zenbait dagoela, gizonak garaitzen diren lekuetan garaitzeko egoera okerragoan izan gaitezen.

Bestelako balore sistema dugu, interesak askoz sakabanatuagoak ditugu, geure buruarengan segurtasun gutxiago dugu eta askoz ere gehiago mugatzen dugu geure burua geure semè-alaben, geure senarren edota geure adiskideen faboretan. Hau da nire arrazoinamenduaren alde baiko-rra, baina bada alde ezkorra ere, izan ere, noiz edo noiz aldatuko dugula espero dudana aldea. Nahiko nuke arriskuak hartzeko ahalmena handiagoa edukitzea, zeren hala eginen bagenu, beti lurrera hain atxikiak izanen ez bagina, zentzu txarrean ulerturik atxikitze hau, altxatu ezinaren zentzuan, hegan egin ezinaren zentzuan, irudimen eta ausardi eskasiaren zentzuan, gure arazo asko eta asko modu errazagoan konponduko litzazkiguke. Ezaugarri hau ez da zaila hartzen, baina orain artean ukatu zaigun entrenamendua behar da. Dugun adimenarekin, erabakiak aurrera eramateko ahalmenarekin, eta lanerako dugun gaitasunarekin, garapen ekonomiko eutsia eta erakundeetan aldaketa aurrerakoia ematea lortzen badira eta geure aldetik arriskuak hartzeko joera handiagoa erakutsiz gero, gure egoerak, betirako irauliko ez balitz ere, aldaketa nabaria eginen luke.

Ene solasaldi hau lau zatitan antolatu dut. Lehen zatian, laburki azalduko dut, ekonomiaren ikuspuntutik zeintzuk diren euroa sartzearen oinarriko arazoak, funtsezko aldaketa baita merkatu integratu baina moneta desberdinekin funtzionatzen duen batetik, moneta bakarra nagusituko den batera pasatzea; aipatuko dut ere, baina oso modu arinean, moneta bakarrak dituen ondorio mikroekonomikoagoak; ondorio hauek agente ekonomikoen gainean gauzatuko dira: enpresak, kontsumitzaileak, finantz-erakundeak edo sektore publikoa bera.

Bigarren atalean, garrantzitsuak iruditzen zaizkit alde instituzionalei begiratuko diet, bai eta Europan eta kide diren herrialdetan Ongizate Estatuarekin gertatuko denari buruzko gai hain eztabaidatuari. Argi da erakundeek diseinuak neurri handi batean baldintzatzen dituela mozkinak eta zentzuzkoa da, beraz, galdetzea zein esparruan ibiliko garen hemendik aurrera eta zein balore —eta ez soilik zein sustagarri— behar diren Ongizate Estatu mantentzuan, behar dituen berrikuntzak eginagatik ere. Nire solasaldiaren azken zatian arituko natzaizue benetako bateratzearen eta dituen ondorio makroekonomikoen gainean.

Moneta bakarraren aurrekari historikoak eta oinarriak

Moneta bakarra sartzeak, ikaragarritzko aldaketa kulturala ekarriko digu. Gertakari historiko baten aurrean gara eta hain garrantzitsu nazioarteko moneta sistemarentzat, nola 1944. urtean sorturiko Bretton Woods sistema. Halatan bada, ezinbesteko zeregina zaigu, moneta bakarrak ekar ditzakeen ondorioak aztertzea, dituen abantailak edo eragozpenak xeheki begiratzea eta berri garrantzitsu hau onerako izan dakigun egin behar dugunari buruz gogoeta egitea.

Moneta bakarra oso argudio sendo eta arrazoizkoen gainean dago oinarritua, egon ere, oso erraz labur daitezkeen argudioen gainean.

Lehen lehenik, Europako moneta desberdinen arteko truke tasa ezeztaezinak finkatzeak faboratu du, truke tasa hauek ohi dituzten gora-beherek berekin dakarten ziurgabetasuna desagertzea. Kenduko dira, beraz, arriskugatiko primak, eta honek, berriz, interes tasen diferentziala gutxitzeko aukera ekarriko du, bereziki nabaritutako dena moneta ahuleko herrialdeak direnetan, hala nola Espainia.

Bigarrenik, euroak, iparramerikar adituek oraindik diotena diotelarik ere, gero eta protagonismo handiagoa ukanen du, hala erreserba moneta bezala nola ordainketa izendapeneko moneta bezala. Gaur egun, EBren erkidegoaz kanpoko merkataritza, munduko merkataritza osoaren %20a bada, aurreikuspenek erakusten dute pisu hau %25aren inguru arte igoko dela. Erreserba moduan erabiltzeari doakionean, espero da europar monetak hartuko duela, erdi epera, munduko erreserba guztietako %40a, neurri batean dolarra baztertuz, dibisa honek munduan orain arte jokatutako duen paperean. Europako ekonomia edukiko du, hemendik aurrera, munduko bigarren moneta bezala finkatzen joanen den moneta, eta honek merkataritzaren hedapena bultzatuko du.

Euroa sartzearen abantaila handiena, transakzio kostuekin eta hauen gutxitzearekin lotua dago. Dibisak trukatzeko truke komisioak sortzen ditu eta komisio hauek desagertuko dira, truke arriskugatiko primak ere desagertuko diren bezala, bai eta finantz erakundeek eta banku zentralak, erkidego barruko dibiseta eginiko eragiketarako kudeatzen dituzten kostuak ere.

Laugarren abantaila, alorreko moneta-politika zehazteko eskema hobezina edukitzearen aukerari dago lotua.

- Truke tasen gora-beherei loturiko ziurgabetasuna kentzea.
- Moneta desberdinen arteko truke ez eginez, transakzio kostuak gutxitzea eta baliabide aurrezte nabaria.
- Euroa erreserba moneta gisa eta ordainketa izendatzerako moneta gisa baliatzea.
- eta alorreko moneta-politika zehazteko eskema hobezina eduki ahal ukaitea.

Hauek izanik orain dela jadanik urte dexente abiatutako prozesuari arrazionaltasuna eskaintzen dioten oinarritzko arrazoiak, esan daiteke:

“Moneta Batasuneko proiektuaren arrazionaltasuna dator, bai ekonomi integratuarekin koherente izatetik, bai eta bestelako aukerak aurrera eramaten oso zaila izatetik”.

Moneta bakarrak ahalbidetuko du, merkatu bakarretik espero diren eraginkortasun hobekuntzak osatzea, zeren, alde batetik, oso integratuak diren eta kapitalak libre zirkulatzen direneko merkaturatan truke gora-beherak ekartzen dituzten distortsioak gainditzeko aukera ematen baitu, eta aldi berean, arrazoizko konponbide instituzionala delako, estatu kide desberdinetako moneta-politikan asimetriak gertatzea ekiditen duelako.

Bestalde, euroak garrantzi handiko aldaketa kulturala eraginen du, eta aldaketa honek eskatzen du, instituzio nagusiek, sektore publikoek bereziki, datorrenaren gainean sentsibilizatzeko programak eta formakuntza programak abiatzea, erronkak prest har gaitzan.

3. *Zenbait ondorio mikroekonomikoak*

Euroa sartzea ez da kontu unitate aldaketa hutsa. Emanen den moneta aldaketak esan nahi du geure merkatal sozio nagusiek eta lehiakide nagusiek erabiliko duten moneta berbera erabiliko dugula.

Enpresaren mundua, noski, aldaketa honen menpean dago eta eraginak anitzak dira. Enpresek eragiketa arazoei egin behar diete aurre, denboraldi batean, bai eurotan, bai eta naziotako monetatan aritzen ohituratu behar baitute, ondoren eurotan bakarrik aritzera pasatzeko. Honek eskatzen du kontularitza eta fakturaketa sistemak, prezioen zerrendak eta nominak aldatzea, bezeroei eurora pasatzearen ondorioak azaltzea, etab.

Inori ez zaio arrotz eginen, baldin eta esaten badut aldaketa hauek oso garrantzi handikoak direla eta behar bezala planifikatu behar direla. Baina estrategia mailan ere agertzen zaizkigu ondorioak. Halatan, enpresa bakoitzak, moneta berrira egokitzeko eta bere negozioak moneta berria berea egin dezan erabiliko duen estrategia, merkaturan lehiakor izateko tresna bihur daiteke. Pentsa dezagun, adibide baterako, finantz sektorean, banketxetan, zeren entitateak bereizteko estrategiak gara baititzakete.

Estrategiako ondorioa handia izan daiteke halaber, esportazio sektoreentzat eta enpresa multinazionalentzat. Moneta berriak aukera emanen du zuzen eta erraz erkatzeko EBeko leku desberdinetako prezio, soldata eta produktibitateak. Eta "europrezio" deitu izan dutena garatzen bada, hau da, Europako herrialde desberdinetan ari den enpresaren produktuek prezio bakarra edukitzea, ondorioak oso handiak izan daitezke. Prezioak berdintzen badira, berdindu beharko dira ere kostuak eta produktibitateak, mozkin tartea ahulduko ez bada.

Euroa sartzearekin merkaturatze eta marketingeko funtzioak aldatuko dira, baina baita enpresaren garrantzi handiko beste alorrak ere. Finantzamendua da horietako bat. Gaur egungo epeertain eta luzeko finantzatze politikek kontuan hartu beharko dute datorren egoera. Kontratuak baldintzak mantenduko badira ere, moneta aldaketak orain sinatzen ari diren kontratuetan ukanen dituen eraginak eta interes tasaren arrisku posiblea barneratu egin behar dira.

Gainerako agente ekonomikoek, kontsumitzaileek, sektore publikoak, finantz sektoreak, jasoko dute ere euroa ezartzearen eragina. Halarik ere, ezin gera naitekeenez hauen azterketa egiten, honako hau seinalatuko dizuet:

1.- Lehen lehentasunezkoa dela kontsumitzaileak eurora egokitzeko prestatzea, hala egin ezean, herriaren oniritzia gal daiteke eta hala alboko kostu gaizto eta behar ez direnak ager daitezke. Kontsumitzaileentzako arazo zailena prezioak bihurtzea eta kontsumitzen ditugun onura eta zerbitzuen kostuen erkaketa da, dudarik gabe. Bihurtze tasak korapilatsu eta maneia gaitzak izan daitezke eta biderkaketek ere sor ditzakete zailtasunak.

Horrez gain, kontsumitzaileok, euroko prezio berrien gaineko unean uneko informazio zehatza beharko dugu, geure soldaten balioaren gainekoa eta pezetatan egin ohi ditugun eragiketa guztien bihurtaren gainekoa, oro har.

Gehiegi luza ez nadin, mugatuko naiz esatera, sektore publikoari doakionean eta Euskaditik begiratuta, sektore honen jokaera erabakiorra izanen dela prozesu osoan zehar. Oso garrantzitsua da lehenbailehen har ditzala, moneta bakarraren hastapena orain bereko gauza dela eta ez etorkizunerako itxaropen hutsa, argi utziko duten neurriak, eta ezinbestekoa da ere gidaritzako jarra hartzea.

Zerga administrazio diren bezainbatean, hartu beharko dituzte, eurora pasatzeak zergen alorrean sortaraziko dituen arazoak konpontzeko behar diren neurriak eta malgutasunezko tratua eman beharko diete, sor daitezkeen atzerapen eta errore administratiboei. Zerga administrazioak aztertu beharko ditu enpresek, aldaketarako neurriak aplikatzerakoan topatuko dituzten arazo praktikoak, bere langileentzako eta zergapekoei laguntza tekniko eskaintzen dizkieten enpresa eta erakundeetarako formakuntza mintegiak antolatuz.

Eta honekin instituzio alderdietako arazoari ekinen diot, hau ere garrantzi handikoa iruditzen baitzait.

4.

Instituzio alderdiak

Urte batzuk pasa dira, ekonomian ikertzen hasi zenetik nolako harremana dagoen herrialdeen garapen ekonomikoaren eta haien erakundeen diseinuaren artean. Ikuspuntu honetatik, garrantzitsua iruditzen zait zein erakunde eredura sartzen garen galderari erantzutea, eta zehazki aztertzerik ez badut ere, hiru alderdi aipatu nahiko nituzke bederen. Lehena zergen gaiari da lotua, bigarrena erabakiak hartzeko prozesuari, eta hirugarrena, berriz, European gertatzen ari den Ongizate Estatuaren krisialdiari.

Zerga gaiari doakionean, zenbait ahotsek eskatzen dute estatu kideen zerga politikak bateratu daitezela. Truke politika bakarra izanen bada eta moneta politika bakarra ere, ezinbestekoa da, zenbaiten ustetan, "zerga politika bakarra" egotea.

Ene ustez, honi buruz bi argudio mota behar dira kontuan hartu, bai eta ñabardura garrantzitsua ere.

Lehen lehenik ñabardura: baldin eta bateratzeaz ari garenean zeharkako zergetako bateratzeaz ari bagara, argi da dagoeneko ari direla norabide horretan lanean. BEZa sartzea garrantzizko aldaketa izan zen, bateratzearen bidean eta aurreikus daiteke, zeharkako zergatan oraindik dau-

den aldeak desagertuko direla; hori hala izanik ez dirudi, esate baterako, ezantzaren gaineko zerga oso desberdin izanen denik estatu kide bat edo bestetan.

Dena den, honek ez du esan nahi gauza bera gertatu beharko lukeenik zerga zuzenei doakienan. Eta ez du horrela izan behar bi arrazoi hauengatik:

- a) moneta batasuna ez delako batasun soziala, ez eta moneta berrikuntza eta zuzen da aldeak izatea zuzeneko zergatan, baldin eta aldeak badaude estatu kide desberdinek eskaintzen dituzten prestaziotan;
- b) baina horrez gain, maniobra tarteren bat gorde behar delako ere, Europa osatzen duten herrialde, eskualde eta nazionalitateek aurre egin diezaieten, ustegabeko gertakizunengatik eta shock idiosinkratiko edo desberdinengatik bizi ditzaketen egoera ekonomiko desberdinei. Europan ez dago shocken aurrean segurtasuna lortzeko amankomuneko mekanismo orokorrik, birbanatze lana aurrera eramateko balio duten mekanismoak, arriskuak norbanako eta eskualdeko agenteen artean banatzeko moduak direnak. Nolaz eta, gainera, benetako bateratzea eskualde mailan oso urrutiko helburua den oraindik, zentzuzkoa deritzot eskualdeek beren shock gaizto bereei aurre egiteko behar adina maniobra tartea mantentzeari. Areago, oso litekeena da eskualdeen espezializazioa emendatzea integrazioarekin, eta honek, bere aldetik uzten du pentsatzera ustegabeko eta izaera idiosinkratikoko shockak gertatzeko aukera oso handia dela, Batzordeak duen ideari aurre eginez. Arau bateratzaileak beharko dira, noski, baina koordinaketak eta bateratzeak ez dute zertan eskatu behar alderdi guztietako zerga politiketan uniformitatea egotea.

Erabakiak hartzeko prozesuari doakionean, Europar Erkidegoa, alderdi askotan estatu federal modukoa da jadanik eta hala da 1986ean Akta Bakarrak, norbanako kideek zenbait gaitan zuten beto eskubidea ezeztatu zuenetik. Dena den, ez erakundeak eta ez prozedurak ere ez dira, zein botere zentralizatu beharko lirakekeen eta zeintzuk ez erabaki lezakeen sistema argia lortzeko adina argitu.

Gaur egun, Europan, eztabaidatzen ari dira federatzearen aldekoak eta aurkakoak ea azken diseinuak izan behar den konfederakuntza baten modukoa hala federakuntza baten modukoa.

Konfederakuntza batean, autoritate nagusiak ezin diezaietke kideei erabakirik betearazi; betoaren aukera dago. Neurri handi batean esan liteke ez dagoela autoritate nagusirik, baizik eta burujabe diren kideen erabakiak koordinatzeko mekanismoa besterik ez. Aitzitik, federakuntza batean, guztientzako hartzen diren erabakiak ez dira zertan aho batekoak izan behar. Baldin eta kideetako gehiengo egokiak ematen badu neurri baten aldeko botua, erabaki horrek kide guztiak lotzen ditu. Europar Erkidegoa hasieran konfederakuntza baten moduan antolatu zen eta gai jakin batzuetaz baizik ez zen arduratzen (ikatz eta altzairua) eta erabakien prozesuak aho-batekoa behar zuen izan.

Azken 35 urteotan, izugarri handitu da Europar Erkidegoaren jardun eremua eta askoz handiagoa da bere menpean dauden gaien kopurua; honek ekarri du federakuntza baten moduan funtzionatu beharra nahiz eta erakundeak Konfederakuntzakoak diren.

Erakundeetako gaietaz arduratzen den atal honetan aipatu nahiko nukeen beste alderdia da Ongizate Estatua eta behar dituen berrikuntzen gaia (1). Erabat zabalduko ustea da, ezagutu dugun Ongizate Estatua krisiak jota dagoela. Hau ez da ideia hutsa; Erresuma Batuan, esate baterako, non Ongizate Estatua osatzen duten prestazio eta erakundeen garapen eta sendotzea, iparraldeko herrialdeekin batera, ondoko herrialdeetan baino lehentxeago eman baitziren, aspaldi hasi dira Ongizate Estatuaren erakundeak eraberritzen, eraldatzen eta, zenbaiten ustetan desegiten ere.

Ohiko definizioetan, sektore publikoko lau kategorია nagusi hauekiko aktibitateak: osasuna, etxebizitza, hezkuntza eta diruzko transferentziak, dira Ongizate Estatuaren definizioaren barruan sartzen direnak. Argi eta garbi dago, ondasunen lau kategoría nagusi hauekiko hornikuntzek tirabira eta zailtasunak bizitu dituztela azken urteotan eta hornitze moduek, hauek sortzen dituzten sustagarriak eta eratorritako finantzamenduzko arazoek eskatu dutela konponbideak aurkitzeko eztabaida sortzea.

Ongizate Estatua, orain arte Europan ezagutu dugun moduan mantentzeko zailtasunak daudela erakusten duten beste seinaleak ditugu, administrazioa eraberritu eta sektore publiko lehiakor eta eraginkorra sortaraztearen kontzeptuaren inguruan egiten diren adierazpenak, enpresa publikoak pribatizatze bidea proposatuz eta eztabaidatik at utzirik sektore publikoa enpresari bizkor eta eraginkor izan daitekeeneko ideia.

Hau guztia aldaketa sakonago baten sintoma besterik ez da, eta aldaketa honek erakusten du gero eta desadostasun handiagoa dagoela, sektore publikoak orain artean jokatu duen moduarekin eta ongizate estatuaren arazoa oinarri sendoago eta batez ere errealistagoetan oinarrituz birplanteatu behar dela.

Problematika honi aurre egin ahalko badiogu, hasiera beretik onartu behar dugu, eztabaidatzen ari diren arazoek eskatzen dutela ñabardura asko hartzea kontuan eta ñabardura horiei ezin zaie la antzeman muturreko jarrerak hartuz gero. Ñabarduren azterketa eta ulertzean oinarritu daitezke behar bezala, sektore publikoak abiatu behar dituen ekintza desberdinak.

Askorentzat, enetzat ere hala da, Ongizate Estatua mantentzeak eskatzen du, berandu gabe funtsezko berrikuntzak egitea. Gizarte prestazioen nolabaiteko maila mantentzeko modu bakarra da ziurtatzea prestazio hauek jasagarriak izanen direla eta honek eskatzen dituen betekizunak oso zailak dira betetzen.

Urte luzetan Ongizate Estatua, zalantzan jartzen ez zen "gizarte injinerutza"ko garai luze baten garaipena izan da eta ez zitzaizkion aitzakia moralik ere bilatu behar; gaur egun, berriz, ikusten dugu Ongizate Estatuaren sarea askotan "karga" baten moduan ikusten dela eta ez laguntza moduan, gehiegi hazi den eta garestiegi bihurtu den lorpena.

Arazo hauek guztiak zehatz-mehatz aztertzea, solasaldi honen mugetatik at dagoenez saiaturik naiz azaltzen eta aztertzen zeintzuk diren Ongizate Estatuaren betekizun moralak.

(1) Hemen azalduko ideiak garatu nituen, BBV Fundazioaren laguntzaz eginiko lan honetan: "El Estado de Bienestar y sus necesarias reformas".

Lehen esan dizuedan lez, Ongizate Estatuak bideragarri izanen bada, "jasangarritasun"eko betekizuna bete beharko du, hau da "datozen belaunaldien aukerak gordetzea, gaur egungo beharrei erantzuteko antolatzen den sistemak ez diezaiela datozen belaunaldiei, ukanen dituzten beharrei erantzuteko aukera ken.

Halatan bada, sistema jasangarri izan dadin bete beharreko lehen irizpidea zintzotasuna da. Ongizate Estatuaren diseinuak bere mantentze jasangarria erraztu dezan, norbanakoek eta erakundeek behar dute joko arauen arabera jokatzeko asmo betea eduki, ez engainatzeko eta iruzur ez egiteko asmo betea.

Betekizun hau ez da, ordea, erraz lortzen eta ikus daiteke nola askotan, zintzo jokatzeko jarritako sustagarriak aldatu egiten diren, ez bakarrik kanpoko faktoreen eraginez, baina baita barne faktoreen eraginez ere.

Iruzurra aipa dezagun, esate baterako, bai zergak ez ordaintzeari dagokionean, bai eta strictu sensu hartu behar ez liratekeen prestazioak eskatzeari doakionean ere.

Iruzurra handitzen ari dela dirudi (azken ikerketek diotenaren arabera) eta honek ekartzen du arrazoizko Ongizate Estatuaren finantzamenduaren pisua gaizki banatzea eta kargaren banaketa bestelakoa izanez gero sortuko ez ziratekeen erresistentziak sortzea.

Zerga sistemaren diseinu okerra har daiteke iruzurraren eragiletzat, baina ez da, inondik ere, eragile bakarra. Handia da ere ekonomia globala, indarrean diren zerga ereduaren gainean izaten ari den eragina. Adibidez, finantz-kapitalaren mugikortasun handiakoak "eramaten" ditu gobernuek aberatsei pobreei baino zerga gutxiago eskatzera (errazago egin baitezakete ihes) eta zerga handiago ezartzera dagoeneko inbertitua dagoen kapitalari (kapital "hondoratua") eta inbertsio berriari, aldiz, kenkariak eskaini ohi zaizkio, oraindik konprometitu gabeko kapitala erakartzeko asmoz.

Ekonomia globalizazioak ekartzen duen joera zergaren pisua langileen gainean jartzen du, kapitalaren jabeen baino gehiago.

Nahiz eta globalizazioak, momentuz ez dirudien zergen pisua jaitsi egin duenik BPGrekiko, aldatu du halere, zeharkako zergak bildutako guztian duen garrantzia, eta zerga karga, faktore mugikorrenetatik gutxiago mugitzen direnetara pasa du ere.

Esan genezake, beraz, globalizazioak zaildu egiten duela Ongizate Estatuaren finantzamendua "bizidetzakoa" izatea.

Ongizate Estatuak iraun dezan kontuan hartu behar den bigarren irizpide moralak zenbait balorei begiratzen die, hala nola lanaren etika, aurrezpenarena, osasunarena eta familiararena.

Kode etiko hauen arabera jokatzeko dugunean, Ongizate Estatuak dituen hornikuntzak emankor samarrak izan daitezke, sistema mantentzea garestiegi izan gabe. Dena den, badirudi sistemak berak aldaerazi dituela portaerak eta halatan sistema gero eta erasotuagoa dagoela, segurtapenak ekartzen dituen portaera aldateten karira.

Diseinatu den sistemak ezin bereiz ditzake benetako beharrak eta sistemak berak sortarazitakoak. Aztertuko dut, bada, norbanakoen portaerari ez baina taldeenari begiratzen dion kontu bat, izan ere jasangarritasunerako garrantzizkoa baita ere. Ongizate Estatuak posible egiten duen elkarta-

sunaren adierazpen politikoaz ari natzaizue; adierazpen hau presiopean dago, aipatuko ditudan bi arrazoientatik.

Lehena, biztanleriaren homogeneitate edo heterogeneitate etniko eta kulturalari buruzkoa da, eta bigarrena, norbanakoen mugikortasun geografikoari buruzkoa. Parijs-en (1996) (2) aipu adierazkorra puntu honen argigarri izan daiteke. Errazago lortzen da, dio egile honek, "barku berean doazen norbanakoek" elkartasuna senti dezatela, ezen "aireportu baten teiltupean diren norbanakoek" balore horrekin bat egitea.

Halatan bada, ongizate sistemaren jasangarritasuna lotua dago ere biztanleriaren mugitarsuna eta gizarteak lortzen duen kultur kohesioa bezalako faktoreei.

Hori hala izanik, ekonomia homogeneo samar direnetan, Ongizate Estatuaren prestazioetako zenbait diseinuk eraginiko sustagarri gaiztoak ez dira, ekonomia heterogeneagoetan bezain aktiboak.

Gogoeta honek esplikatu dezake ere, Europa ekonomikoki integratua eta hemendik gutxira moneta bakarra ere edukiko duena eraikitzen egindako aurrerapausoak egindak ere, Europa sozial baterako aurrerapena, berriz, erabat gelditua egotea. Oraindik ez da hitzegiten hasi ere egin, gizarte prestazio oinarritzkoenak bateratzeaz eta hau ulertzeko, kontuan hartu behar da zein kultur eta status quo desberdinak dauden, edo bestela esateko, amankomuneko balorerik ez dagoela.

Azalpen hau gehiegi luza ez dezadan, hemen doakizue Ongizate Estatuaren gaineko azken aipamena.

Hiru hamarkada pasa dira jadanik, K. Arrow (1967) (3) Nobel Saridun handiak iradoki zuenetik moralitasuna agenteen lehentasunen ordenatzearen parte dela, eta argi dirudi belaunaldi belaunaldi baloreak, ezagutza, jarrerak eta portaeraren gaineko eragina duten eta baldintzatu ere baldintzatu duten beste faktoreak transmititzeak paper oso garrantzitsua betetzen duela gizartearen bilakaeran; gazteak ustelkeriaren aurkako jarreratan hezitzen lortzen duten gizarteak izanen dira arrazoizko Ongizate Estatuak errazago mantenduko dituztenak, gizarte kontrolaz eta zigor eta debekuetaz baliatu behar ukan gabe. Berriz azaltzen zaigu heziketaren garrantzia eta pentsarazten digu, beste alderdi askoren artean, kontuan hartu beharko genukeela, beharbada ez dugula behar bezainbeste arreta jarri, orain dela ez hain denbora luzea arrazoizko ongizate gizartea sortzea posible egin zuten baloreak transmititzen.

Lanean etika erabiltzearen aldeko kanpaina publikoak, ogasun publikoari iruzur ez egitearen aldekoak, bai eta familiek, lehen aipatu ditudan baloreak transmititzen egiten dituzten ahaleginak funtsezko elementuak dira, ene ustez, EBeko zenbait herrialdeei horren ahalegin handia eskatu dien Ongizate Estatuari "eusten" laguntzeko.

(2) VAN PARIJS, Philippe : "On the Moral Foundations of the Welfare State. Three Research programmes". In *Restructuring the Welfare State. Theory and Reform of Social Policy*. Editors P. Koslowski and A. Follesdal. Springer.

(3) ARROW, K.J.: "The place of Moral Obligations en Preference Systems" in collected papers of Kenneth K. Arrow. Blackwell (1984)

5.

Ondorio makroekonomikoak

Makroekonomiaren ikuspegitik ikusita, euroa sartzearen ondorioak handiak dira, lagun baitezakete, testuinguru makroekonomiko egonkorra lortzen eta, batez ere, mantentzen.

Maiz entzun ohi da:

“Makroekonomiaren egonkortasuna ezinbestekoa da hazkuntza eutsia lortzeko”, eta esaldi horrekin mundu guztia ados izanarren, batzuetan iruditzen du esanahia ez dela argia. Definizio batekin hasiko naiz, beraz.

Testuinguru makroekonomiko bat egonkorra da, honako bost baldintza betetzen badira:

- i) Inflazioa baxua da eta iragarri daiteke;
- ii) benetako interes tasak egokiak dira;
- iii) zerga politika egonkor eta jasangarria da;
- iv) truke tasa lehiakorra da eta iragarri daiteke;
- v) kontu-korrente balantza egingarria eta jasangarria da.

Argi geratzen da, egonkortasunerako behar diren baldintzak, Maastricht-en erabakitako baldintzen berdinak direla. Beraz, hau kontuan harturik, eta Europan ezarriko den moneta politikaren gainean dakiguna jakinik, esan dezakegu moneta bakarrak egonkortasunaren abantaila ekarriko digula. Inflazioa kontrolpean dugu, truke tasa atzerabueltarik gabe finkatuko da, benetako interes tasak, Europako herrialde desberdinetako zerga politiketan aldaketarik gertatzen ez bada, bazkide guztien maila berean mantenduko dira eta zerga politikak ortodoxo izan beharko du, kostu edo “isun” altuak ordaintzeko arriskua korritu nahi ez bada. Bosgarren baldintza, alegia kontu-korrente balantza egingarri eta jasangarri izatea, oraintxe aipatuko dizkizuedan alderdien menpe menpean izanen da.

Argitzeke da oraindik, ea egonkortasun hori aski izanen ote den, benetako bat etortzea lortzeko, hau da, gure per capitako BPG haztea, Europako batezbestekoarekiko dugun kokapena hobetu dezagun. Moneta bakarrekin bi aukera ditugu:

- Europako batezbestekoaren gainetik haztea eta, baldin eta aldagai nominalak kontrolpean mantentzen baditugu, benetako terminotan bateratu ahal ukaitea, langabezia tasa jaitsiz.
- Bateratze irizpide nominalak bete arren, ez haztea Europako batezbestekoaren gainetik. Hala gertatuz gero ez dugu benetako bateratzea lortuko eta Espainia kohesioko herrialdeen taldean geratuko da, Grezia, Irlanda eta Portugal-ekin batera, eta gainera lan merkatuan, eraginkor ez den baliabide kopurua mantendu beharko du.

Nagusituko dena lehen aukera, hau da, interesatzen zaiguna, izan dadin, hainbat baldintza bete behar da:

- a) interes-tasak gutxitzeko politika sendotzea eta halatan, enpresarioek truke iraunkortzat hartuz, sektore pribatuaren produktiorako inbertsioa emendatu ahal ukanik;
- b) sektore publikoa, finantz ortodoxia eta zientzia eta teknologiako inbertsio ahalegin handia batzeko gai izatea, hau da, hezkuntza, azpiegiturak eta erakundeak; honek aukera emanen baitu, sistemaren produkzio ahalmena handitzeko;

-
- c) aurrera eramatea, oraindik egiteke den administrazio publikoaren eraberritzea, eta oraindik lehiakor ez diren sektoreak lehiakor bihurtzea;
 - d) sektore publiko eta pribatuak (sindikatuak barne) batera lortzea, kostu eta prezioen aldagaiak ez desbideratzea, Europako erdialdeko herrialdeetan aldagai berberak duten bilakaeratik. Hau ez bada hala gertatzen, gure prezio eta soldatak urrundu egiten badira, herrialde egonkorrenek dituzten batezbestekoetatik, truke-tasa finkotako testuinguruan egonik, lehiakortasun galera arriskutsua gertatuko zaigu eta inoiz gehiago ezin aurre eginen zaio, lehen erabiltzen ziren devaluazioen bitartez.

Argi da aukera guztien artean, Espainiak eta Euskadik aukeratu duten estrategia eta aukera politikoa izan dela Moneta Batasunean hasiera beretik sartzea. Apustu honek eskatzen du, Maastrichteko baldintza nominalaz gain, aipatu berri ditudan betekizunak ere betetzeko gai izatea. Horrela bakarrik lortuko dugu langabezia tasa urritzea eta gai izanen gara horrenbeste gazte trebatu, hezitu eta gaitasun handikoei aukera itxaropentsua eskaintzeko, desiratzen ari baitira bere indar eta ezagutza guztia beren eta bizi duten gizarte osoaren onerako ematen.

Hau da, bada, guztia, esker anitz zuen arretagatik.

EDURNE URIARTE BENGOETXEA
Politika eta Administrazio
Zientziak Saila. Euskal Herriko
Unibertsitatea

Baloreen

bilakaera

berdintasunari

dagokionez.

Europar

hiritartasuna

1. *Sarrera: boterean diren emakumeek gizartea aldatzen dute*

Botere politikoan gizonak eta emakumeak presentzia berdina izatea ez da soilik demokraziaren gauzatze osoa. Botere politikoa, gizartearen zenbait ezaugarrien moldeatzaile eta determinatzaile den bezainbatean, emakumeak elite politikoetan izatea funtsezko faktorea da gainera, botere politikotik bultzatzeko emakumearen parekatzea gizartearen bizitza osoan.

Kontuan hartu behar dugu lehenik, politika arloak uste ohi zaizkionak baino muga gehiago dituela, hau da, alor politikoak ez du gizarte bizitzan, kulturen eta ekonomian aldaketak bere kabuz zehazteko ahalmenik. Juan Linz-ek iragarri zigun bezala, kontuan hartu behar ditugu politikak, estatutuak, gizartea aldatzeko dituen mugak (1). Baina muga hauek izanik ere, esan behar da ere estatua, erakunde politikoak eta politika bera oro har, gizartea aldatzeko ahalmen handia dutela.

Botere politikoa, bere mugetan baina bere ekite ahalmenekin ere, giza prozesuetan eragiteko ahalmen handia dauka, eta bultzatzaile nola geldiarazle izan daiteke, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako prozesuetan. Botere politikoaren nondik norakoa, emakumeen berdintasunaren aldeko nola kontrakoa, neurri handi batean, gehiengoak duten eta hartara botere politikoki hori kontrolatzen duten alderdi politikoen esku izan ohi da; hau da, alderdi horien programa, helburu eta ekintza politikoko norabideen arabera gertatzen da. Guztiarekin, alor honetan egingo den politikaren nondik norakoa neurri handi batean, botere politikoan diren emakume eta gizonen proportzioan datza.

Parekaturiko demokraziaren mundura gehien hurbildu den herrialdearen, hau da, Norvegiaren politikan emakumeek duten egitekoa aztertuz, Jill M. Bystydzienski-k honako hau seinalatzen du: "Norvegiako gobernuak, emakume ekintzaileek agerturiko ideiei gero eta erantzun handiagoa ematea loturik doa zuzen zuzenean, emakumeek erakunde publikoetan duten presentziari. Parlamentuan eta Tokiko eta Eskualdeko erakundeetan emakume gehiago sartu diren neurrian, posible bihurtu da emakumeen helburuak, kezkak eta baloreak usuago eta zabalago eztabaidatu eta legegintzan islatzea. Emakume haietako askok emakumeen mugimenduan hartu zuten beren formakuntza politikoa, eta emakume ekintzaileen ikuspuntu eta eskakizunekin bat egiten zuten. Halatan, beraz, mugimendu feministak garatutako agenda feminista bere egin zuten eta alor politikora eraman, non eragin handikoa gertatu baitzen" (2).

Susan J. Carroll-ek baieztatzen du botere politikoan emakumeak izateak beraien interes orokorretarako duen garrantzia, iparramerikar emakume legegile eta emakumeen erreibindikazioen presentzia aztertzen duenean. Aztertzaile honek seinalatzen du, "Estatu Batuetako mugimendu feministak arrazoia duela dirudi bere egiten duenean erakunde politikoetan emakume gehiago auke-

(1) LINZ, J., *Los problemas de las democracias y la diversidad de las democracias*, Doctor Honoris Causa Inbestitua izaterakoan emaniko hitzaldia, Universidad Autónoma de Madrid, Madrid, 1992.

(2) BYSTYDZIENSKI, J.M., "Influence os Women's Culture on Public Politics in Norway", in BYSTYDZIENSKI, J.M. (ed.) *Women Transforming Politics*, Indiana University Press, Bloomington and Indianapolis, 1992.

ratzea izan daitekeela bitarteko eraginkorra "emakumeen kultura", hau da, emakumeen interes amankomunak, presenteago izan dadin. Emakume legegile gehienak, beste emakumeak laguntzera zuzenduriko legegintzan ari dira lanean, eta proportzionalki gizonezko legegileek baino gehiago seinalatzen dute emakume legegileek, lehen lehentasunezko arazotzat emakumeei axola zaizkien arazoei loturiko legegintza, hala nola, osasun, babes, eta umeei zuzendurikoak" (3). Norvegia eta Estatu Batuetako emaitzak aski ez balira, Pippa Norris-ek tesi berdinak baieztatzen ditu, britainiar politikoen gainean eginiko ikerketa batetik ateratako datuetan oinarriturik. Norris-ek seinalatzen du honako hau: "Ikerketa honen emaitzek uzten dute ulertzera generoak eragina duela jarrera politikoetan, lehentasunetan eta legebiltzarreko ekintzetan. Emakumeek, beraiekin zerikusia duten gai politikoei egin ohi diete kasu, gizarte politikako gaietaz arduratzen dira gehiago eta lehentasuna ematen diete hautesleekiko harremanei eta hautatu zituen hauteskunde-barrutiarekin zerikusia duten gauzei" (4).

Ikerketa guztiek erakusten dute, elite politikoko kideen jarreretan eragile nagusia beren partidua zaiela, ideologia. Halere, aldi berean erakusten dute generoak ere eragin handia duela, partidotik edota ideologiaz harat, politiko bezala aztertu behar dituzten arazoetan eta hartu behar izaten dituzten erabakien aurrean. Emakumeoi ez zaigu, beraz, berdin, elite politikoa osatzen dutenen generoa. Zenbat eta botere lekuetan emakume gehiago izan, handiagoak izango dira ere, emakumeen aldeko zenbait politika aurrera ateratzea.

Feminismoaren alderdi bat izan da beti oso kritiko botererako interesarekin, edota botere politikoa lortzeko borrokarekin. Feminismo horrek pentsatzen zuen eta du, botere politikoa aldatu egin behar dela batez ere eta ez eduki, botere politikoa bere ohiko egituraren kontrolatzera iristeak ez duelako, emakumeen askatze prozesuaren aldeko ez diren gizarte-egitura eta kultura iraunarazi eta betikotu besterik egiten. Datuek ordea, erakusten digute emakumeak ohiko botere egituretara iristeak berak baduela aldatzeko nolabaiteko ahalmena. Botere politiko horrek diseinatu eta inplementaturiko erabaki, ekintza eta politika publikoak ez dira berdinak, erabakiak hartzen diren lekuetara emakume kopuru nabaria iritsia bada (5).

(3) CARROLL, S.J., "Women State Legislators, Women's Organizations, and the representation of Women's Culture in the United States", in BYSTYDZIENSKI, J.M. (ed.), op. cit.

(4) NORRIS, P., "Las mujeres políticas: ¿un nuevo estilo de liderazgo?" in URIARTE, E./ELIZONDO, A. (coord.) *Mujeres en política*, Ariel, Barcelona, 1997.

(5) Alde batera utziko dut hausnarketa honetan, buruzagitza estiloei buruzko edota emakumeek boterea erabiltzen duten moduari buruzko debata. Hainbat herrialdeetako emakumezko buruzagi politikoen testigantza anitzek adierazten dute emakumeek autoritatea gizonen beste erara erabiltzen dutela. Oinarrian emakumezko politikari askok esaten dute emakumezkoak ez direla gizonezkoak bezain jerarkikoak, guztien adostasunaren bila saiatzen direla gehiago eta beren menpekoak berekin ekartzen dituztela gehiago, hau da, emakume politikari askok ikusten dute emakumezkoek egiten dutela boterearen beraren zenbait ezaugarrien aldaketa. Irlanda-ko lehendakari-ohia, Mary Robinson-ek, emakumezko politikarien artean oso zabaldua den iritzia ematen zuen, hitz hauetan eman ere: "Emakumezkoak berez ez dira hain jerarkikoak (...) Oso irekiak dira, permisiboak eta parte hartzaile sutuak, eta gai dira nor bakoitzari burua bertzeko zeregin bat hartu eta horretan engaia dadin. Eta buruzagitzan direnean ere berdin gertatzen dela uste dut. Ez dira jerarkian horrenbeste temetzen, norbanako bezala bere burua ziurtatzen, baizik eta besteengan eragin izaten saiatzen dira, hona edo hara gidatu nahian, eta indarrak kooperazio moduan batzen saiatzen dira...", in LISWOOD, L.A. *Women World Leaders*, Harper Collins, London, 1995.

Halatan bada, demokrazia parekatua erdiestea, edota elite politikoak genero arloan normaltzea, garrantzi handiko ondorioak ditu estatuaren politikak aldatzeko. Eta, alde horretatik, emakumeen parte hartze politikoaren azterketak oso kontuan hartu behar du emakumeek elite politikoetan duten presentzia eta egitekoa aztertzea. Ez da bakarrik emakumeek elite politikoetan gaur egun nolako pisua duten jakitea, baizik eta ere sakontzea zein faktoreek egiten dute gaur egun oraindik ere presentzia hori gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa izatea, eta horren ondorioz, nola erabakietan ere emakumezkoek duten partaidetza, gizonezkoenetik oso urrun dagoen.

2.

Emakumezkoek elite politikoetan duten presentzia

Botere politikoa generoari doakionean nola osatua dagoen aztertzerakoan ikus dezakegu, botere politikoa oraindik batez ere gizonezkoena dela. Europako herrialdeetako botere egiturari so eginez gero (6) ikusten da, iparraldeko herrialdeak salbu, eta batez ere Suedia eta Norvegia, botere politikoan generoen arteko desoreka handia dagoela. Hala botere legegilean nola botere exekutiboan, gizon eta emakumeen arteko alde handiak ikusten dira kopuruan.

1. taulan ikus dezakegun bezala, Europar Batasuneko behe Ganbaretan diren emakumeen datuek erakusten dute lau herrialdetan bakarrik, Suedia, Finlandia, Danimarka eta Holanda-n, gainditu dutela emakumeek %30ren hesia. Beste hiru herrialdetan, Alemania, Austria eta Espainia-n, emakumeak %25aren inguruan dabilta. Gainerakoetan, berriz, hau da, Europar Batasuneko partaide direnen erdian baino gehiagotan, emakumeak %20etik urrun dira, batzuetan oso urrun gainera.

(6) Ezaguna da munduko gainerako herrialde garatuetan emakumeen presentzia botere politikoko tokitan, Europako herrialdeetakoaren berdintsua edo txikiagoa dela. Halatan bada, Europako egoera deskribatzen dugunean, aldi berean munduko herrialde garatuaren egoera ari gara deskribatzen, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari doakionean.

1. Taula. Emakumeak Europar Batasuneko Behe Ganbaratan

ESTATUA	HAUTESKUNDE URTEA	EMAKUMEEN %
Suedia	1994	40,4
Finlandia	1995	33,5
Danimarka	1994	33
Holanda	1994-95	31,3
Alemania	1994	26,3
Austria	1995	25,6
Espainia	1996	24,3
Luxenburgo	1994	16,7
Italia	1994	13,9
Irlanda	1992	13,3
Portugal	1995	12,2
Belgika	1995	11,3
Erresuma Batua	1992	9,2
Frantzia	1993-95	6,1
Grezia	1993	5,7

Iturria: URIARTE, E./ELIZONDO, A. (Coor.), *Mujeres en política*, Ariel, Bartzelona, 1997.

Europar Batasuneko herrialdeetako gobernuetan emakumezkoek duten presentzia aztertzeak erakusten digu lehen taulan ikusten diren datuekiko lotura handia. Herrialdeen klasifikatze-ordena berdina da eta botere exekutiboetan emakumeek duten parte hartzearen portzentaiak oso urruti dira oraindik ere kasu ia guztietan, %40etik.

Funtsezko ezaugarri hauen osagarri agertzen zaigu denborarekin emakumeen presentzia gora joateko joera duela erakusten duen datua. Espainiaren kasua izan daiteke joera honen eredu argia. Izan ere, Espainia pasatu baita, lehen lau legegaldietan Kongresuan emakumeen presentzia %6a izatetik, %14,6a izatera 1989an, %15,7 1993an eta 1996. urtean, berriz, gaur egungo %24,3an jarri zen. Botere exekutiboan eman den eboluzioa antzekoa izan da, eta gaur egun %26,6koa da Partido Popularraren gobernu osatzen duten emakumeen portzentaia. Gora-behera handi edo txikiekin, lasterrago edo mantsoago, emakumeen presentzia areagotzeko joera hau herrialde demokratiko guztietan ematen ari da, gizarte-zientziek segurutzat eta igariterratzat ematen dutelarik heldu diren urteotan nola edo halako parekatzea gertatuko dela botere politikoan gizon eta emakumeen presentziari dagokionean.

Gaur egun halere, parekatze hau ez da oraindik gertatu, eta, emakumeen presentzia etengabe emendatzen ari delarik ere, oso mantso doala esan beharra dago. Testuinguru honetan galdetu beharko genuke zergatik ari den prozesu hau horren geldoa izaten, edota bestela esateko, zerk oztopatzen duen emakumeak gizartean diren kopuruan izan daitezten botere politikoan ere.

3.

Emakumeak elite politikoetan presentzia urriagoa izatearen zergatiak

Emakumeek arrazoi korapilatsu askorengatik dute presentzia askoz ere urriagoa botere politikoko esparru hauetan. Elite politikoak aztertuz gero, begiraturaz gero nolako prozesuen bitartez osatzen diren, eta zein den sistema politikoaren eta erakunde nagusien dinamika, begirada hainbat aldetara zabaldu beharrean topatzen gara: 1) Kultura politikoaren ezaugarriak eta aldeak, 2) partehartzearen ezaugarriak, 3) sistema politikoaren ezaugarriak, 4) alderdi politikoen dinamika, eta 5) emakumeen motibazioak eta kapital politikoa.

3.1.

KULTURA POLITIKOAREN EZAUGARRIAK ETA ALDEAK

Gizarte bakoitzak dituen balore, jarrera eta norabide bereziek mugatzen dute neurri handi batean, duten sistema politikoaren izaera. Botere politikoko tokietako generoen arteko berdintasunari dagokionean, galde dezakegu lehen lehenik, ea ote dauden gizartean, emakumeak botere-lekura iristearen aurkako baloreak, eta bigarrenik aztertu beharra ditugu, herritarrek politikarekin dituzten harremanak, interes, informazio, hurbiltasun eta partehartze mailan.

Lehen galderari erantzunez, hau da, gizon eta emakumeek boterean partehartzeari buruz gizarteak egiten duen balorazioari begira, jakin beharko litzateke ea herritarrei ez ote zaien gustuko emakumeak aukeratzea botere politikoko lekuetarako. Janine Mossuz-Lavau-k erakusten zigun, lau-rogeitamarreko hamarkadan aldaketa nabaria gertatua zela jadanik, Europako herritarren jarreratan, botere lekuetan ziren emakumeen aurrean. Eta seinalatzen zuen Mossuz-Lavau-k, ezen galdera honen aurrean "Oro har, konfidantza handiagoa al zenuke gizon batengan, emakume batengan baino, legebiltzarrean ordezkari zaitzan?", europarrek gero eta joera gutxiagoa zutela "gizon batengan konfidantza handiagoa" erantzuteko: %38a 1975ean, %30a 1983an eta %22a 1987an (7)

Hamar urte beranduago badira datuak zehazten dutenak alde horiek erabat galdu direla eta hautagaiaren sexuak ez duela inolako zerikusirik hautesleek eman dezaketen sostenguekin. Pippa Norris-ek esaten du, 1997ko britaniar hauteskundeetan gainean eginiko ikerketatik abiatuta, ezen britaniar herritarrek ez dutela kontuan hartu hautagaiaren sexua botoa ematerakoan (8). Hitz batez, emakume izateak ez du botoen galera ekartzen, ez dago, beraz, oztoporik emakumezko hautagaiak sostengatzearen aldetik.

(7) MOSSUZ-LAVAU, J., "Femmes et hommes d'Europe aujourd'hui. Les attitudes devant l'Europe et la politique", *Femmes d'Europe*, 35zbk., 1991.

(8) NORRIS, P., "The Labour Landslide", *Parliamentary Affairs*, 1998ko urtarrila.

Kulturaren eremuan, ordea, kultura politikoaren eremuan zehazki ez bada ere, ikus dezakegu emakumeak elite politikoetara iristeko erritmo geldoarekin lotu izan den ezaugarri bat, bai eta generoen arteko alde nabarmenak seinatzen dituen kultura politiko eta partehartze arloetan. Izan ere, katolizismoa dugu faktore hori, emakumearen erabateko partehartze politikoaren aurka dituen baloreengatik (9). Katolizismoak emakumeei elite politikoetara iristea eragozten dieneko ideiak indar hartzen du, Europako herrialde katoliko zenbaitek, hala nola Italia, Frantzia edo Irlanda, horrelako postutan emakume gutxien dituztenen artean daudelako.

Dena den, Gehiengo katolikoa duten beste herrialde batzuk, hala nola Espainia eta Austria, elite politikoetan emakume gehien dituzten herrialdeen artean direnez, eta Erresuma Batua eta Estatu Batuak (10) gehiengo protestanteak izanik, politikaren gailurrean emakume gutxien dituztenen artean daudenez, eta gainera, Europako herrialde katoliko gehienak garapen ekonomiko eskasak dituztenak direla ikusirik, katolizismoaren eraginari buruzko ideia hau tentu handiagoz aztertu behar da.

Bigarren galderaren azterketak, hau da, emakumezkoek eta gizonezkoek politikarekin dituzten harremanen gainekoak, erakusten digu oraindik ere badirela aldeak emakume eta gizonezkoen jarreraren artean. Generoari loturiko aldea dago kultura politikoan, eta honek argi dezake, neurri batean bederen, botere politikoan ematen den generoko aldea. Emakumeak ez dira gizonezkoak bezain interesatuak politikarekin, eta informazio urriagoa dute gainera. Espainian politikarekin dagoen interesari loturiko generoko aldean gaineko zenbait datuen arabera ikus daiteke, emakumeek 1994ean oraindik politikarekin dituzten harremanak ez direla boterean parekatuak izateko modukoak.

2. Taula. Politikarekin interesatuak sexuaren arabera (%), 1994

	ERRUZ	DEXENTE	GUTXI	EZER EZ	ED/EE
Emakumeak	3	17	38	41	0
Gizonak	5	26	38	31	0

Iturria: Ikerketa soziologikotarako Zentrua (CIS) 1994.

Kultura politikoan garrantzi handia duen informazioaren alorrean ere ikusten da 1994ean espainiar emakumeek oro har, gizonezkoek baino informazio eskasagoa zutela politika gauzetan. 3. taulan ikus daitekeenez, politikaren gaineko informazioari buruzko datuek berriz ere erakusten ditute gizonezko eta emakumezkoen arteko aldea, izan ere interesari dagokionean dagoen aldearen oso antzekoa dena. Gizonen arteko %5ak, politikan gertatzen denaz oso jakinaren gainean dagoela dio, eta emakumeen artean berriz, %3ak besterik ez. Politikan gertatzen denaz dexente

(9) Ikus, esate baterako, JELEN, T./THOMAS, S. eta WILCOX, C., "The Gender Gap in Comparative Perspective", *European Journal of Political Research*, 25.alea, 2 zbk., 1994.

(10) Iparramerikar Kongresuan, 1994ko hauteskundeak geroztik, %10,8a da emakumeen portzentaia.

jabetzen direla dioten %37 gizonezkoak, hala dioten emakumeen ginetik daude 14 portzentaipuntuetan. Gizonezko eta emakumezkoen arteko informazio politikoko aldeak bat datoz, espainiarrek komunikabideak nola erabiltzen dituzten erakusten dituzten datu anitzekin. Datu hauek erakusten baitute, besteren artean, emakumezkoek egunkari eta informazio orokorreko aldizkari gutxiago irakurtzen dituztela gizonezkoek baino.

Egia izan arren, Ronald Inglehart-ek zioen bezala (11), hezkuntza maila parekatzen den neurrian, kultura politikoetan emakume eta gizonezkoen artean dagoen generoko aldea erruz laburtzen dela, ez da erabat desagertzen, eta Espainiaren kasuan oraindik oso nabaria da. M^o Luz Morán-ek eta Jorge Benedicto-k erakusten ziguten 1989.ean politikarekin zuten interesaren aldea altua zela, heziketa maila altuko gizon eta emakumeen artean: heziketa maila altuko %60 gizonak zeuden oso edo dexente interesatuak politikarekin, eta emakumeengan berriz, %46a besterik ez zen, heziketa maila berean (12).

3. Taula. Politikaren gaineko informazio-maila sexuaren arabera (%), 1994

	HANDIA	DEXENTE	GUTXI	EZER EZ	ED/EE
Emakumeak	3	23	45	28	2
Gizonak	5	37	38	19	0

Iturria: Ikerketa soziologikotarako Zentrua (CIS)1994.

3.2. PARTEHARTZEAREN EZAUGARRIAK

Kultura politikoari doakionean generoko aldea mantentzen delarik, partehartze politikoari buruzko datuek erakusten digute alde hori mantentzen dela halaber, elite politikoen osakeran dauden aldeak ulertzeko esanguratsuak diren partehartzearen zenbait alderditan; alabaina, datu hauek denboran zehar aztertuz gero ikusten da, emakume eta gizonen arteko aldeak heldu diren urteotan desagertzeko bidean direla, kultura politikoekin gertatzen den bezalaxe.

Kontuan hartu behar dugu, emakumeak erabakiak hartzen direneko toki guztietan egongo badira, behar beharrezkoa zaigula politikaren esparru osoan partehartze handia lortzea, bai alderdi politikoetan afiliatuz, bai talde interesdunetan edota gizarte-mugimendutan partehartuz, hauteskundeetan, edota ohiz kanpoko ekintza politikotan esku hartuz ere. Partehartzeko modu desberdinei dagozkien datuen azterketak, eta emakumeek bizitza politiko eta sozialean partehartzeko dituzten moduen azterketak erakusten digute funts gabeko ideia dela, hirurogeitamargarreneko hamarkadan, zenbait teoria feministek zabaldu zutena, esanez emakumeek ez zutela gizonen baino parte

(11) INGLEHART, R., *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*, CIS, Madrid, 1991.

(12) MORÁN, M^o.L./BENADICTO, J., *La cultura política de los españoles*, CIS, Madrid, 1995.

gutxiago hartzen politikan, baizik eta bestela hartzen zutela parte. Emakumeek politikan parte-hartzeko bestelako modua duteneko usteak ez du non oin harturik; badira ordea datuak esateko emakumeen partehartzea zertxobait txikiagoa dela maila politiko gehienetan.

Emakumeen afiliazio politikoari dagokionez, eta laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeitamarrekoaren hastapenetan Europako 15 herrialdeetan gizonezko nola emakumezkoek zuten afiliazio-portzentaiari buruz eginiko erkatze batean, Anders Widfeldt-ek erakutsi digu herrialde eta alderdi politiko gehien gehienetan mantentzen direla gizon eta emakumeen arteko afiliazio-tasen aldeak. Espainiako emakumeen batezbesteko afiliazio-tasa %24koa da eta azkenurreko postuan jartzen gaitu, %22a besterik ez duen Luxenburgoren aurrean bakarrik. Espainia, Portugal, Italia, Grezia eta Luxenburgo dituzte afiliazio portzentaia eskasena, izan ere %30etik behetikoak, eta bi kasutan bakarrik, britanian %42koarekin eta bereziki Norvegian %48arekin, hurbiltzen dira portzentaiak %50era. (13)

Partiduetara afiliatzerakoan alde oso handiak daude oraindik. Hauteskundeetako partehartzean ordea, kasik desagertu dira herrialde garatuenetan. Partehartze mailari doakionean, Manuel Justel-ek erakutsi du Espainian, 1993 arte iristen diren datuak baliatuz, "emakumeak gaur egun kasik gizonak adina joaten direla botoa ematera". Seinalatzen du hauteskunde orokorretan eta udalekoetan, laurogeitamarreko hamarkadaren hasiera arteko datuen arabera, ezin dugula emakume eta gizonezkoen arteko alde nabaririk ikus, abstentzioari doakionean (14).

Botuaren ezaugarriek ere sinalatzen dute aldean desagerpena, partidu bati edo beste bati botatzeari doakionean. Espainiari begiratuz gero ikus dezakegu 4. taulan, non 1994ko hauteskundetarako boto emateko asmoak agertzen baitira, gizon eta emakumeen artean ia ez dagoela alderik.

4. Taula. Hauteskunde orokorretarako boto asmoa (%), 1994

	GIZONAK	EMAKUMEAK
PP	15,9	14,8
PSOE	19,2	19,2
IU	9,6	7,5
CIU	2,5	2,4
PNV	1,0	0,5
CDS	0,8	0,6
Besteri	4,5	3,4
Zurian	2,8	3,0
Ez du emango	14,0	14,1
ED/EE	29,7	34,6

Iturria: CIS, 1994.

(13) WIDFELDT, A., "Party Membership and Party Representativeness", in KLINGEMANN, H.D. eta FUCHS, D. (ed.), *Citizens and the State*, Oxford University Press, Oxford, 1995, 148 or.

(14) JUSTEL, M., *La abstención electoral en España*, CIS, Madrid, 1995.

Beste herrialdetako datu anitzek baieztatzen dute hauteskunderen aurrean gizonak eta emakumeak dituzten jokatzeko moduak parekatu egin direla, eta ezin dugula engeitok esan, orain arte esan izan den bezala, emakumeak boto kontserbadoreagoa emateko joera dutenik. Alemaniari dagokionean, Eva Kolinsky-k erakutsi du 1972 arte emakumeak botoa bi alderdi kristau-demokratei —CDU eta CSU— emateko joera zutela, baina ondoren alde hauek desagertzen joaten direla (15). Pippa Norris-ek antzeko eboluzioa erakutsi du Erresuma Batuen kasurako, eta seinatu du “emakumeak kontserbadoreagoak direneko ideia zabaldua ez dela gehiago egiazkoa Europan”. Areago, autore honek, Europako 1994ko datuak erabiliz adierazi du Europa osoko emakumeak beren buruak gizonetako baino ezkeriarago dituztela, eta gizonetako baino zertxobait ezkeriarago ematen dutela botoa (16).

Aldeak agertzen dira, ordea, partehartzeko bestelako moduak aztertzerakoan, hala ohiz kanpoko partehartzea nola bestelako erakundeetan partehartzea. Espainiako ohiz besteko partehartzeari buruzko datuak erakusten dute emakumeak gizonak baino gutxiago hartzen dutela parte, eta bestelako erakundeetako partaidetzari buruzko datuak ere esaten dute emakumeak oro har gizonak baino partehartze urriagoa dutela, eta hauek baino gehiago direla bakar-bakarrik, emakumeentzako bakarrik diren erakundeetan eta karitatea egiten duten erakundeetan (17).

3.3.

SISTEMA POLITIKOAREN ALDEAK

Hainbat eta hainbat ikerketetan agertu izan da sistema politikoan hiru ezaugarriak dutela eragin nabaria emakumeak botere politikora iristeko erritmoan.

Partiduen sistemari dagokionean esan izan da garrantzizkoa dela ezker aldeko partidu indartsuak izateak, laboristak, sozialdemokratik, komunistak eta berdeak. Ezker aldeko partiduak askoz gehiago bereganatu dute diskurtso feminista, partidu kontserbadoreek baino, batez ere feminismoaren berdintasunaren aldeko diskurtsoa ezkerreko ideologietan hobeto uztartzen delako esku-biko ideologietan baino (18). Espainiaren kasuak erakusten du argi eta garbi, zein garrantzitsua den ezker aldeko partidu indartsuak izatea, eliteetan emakumeak duten presentzia emenda dadin. 1989.ean Parlamentuko emakumeen kopuruaren handitzea zuzenean lotua baitaio, 1988.ean Espainiako ezker aldeko bi partidu nagusietan (PSOE eta PCE) kuota erabili izanare-

(15) KOLINSKY, E., *Women in Contemporary Germany*, Berg, Providence, 1993.

(16) NORRIS, P., “Implicaciones de las diferencias de género en el comportamiento electoral”, in URIARTE, E./ELIZONDO, A., op. cit.

(17) Zenbait egilek erakutsi dute Estatu Batuei buruz hitz eginez, emakumeak gizonetako baino gutxiago hartzen dutela parte ekintza politiko gehienetan, baina parte handiagoa hartzen dutela, aldiz, karitatea egiten duten erakundeetan eta erlijiozko ekintzekin zerikusia dutenetan; ikus Zenbait egileena den, “Gender and Citizen Participation: Is There a Different Voice?”, *American Journal of Political Science*, 39. alea, 2 zbk, maiatza, 1995.

(18) Norberto Bobbio-k puntu honen gaineko azterketa bikaina egiten du honakoan: BOBBIO, N., *Derecha e izquierda*, Taurus, Madrid, 1995.

kin. Hurrengo urte eta legegalditan, partidu hauetan kuota finkatu eta hedatu izanak, eliteetan emakumeen presentzia handitzeaz gain, erdialdeko eta eskubiko partiduei erantzun beharra ekartzen die, eta hauek, kuotak ezarri gabean baino, erabaki-tokietan emakumeak sartzeko saiatzera eramanen ditu.

Botere politikoko tokiak hartzeko hautagaiak aukeratzeko moduei doakionean, egile batzuek seinatzen dute aukeratze zentralizatua komenigarriagoa zaiela emakumeei, hauetan erabakia, heziketa formal handien duten partiduko sektoreen esku baitago, eta horrenbestez, emakumeak onartzeko irekienak direnak; ez omen da berdin gertatzen, maila lokaletan egiten diren aukeraketan (19). Hipotesi hau behar beste egiaztatu ez bada ere, badirudi Espainian halako garrantzia duela, non elite politikoetara iritsi diren emakumeen kopuru handia eman da Espainian, Luxenburgo-n eta Holandan bezala, botere zentralerako buruzagiek pisu handia dutelako hautagaiak aukeratzekoan (20).

Hauteskunde-sistema ere kontuan hartzekoa iruditzen zaie hainbat aztertzailei. Pippa Norris-ek aztertu du zer ikusia duen 44 herrialdeetako Behe Ganbaratan emakumeek duten presentzia, beren hauteskunde-sistemekin, eta ondorioz dio emakume parlamentarien batezbestekoa %8,3koa dela gehiengo bitarteko sistemetan, %12,9koa sistema erdiproportzionaletan, eta %17,3koa sistema proportzionaletan (21).

3.4.

ALDERDI POLITIKOEN DINAMIKA

Alderdi politikoen egitura eta funtzionamenduaren bi elementu nabarmentzen dira, emakumeak boterera iristeko erritmoak ulertzeko: 1) Alderdiak emakumeen egitekoari buruz duten jarrera, eta emakumeei, bai alderdian bertan bai kanpoan ere igotzen laguntzeko dituzten estrategiak, eta 2) alderdi politikoen barruan emakumeek bereizkeria izatea hala ez izatea.

Emakumeei igotzen laguntzeko estrategiei doakionean, Joni Lovenduski-k hiru estrategia mota bereizi ditu: a) hitzeko estrategiak, emakumeen eskakizunen hedapena egiten dituzte eta buruzagiak arazo horien gainean egotea, b) ekintza positiboko estrategiak, emakumeen partehartzea bultzatuz eta emakume hautagaiei formakuntza berezia emanez, eta c) bereizte positiboko estrategiak, emakumeentzat lekuak uzten dituztenak alderdietako zuzendaritzetan eta hauteskundeetako zerrendetan (22).

Badirudi bereizte positiboko estrategiak izan direla eraginkorrenak emakumeak boterera eramateko, hala alderdietako zuzendaritzetara nola erakunde politikoetara iristeko. Europako ezkerre-

(19) Ikus RANDALL, V., *Women and politics*, Macmillan, London, 1987.

(20) Ikus NORRIS, P., "Comparing Passages to Power", in NORRIS, P. (ed.) *Passages to Power*, Cambridge University Press, 1997.

(21) NORRIS, P., "Procesos de reclutamiento legislativo: una perspectiva comparada", in URIARTE, E. eta ELIZONDO, A. op. cit., 166 or.

(22) LOVENDUSKI, J., "Representación política : dinámica de géneros y partidos", in URIARTE, E./ELIZONDO, A., op. cit.

ko partiduak izan dira —eta noiz edo noiz erdikoak— estrategia horien ezarleak, emakumeen kuoten sustatzaileak, eta honek ekarri du, ezkerreko partiduetako zuzendaritzetan emakume gehiago izateaz gain, organu legegileetan ere ezkerreko partiduetako emakume gehiago izatea.

5. Taula. Kongresuan diren emakume diputatuak partiduen arabera. 1996-2000 legealdia

PARTIDUA/KOALIZIOA	DIPUTATUAK GUZTIRA	EMAKUMEAK GUZTIRA	%
PP	156	29	18,6
PSOE	141	39	27,6
IU	21	7	33,3
CIU	16	4	25

Iturria: Diputatuen Kongresua.

Espainiako Behe Ganbaran diren emakume diputatuen kopuruari buruzko 5. taulako datuek erakusten dute ezkerreko partiduek dutela emakumeen portzentaiarik handiena. Datu honek lotura estua du bi partidu horiek 1988az geroztik emakumeentzako kuotak ezarri dituztenarekin, izan ere, kuota horiek, Europako gainerako partiduetan bezala, eragin handikoak gertatu baitira emakumeak elite politikoetara irits daitezten.

Bigarrenik galdetu beharko genuke, emakumeei partidu politikoetan igotzen laguntzeko estrategiaz gain, partidu horietan emakumeengana —hautagai direnengana nola hautagai izatera iritsi nahi dutenengana— izan daitekeen bereizkeriaz. Ikerketa-lan askok seinalatu dute partiduek egiten duten bereizkeria dela emakumeak elite politikoetan gutxi izatearen arrazoi nagusia. Espainian elite politikoei buruz diren lan gutxien artean María Antonia García de León-ek egindakoa nagusitzen da; lan honetan 1989ko hauteskundearen azterketa eginez, partiduek ezarritako bereizkeria bikoitzaz mintzo zaigu, koantitatiboa (Parlamenturako emakume hautagai gutxi izatea) eta koantitatiboa (hauteskunde zerrendatan duten postu txarra) (23).

Elite politikoan diren emakumeen balorazio eta ikuspuntuak ere mantentzen dute bereizkeriaren testia. Zenbait herrialdeetako emakume politikarien esanetan entzuten da bestalde, emakume izateak zaildu egin diela beren karrera politikoa. Laure Audler-ek, hauxe seinalatzen duten Frantziako emakume politikari askoren hausnarketak bildu ditu, eta Laura A. Liswood-ek ere, mundu osoko emakume politikariei eginiko elkarrizketetan topo egiten du emakume izateagatik jasan dituzten bereizkeriengatik kexu eta kritika askorekin (24). Espainiako emakume politikariek bizi dutenaz diren datu batzuek erakusten dute emakume horien ustetan partiduek ez dutela behar beste egiten emakumeak botere tokietara eramateko.

(23) GARCÍA DE LEÓN, M.A., *Élites discriminadas*, Anthropos, Barcelona, 1994.

(24) ADLER, L., *Les femmes politiques*, Seuil, Paris, 1993. eta LISWOOD, L.A., op. cit.

Gaur egungo legealdiko gizon eta emakume diputatuek, elite politikoetan emakume gutxi izatearen zergatiaren gainean uste dutenari buruzko datuak dakartzan 6. taulak (25) erakusten du Espainiako politikariek, eta bereziki emakume politikariek, partidu politikoetan eskasia handiak ikusten dituztela, emakumeen asmoei bide egiteari dagokionean.

6. Taula. Espainiako diputatuen ustea, partiduek emakumeei behar beste aukera ematen ez dienaren ideia gainean (%)

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Oso ados	5,5	26,5
Ados	38,7	57,1
Desados	38,7	12,2
Erabat desados	10,4	
ED/EE	6,7	4,1
Guztira	100	100

Iturria: Egilearen datuak.

Alabaina, elite politikoei buruz eginiko azken ikerketek, eta bereziki, generoaren eragina zehatz-mehatz aztertu duen lehen ikerketa erkatzaile politikariak aukeratzeko prozesuei buruzkoak, tesi berriak dakartza, eta batez ere datu berriak, partidu politikoek eginiko bereizkeriaren tesia zalantza handitan jarriz (26). Datu hauek interes handikoak dira, ez bakarrik orain arte zabalduriko teoria zenbait zalantzan jartzen dutelako, baizik eta politikariak aukeratzeko prozesuei buruz ditugun lehen datu enpirikoak direlako. Kontuan hartu behar dugu, alderdi politikoek bereizkeria egiten zuteneko tesiaren oinarri nagusia hauteskunde zerrenden azterketa zela eta, gutxiago baina baita ere, elite politikoetako emakumeen usteak.

Pippa Norris-ek gidaturiko taldearen ikerketak aukeratzeko prozesuak zuzen zuzenean aztertzen ditu. Azterketa horretarako Pippa Norris-ek seinatzen du lehenik, ezen Estatu Batuetako salbuespenarekin, primariotako sistema berezia baitu, alderdi politikoen zeregin garrantzizkoenetakoa da, hautagai izan nahi duten guztien artean nor izan daitekeen zehaztea. Halatan, alderdien arauak eta prozedurek zehazten dute, hautagai izateko aurkezturiko guztiek pasa beharreko prozesua. Prozesu hau aztertzeko Pippa Norris eta bere taldekoek eskaintza-eskariaren arabera eredu erabiltzen dute.

Eskariaren eremuan, alderdi politikoetatik elite politikoaren aukeraketan aritzen diren aukeratzailen eskakizunak eta jarrerak hartzen dira kontuan. Eskaintzari doakionean, hautagaien kapital

(25) Datu hauek honako ikerketakoak dira: *La influencia del género en el reclutamiento de la élite política*, Espainiako Emakumeen Institutoak finantzatua eta Edurne Uriarte-k zuzendua 1997. urtean.

(26) Australia, Kanada, Finlandia, Alemania, Japonia, Holanda, Zelanda Berria, Erresuma Batua eta Estatu Batuetan eginiko politikarien aukeratzearen ikerketa erkatua dugu. Ikerketa honen emaitza nagusiak eta Europar Batasuneko partaideen gaineko datu askoren azterketa ere, honakoan dituzue: NORRIS, P., op. cit.

politikoa eta asmoak hartzen dira kontuan. Kapital politikoa da hautagaiak prozesura ekartzen dituzten bitartekoak, hala nola, diru bitartekoak, harreman politikoak, alderdian duten eskarmentua, lanbide-malgutasuna eta erakunde politikoetan duten eskarmentua edota formakuntza. Asmoak hautagaien nahiak ditugu, hautagai izatera bultzatzen dituzten zergatiak, hala nola famili-tradizioa, goranahi politikoa, komunitate baten sostengua, etab. Bereizketa honetan oinarriturik, Pippa Norris-ek esaten digu sistema politikoak testuinguru orokorra ematen duela, aukeratze prozesuak zehazten dituela asmoetatik izendatzerainoko etapak, eta aukeratzailen eskariak eta hautagaien eskaintzak, prozesuaren emaitza sortzen dutela (27).

Nahiz eta Norris-ek eta taldekideek hasieran uste zuten bereizkeria handia aurkituko zutela partidu aldetik, lortu zituzten ondorioak hasierako hipotesiaren aurkakoak izan ziren. Oso zaila gertatu zen partidu politikoek emakumeen aurkako zuzeneko nola aurkako bereizkeria aurkitzea. Areago, emakume hautagaiak esaten zuten gizonezkoek baino laguntza handiagoa eman zietela partidu politikoetako botere-maila desberdinetan. Eta ikerketak ezarritako ondorio nagusienetakoa izan zen, eskaintza zela, hau da kapital politikoa eta asmoak, hautagaiak aukeratzeko faktore erabakiorra, eta halatan ere, emakumeak hautagai izendatuak izateko edo ez izateko.

3.5.

KAPITAL POLITIKOA ETA EMAKUMEEN MOTIBAZIOA

Honetan sakontzen jarraitzea komenigarria izan arren, jadanik badugu datu asko, Pippa Norris eta bere taldearen tesiak baieztatzen dituztenak. Esan dezakegu, hasteko, emakumeek gizonezkoek baino kapital politiko eskasagoa izan ohi dutela, hainbat faktoreei doakienean: denbora libre, diruzko bitartekoak, formakuntza eta lanbide egokiak, eta eskarmentu politikoa.

Denborari doakienean, emakumeek oso aurkako zaien faktorea dute, gizonezkoekin erkatuz gero. Izan ere, familiarekin, etxea zaintzearekin eta batez ere umeak haztearekin dituzten betebeharrak handiak. Esanguratsuak dira 7. taulak Espainiako diputatuaren ezkontegoeraz ematen dizkigun datuak, non ikusten baita emakumeen artean askoz handiagoa dela ezkongabe, banandu edota dibortziatuaren kopurua, gizonezkoen artean baino. Espainiako emakume diputatuak, gainera, gizonezkoak baino gehiagotan dira umegabeak (emakumeen artean %32,7k ez du umeirik eta gizonezkoetan berriz, %13,5ek bakarrik) eta umedunen artean emakumeek gizonezkoek baino gutxiago dituzte (emakumeen %18,4k ume bakarria du eta gizonezkoetan %12,9k, eta emakumeetan %24,5ak bi ditu eta gizonetan berriz %36,2k).

[27] NORRIS, P., *Passages to...*, op.cit.

7. Taula. Diputatuen egoera zibila (%)

	GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA
Ezkongabea	8,0	16,3
Ezkondua	86,5	63,3
Banandua	2,5	8,2
Alarguna	0,6	
Dibortziatua	1,8	8,2
EE	0,6	4,1
Guztira	100	100

Iturria: Egilearen datuak.

Funtsezko faktore honi erants dakizkioke oraindik ere, beste elementu garrantzizkoak emakumeek kapital politikoan duten desabantaila ulertzeko. Eskarmentu politikoan ere emakumeak gizonezkoen azpian daude, ardua politikoko lekuetara beranduago iristeaz gain, erakunde politikoetan parte gutxiago hartu dutelako ere, lehen ikusi dugun bezala. Karrera politikorako egokien diren ikasketa edota lanbideak direla eta argi da abokatutza lanbideen artean eta zuzenbide ikasketak direla mundu guztiko elite politikoen ezaugarriak (28). Espainiako elite politikoari buruzko datuek erakusten digute, emakumezkoek gutxiagoetan dituztela ikasketa eta lanbide horiek. Diru bitartekoei buruzkoan argi dago emakumeek diru gutxiago izateaz aparte, bitarteko horietara iristeko harreman gutxiago dituztela ere.

Zailagoa zaigu, berriz, emakumeek motibazio mailan dituzten desabantailari buruz orokorrean mintzatzea. Eman ditzakegu halere, eliteetan emakume gutxiago izateko zergatietaz espainiar diputatuek eginiko balorazio batzuen datuak. Erantzun asko ditugu, eta emakumezkoenak gehienak, non agertzen baita motibazioan ere emakumezkoek zenbait arazo dituztela eskaintza ona egin ahal izateko.

8. Taula. Emakumeek familia, karrera politikoaren gainetik jartzen duteneko ustea (%)

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Oso ados	7,4	8,2
Ados	45,4	44,9
Desados	34,4	30,6
Erabat desados	6,1	4,1
ED/EE	6,7	12,2
Guztira	100	100

Iturria: Egilearen datuak.

(28) Ikus, esate baterako, NORRIS, P. eta LOVENDUSKI, J., *Political Recruitment*, Sage, London, 1995.

Halatan bada, Kongresuko %50 gizonetzko nola emakumetzko diputatuak bat datoz, emakumek familia, karrera politikoaren gainetik jartzen dutenaren ustearekin (8. taula). Hau da, motibazioaren aldetik emakumeentzako lehen oztopo garrantzitsua da, karrera politikoa emakumearentzat familiaren atzetik dagoeneko uste zabaldua.

Gainera gizonetzko diputatu askok, baina batez ere emakumetzko diputatu gehiagok (%57,1ek) uste du emakumek gutxiago aritzen direla lehia gizonak baino (9. taula). Emakume diputatuek bigarren faktore bat erakusten digute, beraz, motibazioen eta jarrerren ikuspuntutik emakumek botere tokietara iristeko aukerak urritzen dituen. Datu honek pentsatzera utz dezake emakumek ez dutela gizonetzkoek adina goranahia, izan ere tesi hau hainbat lanetan ageri ere ageri izan da. Aitzitik, Pippa Norris-ek Europako Parlamenturako hautagai ziren zenbait emakumek eta gizonak agerturiko goranahiari buruz ematen dizkigun datuek erakusten digute, egilearen beraren hasierako hipotesiei kontra eginez, emakumek gizonak baino askoz ere goranahi handiagoa azaltzen dutela, beren karrera politikoari buruz mintzatzerakoan. Seinalatu behar da ere, Pippa Norris-ek dioen bezala, datu hauek hautagaien gainekoak direla, eta ez behe mailako emakume ekintzaileen edota partidu politikoei afiliatutakoen gainekoak (29).

9. Taula. Emakumek lehia gutxiago aritzen direneko ustea (%)

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Oso ados	4,3	10,2
Ados	22,7	46,9
Desados	47,7	26,5
Erabat desados	20,9	12,2
ED/EE	4,9	4,1
Guztira	100	100

Iturria: Egilearen datuak.

Emakumetzko diputatuek aipatzen dute ere, bigarren mailan aipatu arren, emakumeen autoestima falta. %6,1a dator guztiz bat uste horrekin, eta %18,4a berriz ados dago, hau da emakume diputatuen %24,5ak uste du emakumek elite politikoetara iristeko dituzten oztopoetako bat autoestima falta dela. Uste hau beste herrialdeetan ere agertu izan da. Halatan bada, Monique Leijenaar-ek eta Kees Niemöller-ek esaten dute, Holandaz mintzatzen direlarik, emakume hautagai askok uste duela emakumek bere buruarengan konfidantza eskasa dutela; Holandako emakume hautagaien %37 dator bat uste horrekin, eta gizonetzkoetan berriz, %10a besterik ez (30).

Emakumek oraindik ere elite politikoetan duten presentzia eskasaren arrazoi diren oztopo nagusiak, eskaintzaren alorrean —hau da, kapital politikoaren alorrean— direla dioen tesiaren alde agertzen zaizkigu elite politikoei buruz egin diren azken azterketak. Emakumek politikan gaindi-

(29) NORRIS, P., "Conclusions: comparing passages to power", in NORRIS, P., (edit.), *Passages to...op.cit.*

(30) LEIJENAAR, M. eta NIEMÖLLER, K., "The Netherlands", in NORRIS, P. (edit.), *op.cit.*

tu behar dituzten oztopoei buruz dagoen ustearen laburpen gisa eman dezakegu Lone Dybkjaer, daniar emakume politikariak politikaren gainean egiten duen balorazio batekin. Seinalatzen zuen Lone Dybkjaer-ek gizonetzkoak ez direla emakumeek aurrean duten oztopo nagusia, oztopoak beste bi direla, aitzitik, umeak eta goranahi falta: "Lehen oztopoak, emakumeak barnetik erdibitzen ditu, umeak alde batetik eta lanbidea bestetik jarriz. Umeek egiten duten lehen eskaria gurasoren baten presentziaren eskaria da; era berean, buruzagi baten, edota buruzagi nahia duenaren, lehen eskaria presentzia da ere. Erbibituriko egoera honetan, emakumeek laga egiten dute (...). Bigarren oztopoa ere bada, izan ere emakumeek ez baitituzte gizonetzkoen eskari berberak lanbide jardueratan eta ez dituzte gizonek bezain ongi ezagutzen aurrera egiteko aukera gehien dituzten lanbideak." (31)

(31) DYBKJAER, L., *Mujeres en el poder* Biltzarrean emaniko diskurtsua, in INSTITUTO DE LA MUJER, *Informe final conferencias de la Cumbre de Atenas*, Madrid, 1993.

**"Ongizate eta zerbitzu
soziokomunitarioen Estatua"**

M^e JESÚS AGIRRE URIBE

**Gizarte Ongizateko diputatua.
Arabako Foru Aldundia**

**"Pribatasuna etxeko
korrespontsabilitaterako
bidea"**

SOLEDAD MURILLO DE LA VEGA

**Soziologia Saila. Salamancako
Unibertsitatea**

**"Lan ordaindua eta ez
ordaindua etorkizunean"**

M^e ÁNGELES DURÁN HERAS

**Demografia Institutua. Ikerketa
Zientifikoaren Kontseilu Nagusia**

Adiskidetzere-

-egintza:

esparru

pertsonala,

familiakoa eta

profesionala

Araban gizarte zerbitzuak udaletxeek eta Aldundiak daramatzate. Eskuduntzak banaturik daude eta ni Aldundiak daraman aldeari buruz arituko natzaizue hemen.

Gizarte ekonomikoki garatuek gaur egun duten egoerak behartzen gaitu, orain arte Ongizate Estatu edota Ongizate eredu deitu izan denaren gaineko gogoetak egitera.

Gaur egungo gizartearen benetako egoera andeatu nahi ez badugu, ezin bazter utzi hainbat datu.

Europa etengabeko aldaketa politiko, ekonomiko eta gizartekoak bizitzen ari da garaiotan, izan ere garrantzi handiko aldaketak ari da bizitzen, hala nola Merkatu bakarraren antolaketa eta Europan moneta bakarra ezartzea.

Europa lehen, ekonomia berezituaren multzoa zen eta orain, berriz, entitate ekonomiko bakar baterako bidean goaz. Batasun ekonomiko eta monetazkoa egitearekin Europak zenbait abantaila izango ditu, hala nola makroekonomian egonkortasun handiagoa izatea, hazkuntza bideratzea eta mundu mailan indar handiagoa edukitzea. Ekonomi esparru berri honek areagotu egingo du gizarte politika eta politika ekonomikoaren arteko elkarrekintza, bai eta Europar Batasuneko kide diren herrialdeen arteko harremanak sendotzeko beharra ere: merkatu bakarra eta kohesio politika eta gizarte eta enplegu politika eraginkorrak.

Orain dela urte gutxi arte baliatzen genituen balore eta tresnak zaharkiturik daude dagoeneko. Mekanismo berriak asmatu behar ditugu, beraz, etorkizunari aurre eginez aurrerapen bideak ireki ditzagun. Estatuak orain artekoan zuen zeregina aldatzen ari da eta gizarte zibilak hartzen du indarra. Ongizate Estatuaren oinarriak, batez ere erabateko enpleguari eta lan egonkortasunari dagozkienak, oso bestelako egoeran dira orain.

Aldi berean, zerbitzu publikoen gaineko presioa areagotzen ari da eta gizarte prestazioen —zentzu zabalean— erabiltzaileak ugartu egin dira.

Gaur egungo ereduak dituen mugek ez dute esan nahi inolaz ere, gizarte babeseko eta gizarte eskubideetako helburuak zalantzan jartzen direnik. Alabaina, bilatzen da, ordea, benetako beharra duten hiritarregana iritsi ahal izateko behar diren aldaketak egitea. Kontuan hartu beharrekoa da datozen 40 urteotan, Ekonomi Garapenerako Lankidetzaren Erakundeko partaide diren herrialdeetan, izan ere industrialduenak direnetan, demografi egitura aldaketa nabaria gertatuko dela, jaiotze eta hiltze tasa baxuak direla medio. Horregatik biztanleria ez da orain arte bezala haziko eta adinekoen kopurua nabarmenki handituko da, demografi piramidea zahartaraziz. Azken urteotan, zehazki esateko azken hamarkadan, adinekoen kopurua erruz emendatu da herrialde orotan. XXI. mendearen hasiera bitartean, emendatze hau neurrikoa izango da, baina hortik aurrera kolektibo hau lasterrago handituko da, zeren eta Munduko Bigarren Gerratearen ondoren emaniko “baby boom-a” zahartzarora iritsiko baita.

Bilakaera hau oraindik ere areagotu egiten da, jaiotza tasa baxuen karira gazte gutxi dagoelako. Gaur egun tasa hauek, Europar Batasuneko herrialde gehienetan, biztanleria berrituko dela ziurtatzeko behar diren tasak baino baxuagoak dira. Dena den, kontuan hartu beharra dago, epe luzearako egin ditzakegun demografi kalkulo guztiak ausazkoak ditugula, jaiotza eta heriotza tasek ustegabeko gora-beherak jasan baitituzakete.

Ongizate Estatua edo Ongizate Eredua generoaren ikuspegitik begiratzuz gero, emakumeen egoera bi aldetatik aztertu behar dugu, bata ongizatea ematen duten bezainbatean eta bestea, emakumeak ere, ongizatearen onuradun edo bezero diren aldetik. Halatan bada, uste dugu Ongizate Estatuaren politika hauek sorturiko zerbitzu soziokomunitarioak garatzerakoan, berdintasuneko eta bereizkeria ez egiteko printzipioari jarraiki, kontuan hartu behar dela botere publikoek duten erantzukizuna, berdintasuna benetan lortzea eragozten edo zailtzen duten oztopo hauek kentzeko behar diren neurriak hartzeko.

Europar Batzordeak, 1993an, europar gizarte politikaren etorkizunari buruz nasaiki galdetzeari ekin zion eta azterketa horren emaitzak 93. eta 94. urteetako gizarte politikaren gaineko liburu Zuri eta Berdean jaso ziren. Liburu hauetan, aldaketa dinamikoko garaitan gizarte politika berri-zeko eredia garatzen zen. Horren ondoren, 95. urtetik 97.a bitarteko egitaraua, gizarte politikaren ikuspuntu zabalago eta berrizaleagoa garatzen saiatu zen, etorkizunera begira legokeena. Ikuspegi honek azken urteotan eman ditu lehen emaitzak. Bat aipatzeagatik esan dezagun sendotu egin direla gizarte politikaren eta Erkidegoaren beste politiken arteko loturak, eta halatan ikus daiteke nola orain uste osoa dagoen gizarte aurrerapena ororentzat lortu beharra dagoela. Horren adierazgarri aipa dezagun, europar politika orokorrean gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sartzeko harturiko konpromisua.

Gizarte politikak orain aurre egin behar die, bilakaera lasterrean dabilen munduak jarritako errorekei. Amsterdam-eko Itunak, gizarte politika sendotzeko oinarria eman digu. Era berean, Itunak ekarri dizkigu ere, aukera berdintasunerako xedapen berriak. Honek argi eta garbi erakusten digu, politikaren maila gorenean konpromisua dagoela berriro ere, Europako arazoei aurre egiteko, baztertzaila ez den gizarte bultzatzeko, berdintasunaren alde egiteko, funtsezko eskubideak bermatzeko eta bereizkeriaren aurka joateko.

Bestalde, berdintasuna sustatu eta bereizkeriaren aurka joatea ez da gizarte justizia hutsa; halatan beraz, Batzordeak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko estrategia bikoitza erabiltzen du. Alde batetik bermatzen du aukera berdintasuna sartuko dela Erkidegoak horri loturik dituen politika orotan eta lehentasuna ematen die enpleguaren estrategiari eta egitura fondoan eraberritzeari. Beste aldetik, aurrera eramaten ditu ere, emakumeen egoera hobetzera zuzenduriko ekintza bereziak. Alor honetan aipatzekoak dira, erabakiak hartzerakoan gizon eta emakumeen partehartzea orekatua izan dadin eskaintzen duen laguntza eta emakumeen aurka egiten den indarkeriaren arazoari aurre egiteko 99. urtean aurrera eramango den kanpaina.

Europar indarrez sortu da sorospenaren ideia, umeak, zaharrak edota gaisoak zaintzeaz haragotago doalarik. Europa osoan ematen ari diren joeren artean dugu ume txikienei zuzenduriko zerbitzuak gero eta gehiago eskatzea. Europar Batasunak eskaintzen dizkigun datuek erakusten digute etxeetako %10a pertsona bakarrekoak direla. Honek aldatu egiten ditu zerbitzuak ematerakoan topatuko ditugun egoerak, eta horrez gain, biztanleria zahartzearekin batera behar berriak sortzen dira ere. Laguntza behar duten pertsona helduen eta adinekoren artaren karga emakumeen gainean datza batez ere. Araban egin berri den ikerketa batek erakusten digu, artaren %88a baino gehiagoko euskarri nagusia familiak ematen duela eta familiaren barruan emakumeek.

Egiaztatzen da, beraz, laguntza behar dutenen zaintza genero femeninoko eta zenbaki singularrak egiten dutela. Europako Batzordeak hainbat etxeen gainean eginiko inkestak erakusten digu, astean gutxienik 30 orduko lana zuten emakumeek ematen zituztela. Horrez gain, behin laguna amaitu eta egunean lau bat ordu, laguntza behar zuen norbait zaintzen. Hala bada, emakumeak bakarrik dira ardura horren kargu hartzen dutenak. Araban, emakume hauen irudia da 45 urtez goragoko emakume ezkonduarena.

Emakumeek bere kontura eramaten dute artaren karga eta honek batzuetan beren bizitza propioa eta gizarte bizitza aldatzen die. Berezko sare hori ahuldu daiteke, beraz, Gizartekintzak behar bezala zaintzen ez badu. Jakin beharra dugu, beraz, zer nolako beharrak, zer nolako aterabideak edota neurriak hartu behar ditugun, sare informal horri eutsi eta garatzen laguntzeko eta aldi berean behar bezalako arta bermatzeko, hala zaindua den adineko pertsonari edo familian laguntza beharrean denari, nola zaintzaileari ere. Eta honek ezinbestean eskatzen du, gure aburuz, arta komunitarioaren eredu politiko eta antolamenduzkoak oinarrizko printzipiotzat hartzea herri-tarrek eskubidea dutela bere inguruan ahalik eta modu independenteenean bizitzeko. Halako us-tean oinarrituz, euskal administraziook eta bereziki Foru Aldundi honek geure kargu hartzen dugu gizarte zerbitzuen sarea bultzatzea eta gizarte babesa modernizatzea.

Arabian, hala Aldundiak nola Udalek eta bereziki Gasteizko Udalak, aurrera eramaten dute gizarte zerbitzuen arloan dituzten eskuduntzak. Sare hau 75-77. urteetan hasi zen antolatzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen lehen Legeak ezarritakoari jarraiki, izan ere 82. urteko Legea, Estatu Espainolean aitzindari izan zena.

Jarraian laburki aurkeztuko dizuet Arabako Aldundiak duen baliabide sarearen hainbat zerbitzu. Araba, Euskal Autonomia Erkidego osoaren azaleraren ia erdia da, eta biztanleen %13,4 ditu. Gaur egunean 281.000 biztanle daude eta horietatik 142.000 dira emakume.

Baldin eta biztanleria sexuaren eta adinaren arabera banatzen badugu, ikus dezakegu 0 eta 14 urte bitartean 36.898 pertsona daudela, %50a inguru gizon eta beste %50a inguru, berriz, emakume. 65 urtez goitiko 40.000 biztanle daude. Zerrenda honen barruan 65etik 79 urte bitarteko-en artean gizon baino emakume gehiago izaten hasten da eta alde hau areagotu egiten da 80 urtez goitiko-en taldean, non emakumeak %66,2 baitira eta gizonak berriz, %33,8.

Nabarmena da 1981etik 1996ra bitartean gaztetasun eta zahartze indizeek egin duten aldea. Aldi horretan, gaztetasun indizea -14,4 urritu da eta zahartze indizea, berriz, +6 emendatu da. Halatan beraz, gure biztanleria, gazteak edo 16 urtez beheko pertsonak galtzen ari da eta 65 urtez goitikoak eta bereziki 80 urtez goitikoak areagotzen ari dira.

Gizarte zerbitzuetako sareari doakionean, lehen artarako sare handia dugu. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Arabako Lurraldeko eskualde edo koadrila orotan banatuak ditugu. Kontuan hartu beharrekoa da, Arabak dituen 280.000 biztanleetatik %80 hiriburuan, hau da Gasteizen, bizi dela. Hiriburuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako sarea Udalak kudeatzen du zuzenean eta Aldundiak, berriz, herrietakoa darama.

1997. urtean, oinarrizko gizarte zerbitzu hauek 4.367 pertsonari egin zaie kasu herrietan. Emakume gutxiago eta gizon gehiago.

Lehen artaren barruan etxez etxeko laguntza dugu. Azkenotan saiatu gara, orain artean etxez etxeko laguntzaren eskaintza zabalago egiten eta horretarako zerbitzuak areagotu egin ditugu. Gaur egun 920 pertsona zaintzen ditugu etxez etxeko laguntza honen bitartez, hiriburua kontuan hartu gabe, honetaz Gasteizko Udala arduratzen baita. Lehen artaren barruan larrialdietako telefono sistema ezarri dugu ere eta herrietan 179 pertsona ditugu sistema hori dutenak, horietatik 135 emakume.

1997. urtean, 6.553 pertsonak jaso zituzten norbanakoentzako pentsio ekonomikoak. Horietatik 4.000 emakume eta 2.500 gizon. Pentsio hauek ez dira Segurantzaren Sozialari eginiko ekarpenei loturikoak, baizik eta Gizarte Ongizateko Fondokoak, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrerakoak eta Larrialdi sozialetarako Laguntzetakoak, denak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Pobreziaren Aurkako Lan Egitarauaren barrukoak.

Ostatu emateko sareak egoitzak eta etxebizitzak ditu. Etxebizitzak egoitzak baino etxe autonomoagoak dira adinekoentzako. Landan ditugu batez ere eta bere kabuz molda daitezkeen 65 urtez goitiko pertsonentzat dira. Besteekin batera bizi dira etxe hauetan eta egoitzatan baino autonomia handiagoa dute etxebizitza hauetan. Probintzian ditugun ostatu zerbitzuek 724 pertsoneri ematen diete ostatu, horietatik 484 emakume dira.

Ezintasunen bat duten pertsonen artean 254 ditugu ostatu sare honetan artatuak.

Haurrentzako ostatu sarean 48 haur ditugu. Emakumeentzako ostatu zerbitzuetan, berriz, gaurko egunean 17 leku ditugu, Gasteizko Udalak eduki ditzakeenez gain.

Eguneko artarako zentruak ditugu ere, biztanle sektore ororen mesedegarri. Zerbitzu hauek artatzen dituen pertsoneri erreparatuz gero ikus dezakegu hirugarren adinari zuzendurikoetan emakumeak gizonak baino gehiago direla. Ezintasunen bat dutenen artean ere, gizon baino emakume gehiago dago.

Ezintasunen bat dutenentzako lan eta zereginetako baliapideen alorrean, orain, zereginetako zentruetako sarea eta enpleguko zentru berezien sarea ditugu. Zereginetako zentruetako egitarauetan 316 pertsonak hartzen dute parte eta enpleguko zentru berezietan, berriz, 403 pertsona ezinduek ditugu. Pertsona hauek enpleguko zentru bereziaren bitartez sartzen dira lan merkatura. Behin behineko urratsa dugu honako hau, inolaz ere behin betiko aterabide izan behar ez duena. Eta hala, legealdiaren amaieran gauden honetan, Aldundiak helburutzat hartu du ezintasunen bat dutenak merkatu arruntean sartzea. Helburua hori izanik, enpleguko zentru bereziak horretarako bidean ematen ari garen bitarteko pausuak ditugu.

Aipa ditzadan ere emakumeentzako arta berezitua ematen duten egitarauak. Sexu erasoak eta tratu txarrak jasaniko emakumeentzako arta psikologikoko zerbitzuak 145 emakume artatu zituen 1997. urtean. Zerbitzu honetara etorri ohi diren emakumeen batezbesteko irudia emakume gazte, 38 urtekoa, ezkondua eta seme-alabak dituenak. Tratu txarren kasutan %70ak eraso fisikoak jasan ditu, maiz aurretik tratu txar psikologikoak jasan ondoren. Zerbitzuak artatzen dituenen %51ak 10 urtez jasan ditu tratu txar horiek. Gainera, tratu txarra maiz seme-alabei ere iristen zaie, %33an bederen. Askotan lesio fisikoak gertatzen zaizkie, %39etan arta medikuen beharra dutelarik, baina horrela izanda ere, harrigarriki %25etan baizik ez dute salatzen. Sexu erasoak jasaten dituz-

ten emakumeak gazteak izan ohi dira ere, 24 urtekoak batez beste. Erdiak edo, ikasle dira eta tratamendu psikologikoaren eskean joan ohi dira zentruetara, baina erasoak jasan zutenetik hilabete eta urteak ere pasa ondoren. Esan behar da ere sexu erasoetako %62 familia giroan gertatzen direla. Erasotzailea ezagun izan ohi da eta erasoak salatu gabe gelditu ohi da %75etan.

Aldundiak martxan jarri berria du etxean indarkeria erabili ohi dutenei arta psikologikoa eskaintzeko zerbitzua. Hasi berria bada ere, dagoeneko ikusi dugu indarkeria erabili ohi duten gizonen errezeloak dituztela zerbitzu honetara hurbiltzeko. Teknikoak saiatzen ari dira gizon horiek zerbitzu honetara hurbil daitezkeen bideak bilatzen eta argi agertu zaie horretarako ezinbestekoa dutela emakumeen laguntza.

Orientabide juridikoko zerbitzua, diru baliabide eskasak dituzten emakumeei zuzentzen zaie. Azken urte honetan 435 kontsulta egin dira eta horietatik 202k ezkontza banantzeko informazio eskaerak ziren.

Emakumeak babesteko etxeak, seme-alabak eduki eta tratatu txarren karira etxetik alde egin beharrean diren emakumeentzako dira. Baliabide honek badu ere emakumeak alde batetik bestera laguntzeko egitaraua.

Sarearen barruan haurdun diren emakumeentzako etxebizitza dugu ere. Honetan, denbora batez ostatu ematen zaie, bai eta hezkuntza eta gizarte arta ere, batez ere haurdun diren gazteei eta haien titiko seme-alabei, baldin eta familiaren edo gizartearen laguntza ez badute.

Aldundiak, hiriburuko Udalarekin eta "Gizarteko elkartearekin lankidetzan, parte hartzen du ere, bazterketa jasaten duten eta prostituzioan ari diren emakumeentzako programa batean.

Emakumeak gizartean sustatzeari doakionean, Gizarte Ongizateko Foru departamentua saiatzen ari da Arabako landa ingurutan emakumeen sarea sortzen eta bultzatzen, bereziki landa ingurutako emakumeentzako formakuntza egitarauak bultzatzen dituelarik.

Landa ingurutako udalekin lankidetzan, Foru Erakundeak hartzaindegiak jarri ditu martxan. Dagoeneko bost ditugu, familiei umeen zaintza errazten dietelarik. Hartzaindegi hauetan artarako irizpide berriak ezarri dira: jangela, ordutegiak, ikasturte edo urteko egutegiak eta umeen adinak. Saiatu gara ere iparraldeko herrialdeetan erabili ohi duten ereduak, hau da, ume baten etxean laupabost ume zaintzea, baina Araban ez du arrakasta handirik izan, oso bestelako kultura baitugu. 10.000 biztanleko herri batean egin genuen saioa. Interesgarria iruditzen zitzaigun ideia, familiari laguntza eskaintzeaz gain emakumeari ere laguntzen baitzaio lan merkatura sartzen, baina ez du arrakasta handirik izan eta hartzaindegi edo eskola-hartzaindegi izatera aldatu beharko dugu delako proiektu hau.

Horrez gain, orain dela hilabete gutxi martxan jarri dugu Arabako Aldundiaren Ekintza Positiboko Lehen Foru Plana. Plan honen asmoa da emakumeentzako aukera berdintasunaren garapena sartzeko Aldundiaren departamentu eta zerbitzu guztietako ekintzetan. Horretarako kontuan hartu behar da Arabako emakumeek bizi dituzten egoera eta beharrak ez direla beti berak. Une honetan, departamentu guztietan eskuhartze egitaraua prestatzen ari gara. Herritarrei ere eskatu zaie parte hartzea, batez ere emakumeen elkarrekin, partehartze hau funtsezkoa baita ekintza positiboak aurrera eramanez nahi baditugu.

Landa ingurutako zerbitzu soziokomunitarioetako sare berria diseinatzen ari gara orain. Gasteizko Udaletxea hiribururako sarea ari da prestatzen. Sare honen bitartez sortu nahi ditugu adineko pertsoneri arta eskaintzeko eguneko zentru arinak. Hauen bitartez eskainiko baitzaie zerbitzu hurbil eta malgua, bere kabuz baliatzeko gai izango ez direnean. Zerbitzu arin eta malgu hau pertsona hauen edota horien familien eskura egongo da beti eta eskatuko duten ordu guztiz. Planen asmotan dago Arabako landa ingurutan horrelako bederatzi zentru ezartzea, 1998ko irailaz geroztik. Bitarteko hau oso ongi hartua izaten ari da. Orain 65 urtez goitiko pertsona ororekin banan banako elkarrizketak egiten ari gara, zerbitzuaren nondik norakoa adierazi eta eskaintzen duena erakutsi nahian: jangela, podologia, norberaren garbitasuna, garbitegia, aisialdiko zereginak, mantenimenduko gimnasia. Bitarteko malgu eta gure Lurraldeko adinekoen behar eta eskaerei egokitua da. Adinekoek nahi duten egun eta ordutan bertara daitezke.

Bestalde, gizarte zerbitzu berriak diseinatzen ari gara, gizartearen beharrak handitu egiten ari baitira. Baina zerbitzu berriak sortzeaz aparte, ditugunak biztanleriaren beharretara egokitu behar ditugu. Ordu-tegiak, egutegiak, familiarren benetako beharretara egokitu behar ditugu. Ostatu etxeak maiz, eta egoitzak batez ere, programa oso zurruneke zentru itxiak izan ohi dira, malgutaserako leku gutxi utziz.

Gizarte Ongizateko departamenduak egin berri duen ikerketa batek erakusten digu, Arabako familien eta laguntza behar duten pertsonen %90ak bere ohiko inguruan jarraitu nahi duela bizitzen, bere ohiko egoitzan. Halatan beraz, gizarte zerbitzuetako sarea, biztanleriaren asmo horri bide emateko moduan antolatu beharko dugu. Eta bide egin diezaiokegu, zenbait zerbitzu areagotuz gero: etxez etxeko laguntza zerbitzua, egonaldi laburretako zerbitzua, ... baldin eta gizarte zerbitzuak biztanleriaren beharretara egokituz jokatzen badugu, adinekoen eskaerak betetzeaz gain haien familienak ere betetzen ditugu.

Kontuan hartu beharra dago, gizarte babesaren emateko ardura duten Erakundeek saiatu behar dutela bete betean senitarteko inoren kaltetan ez aritzen, hots, bati eskainitako laguntza ez dadila beste inoren kaltetan izan. Halatan gertatu ohi da adinekoek ez dituztela opor edo egonaldi laburretako programak begi onez ikusten, galduxeak edo sentitzen baitira beren ohiko egoitzatik atara behar eta zerbitzu ezezagun batera egokitu behar izanez gero, nahiz eta aurretik aurkeztu egiten zaien ohituz joan daitezkeen. Galduta sentitze horrek ez die adinekoek ongi sentitzen uzten, baina kontuan hartu behar da halere, zaintzaileak ere atsedendialdiak eta lasai uneak behar dituela. Gizarte babesaren ematerakoan kontuan hartu behar ditugu, hortaz, senitarteko guztiak.

Aldi berean bultzatu behar dira, bai emakumeen emantzipazioa, bai eta laguntza beharrean diren artamendua. Hausnartu behar dugu, gizarte babesaren emateko ekintzekin batera garatu behar direla ere gizartearen elkartasuna sustatzeko ekintzak, zeren benetako demokrazia ez baita berdin direnak aintzat hartzea, baizik eta denak berdina bihurtzea.

Eskerrik asko.

“Esan izan da emakumeak bazter uzten dituzten zereginak ez direla behar bezain femeninoak, eta emakumearen berezko esparrua ez dela politika edota ospea, baizik bizitza pribatu eta etxekoa”

Harriet TAYLOR MILL: “Emakumearen emantzipazioa” in *Ensayos sobre la Igualdad Sexual* (1851).

1. *Banaketa-aren lehen klausula: norki bere buruaz arduratzera ausartzea*

Nitaz eta nire aldeko ardura hartzea koalitatiboki urrats handia da, pertsonalki lortu beharreko helburu soiltzat hartuz gero. Alabaina, femenino singularretik abiatuz gero, horrelako jokaera harrokeriatzat hartzen da lehen lehenik, eta ondoren kulpa dakar. Nerabeen artean —semeek bereziki— bizi al dituzte horrelako sentazioak?, bizi al dituzte horrelako sentazioak bizikideek, senarrek, anaiek? Ez. Gizonezkoen erregistroan pentsatuz gero, eta gizarteratze osagarriaren zorretan, ohikoena da “Ni” pertsona-izenordainak ez jasatea besteek nigandik espero dutenaren muga. Emakumeek ordea, tematu beharra dute “nire” nahia besteen itxaropenekin bateratzen.

Halatan bada, ardurakidetzaz ari garelarik, kontuan hartu behar dugu ardurakidetzaz hori eraikitzeko bi alderdi dituen prozesua behar dela eman lehenik. Lehen alderdia da jakitea gordelekua behar dugula, leku pribatua, etxeko bizitzaren berdina ez den lekua (pribatuk esan nahi du denbora nolabait gobernatzea —bere denbora—, espazioa ere gobernatzea, nahierara erabiliz. Etxekotasunean besteek mugatzen dituzte denborak eta zedarritzen dute ene mugikortasuna: etxetik atera edo sartu, otorduen artean). Eta prozesu horren barruan, jakin behar da ere zer esan nahi duen ardurakidetzak, alegia gizonezkoei gogorarazi etxekoa ez dela konpontzen zeregin bat “ikasiz” (“zein den erraza honako hau”, esan liteke), baizik agerian jarriz etxea bezalako espazioak eskatzen dituen ardura eta antolaketa konplexuak, etxean edozeinek eska baitiezaioke arduradunari egoki deritzona (dela artamendua, dela oinarritzko egitura: janariak prestatzea, ilobak zaintzea, edo bestelako ordezkapenak). Zenbat karrera politiko, administratibo, lanbidekoak ez ote dira eraiki inguruko emakumeek emaniko denboraren oinarrien, emakumeen ahaleginen gainean?: arrebak, amak, izebak, bizikideak, denak sare amaiezinean lotuak.

Emakumea bere buruaz arduratzeak errotik urratzen du generoko definizio soziala. Nor bere buruaz jabetzea edonorentzat zaila bada ere, emakumeari gainera “naturaz kontraktatza” agertzen zaio, erabat ezohikoa baita, estigmatizatuak baita. Arta eta zaintzako emakumezkoen ereduak balioanitzak dira formen aldetik, baina berdin berdinak egin behar diren ardurari doakionean. Espazio tarte bat irabazteko, besteren denboren horren menpe ez dagoen denbora tarte irabazteko, garrantzizko aldaketei egin behar zaie, beraz, aurre.

Emakumeak, lehen neurritzat hartu behar du arreta handiz hartu ere, generoko aravei desleial izateko borondatea. Generoa esanez espazioei esanahia ezartzen zaie, espazioak antolatuta egiten dira, sailkatu eta kudeatu egiten dira, espazio horietako biztanleen egokitasuna zehazten da eta, halatan, bazterketetarako argudioak ematen dira. Espazio publikoak eta espazio pribatuak gizo-

nezko subjektua erakusten dute, haietan zehar dabilena, kudeatu egiten dituen; etxeko espazioa ez da malgua; arduradun bakarraren gainean zedarritu eta definitzen da, edota zeregina betetzeko prest diren emakumeen sare baten gainean. Hala izanik ere, pribatutasunak —“norberarenaren” zentzu positiboan eta nortasunaren osagarri gisa ulertuta— gogoetarako beharraren elkarrreragile bezala jokatuko duen espazioaren beharra dauka. Virginia Woolf-en delako norberaren gela hura indar handiko metafora dugu, nork bere burua bakarka, kanpoko edozein eskaritatik aske, hausnartzeko erabakia adierazten duena. Pribatutasunaren nozioa femeninoan ematea erabat ezohikoa egiten zaigu, emakumeentzat oso urrutikoa delako bere buruaz eta bere buruarentzat aritzea. Horregatik beraz, emakume talde baten aurrean ikus dezakegu zein erraz gainezartzen diren pribatua eta etxekoa, azken hau lehenarekin nahasiz, besteetaz arduratzea norberaz arduratzea bailitzan.

Kontraesana areagotu egiten da beste kolektiboetan —gizonezkoetan— galdetuz gero; horientzat pribatutasunaren zentzua XVII. mendean geroztik emandako zentzu bera da, adierazten dituzten jardunak espresioari, zereginak uzteari eta nor bere buruarekin egoteari loturik baitaude. Ikuspuntu honi ihardetsi daiteke esanez emakumeek etxeko giroari loturiko pribatuaren bestelako irudipena, berariazko irudikapena duketela eta zertan behar den definizio hori konplikatu edo zikindu. Argudio hau baliagarri zitekeen baldin eta pribatu-etxekoaren aukera bi espazioen ezagutzatik baletor, hau da, bi espazioen abantailak eta kalteak ezagutzat egiten balitz.

Pribatutasunaz ulertzen bada banakotasuna lantzeko aukera ematen duen egoera, ezin egotz da kioke egoera hori emakumeari. Ez da joko semantikoa (pribatu, etxekoaren orde, edo alderantziz), ez da esatearen eremuan kokatzen, baizik eta eguneroko praktika sozial eta politikoa. Bi errealitate horien bateraezintasuna: etxean emaniko denbora eta norberarentzako denbora, konpondu gabeko arazoa da. Horren ondorioak aztertzeke daude. Nolako eragina du osasunean, enpleguan, harreman mikrosozialetan, familiarterako edo komunitatearen harremanetan, pribatutasuna balore gisa ez edukitzeak eta beti besterentzako prest egoteak. Bakarrik bizi diren emakumeak, “familiako erantzukizunak” kontzeptuaren barruan sartzen ez direnez, familia sistemak “aukera” ditzake, beren inguruan gerta daitekeen edozertaz arduratu daitezela, begira edo zain dezaitezela (dela istripu, dela eritasun edo bestelako edozein arazo larri). Beraiek ez baitute “bestelako” betebeharririk.

1.1.

ITZALEN HIZKUNTZA

Hizkuntzak sekulako eragina du portaerak moldatzen eta giza harremanak aurkezten zaizkigun bezalaxe onar eta geuregana ditzagun. Ugalketaren esparrua “lan” izenaz izendatzeak, “produktio lan” deitzen denaren baliokide egiteko asmoa erakusten du, gizartearen diskurtsoa erruz aldatzea dakar honek, zeren eta inondik ere ez baita lantzat hartzen etxean gertatzen dena. Adibide bat emateko, esan dezagun “lanik gabeak” deituak direla etxean lan egiten duten emakume guztiak, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren definizioen arabera “etxekoandre” deituak direnean, alegia. Bestela esatearren, baldin eta jakin nahiko bagenu nortzuek ematen duten beren

lana, nortzuek beren ahaleginez merkaturako onurak eta zerbitzuak sortzen dituzten, agertuko litzazkigukeen bakarrak, diru truk lan egiten dutenak lirateke.

Etxeko(lan)a, gizarteak behar duen lana izanik ere, diru trukearen legeen arabera, ordainduriko lanetik oso urrun agertzen zaigu. Batean oparia eta dohaintasuna nagusitzen direlarik, bestean, berriz, zor eta hartzekoaren logika da nagusi; ez da elkarren osagarri direnen arteko harreman soila ematen, baina bai, ordea, gizarte hierarkia ikaragarria. Hierarkia hau aurkezpen fin eta dotorearen atzean ezkutatzen zaigu (ugalketari loturik den natura estalki eraginkorra da horretarako), "langileak" eta "lanik gabeak" banaketaren atzean datzan desberdinkeria gordez.

Gizartearen diskurtsoak legitimatu egiten du XIX. mendean sorturiko bereizketa, garai haietan bereizten da etxearen esparrutik alderdi produktiboa (artesautzaren eredua), eta lan modu berrietan sartzen da, bizilekutik urrun eta industria testuinguru berrietan murgildurik. Halatan bada, jardueraren lan abstraktu eta ordainduari lotuko da eta jarduera eza, berriz, etxeko esparruaren osagarria izanen da.

1.2.

EMAKUMEEK BATU EGITEN DUTE ZIENTZIAK BANANDU EGITEN DUENA: PRODUKZIOA ETA ERREPRODUKZIOA

"Jarduera-jarduera eza" eta "produkzio-erreprodukzioa" elkarren aurkako terminotzat agertzen zaizkigu, harreman dialektikoan lotuak, antitesi eta tesian sartuak, sasi aurkakotasunean bilduak izan arte. Hizkuntza plastikoaren bitartez adierazi behariko bagenu, txanpon baten bi aldeak lirateke, elkarri atzea ematen badiote ere, ezinbestekoak dira bata bestearentzat, unitatea osatuko badute. Zeren eta etxeko esparruak ematen duen azpiegitura gabe ezin eska bailitzaieke langileei, lan merkatuak eskatzen dien denbora ikaragarria. Erabat lanerako prest egotea eskatzen baitzaie, inondik ere zalantzarako unerik utzi gabe, zeren produkzioaren esparruak, etxean egiten den lanari buruz deus ere idatzi ez badu ere, arras ongi neurtzen baitu denbora hori, eta hortik sortzen zaio emakumeak ez kontratatzekeko argudio handia. Enpresariak txol ongi dakite nor den espazio bat eta bestearen arduraduna. Ziurtasun berdinez dakigu gizartearen irudikapena nagusitzen dela eta etxekoa bitxikerien lekuan geratzen dela edo duen balioa kontuan hartzeko borondate onaren pean, inoiz ere iritsi gabe zerbitzu eta ongizatearen sortzailatzat hartua izatera, nahiz eta kontuan har dadin ahalegin handiak egiten ari diren (María Ángeles Durán-en testuak ditugu horren eredu argiak).

Guztiarekin ere, hizkuntzan eman daitezke lehen aldaketak. Noiz edo noiz geuk ere parte hartzen dugu etxekoa generoari lotzen dion gizartearen diskurtsoan, hau da, etxeko arduraren emakumeen kolektiboari lotzen dion diskurtsoaren partaide gara batzuetan. Gizartearen nagikeria honek ekartzen du, hizkuntza zientifikoaren barruan "etxez kanpoko" kontzeptua erabiltzea, emakumeak egiten dituzten jardun ordainduak izendatzeko. Hala eginik, etxeko espazioa bihurtzen da, biztanleria aktiboa —ere— diren subjektu —emakume— horien identitatearen gunea.

Etxekoa eta lanekoa banandurik ageri dira: publikoa eta pribatua, produkzioa eta erreproduzioa. Alabaina, eskema hau sortzen da, emakumeek bereizi gabe ikusten dituzten errealitateen sailkatze batetik. Berriz ere arauak aldatzen ari gara. Ez da zatitzea bilatzen, etxekoaren eta publikoaren arteko sintesi eragiketa ematen da generoko —femenino— eguneroko praktikan. Loturarik bada, presentzia bikoitza ematen bada, espazioan jarraipenik bada, etxekoa eta lanekoa lotzeko ahalmenik bada, emakumeen eguneroko praktiken bitartez ematen dira. Espazio publikoa, etxekoari loturiko zeinutaz betetzen da. Bulego batek, laneko mahai batek onar ditzakete argazkiak, marrazkiak, etxekotasuna irudikatzen duten irudiak —bere alde positiboan—, aisialdia, ongizatea eta laguntasun goxoa irudikatzen dituzten irudiak. Baina indar berberarekin, lantokia bihur daiteke zeregin hau eta bestea gainbegiratzeko eta behatzeko toki —etxekoaren alde negatiboa, derrigorrezkoa— telefono deien bitartez (“oharra ikusi al duzu?”, “prest utzi dizut”, “gogora zaitez...”), halatan etxeko jarduna urrutitik antolatuz.

Emakumeen kolektiboak ez du bereizten, ez ditu lurralde itxiak zedarritzen, ez du zatitzen, bere jardura lotuago dago gauza zehatz eta jakinei, berehalakoari, eta ikuspegi honetatik hurbiltasunaz lotzen da espazioarekin. Ez da hala gertatzen lan merkatuan, han ez baita adiskidetzetik, baizik eta oso bestela, zatitu eta banandu egiten du. Banantzearen logikak mozkin handiak ekarri dizkio (lanaren banantze teknikoa, lanaren banantze soziala, espezializazioa). Badaki etxeko lanak derrigorrez eskatzen dituela denbora soberakina, arta eta ardua hartzea; bertan zeregin anitz biltzen direla eta, batez ere, etxeko espazioari datzekiola erantzukizun jardura (ez nahastu zeregin bat betetze hutsarekin), eta erantzukizun hori bere gain hartzen duela, generoko aginduen ondorioz, emakume batek (arrebak, ama, adiskide, auzoko, alaba, izeba, emazte,...)

Lan merkatua ez da femeninoz pentsatua, baizik eta maskulinoz pentsatua dago; bere praktikaren funtsa dituen teoriak halaxe erakusten digute.

1.3.

HIZKUNTZA ZILIPURDI BAT: BAZTERTUAK, AUTOBAZTERTUAK

Teoria ekonomikoak berandu gabe saiatzen dira gizon eta emakumeek lan merkatuan partehartzeko dituzten era desberdinak esplikatzen, eta horretarako erabiltzen duten hiztegiak irabazle bat seinalatzen du, alegia, laneko espazioa besterik kudeatzen ez duena eta etxeko espazioa bizileku eta pausaleku duena (pribatua zentzu hertsian).

Lan merkatua ez da ingurune neutroa generoari doakionean; baztertze estrategia zorrotzak ditu eta arrazionaltasun teknikoaren itxuraz, langile mota baten alde egiten dute estrategia hauek: heldua, gizonezko eta familia buru.

Emakumeek lan merkatuarekin ukan duten harremana etena izan da: lan merkatuan sartu eta aterra egiten zuten eta harreman eten hau norbanakoen aukera zela uste izan da, gizarteak genero bakoitzari zeregin bereziak ezarriko ez bailitzaie. Inkesta desberdinetako emaitzak aztertzerakoan ikusten da emakumeek, galdetzen zaienean zerk bultzatu zituen lanpostua uzteko erabakia hartzera, erantzuten dutela edo ezkontzak edo lehen umearen jaiotzak bultzatu zituela. Nolaz eta

horrelako neurketen ondoren, aldagaiak gurutzatu egin behar diren, horrelako erabakiaren arrazoiak kontuan hartzeko, arrazoi hauek "arrazoi pribatuen" muga estuetan zedarrituak agertzen dira.

Erantzun tipologia honetarako, gizarte adierazleek bi kategoria adierazten dituzte, lan merkatutik ateratzen diren subjektuak izendatzeko. Lehenik "bartzeturikoak", kualifikazio eskasekoak, luzaz langabezia direnak, birmoldaketa baten ondoriozkoak, hau da, langilearenak ez diren arrazoiak. Aldiz, "autobartzertuak" deitu ohi dira lan merkaturatik uztea erabakitzen duten langileak. Azken kategoria honetan, lan merkaturako sartu-ateraldietako aztertzaileen ustetan, emakumeak daude.

Azalpenen oinarrian, lan merkatuak biztanleria aktibo guztia hartzeko duen ahalmen mugatua dago; baina hau garrantzizkoa litzateke baldin eta nolabaiteko aukera maila balego. Alabaina, gizonen eta emakumeen aukera hezkuntza mailari dago lotua lehen lehenik, eta bigarrenik, etxean umeak egon ala ez egoteari dago lotua. Lan merkaturatik aztertzeko metodologia erabiltzean ez dira kontuan hartzen zenbaezinak diren baina halere lan merkaturatik sartzeko erabakiorrak diren arrazoiaren eraginak eta izaera (gizarteratzea, lehentasunak, generoko gizarte eraketa, etab...).

1.4. HIPOTESIAK GENERO KATEGORIAZ AT DISEINATZEA

Emakumeak lan merkaturatik duen partehartze urriagoaren gaineko hipotesi desberdinak daude, baina betiere genero aldagaia sartu gabe, noski, ez aldagai hau ezagutzen ez delako, baina proposizioen logikaren kontra ez joatearren. Hipotesi hauek, duen garrantziaren arabera sailkatu beharko bagenu, honako hauek aipatuko genituzke:

1.4.1. LAN MALGUAREN ERRESERBA, LEUNTAILE GISA

Emakumeak kontratatzen dira lan merkaturaren hedapen garaitan eta atzeralditan berriz, egotziak izaten dira. Enplegu pro-ziklikoa dugu hau. Hipotesi honen oinarria giza kapitalaren teoria dugu; teoria honek, norbanakoaren gaitasunean ezartzen du, lan merkaturatik sartzeko aukeren proportzioa. Subjektuaren irudia aurretik diseinatu da, norbanako "trebagarria" behar du izan, formakuntza intentsiboko bideetan barrena sartzeko prest dagoena.

Jakina, ez da inon aipatzen norbanakoak, formakuntzako bide berezietan sartzeko behar duen denbora soberakina, ez eta eguneroko ongizateaz gozatzeko behar duen etxeko denbora "opartua".

Nork mantentzen du horren egunerokotasuna, bere funtsezko beharrak? Irakurketa oso batek baloraziko liguke, etxeko antolakuntzan behar den denbora gehigarria, etxeko norbait azterketaren baterako edota oposizioen baterako prestatzen ari denean. Kontuan harturik etxeko zerbitzuak ez direla ausazkoak, baizik eta bizirik irauteko ezinbestekoak direla —bai "trebakuntzan" ari denarentzat berarentzat ere—, zerbitzu hauek suposatuzat eman beharrean, neurtu egin be-

harko lirateke; alabaina, giza kapitalaren teoriak ez du honen gainean galdetu ere egiten, emaitzen premian dago eta badaki nor den subjektu irabazlea.

Korrante honen barruan "adoregabeturiko langilearen" kategoria jasotzen da ere, honekin izendatu nahian, lan merkatuaren aukerak beraiantzat urriagoak direlako ustean, enplegua bilatzen aritzen ez diren kolektiboak. Hemen ere emakumeak sartzen dira, badirudi emakumeek, ordainduak izateko aukera gutxiago duten asmo pertsonalak dituztela. Ez biografia pertsonalak, ez eta familiaren bitartekoen banaketa dakarten formakuntzarako pizgarriak ez dira arduratzen emakumeen "adoregabea" neurtzen.

1.4.2.

ORDEZKATZE EFEKTUA

Atzeraldi ekonomikoa areagotzearekin batera, produkzio kostuak emendatu egiten dira eta produkzio prozesua gero eta gehiago deszentralizatzen da; enpresa txikiek mapa berria marratzen dute, non enpleguak egonkortasun printzipioa galtzen duen. Ordezkapen faktorearen oinarria "langile osagarria" deiturikoa da: enplegu aukera urriagoen aurrean... ezkonduko emazteak lan merkatuan sartzen dira, familiaren diru sarrera osatzeko, zeren eta diru irabazle nagusia lanaldi murriztuetara mugatzeko arriskuan baita edo langabezian dago.

Lanaren banaketa sexualaren logikak, zereginen eta hierarkien banaketa berritzen duen espazioan birsortua, emakumeak bihurtzen ditu, diru emaile diren helduen menpeko heldu. Badakigu, lanean igotzeko aukera baten aurrean, lan interesgarri baina lanegun luzekoaren aurrean, emakumeak bi errealiteren arteko aukera egin beharko duela. Batean ez zaio barkamena eskaintzen eta ordezkapena bilatu beharko du edo bestela, besterik gabe uko egiten dio lanpostuari. "Gutxiago irabaztea" femeninoa da.

Emakume eta gizon gazteek pareko formakuntza bideak ibiltzen badituzte ere, biztanleria aktibo gehienaren euskarri diren emakume gazteek dira lan merkatuan sartzeko oztopo handienak dituztenak, eta denbora eta formakuntza gehien behar dituztenak, zailtasun hauek gaindituko badituzte.

1.4.3.

ZEREGINEN BEREIZKETA

Zereginak sexualki arras tipifikatuak daude; lanbide "maskulino" eta "femeninoak" daude, azken hauek etxeko espazioaren jarraipenekoak gainera. Zerbitzuen, artaren eta zaintzaren oso antzeko lanak. Idazkari izatea, erizain, harreman publikotako langile, azafata, ez da gizonezkoen artean hauen baliakidea erraz azaltzen, generoko desitxura onartezina bailitzateke. Lanbide hauek lehen leheneko aukerak dira koalifikariorik gabeko emakumeentzat, eta horrela eskaintza-eskariaren zikloa itxi egiten da eta enplegua feminizatzen.

Zereginen bereizketaren teoriaren barruan oso garrantzi handikoa da koalifikazio kontzeptuaren eraiketa soziala. Itxuraz neutro eta axiomatikoa bada ere, generoko portaeretara loturik dago, bai eta jarduera edo jarduera ezaren kontzeptuari ere. Lanbideen historia egiten badugu, ikus dezakegu nola emakumei "kendu" egiten dizkieten, produkzioarako estrategiko bihurtzen diren lanbi-

deak: emaginak kirurgilari izan ondoren, garagardo saltzaileak. Koalifikazioak, lanpostuen sailkapenaren euskarria dena, meritua eta demeritua, gizonetako testuinguruan sortu da, trebetasunak, abileziak, aginte dohainak, lehiakortasuna dira indarrean diren baloreak, emakumeak lan munduan sartzeak ekarri beharko lukeen malgutasunaren orde.

Kudeaketa eta erabakien autoritate teknikoa gizonena da. Emakumeak ehungintza korapilatsu batego langile izan daitezke, baina koalifikazioaren definizioa gizonak egiten du. Mekanismoa emana da, zeregin bat izendatzen da, egilea eranstean zaio eta horra lanbide sailkapena egina!

Sailkapen hau ikus dezakegu jarduera adarretako konbeniotan: Patroilariak (gizonezko lanbidea), jostunak (emakumeen lanbidea) baino lansari handiagoa du. Gizonak ikasle gisa sartzen ziren eta zereginak aldatuz —espazioan mugituz—, denbora ez oso luzean koalifikatu egiten ziren. Halatan emakumeek ez dute beren know-how teknikoa handitzen. Lanbideko sindikatuek sutsuki egin zuten familia-buruaren alde. Gaur egun ere, lehen bezalaxe, sindikatuek, orain dela berrehun urteko subjektu berdinen alde egitea gomendatzen dute. Emakumeak “bestelako” erantzukizunak omen ditu, kontabilitate zehatz eta jakinaz at.

2.

Espazio publikoa indarrez hartzearen ondorioak

Rolak emate orok zeregin banaketa dakar, eta horren ondorioz, beste zereginetarako debekua, generoaren desbideratze edo disfuntzioa izan nahi ez bada. Gizonen unibertsoan ez da agertzen emakumeek sentitzen duten, edo hobeto esanda: emakumeek sentitzen dugun hobendun sentimendua, nor bere diskurtsoa, bere nortasuna, emakume “izateagatik” egotzi zaizkigun betebeharren gainetik jartzen dituen (zaindu, egon, interesa agertu, hunkitua sentitu, kargua hartu, nor bere buruaz “beste” gauzatan pentsatu, denak lasaitu, sosegatu, egokiera onenaren zai izan, “kontuan hartu”).

Genero femininoko aginduetan, gizonetakoenganako “menpekotasunezko mekanismoa” sortarazten da, haien onarpenaren eta haien estimuarenganako; haiek ematen dizkigute ospea eta ordeko boterea. Mekanismo hau ez litzateke erabili ahal, baldin eta lor ditzakeen zeregin produktiboen esparrua arras mugatuko ez balitz, halatan gogorarazten baitzaio behin eta berriz, bereari dagokion lekua etxeko esparrua dela. Celia Amorós-ek zioen emakumea inoiz ez dela lan-gabezia, etxekoandre izatea gailendu egiten baitzaio.

Lana funtsezko eskubidea izatera iritsi da, baina belaunaldi desberdinen eskubideen zerrendan izendatua izan aitzin, pentsalari politiko eta sozialek espazio publikoan benetako partehartetzat hartu dute, eta hala, ordainduriko lanak tentsioak sortarazi ditu, enplegu moduan gobernatzen duten eta koalifikazio moduan baloratzen dutenengan. “Lan egiteak”, Erdi Aroan lurra edukitzearen adinako balioa zuen; lanbidea ukanez hiritartasuna eta gizartean partehartzea ziurtatzen ziren. Lan munduak, ordea, produkzioa diseinatzeaz gain eta zorrotasun berdinarekin, langilearen irudia ematen du: alegia, berziklatzeko eta trebatzeko gai dena, lan esparruan parte hartuko duena,

horrez kanpoko bestelako betebeharren trabarik batere gabe, esate baterako, etxeko esparruak sortarazten dituen betebeharririk gabe. Produkzioa eta erreprodukzioa elkarren aurka izan dira aurkeztuak, Industri Iraultzaz geroztik. Horren adibide argirako ditugu XIX. mendeko Espainian ziren Erret Fabrikak eta irun eskolak (1).

Besteren espazioan sentitzeak (produkzio lekuak hala baitira) eragina dauka emakumeek beren buruaz duten ideian. Soldatapeko direnean bere burua ikusten dute "soldata osagarria" ekartzen. Hori hala da, senitartekoek gutxi baloratzen duten dohainikako etxeko lanari lotuak direlako (baliagarritasun eza emakumeen diskurtsoan beti ageri izan da) (2). Eta bigarrenez, lanbidean gaitasun gutxiago edukitzeak (ikasteko denbora metatu beharra dago) desabantailan jartzen du emakumea, familiaren mantentzaile nagusiaren aldean. Hautemate hau zabal daiteke ere lan merkatuan sartzeko mekanismoetara (aukeratze elkarrizketak) eta lanean mantentzera berera ere (feminizaturiko enpleguak).

Halarik ere, emakume langileek daukaten lanaren alde egiten dute bete betean, bai gaitasun eskasekoen kasuan ere. Espazio publikoan aktiboki izateak ematen baitie etxeko esparruan partaidetza banatzea eskatzeko legimitatea eta ematen die ere berdinen arteko harremanetarako leku bat. Horrez gain, emakumeek ikusten dute lan horiek neurtu egiten direla, baloratu eta ordaindu egiten direla, eta etxeko lanak berriz ikustezina dira, bai lan horien onuradun direnentzat ere.

Alabaina joko bat desegiteak ondorioak ditu; nork bere burua subjektutzat ezagutzeak eta horren arabera jokatzek gatazkak dakartza.

Lehen eragina ikus daiteke, erantzukizunak partekatzea indar handiagoz eskatzen dela nabari delako; kexuaren ordezkagertzen zaigu, helburu eta asmoak dituen subjektutzat hartua izateko eskakera irmoa. Kexua agertzen denean, geure ahotsarekin bakarrik geratzen gara: ez da solaskiderik, baizik eta zer egin ez dakiela harriturik, zer gertatzen den galdetzen digun norbait, ulertu gabe zerk huts egin duen bere rolean horrelako erokeriak jasaiteko. Elkarrizketa ematen bada, kexuaren ordezkagertzen du lekua. Etxeko zerbitzuen sarean desegiten ez diren banakoen nahiek aurre egin diote, 70. hamarkadaren italiar feminismoak "burujabetzearen ondoeza" deitu zuenari.

Alabaina, lanbidetan, kudeaketan, harremanetan gai sentitzeak, nork bere burua behar bezala estimatzeak, etxean kaltegarri diren gauzak ez onartzea dakar. Emakumeak gizartean partehartze handiagoa ukaiteak ekarri ditu, ekarri ere, familiaren egiturako aldaketak, lehen aldaketa zereginen bikoiztea ekarri du. "Emakumeok bi aldiz gara errudun" zioen kooperatiba bateko emakume

(1) Lana zentzabide bezala: zigor eta disziplinaren barnean harturik, zeren teoria erreformista eta filantropikoen arabera, laxokeria baztertzea helburu nagusi baitzen. Benthan filosofo utilitaristak Espainian eragina du (haren lanak 1822az geroztik itzultzen dira) Toreno-ko Kunderari eragiten dio, bai eta Calatrava-ri eta Martinea de la Masa-ri. Zaintzailea zainduaren sekuentzian sartzen da. Zaintzaren sinbolizazioa oso zorrotza da, ordezkapen batez egiten baita: (benetako) zaintzailearen ordezkapena (sinbolikoki) subjektuaren adimenean. Denak autodisziplinatzen dira.

(2) 1985ean Emakumearen Institutuan aritu nintzenez, Sevilla-n, enplegu aholkulari nintzen honakoarengana etortzen zitzaizkidan emakumeek ez zekiten bazekitela, hau da, zizutzen baliapideak, jakituriak, trebeziak ez ziren agertzen, ilunpean galtzen ziren. Ez zen aintzat hartzen, heziketa formalaren baliokide zena baizik, zegozkien ziurtagiriak eta guzti.

batek, eztabaida talde batean (3), argi eta garbi agertuz eguneroko asmo eta nahia ezin iritsizko bi muturren artean dagoela, alegia trebeena izatea, bai espazio publikoan bai eta etxean ere. Partaidetzaren zeinuak bihurtari bihurtu dira, "norbera"-ren kontzeptua nagusitu baita, "zeregin" terminoa bazter utzirik, baldin eta betebeharrari lotua bada, edo bestela esateko, gizarteak hain gordinki delegatzen dituen banatu gabeko erantzukizunei. Lehen eta bigarren mailako eremuak zedarrizten zituen mapa desegiten da; mapa horretan erdiguneak pribilegio guztiak zituen eta etxekoa kanpoaldean zegoen, "ez aktiboak" emanez.

Bigarren eragina, gizartearen egituraketak ezartzen duen portaeren ereduari piskanaka baino irromoki erantzutea da; ezarritako eredu horrek emakumeak emankor eta bere buruaren ardura gabe ezartzen ditu, horrelako izaera berezkoa bailitzaien. Eguneroko diskurtsoak (hala giro publikoetan nola pribatuetan ere) goratu egiten du emakumeek denbora eta arta emaile izateko duten jorara. Apaindura horrekin azaltzen zaigu mozorro festara (argi da hizkuntzak errealitatea ezkutatzeko duen ahala), "zaintzaren etika" deiturikoa, alegia, azpimaratzten duelarik zein prestu eta egoiak diren emakumeak etengabeko zaintza behar dutenen arta, laguntza eta ikuskarpena eskatzen dituzten zereginen ardura hartzeko. Ongizate Estatuaz mintzatzerakoan, esparru hau alderdi politikoen eta Gobernuaren agendatan agertzen da, baina Estatu ongilerik ez denean, ordea, emakumeen lanak betetzen du zeregin hori; ez da atso edo agure eriturik, baizik eta zaindu beharreko gurasoak, ez da minusbaliaturik, baizik eta zaindu beharreko seme-alabak, ez da artamendua etxean hartzen duen eriturik, baizik eta bere senitartekoen medikazioa begiratu, ikuskatu eta planifikatzen duten emakumeak.

Harrigarria da emakumeek beraiek aldarrikatzea etxean giltzapetzearen bertutea, izan ere XIX. mendeko lelo zaharra den hau; garai haietan literaturak eskaini zizkigun bere emakume heroik nagusiak eta orain Ongizate Estatuak, babes unibertsaleko azken asmoak bizi dituelarik, emakumeengan utziko ditu, maitasunaren erritual finaren gordetzaille baitira, beharrean direnentzako sorospen zerbitzuak (adineko jendea, eriak, etab...), eta utziko ditu, ez betebeharraren izenean —betebeharra urra baitaiteke—, baizik eta koalitatearen izenean, "zaintza"-ren ezaugarria delakoan.

Bidea bestelakoa da, izan ere, ia ia kontrakoa ere da: zaindu, bai, baina zaintza eta erantzukizuna banatuz (dei eginez semeei, nebei, senarrei, zeintzuk ez baitira oheburura hurbiltzen beren sentsibilitateak galerazirik, nahiz eta eriak deitzen dituen, eta gogoraraziz berekin ere doala gauza). Horren barneratua dute emakumeek eta horrenbeste uzten da zaintza emakumeen eskuetan, ezen senitarteko osoak gaizkitzat hartzen baitu emakumeek ez hartzea paper nagusia eriondoko garaitan (dela eritasun kronikokoa —minbiziko edo alzheimereko (bitxia bada ere emakumeak gehienak) eriak laguntzeko taldeak— edo dela eritasun akutukoa —ebaketa batek eriaeren inguruko

(3) Gizarte Ikerketako Teknika Koalitatibotako irakasle titular naizenez gero, hainbat ikerketa egin dut ikuspuntu honetatik abiatuta. Emakumeen denborari doakionean, nire liburu *El mito de la Vida Privada: de la entrega al tiempo propio*. Ed. Siglo XXI.-tik atera dut pasarte hau.

emakumeak ospitaleratzen ditu—). Sakrifizioak ez dakar ez loria ez bertuterik, ezpada sakrifizioan partehartzen ez dutenek goratzen dituenak. Esparru publikoan sartzeak ikuspuntu zabalagoa eskaini du etxeko esparrua begiratzerakoan eta aukera eman du ere bestelako zaintzari hasiera emateko: nork bere buruaren zaintzari, alegia, subjektu gisa eraikia izateko segurtasunean. Baldin eta gurekin bizi direnei gizabanakoaren estatusa eskaintzen adituak bagara, zergatik zaigu hain zaila geure buruaz arduratzea? Nork bere buruaren jabegorako eskubidea lortzea, norbanakoen askatasunaren sinonimo den bezainbatean, horregatik “berekoi” sentitu gabe. Termino hau ezezaguna baita gizonezkoen hiztegian.

Etxeko erantzukizuna behar bezala banatzeko, lehenik kontzeptua sendoki definitu beharra dago (ez nahasi zereginekin, zeregina ez baita erantzukizunaren baliokide). Horrela egin ezean, emakumeek esparru publikoan leku eskasa dukete, eta gizartean aintzat hartuak ez direnez, pribatutasuna eskubide gisa galduko da, subjektu izateko funtsa ere galduz. Eta subjektu izatea da, izan ere, berdinen arteko edozein itunen ezinbesteko oinarria.

Bi generoen arteko itunak ekartzen digu hain asmo handiko erantzukizun banatua, eta horretatik, berriz, sortzen da Erkidegoaren araudi sail handia; araudi hau izendatu dugu, nahiaren ikuspegitik edota estrategiarenetik, Donostiako Genero eta Ekintza Positiboko Nazioarteko Kongresu honetako mintzaldi gehienetan. Apurtzen hasten den kristalezko beste muga.

1.*Lanaren esanahia***1.1.****LANAREN HITZAK**

Hizkuntza orotan daude lana izendatzeko zenbait hitz, beraien artean desberdintasun fin edo ña-bardurak daudelarik. Adibide ezagun bat erabiltzearen, aipa dezagun Oxford Encyclopedic English Dictionary delakoak lanaren hamabost definizio ematen dituela eta terminoa egoera desberdinetara egokitzeko modu edo esapide askoz gehiago. Lehen definizioaren arabera, lana digu: "ahalegin fisiko edo adimenekoa asmo baterako erabiltzea"; laugarren adiera arte ez zaigu azaltzen lana "enplegu, zeregin, etab. norberarentzako diru sarrera moduan". Gauza bera gertatzen da "labour" terminoarekin, lehen lehenean "lan fisiko eta adimenekoa" bezala agertzen da, baina bere erabileraren hirugarren adiera gisa, erditzea azaltzen digu.

Espainolez "lan" hitzaren bost esanahi onartzen ditu Academia de la Lengua Española delakoak, eta horietatik batek ere ez du eskatzen ordainketarik ez kontraturik.

Gizarte Zientzietako Nazioarteko Entziklopediak, berriz, honela definitzen ditu langileak: "ondasunak edota zerbitzuak sortu edo eraldatzen dituzte, bere kontsumorako edota besterentzat"; definizio honek ere bazterrean uzten du enplegua.

Hiru adibide hauek aipatu dizkizuet, argi gera dadin Europako hizkuntzen eguneroko erabileran, lanaren kontzeptua oso zabala dela eta inolaz ere ez dela mugatzen ordaintze edo soldataren ideia. Hala izanik ere, gaur egungo literatura sozioekonomiko eta legezkoak, lan ordainduaren kategoria izugarri estuen mugetan mantentzen da ia erabat. Laneko gainerako moduak baztertu ohi dira, zenbait gizarte-mugimendutan ere, non korporatibismoak eta tradizioak, lehen lekua beren interesen defentsari ematen baitiote.

Merkaturako salgaiak produzitzen bete betean ari ez direnen lana ordezeko kontzeptualizazioak jaso ohi ditu, besteren bidezkoak, eta halatan "bestetasuna"-ren estatutu teoriko eta politikoa zaie ezartzen. Baztertze honen arrazoia Europako azken gizarte historian datza, batez ere kapitalaren eta bestelako produkzio faktoreen arteko borroketan. Enplegu emaile eta enplegatuen arteko borrokaren bitartez "lanaren kultura" berezia sortu da, bere arau eta hiztegi bereekin. Lan zuzenbidea, lan ekonomia eta eskubide sindikala dira, gaur egun ezagutzen ditugun moduan, kultura horren emaitza nagusiak.

1.2.**LANA ARAUTZEN DUTEN ARAU
ESPLIZITU ETA INPLIZITUAK**

Mozkinak banatzeko borroka hain bizi eta luzea izan da, ezen Europako gaur egungo kultura politikoa, neurri handi batean, kapital eta lana elkarren aurka jokatzearen ondorio den kulturak sortu baitu. Halatan bada, Konstituzio modernoetako hiritar eredu inplizitua, norbanako autonomo, burujabe eta askea da. Alabaina ez du esistitzen, horren baliokide den kultura politiko eta sozialik, ekonomikoki burujabe ez den biztanleriaren papera aztertzeko. Nork definitu eta erabakitzen

ditu hauen eskubide eta betebeharrak? Nork aztertzen du hauek pertsonen eta gizarteen ongizaterako egiten duten ekarpena?

Gaur egun enplegua arautzeko bi arau sistema ditugu: arauen sistema esplizitu eta implizituak, alegia. Arau esplizituak soldatapeko lanaz arduratzen dira batez ere, enplegatuen eskubide eta betebeharrak kodetuz. Gai hauen gaineko informazio kopuru handia dago eta Europa mailako erreferentzi esparrua eraikitzen ari da, hala ikuspuntu juridikotik nola estatistikatik ere.

Lanaren gaineko arau sistema implizituak, berriz, "harreman pribatuen esparruan" gorderik, gogorki egiten dio aurre edozein kodetze eta aldaketari.

Lanaren gaineko arau formalen interpretazioa, gehienbat jarrera indibidualista batean oinarritzen da. Dena den, arau implizituak oinarritu ohi dira "Erkidegoaren" jarrera edo ikuspuntutan, non banakako langilea interes zabalagoen (famiariaren interesa, klasearen interesa, Estatuarena, etab.) menpe baitago.

1.3. EUROPAKO LANGILE MOTAK: GERTA DAITEZKEEN TIRABIRAK ETA INTERES GATAZKAK

Salgaien produkzioan lana erruz sartu denez, lanaren zati handia salgaia bihurtu da. Gaur egun, nagusiki lau tirabira edo tentsio mota eman daitezke lan mota desberdinen eta produkzioko gainerako faktoreen artean, eta hauek ados jartzeak izan behar du indar politiko eta sozialen garrantziko helburu. Honako hauek ditugu gerta daitezkeen kontraesan edo tirabirak:

1. Soldatapeko langileen eta kapitalaren jabeen eta produkzio-bideen artean gerta daitezkeen tirabira.
2. Enplegua duten langileak, langabetuen aurka.
3. Langile "onargariak" (agiriak dituztenak, legezkoak, diskriminatu gabeak, etab.) "onartezinak" direnen aurka.
4. Langile ordainduak, langile ez ordainduen aurka.

Europako ekonomietan gainerako produkzio baliabideen gainean diruak halako indar handia egiten du, ezen diru truk egiten den lanaz aparte ez baita beste inolako lanik kontuan hartzen. Salgai den lana ez da lan mota guztien arteko bat besterik, baina itxuraz irentsi egin ditu edo hutsean utzi ditu, gainerako lan motak. Dena den, lan mota guztien baturak ematen die gizarteei oinarri, gizarte horretako kide direnei bizirik irauteko aukera eta ongizatea eskaintzeko. Ordezkatze hau ezin onartuzkoa da ikuspuntu politiko, intelektual edo sozialetik ikusita, baina orain dela oso gutxi arte ia ez da horretan erreparatu eta are eta gutxiago horretaz kexu ageri. Adibide baterako, hiztegi estatistiko edo ekonomiko arruntean, lan merkatutik at diren langileak (hau da, beren denbora merkantzia moduan saltzen ez dutenek), "ez aktibo", "menpeko" edo "antzu" izenekin izendatzen dira, kontuan batere hartu gabe, zenbat orduz aritzen diren ordaindu gabeko lanetan, edo zenbateraino behar den egiten duten lana, hirikideak bizi daitezzen.

Nolaz eta ordaindu gabeko lana, oso modu eskasean antolaturiko biztanleriari ezarri baitzaio, mehatxuak eta negoziaketak egiteko ahalmen eskasekoari, ordaindu gabeko ikusezintasuna izugarria izan da Europa osoan. Bakarrik orain dela gutxi, eta emakumeen mugimenduen eskariei erantzunez, bai Nazio Batuek eta bai Naziotako Gobernuak ekin diote, gaur egun lan karga osoa langile ordaindu eta ordaindu gabeen artean nola banatzen den aztertu eta baloratu eta banaketa hori aldatzera.

Bestalde, salgaia den lana ere erraz geratzen da salgaien eta mozkinen menpe; izan ere, Europa unitate sozial eta politiko gisa eraikitzeke azken garaioetako ahaleginaren aurretik, merkatu amankomuna edo erkidego ekonomikoa eraikitzeke mugimendua eman zen. Epe labur eta ertainean, Europa batua lortzeko nahi sendoak bakarrik berma dezake langile eta hiritarren interesak nagusituko zaizkiela enpresa transnazionalen azken interesei.

Postfordismoak (malgutzea, aniztasuna, higikortasuna, deszentralizazioa eta nazioartekotzea) ez du ziurtatzen ordainduriko langileek, eta are eta gutxiago gainerako langileek, lehentasunezko tratua ukanen dutenik aurrerantzean. Testuinguru honetan, "denbora" esaten denean ulertzen da ia esklusiboki "lan denbora", hau da, lantokian diru truk zerbitzu moduan emaniko denbora.

Vaiou-k (1998) seinatu duen moduan, agertzen zaigun arazoa da ea zenbateraino lanaren gaineko eztabaida garrantzi berekoa izan den: a) fordismoa, lana eta denbora, beste gauzen artean, antolatzeke modu nagusi edo gailendua izan ez deneko herrialde eta lekuetan. Beste hitzetan esanda, jarduera informalek eta lan modu atipikoek, garapen ekonomikoa eta sozialaren zati garrantzitsua hartzen duteneko lekuak. b) beren eguneroko jarduna lan merkatuaren inguruan bakarrik edo batez ere antolatzen ez duten pertsonentzat. Honakoak dira emakumeak, esate baterako, hauen denboraren gehien gehiena besteren zaintzari eta ordaindu gabeko lanari dago lotua, eta hauen eskarmentuak askoz gehiago aldatzen du, gizonezko "batezbesteko langile" ereduarenak baino. Bi kasuetan, denbora antolatzeke modu oso zehatz eta desberdinak nagusitzen dira. Abiapuntutzat har dezagun, gizonek eta emakumeek historikoki, denbora egituratzeko ia elkarren aurkako eskarmentuak bizitu dituztela. Ordainduriko eta ordaindu gabeko lanen edukien artean dauden aldean aberastasunak ez digu uzten dikotomiazko terminotan pentsatzen, ez abiapuntu bezala ere. Gizonezkoentzat, ordainduriko lana eskubide eta betebeharra da, diskurtso publikoan unibertsaiki onarturiko indar handiko eskubide zibila, alegia. Emakumeentzat, ordea, indar eska-seko eskubide zibila da, behin eta berriz eskatu beharrekoa. Bestalde, ordaindu gabeko lana, bete-behar soziala da emakume ororentzat, eguneroko bizitzaren antolaketaren bitartez definitua eta denboraren aldetik zehazki mugatu gabekoa (Bimbi, Del Re, 1997). Ordaindu gabeko lanaren edukia eta horren ondorioak, emakumeen "aukera askea" dela kontsidera ohi da; alabaina askatasuna kultur arauak eta gizartearen onarturiko jarduerak mugatzen dute, bai eta benetan erabili daitezkeen baliabideek ere. Gizonezkoek, lekuen arabera kopuru handiago edo txikiagotan, libre daude ordaindu gabeko lanaz arduratzetik

Lanaren papera Nazio- kontularitzan

Nazio-kontutarako Europako sistemak esparru homogeneoa eskaintzen digu, aztertu nahi badugu Europako herrialde guztietan produkzio eta kontsumoko faktore desberdinen ekarpena. Kontzeptuak era berean definitzen dira leku guztietan eta herrialde eta urteen arteko konparaketa erraztu egiten da. Nazio-kontularitzak ia diru eginiko baliapideak besterik ez du hartzen kontuan. Lanari doakionean, balio ekonomikoak ez du zer ikusirik lanak eman dezakeen atseginarekin edota gizarte edo pertsonentzat duen baliogarritasunarekin. Lanari ematen zaion balioa, merkatuan lorturiko prezioa da, legez edo moralki duen balioaz erabat aparte. Etekinaz at den sektorean, hala nola gobernuaren jardunak, lanaren kostua ia produkzioaren balioaren berdina da, ez baitago mozkinik, ez eta sektore honek emaniko zerbitzuen prezioa ere.

Ekonomia beltza, ezkutua izan arren legez kanpokoa ez dena, Europako lan indarraren %7tik %19ra bitartekoa da, Europako Batzordearen azken txostenen arabera. Sektore honetan sorturiko Barne Produktu Gordinaren (BPG) tasa baxuena Finlandiakoa dugu (%2tik %4ra bitartekoa) eta altuena, berriz, Greziakoa (%29tik %35 bitartekoa). Erkidegoan eztabaida zabala dago gai honen gainean eta gobernuak egiten zaizkien iradokizunen artean sartu beharra dago, langabeziaren aurkako egitarauetan balia dezaten. Iradokizun hauek 1999. urtean gauzatuko direla uste da.

Nazio-kontularitza guztietan trataera berdina egiten zaio lanari eta horren adibide gisa, Espainiaren kasua hartu dugu (ikus 1. taula). Soldatapekoei ordaintzen zaiona neurtzea oso erraza da (C1 eta C2 puntuak) eta eskuartearen darabilgun kasuan Barne Produktu Gordinaren (BPG) %46,2aren ingurukoa da. Zailagoa da, ordea, soldatapean ez diren langileen lanaren balioa, prezioa eta kantitatea neurtzea, bere buruaren enplegu emaile direnena, enpresariena edota komisioa hartzen dutenena; hauen ekarpenek mozkin garbia osatzen dute (D1 eta D2 puntuak). Langile hauek Espainian duten egoera sozioekonomikoaren azterketak eskatzen digu hauen lanari eman behar zaiola, soldatapeko langileei bezalako batezbesteko balio per capita (koalifikazioa, etab.) (III.1 puntua). Horren ondorioz, lanak BPG-n duen eragin osoa %60,9koa da (soldatapekoen eta soldapean ez direnen ekarpenak) (IV puntua). Zaila da ordaindu gabeko lanari diru balioa ezartzearen erabakia. Baldin eta ordaindu gabeko lanari egokituko bagenio, ordainduriko lanaren batezbesteko balioaren %80ko balioa, BPG-a %123,6a emendatuko litzateke urtean. Ikuspuntu orokor eta ulerkorrago batetik begiratuta, ezin har daiteke ordainduriko lana, europar gizarteari ongizate eta aberastasuna ematen dion lan mota bakartzat, alabaina, lan mota hau bakarrik hartzen da kontuan gaur egungo Nazio-kontularitza Sistemari. Errealitatea azaltzeko modu honek emakumeen lana ikustezina bihurtzen du, batez ere lan merkatuan emakume gutxi dauden herrialdeetan. Ikustezintasun hau gainditu nahian, Nazio Batuen Beijing-go biltzarrak erabaki zuen Nazio-kontularitza aldatzeko kontu sateliteak erabili behar zirela. Ez da hau zeregin erraza, hala teknikoki nola politikoki ere, baina goiz edo berandu (hobe goiz berandu baino) gobernuak eta azterlariak ere onartzen ari dira tresna sozioekonomiko honen beharra. Konpondu beharreko gutxienez hiru arazo nagusi daude: a) ordaindu gabeko lanaren gaineko datu falta, b) balioa

ezartzea zaila dela, eta c) balioztapen berriak konbentziotan oinarrituriko ohiko sistema diren Nazio-kontularitzatan sartzea. Ez dira konpon ezinezko arazoak, baina baliabideak behar dituzte (finantzamendua, etab.) eta arriskatzeko ausardia, baldin eta ahalegina hitz hutsetan geratzea nahi ez badugu.

1. Taula. Diru eginiko eta diru egin gabeko lana Espainiako Nazio-kontularitzan

I. NAZIO-KONTULARITZA (PEZETA KORRONTETAKO MILIOITAN). 1996 (AURRERAPENA).	
A. Barne Produktu Gordina merkatuko preziotan	73.571.739
B1. Merkatuko preziotan libre dagoen Nazio Errenta Garbia	64.754.010
B2. Biztanle bakoitzeko libre dagoen Nazio Errenta Garbia (pezetatan)	1.648.931
C1. Soldatapekoen ordainsariak	4.024.958
C2. BPG-rekiko soldatapekoen Ordainen % (A)	%46,2
D1. Ustiatze soberakin garbia	25.277.711
D2. Ustiatze soberakin garbia BPG-rekiko (A)	%34,4
II. BIZTANLERIA AKTIBOAREN INKESTA (1997)	
E1. Soldatapekoen % lanean ari diren guztien artean.	%76
E2. Soldatapekoak ez direnak, lanean ari direnen artean	%24
E3. E2 E1-en artean	%32
III. LANERAKO LEHEN HIPOTESIA	
III.1. Soldatapeko ez den eta lanean ari den langileren ordainsariaren %, soldatapekoarekiko	%100
IV. ORDAINDURIKO LANAK BPG-EAN DUEN EKARPENA, III.1. HIPOTESIAREN ARABERA	
BPGean lanak duen %= Soldatapeko lana 46,2 + (46,2).(%32) = 46,2 + 14,7 =	%60,9
V. LANERAKO BIGARREN HIPOTESIA	
V.1. Diru egin gabeko lan unitatearen balioa diru eginikoarekiko, baloratzen da	%80
V.2. Diru egin gabeko lan unitatearen balioa diru eginikoarekiko, baloratzen da	%100
VI. DIRU EGINIKO ETA EZ EGINIKO LANEN PORTZENTAIA LAN GUZTIAREKIKO ("USO DEL TIEMPO" INKESTAREN ARABERA, CIRES, 1996)	
VI.1. Diru eginiko lana	%33
VI.2. Diru egin gabeko lana	%67
VI.3. Diru egin gabeko lanaren %, diru eginiko lanarekiko	%203
VII. MAKROMAGNITUDE EKONOMIKOEN ERALDAKETA, ORDAINDU GABEKO LANA SARTZERA KOAN	
VII.1. Lanaren balio osoaren emendatze portzentaia V.1. hipotesian (203. %80)	%162
VII.2. Lanaren balio osoaren emendatze portzentaia V.2. hipotesian (203. %100)	%203
VII.3. BPGren emendatze portzentaia V.1. hipotesian (162).(%60,9)	%98,6
VII.4. BPGren emendatze portzentaia V.2. hipotesian (203).(%60,9)	%123,6

Iturria: Egileak, Espainiako Nazio-kontularitzaren datuetaz (Madrid, 1997) baliatuz egina .

Denboraren Erabileraren gaineko CIRES inkesta, 1996 eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 1997ko 3. hiruhilekoarena.

2.1. GIZARTE BABESAREN JOERAK. GOBERNUEK EMANIKO DENBORA ETA BALIABIDEAK

Gizarte babesa, azken hamarkada honetan, etengabearen areagotu da Europako herrialde guztietan, hala prezio iraunkorretan nola korranteetan. Herrialde batzuetan handiagoa izan da emendatze hau (Portugal, Espainia), maila baxuan baitzeuden, halere, abiapuntutzat maila berdina zuten herrialde guztiek ez dute berdin areagotu beren gizarte babesa. Portugal-en, esate baterako, Ongizate Estatuak ez zuen benetako garapena lortu, 1974ko apirileko aldaketa politikoa eman arte. Gizarte politiken ikuspuntutik, oraindik ari da iragaite prozesuan eta 1995ean boterea lortu zuen gobernu sozialistak itxaropen handiak sortu zituen gizarte politiken arloari doakionean. Gizarte bazterketaren aurkako lana, heziketaren aldekoa, osasunaren aldekoa eta gizartearen beste arazoak, agenda politikoaren erdigunean izan ziren. Gaur egun, Gizarte Segurantzaren erreformaren inguruan eztabaidan diren gai gehienak erretretari eta pentsio sistemari daude lotuak.

Emandatze hau, BPGaren emendatze orokorrari esker eman da. Dena den, ahalegin erlatiboari doakionean, egoera oso bestelakoa da. Herrialde askok murriztu dute hamarkada honetan, gizarte babeserako BPGaren proportzioa (Belgika, Irlanda, Luxenburgo eta Holanda). Otiik 17 urte bitarteko umeentzako diru laguntzak emendatu egin ziren, Grezia eta Holanda ez beste herrialde orotan. Per capitako gastu medikua leku orotan areagotu zen (bai prezio iraunkorretan ere) eta ia gauza bera esan daiteke, BPGari doakionean eginiko ahalegin osoari buruz. Salbuespenak ditugu Alemania, Espainia, Irlanda eta Suediarekin. Europako ekonomian gizarte babeserako laguntzek duten garrantzia neurtzeko, kontuan hartu beharko genuke leku gehienetan BPGren %20a dela nekazaritza, mehatzintza eta garraioaren produkzioak batuz lortzen den produkzio maila. Gizarte babesak egiten dituen gastu medikuen kopurua nekazaritzaren produkzioarena baino handiagoa da ia leku guztietan. Arta medikua hertsiki ulertuaren eta arta soziosanitarioaren arteko bereizketak antolaketa arazoak sortarazten ditu. Demografi aldaketak, minusbaliotasunak eta eritasun kronikoak, arta hertsiki sendatzailea baino baliabideren proportzio handiagoa ari dira hartzen.

Hemendik aurrera, gobernuek gastu medikuak murrizteko dituzten asmoak alde batera utzirik, gastu medikuak indar handia egingen du finantzamendu publiko handiagoen emakiden gainean. Hala gizarte laguntza nola laguntza medikua, gero eta enplegu gehiago eskaintzen duten alorrak ditugu, eta emakumeek presentzia handia dute alor hauetako langile gisa. Etxean emaniko ohiko arta erakundeetara aldatzen ari da eta han emakumeek soldatapean egiten dute lan. Dena den, erakundeetarazte horren aurkako gizarte mugimenduak ari dira lanean, zenbait herrialdetan gero eta indar handiagoz, hauen argudio nagusia pribatutasun handiagoa lortzea (ume edo erientzat) eta aurreztea (gobernuentzat) delarik.

3. *Etxeetan lanak eraginiko diru sarrerei ematen zaien zerga trataera*

Gobernuek partehatze handia dute hiritarren denbora banatzen, zerga eta gizarte transferentzien bitartez. Hainbat zerga eta transferentzia, familian norbanakoek duten egoeraren arabera egiten da. Halatan bada, zerga sistema konplexuak, gizarte segurantzak eta gizarte etekinek ordaindu-riko eta ordaindu gabeko lana eragiten dituzte. Zerga eta politika neurriak ez izatea baldintza politiko garrantzitsua da eta familiaren egoera "ez eskuan hartzearen" edo "ez kontuan hartzearen" ondorioak esku hartzea bezain errealak dira.

Zerga politikek, emakume eta gizonen lanari doakionean dituzten ondorioen azterketaren gaineko galdera garrantzitsua honako hau dugu: noren alde da?, zein baloreen alde eta zein baloreen aurka ari da? Norbanakoen lanaren gaineko zergak, neurri batean bederen, mailakatu behar direneko ideia oso onartua da europar herrialdeetako iritzi publikoan. Halarik ere, ez da horrenbesteko adostasuna sortzen, teorikoki ezkontzaren edo umeen alde dauden zerga politiken kasuan, ez baita horren argi ikusten noren alde eta zein neurrian aldeko gertatzen diren. Erraz esateko, Europako zerga sistema eta gizarte segurantzak, honako modu nagusietako batean kokatzen dira:

- a) Gizon eta emakumeen lanen arteko bereizketa zorrotzaren alde egiten dutenak, emakumeei alor pribatuak egotziz eta gizonei, berriz, alor publikoak. Sistema hauek familiaren bigarren soldataren aurka jokatzen dute, zerga handiak ezarri eta ezkontidea langile ez izatearen alde egiten dute, diru laguntza zuzenen bitartez eta gizarte segurantzaren per kapitako lan kostu handiak sortaraziz.
- b) Gizon eta emakumeen artean lan bereizketa gutxiren alde egiten duten sistemak, neurri eraginkorren bitartez lan banaketaren alde egiten dutelarik, bai alor publikoan eta bai alor pribatuan ere. Horren lortzeko, sistema hauek zerbitzu publiko gehiago eskaintzen dute, diru laguntza zuzenak edo zerga salbuespenen ordean, eta soldata bakarreko diru sarrera handiak, bi soldate-takoak baino areago kaltetzen dituzte. Gizarte Segurantzak sortzen dituen per kapitako lan kostuetan eragin gutxi dute.
- c) Zergen ikuspuntutik gutxi egituraturiko sistemak, kudeaketa eta lan baliabideak banatzeari buruzko ikuskera koherenterik edota oinarri argiak ez dituztenak; gizarte segurantzari edota zergei buruz hartzen dituzten erabakiak elkarren aurkakoak izan ohi dira.

Zerga eta gizarte politika oso garatuak dituzten herrialdeetan, gobernuek zeharka eragin dezake, jaiotze-tasak areagotu edo urritzen edota umei, eriei eta etxeko pertsona zaharrei eskaintzen zaien bizimoduan. Nahiz eta emakumeek onura ateratzen duten zerga sistemak faboratzen duenean etxean dituzten ohiko betebeharrak ordaindu gabeak banatzea, edo dirua lortzeko lan merkatuan bere lana saldu beharraz libratzen duenean, etxean geratzen den eta diruz urriago dabilen (emakumea gehienetan) ezkontidearen aldeko neurriek, epe motz nola luzera ere, ezkontide hori gero eta menpekoago egiten dute.

Alde handia dago Europako herrialde desberdinen artean, norbanakoaren lan errentei ezarritako zergei doakienean. Norbanakoen per capitako errentaren zifrak ez dira, lanean ari diren langileek bezain argi eta esanguratsuak eta horrez gain, azken hauek erruz aldatzen dira gizarte segurantzako eta zergetako kenketak egiten zaizkienean. Aldaketa handiak daude ere gizarte segurantzako gastuak ordaintzen enplegu emaile eta enplegatuek egiten duten ekarpenean, bai kantidadaren aldetik, bai eta proportzioan ere. Proportzio hauetan ematen den aldea kontzeptuala da metodologikoa baino gehiago, denek hartzen baitute parte lanaren benetako kostuan eta enplegu emaileek gastutat hartzen dituzte enplegatuekin soldata negoziatu behar dituztenean.

Gero ikusiko dugun bezala, "The tax/benefit position of employees, 1995-1996" (OECD, 1997) txostenaren datuak aztertzerakoan, gizarte segurantzaren antolakuntzak eragin nabariak ditu emakumeak lan merkatura sartzearen gainean eta lor ditzaketen edota nahi ere ditzaketen lanen gainean. Gizarte segurantzak bikoteei osasun arta eskaintzen dienean, soldatapeko langileek gizarte segurantzari egiten duten ordainketa (osasun arloan bederen) zigor baten moduan bizi dute. Horregatik bada, maiz gertatzen da soldata hobearen alde negoziatzen dela, horrelako artarako eskubidea lortzearen alde negoziatu beharrean. Horrela ulertzen da emakume eta gazte gehiago aritzea ikustezinezko lan merkatu informal eta beltzean.

Familiaren egituraren trataera fiskalak ere eragin handia dauka langileen diru sarrera garbian, batez ere ezkontideak emanikoarenean, etxeko bigarren diru sarrera gisa hartzen dena. Zenbait herrialdetan, babes hain da handia ezen uler daiteke, ezkontideari enplegua lortzeko asmoa kentzera zuzenduriko ekintza dela. Edonolaz ere, seinatu beharra dago europar herrialdeetako zerga eta banatze politikak zaharkitu egin direla demografi aldaketan karira. Salbuespen eta laguntza guztiak umeen ingurukoak dira, baina gaur egun, besteren beharrean den europar biztanlerian zaharrak dira zaintzaren behar handiena dutena, eta ez umeak.

2. taulak erakusten dizkigu, Europan dagoen diru sarreraren egituraren garrantzizko zenbait ezaugarri, bai eta familiek etxeetan jokatzen duten papera. Argi eta garbi ageri zaigu oso eragin desberdina dutela gizarte segurantzako gastuek, manufaktura-industrian lan egiten duen eta erdi mailako soldata duen eskuzko langile ezkongai baten batezbesteko diru sarrera gordinen gainean. Langile mota berezi hau aukeratu da, herrialde bakoitzeko produkzio egitura desberdinen ondorioz sor daitezkeen okerrak ekiditeko. Manufaktura-sektorearen eskuzko langileen kopuru osoa ez da, europar herrialdeetako soldatapeko langile guztien %16tik (Norvegia) %33 (Suitza) bitartekoa baizik, baina batezbesteko langiletzat har daitezke Europa osoan.

**2. Taula. Norbanakoen errenta gaineko zerga, soldatazko diru sarrera gordi-
nen portzentaia moduan, familia motaren eta diru sarrera mailaren
arabera. 1996**

	1	2	3	4	5	6	7	8
FAMILIA MOTA	EZKONGAI/ UMERIK GABE	EZKONGAI/ UMERIK GABE	EZKONGAI/ UMERIK GABE	EZKODUA/ 2 UME	EZKODUA/ 2 UME	1= 100; 3= X	2= 100; 4= X	4= 100; 5= X
SOLDATA MAILA	67	100	167	100-0	100-67	X	X	X
Austria	4,1	9,2	14,5	4,0	5,0	183	43	125
Belgika	20,2	27,4	34,2	16,3	24,1	169	59	147
Txekiar Errepublika	8,4	10,0	13,3	5,4	7,5	158	54	138
Danimarka	31,6	36,0	44,5	28,8	34,2	140	80	118
Finlandia	23,6	29,5	36,3	29,5	27,1	153	100	91
Frantzia	4,3	8,9	13,6	2,7	4,9	316	30	181
Alemania	15,4	21,0	28,3	1,6	13,5	185	8	843
Grezia	0,7	1,9	5,9	2,1	1,6	842	110	76
Hungaria	10,5	18,1	27,4	18,1	15,1	260	100	83
Islandia	11,7	21,5	29,3	5,9	17,6	250	27	198
Irlanda	17,1	22,3	32,6	15,4	19,1	190	69	124
Italia	14,4	18,1	23,2	14,4	16,0	161	79	111
Luxenburgo	7,3	13,4	23,0	0	0,7	315	0	Y
Holanda	4,8	5,8	20,7	4,4	5,4	431	75	122
Norvegia	18,3	21,9	29,6	17,1	19,2	161	78	112
Polonia	16,5	18,0	19,8	15,9	17,4	120	88	109
Portugal	3,1	7,1	13,4	3,5	4,6	432	49	131
Espainia	7,9	13,5	17,9	6,6	10,0	226	48	151
Suedia	26,6	28,8	37,6	28,8	27,9	141	100	96
Suitza	7,7	10,8	16,1	5,6	8,9	209	51	158
Turkia	19,8	21,7	24,7	21,7	21,0	124	100	96
Erresuma Batua	14,0	17,4	20,0	15,7	15,0	142	90	95

Iturria: Durán et al.-ek egina, OCDEren datuekin "The Tax/benefit position of employees. 1995-1996". 1997 edition. Ikus 24 eta 28 orrk.). Industriako batezbesteko eskuzko langile motari buruzkoa da.

*Oinarri negatibo (diruz lagundua) batekiko hazkuntzak, portzentai-gehikuntza mugagabea dakar.

Lehen aipaturiko "Report on tax/benefit position of employees" delakoak diru sarrera mota desberdinak aztertu ditu (manufaktura-sektoreko eskuzko langileen batezbesteko soldaten %67, %100 eta %167ko diru sarrerak), familia egoera desberdinak (ezkongai eta umerik gabe, ezkongai eta bi umerekin, ezkondua eta umerik gabe eta ezkondua eta bi umerekin) eta bikotearen barneko akordio ekonomikoen arabera (emazteak irabazten du, soldaten batezbesteko mailaren %0a, %33a eta %67a).

Europako herrialde guztien homogeneousaziorako joera dago eta azken hamarkada honetan eman diren aldaketak ez dira izan, Frantzian baizik esanguratsuak. Hala eta guztiz ere, badira orain-

dik, herrialdeen arteko alde oso nabarmenak, alde batetik gizarte segurantzaren kostu orokorren karira, eta bestaldetik, diru sarrera eta famili estatusaren arabera banaketaren karira. Zergek eta gizarte babeserako sistemak, denbora generoaren arabera banatzerakoan duen eragina oso korapilatsua da, eta ordainduriko eta ordaindu gabeko lanaren azken banaketa gizon eta emakumeen artean, beste faktore askoren eragina jasaiten du ere. Hala eta guztiz ere, etxeko diru sarrera gordin eta garbiak desberdinak izan daitekeenez, esan daiteke gaur egungo egoerak, herrialde batzuetan bestetan baino gehiago errazten duela emakumeak lan merkatura sarzea. Gauza bera esan daiteke ugalkortasun tasei buruz, hauek baitira umeak zaintzeko ordaindu gabeko lanaren eskariaren oinarria. Bikoteek oso maila urrian kontrola dezakete lan merkatutako sarrera eta beren diru sarrerak, baina erabat kontrola dezakete, ordea, beren etxeko baliabideen diruzko eta diruzkoa ez den kontsumoa. Hau lortzeko modu nagusia ugalkortasun tasak urrituz egiten dute, edo bestela esateko, etxeko ume posibleen kopurua urrituz. Belgika, Luxenburgo eta Alemania dira lehenak, soldata bakarra eta bi soldata dituzten etxeen arteko berdintasuna lortzen, eta Espainian, Frantzia eta Grezian, berriz, aldeak askoz nabarmenagoak dira.

Zergetako eta birbanaketako politika tresna garrantzitsua da enplegua lortzeko aukerei doakienean, bai eta enplegu horrek langileei —bereziki emakume ezkondui— ekartzen dien mozkin garbiari doakionean ere. Eragin hau dela eta hobeto ezagutu beharra dago zeintzuk diren zerga politika horien benetako eraginak.

Bai zergak eta bai gizarte segurantzako kontribuzioak ere, gobernuen erabakien ondorio dira, neurri handi batean. Halatan beraz, oso garrantzi handikoak dira mundu guztiarentzat, gizarte segurantza eta zerga sistema eredu desberdinek berekin dituzten ideologiak. Nolaz eta “Europako alegiazko batezbesteko hiritarra” gizonezkoa den eta ohiko etxe baten mantentzailea, gizarte segurantzaren zerga sistemaren azpian datzan ideologia argi eta sakonki eztabaidatu beharra dago. Europako emakumeentzat, gaur egun alor hauetan aldaketak lortzea, garai batean botua lortzeko emaniko lege aldaketak bezain garrantzitsua da.

Gizarte Segurantzaren egitura oso desorekatua dago, bai ordainketatan (nork ordaindu behar duen, zergatik eta zenbat), bai etekinetan ere (nork jasotzen du, zergatik eta zenbat). Ikuspuntu honetatik apenas egin da azterketarik. Berria izateaz gain eta azterketarako tekniken zailtasunen gain, azterketa hau zailtzen du ere emakumeen aldeko bi baloreen arteko bereizketa egitea. Bi balore hauek ditugu: alde batetik burujabetza edo independentzia eta beste aldetik laguntza. Eztabaidarik sortu gabe esan daiteke ezkontideek (argi esanda emakumeek) laguntza handiagoa jasotzen dutela Belgika edo Luxenburgokoak bezalako Gizarte Segurantza eta zerga sistematik, Frantzia edo Espainiakoa bezalakoetatik baino, diruz lorturiko etekinei doakienean. Baina azterketa tentu handiz egin beharra dago independentzia edo burujabetasunaren aldea hartuz gero kontuan. Dударik gabe esan daiteke etxeei ematen zaien diru laguntzak eskatzen badu emakumeak etengabe lan indarretatik at egotea, emakume horiek enpleguak lortzeko duten gaitasuna eta asmoa gutxitu egiten dela.

4. *Faintza-estariaren demografi esparrua.*

Madrilgo eskalaren aplikazioa

Ordaindu gabeko lana, batez ere zaintza lana, eskatzen duten lau iturri nagusiak, eskaria sortzen deneko lau biztanleria taldeen arabera antolatzen da eta honako hauek ditugu: 1) umeek eginiko eskaria, 2) erituek eginiko eskaria, 3) adinekoek eginiko eskaria eta 4) ordainduriko lanetan lanpetuegi daudenek eginiko eskaria.

Nahiz eta herrialde bakoitzean egiten diren denbora eskarien gaineko datu bereziak zatikatuegiak dauden nazioarteko erkaketa batean erabiltzeko, bada eskala bat, Madrilgo eskala edo indize deiturikoa, erraz aplikatu daitekeena, herrialde bakoitzean, une jakin batean dagoen lan eskari orokorra kalkulatzeko. Oxford-eko indizea erabiltzen den bezala, etxean dauden adin desberdinek diru baliabideetan duten eragina neurtzeko, Madrilgo indizea, berriz, saiatzen da zaintza beharren eragina kalkulatzeko. Madrilgo indizeak esaten du, etxean bizi diren 18tik 64 urte bitarteko pertsona heldu bakoitzak zaintza unitate bat behar duela, 0-4 urte bitarteko ume bakoitzak bi unitate, 5-14 urte bitartekoak 1,5, 15-17 bitartekoak 1,2 eta adin oso handiko zahar bakoitzak, berriz, (85 urtez goitikoek) bi unitate behar duela. Madrilgo eskala etxeak aztertzeko diseinatu den arren, erabilgarria da ere herrialde jakin bateko biztanleria osoaren zaintza eskaria neurtu eta azaltzeko. Ordaindu gabeko lanaren gaineko datu zehatzagoak lortuko direnean, eskala hau findu eta egokitu ahalko da eskari bereziagoetara.

Baldin eta adin taldeak neurtzen badira zaintza eskaria egiteko duten gaitasun bereziaren arabera, herrialde bakoitzean dagoen zaintza eskari osoa gutxi gora-behera kalkulatu ahalko da. Gaur egun Europan behar diren zaintza unitateen kopurua, biztanleria osoa baino %19 handiagoa da, baina ez da berdin banatzen eta ez umeek, ez adin handiko pertsonak ezin dute bere burua hornitu. Hau oso neurketa orokorra da eta findu egin daiteke, herrialde bakoitzean adineko pertsonak duten osasun egoeraren gaineko indize zehatzagoak edukiz gero. Hala eta guztiz ere, adinaren arabera Europan dagoen zaintza eskariaren jatorriaren eta gaur egungo egoeraren irudi orokorra eskaintzen digu. Adibide baterako, Alemanian zaintza unitateen eskari osoa ez da, biztanleria osoa baino %9 handiagoa besterik eta Suedian, aldiz, %21 handiagoa da.

Zaintza eskariak betetzea edo ez betetzea gerta daiteke. Zaintza eskaria ordaindu gabeko langileen eskuetan utz daiteke (senitartekoak, bolondresak) edo ordainduriko langileen eskuetan (zerbitzu publikoak edo enpresa pribatuak), eta erabaki honek ikaragarritzko garrantzi politiko eta ekonomikoa du herrialde orotan, biztanleriari eta Administrazio Publikoari eta Gizarte Segurantzari baitoakie. Garrantzi bizikoa da bereziki bere senideak zaintzeko erantzukizuna tradizionalki jasan duen biztanleriarentzat: beste hitzetan esateko, emakumeentzat.

Eurostat-eko estatistikariak, etorkizunerako hiru egoera mota posible darabiltzate eskuartean eta hiru atalase hauek hartu ditugu guk ere kontuan: 2010. urtea, 2020. urtea eta 2050. urtea. Datuen fidagarritasuna urritzen doa epea luzatzearekin. Hiru egoera posibleak honako hauek ditugu: goren, behekoa eta oinarritzakoa. Azken aipaturikoa da Estatistika Institutu Nazionalak egi-

nikoa eta gertatzeko aukera handiena duena dela uste da. Dena den, beste biek seinalatzen dizkigute, demografoek posibleztat hartzen dutenaren goiko eta beheko mugak.

Proiektioei doakienean, azpimarratu behar da heriotza-tasa oso egonkor den bitartean (gerra garaitan ez bada) eta aurretik ongi samar ezagutu daitekeen, jaiotza-tasa, berriz, zailagoa da aurretik jakiten, borondatearen menpe baitago eta herrialde edo eskualde batean oso azkar alda baitaiteke. Hori horrela izanik, adin handiko biztanleriaren kalkulua fidagarria da, baina umeen eta gazteen kalkulua, ordea, ez da hain fidagarri izaten. Azken urteotan, Europako hegoaldeko herrialdetako ugalkortasun eta jaiotzen proiektioak, benetako jaiotzak baino handiagoak izan dira.

Gaur egun, Europako herrialde orotako edo Europar Batasuneko herrialde orotako datu gutxi ditugu eskura, ordaindu gabeko lanaren gainean. Madrilgo eskalan oinarrituriko zaintza eskariaren banaketa oso desberdina da Europako herrialde batetik bestera. Europako batezbestekoa eginez gero, eskariaren %54a biztanle helduek egiten dute, eta hauek ordaindu egin dezakete bere diru baliabidez edo norik bere burua zainduz. Dena den, zaintza eskari osoaren %24a umeek egiten dute eta %22a adin handiko jendeak. Bereizketa hau garrantzitsua da, zeren umeen zaintza, gazte diren pertsona helduek egin ohi baitute. Generoan oinarrituriko harreman estua ematen da eskatzailearen ata amaren artean, bereziki ume txikiaren kasuan (eskari osoaren %8a). Adin handiko biztanleen zaintza eskaria, berriz, haien seme-alabek bete ohi dute, hau da, hurrengo belaunaldiak. Adin oso handiko pertsonen hurrengo belaunaldia bera ere adin handikoa da, erretretatik hurbil edo haratago dagoena, eta maiz gertatu ohi da ez indar fisiko eta ez ekonomikoa ez ukaitea bere nagusiei behar duten laguntza emateko. Gainera, ez dago generoko harreman naturalik adin handikoen eta bere seme-alaben artean, emakume edo gizon izan, nahiz eta tradizioak harreman honekin feminitatearen mistikaren zati bat osatu duen.

2010 urterako uste da Europako bost herrialdetan zaintza eskari osoaren %25a baino gehiago adin handiko biztanleriak eginen duela. Segur aski Madrilgo indizea baikorregia da, zaharrek sortuko duten benetako eskariari doakionean, senide gazteagoekin batera, senitarte handitan bizi den biztanleriarentzat egin baita. Baina egoera hau ezin aplikatu daiteke Europako herrialde aberatsenetan, non familiak ez baitira etxe berean bizi eta adin handiko pertsonak bere etxetan bakarrik bizitzeko ohitura baitute. 2050. urterako, Eurostat-en beheko egoeraren proiektioen arabera, Europa osorako kalkuluetan, 18-64 urte bitarteko biztanleriak, zaintzako 2,17 unitate sortu beharko ditu biztanle bakoitzeko, eta data horretarako Europako herrialde orok gaituta dute, zaintza eskarian, pertsona bakoitzeko bi unitateen muga. Behe mailako proiektio honek eskatzen du mende erdian, merkaturako produkzioaren kudeaketa eta jarrerak aldatzea, zaintza lanen eskari berrira egokitzeko. Eskari hau ezin ordainduko dute eskatzaileek beraiek, lan merkatuan dabilzan prezio arruntetan (haur eta erretretadunak baitira) %54eko kasutan. Gaur egun adinekoek eginiko eskaria ez da eskari osoaren %19 baizik. 2050. urterako eginiko iragarpenen arabera, betiere behe mailako egoera horren barruan, eskari hau 2050. urtean, eskari osoaren %34koa izanen da. Honek eragin handia edukiko du, bereziki azken urteotan aldaketa demografiko handia egin duten eta orain artean adineko biztanleei sorospen zerbitzu gutxi eskaini dieten herrial-

deetan. Irlandaren zaintza eskari osoaren %44a adinekoek egingen dute, Espainian %40koa izanen da, Italian %36koa, Grezian eta Austrian %35ekoa.

3. Taula. 2010, 2020 eta 2050 urteetarako proiektzioa. Zaintza eskariaren bilakaera Europan, eskatzaileen adinaren arabera (1995=100)

OINARRIZKO EGOERA				
	EUROPA 1995	EUR 10	EUR 20	EUR 50
Eskolaurrekoak (0-4)	%100,0	%94,5	%89,0	%79,5
Eskolumeak (5-14)	%100,0	%95,4	%89,8	%79,9
Gazteak (15-17)	%100,0	%93,1	%91,6	%79,9
Helduak (18-64)	%100,0	%102,6	%100,9	%86,1
Adinekoak (65-74)	%100,0	%108,9	%125,9	%131,9
Adin handikoak (75-84)	%100,0	%138,4	%154,3	%225,8
Oso adin handikoak (85etik aitzin)	%100,0	%133,6	%168,3	%297,4

Iturria: Durán et al. 1998. Eurostat-eko datuak. Statistiques Demographiques 1996.

5.

Lan karga osoa eta baliabide ekonomikoen banaketa

Azken hiru hamarkadotan, emakumeak kopuru handiz sartu dira ordainduriko lanaren esparrura, eta bertan beren denboraren zati handia ematen dute, bai egunerokoan, bai beren bizitzan zehar ere. Hala izanik ere, gizonezkoek ez dute era berean bere egin etxeko betebeharren karga eta zaintzaren karga, nahiz eta aldaketak agertzen ari diren, bereziki gazteenen eta hezkuntza maila altuagoa dutenen artean. Halatan bada, gizonezkoen denbora, hala egunerokoan nola bizitzan zehar, ez dago zaintza lanetara eta borondatezkoetara emanen den denboraren baldintzapean. Gizonezkoak libre dira (zaintza arduratetik libre diren neurrian) lanaren, politikaren, sindikalismoaren edota asialdiaren alor publikoan partehartzeko. Zailtasun ekonomikoak eta diru sarrerren urritzeak bizi ditugun une honetan, enpleguaniztasunak denbora gehiago eskatzen du oraindik ere (gizonezkoek batez ere), denbora hori familiarri kenduz. Denbora hau ontzat eta beharrezkotzat ere hartu ohi da, familiarren bizi maila mantentzearen. Alabaina, gizonak etxeko lanetik eta zaintza arduratetik oraindik ere urrutiago bizi daitezela errazten du eta emakumeak alor horretan ahalegin handiagoak egitera behartzen ditu.

Familia mantendu eta etxeko zereginak betetzearen errotze ideologiko eta praktikoak hain dira handiak, ezen emakumeek beraiek ere uste baitute ordainduriko lanarekiko duten harremana bigarren mailakoa dela eta gutxietsi egiten dute familiarren mantenu eta ongizaterako egiten duten

ekarpena eta beheratzen dituzte, bere burua garatzeko dituzten asmoak. Hala gertatzen da, batez ere trebatze, kualifikazio eta diru sarrera gutxienerako mailatan. Testuinguru honetan, emakumeak gizonak baino prestago daude lan informalak hartzeko: lan hauek behin behinekotzat dituzte eta zailtasun ekonomikoak dituzten garaitan familiaren diru sarreraren osagarritzat (hau da, familia-ko gizonen diru sarreraren osagarri). Halarik ere, inkesta guzti guztiek erakusten dute, delako lan informal hori jarduera iraunkorra bihurtzen zaiela azkenean, segurtasunik gabekoa, halere, eta zahartzarorako edo osasun arazoetarako inolako laguntzarik gabekoa. Maiz gertatu ohi da emakumeek, bizitza osoa lan informaletan aritu ondoren, bizitzaren amaieran bere familiaren menpeko izatea.

Lan karga osoari eta baliabide ekonomikoak generoaren arabera banatzeari doakionean, argi azaltzen zaigu emakumeen lan karga osoa handiagoa dela gizonenak baino, denbora luzeagoz aritzen direla lanean, bereziki ordainduriko lanen bat dutenean, "karga bikoitza" deiturikoa; izan ere, emakume gehienek ikasi behar dute ordainduriko lana eta ordaindu gabekoaren karga batera eramaten. Lan karga osoa handiagoa da astean zehar eta oraindik handiagoa bizitzan zehar, benetako erretreta eta aisialdia gutxitan baitituzte.

Goldsmith-Clermont eta Pangossin-Aligisakis-en "Measures of unrecorded economic activities in 14 countries" , (Human Development Report 1995, New York, Oxford University Press), ikerketaren arabera, Danimarkan, 15-64 urte bitarteko biztanleriaren lan karga osoa 7,58 ordukoa da gizonenentzat (6,00 ordu ordainduak, 1,38 ordaindu gabek) eta 7,29koa emakumeentzat (4,19 ordainduak eta 3,10 ordaindu gabek), Norvegian, berriz, 6,52koa gizonentzat (4,24 ordainduak eta 2,28 ordaindu gabek) eta 7,25 emakumeentzat (2,44 ordainduak eta 4,31 ordaindu gabek). Frantziako zifrek ematen dituzte 6,28 ordu gizonenentzat (4,0 ordainduak eta 2,28 ordaindu gabek) eta 7,09 emakumeentzat (2,10 ordainduak eta 4,59 ordaindu gabek).

6. *Beldurrak, asmoak eta itxaropenak.
"Izan beharra" lan banaketa
aurrerantzean banatzerakoan
eta gizarte mugimenduen
zeregina European*

Enplegua edukitzea bezain garrantzitsua da lortzeko aukera edukitzea ere, bai eta lortu nahia edukitzea. Kultura arrazoiengatik, oso antzekoak dira gizonenentzat, lan merkatura sartzeari buruz dituzten proiektu eta asmoak eta errealitatean egiten dutena. Alabaina, emakumeak lan merkatura sartzeak zailtasun handiagoak dakartzatza, eta halatan beldurrak, proiektuak eta itxaropenak ga-

rrantzitsuagoak dira, bai lanbidean, bai pertsonalki eta bai hiritar gisa duten jardunbide politikoan ere.

Etxeetako Europako Taularen arabera (1994), erkidegoan argi agertzen da, kanpoan lan egiten duten eta etxean aritzen diren emakumeen iritzien arteko aldea. Erkidegoaren esparruan ez omen dira gustura, 30 orduetik gora lan egiten duten emakumeen %7a, eta etxeko andreen artean, berriz, %16raino igotzen da portzentaia. Europako zenbait herrialdetan, etxeko andreak bi aldiz desgogorago bizi dira, kanpoko lanetan ari direnak baino.

Lehen aipaturiko MORI-ko Europar Inkestaren arabera, enplegua ez duten emakumeen zati handiak, lan merkatura sartu nahi omen du berandu gabe: urtebeteko epean (%21) edo beranduxea-go (%22). Enplegurik gabeko emakume asko, ordainduriko langile gisa ikusten duten bere burua, gizarte eta ekonomi arloko neurri politikoek kontuan hartu beharko lituzkete emakumeek horren argi azaltzen dituzten asmo horiek. Ikerketaren arabera, Europan enplegu gabe dauden emakume guztien artean, %45ak bakarrik (18-65 urte bitarteko taldeaz ari da) baztertzen du etorkizunean enplegu bat edukitzearen ideia. Alemanian, %27 besterik ez dira, baina beste herrialdetan, hala nola Espainian %54ra igotzen da portzentaia hau. Herrialde bakoitzean ematen diren tasak nolakoak diren alde batera utzirik, enplegua lortzeko asmo hau ezin garatuzkoa da eta ezin bete- tzezkoa, baldin eta lan edo enplegu politikak berrantolatzen ez badira eta ordaindu gabeko lan osoaren karga birbanatzeko aukera emanen duten egiturak antolatzen ez badira.

Ez da zeregin erraza, europar gizartea hiritarrek eskatzen dituzten aldaketen bidetik eramatea. Dena den, ez litzateke ahortzi beharko Europako hiritarren artean oso zabaldua dela —inkesta honek ere hala erakusten du— egitura politiko, ekonomiko eta sozialak neutralak ez direneko us- tea. Emakumeen %46ak eta gizonezkoen %49ak uste du gizon edo emakume izateak ez dakarre- la abantailarik. Gutxiengo txiki batek (emakumeen %5ak eta gizonezkoen %9ak) uste du emaku- me izateak dituela abantailak. Horren orde, europarren zati handi batek uste du gizonezkoek di- tuztela abantaila gehiago (hala uste du emakumeen %44ak eta gizonezkoen %37ak). Gaur egun- go Europaren eta Europar Batasunaren sortzaile diren dokumentuetan hainbeste aldarrikaturiko gi- zon eta emakumeen arteko berdintasuna oraindik borrokatu beharreko helburu urruna da.

Gaur egungo lege esparrua ez da bete betean aplikatzen, zeregin formal batzuetan baizik. Sektore publikoaren edota enpresa handien esparruetan aplikatzen da, baina eragin gutxi du, or- dea, enpresa txiki eta familietako langileen kasuan, bere burua enplegatzen dutenen kasuan, jar- duera informaletan, etxez etxe lan egiten dutenen kasuan eta agiriak ez dituzten edo ezkutuan ari diren etorkinen kasuan, izan ere, Europako langileetako proportzio handia direnen kasuan. Lana ez arautzeak eragin askoz handiagoa dauka emakumeengan gizonengan baino, bereizkeriaren aurkako printzipio hitz handitan aldarrikatuagatik ere Konstituzio edo Kode Zibil berriek, hala nola Grezia, Portugal eta Espainiakoak, edota Konstituzio demokratiko zaharragoa duten nazioe- takoek.

Berdintasuna eraikitzeko prozesuak gizarte mugimenduen laguntza behar du (emakumeen talde- ak, sindikatuak, giza-eskubideen aldeko mugimenduak, enplegu emaileak, komunikabideak) eta Gobernuen, erakunde politikoaren, ebaluaketa batzordeen eta justizia auzitegien ahalegin bizia.

Zailtasun hauek direla eta elkarren arteko ekintza irudimentsuak behar dira, Europan produkzioa kudeatzeko bestelako moduak sor daitezen, bai eta enplegura iristeko eta ordainduriko eta ordaindu gabeko lan osoa birbanatzeko bestelako moduak, europarrek mantentzen dezaten gaur egun duten ongizate maila.

* Ponentzia honek erakusten du zer izanen den Europar Batzordearen V Zuzendaritza orokorrak finantzaturiko ikerketa egitasmo bat (Equal Opportunities Unit.). Brusela, (1998). Aurki argitaratuko da ingeleseko bertsio osoa eta laburturiko ingeles, frantses eta alemanerazko bertsio bana. Eskertu nahi diot Equal Opportunities Unit-ari, orrialde hauek azaltzeko eman didan baimena. Egitasmoa M.A. Durán-ek koordinatu du eta laguntzaileak honako hauek ditugu: J. Bonke, A. Garrido, M. Maruani, T. Angeloff, H. Perista, D. Vaiou, Z. Georgiou, S. García Díez, I. Zambrano eta G. Pérez.

**"Esperientziak Estatuan eta
Autonomia Erkidegoetan"**

JUDITH ASTELARRA BONOMÍ

**Bartzelonako Unibertsitate
Autonomoko Soziologia
Departamentua**

SOLEDAD BLANCO MANGUDO

**Emakumen eta gizonen arteko
Aukera Berdintasunaren
unitateburua. V. Zuzendaritza
Nagusiko ordezkaria.
Europako Batzordea**

**CONCEPCIÓN DANCAUSA
TREVIÑO**

**Emakumearen Institutuko
zuzendaria**

JOAQUIMA ALEMANY I ROCA

**Kataluniako Emakumearen
Institutuko zuzendaria**

ANA ALBERDI ZUBIA

**Emakunde/Emakumearen
Euskal Erakundeko Azterlan,
Plangintza eta Dokumentazio
arduraduna**

MAITE ERRO JAUREGI

**Euskal Herriko Unibertsitateko
Psikologia Sozialeko Saila***

Evaluaketa

* Lan honetan Maribel Pizarro Pacheco ere hartu du parte, eta Sabino Aiestaran Etxeberria gainbegiratu du.

Adierazleak ebaluaketa moduan erabiltzea, alderdi korapilatsu asko duen gaia dugu, bai bere definizioari doakionean, bai eta dakartzan metodologi arazoei doakienean ere. Gizarte adierazleak gizarteko fenomenoak neurtzeko modu bat dira eta halatan, hainbat metodologi eskakizun bete behar dute; eskakizun nagusia da aukera eman behar digutela, aztertzen ari garen fenomenoaren alderdi bereizgarrietara hurbiltzeko. Gizarte adierazletako sistema baten muga eta arazo metodologikoak areagotu egiten dira, ebaluatze metodologia bati lotu nahi zaizkionean.

Zailtasunak azaltzeko, adibide bat erabiliko dut. Irakasle naizenez, beti esaten diet ene ikasleei: “azterketa batean nota bat jartzen dizuedanean erakusten ari naiz ebaluaketako adierazletako sistema erabiltzearen konplexutasuna”. Zergatik? Nota bihurtzen delako, ikasleak ikasgai jakin batean duen ezagutzaren eta errendimenduaren adierazle. Alabaina ikasleek beraiek dakite inor baino hobeki, ikasgai horretan duten ezagutza maila. Irakasleak ezagutzen du ikasleak azterketako galderei zer erantzun duen, ez besterik; jartzen duen notak kontuan hartzen du ikasleak azterketaz dakiena. Alabaina, nota hori bihurtuko da, ikasleek ikasgai osoaz duten ezagutzaren ebaluaketa. Gerta daiteke nota horrek benetan adieraztea ikasgaiaren gaineko ezagutza, edo bestela, gerta daiteke ere ikasleak, notak adierazten duena baino gehiago edo gutxiago jakitea. Halarik ere, nota horrek beste ezerk ez dio emanen ikasleari, hartu dituen ezagutzaz baliatuz, karrera egiteko aukera. Nota bihurtzen da ikaslearen ezagutza maila ebaluatzeko modu bakarra, eta ebaluaketa horren kalitatearen menpe da, ezagutza bermeak dituzten profesionalak edukitzea edo ez edukitzea.

Adibide honek erakusten digu zein arazoei egin behar dien aurre ebaluaketako edozein prozesuk. Ebaluaketa batean datu kopuru mugatua jasotzen dugu; ezin konta daitezke, eskura egon ala ez egon, datu guzti guztiak. Halatan bada, ebaluaketa egiteko erabiltzen diren datuak, ezinbestean, mugatuak dira beti eta ongi aukeratzea da kakoa. Emakumeen aukera berdintasunerako edo bereizkeriaren aurkako politiken kasuan, gaia korapilatu egiten da. Ikerlariok ongi dakigun bezala, emakumeen egoeran aldaketak ematen direnean dauden egoera barietate handiak behartuko gintuzke horrenbeste datu edukitzera, ezen ia ezinezkoa bihurtuko bailitzateke ebaluaketa egitea. Ebaluaketaren zailtasun havei gaineratu behar zaizkie emakumeen egoeraren gaineko ikerketaren beraren zailtasunak. Azken urteotan, generoko gaien gainean egin den ikerketak zalantza jarri ditu emakumeen gainean egiten zen ikerketa mota eta erabilitako metodoak. Garrantzitsua da hau seinalatzea, zeren ohitura handia baitugu esateko, dituzten mugak direla eta, ebaluaketek ez dutela ezertarako balio. Baina, mugatuak badira ere, ebaluaketek ematen diguten informazioa beharrezkoa zaigu. Ebaluatzeko modu asko dago eta honek eskatzen digu nolako ebaluaketa egin nahi den definitzea. Garrantzitsuena da, erabiliko ditugun adierazleek emanen dizkiguten datuak izatea, hain zuzen, esanguratsu direla erabaki ditugunak. Horretarako, abiapuntu bezala hartu behar ditugu, generoko sistemari buruz akademia eta ikerketa zentruetan eginiko lanak; lan hauek birkontzeptualizazio teoriko eta metodologikorako aukera eman digute.

Emakumeen egoeraren gaineko ikerketak

Emakumearen Ikerketa Zentruetan, patriarkatuaren teoritik abiatutako lan akademikoak ikerketa asko ekarri zuen gizarte zientzia guztietan. Batzuetan, beste ikerketetatik harturik zeuden datuen interpretazio berria izan zen. Bestetan, ikerketa berriak egin ziren, gizartean ezaugarri patriarkalak zeudeneko suposiziotik sorturiko lan hipotesiak egiazatzeko espreski eginak; ikerketa hauek enpirikoki erakutsi zuten bazirela halako ezaugarriak gizartean. Antropologia, Historia, Soziologia, Zientzia Politikoa edota Ekonomia, emakumeen egoerari buruz eginak zituzten baieztapen asko eta asko berrikusi beharrean topatu ziren. Berrikusi behar izan zituzten ere gizarteari buruzko teorizazio asko, zeren emakumeen gaineko datuak sartzeakin, ezin jarrai baitzitekeen gizonezkoen kolektibotik soilik abiatuta baieztapen orokorrak egiten, gizartea gizonezkoen kolektibok bakarrik osatuko bailuen. Baina ikerketak aukera eman zuen ere, mugimendu feministak, ikuspuntu militanteago batez, eginiko teoriaren balioa aztertzeko. Jasotako datuen ondorioz, patriarkatuaren kontzeptua berrikusi egin zen.

la ezinezkoa da, azken hamar urteotan, gizarte zientzia bakoitzaren alorrean egin diren ikerketa eta ekarpen guztiak aipatzea. Estatu Batuak izan dira produkzio handiena egin dutenak, baina europar herrialdeak ere, hala iparraldeko nola hegoaldekoak, ez dira emakumeen egoeraren ikerketatik at geratu. Lorturiko emaitza, gizarte zientzian, azken hamarkadotan eman diren haustura teoriko handien artean dago. Nahiz eta askotan, ikerketak ez diren oraindik diziplina hauetako berrikuspen teoriko orokorrera sartu, hasiak dira horren aldeko ahaleginak egiten. Onuradun nagusia emakumeen ikerketetako alor berezia izan bada ere —eta honek ekarri du gaia zedarrituegia geratzea— aski izan da, ordurarte emakumeen egoerak bizi zuen “ikustezintasuna” apurtzeko. Zientzia produkzioko beste edozein alorretan bezala, ikerketa feministak hiru jarduerara mota plan-teatu zituen: lehena teoria berriak sortu eta daudenak berrikusteari dagokio; bigarrena, erabilitako metodo eta teknikak modu berrian baloratzeari, eta hirugarrena, zientzi jardunaren eta zientzi produkzioetik at dauden balore eta gizarte esparruen arteko harremanari. Kasu guztietan aurre egin nahi zitzaion “androzentriko” deituriko joera zientifikoari, patriarkal kutsu handia baitzuen. Joera androzentrikoak bi distorsio sortzen zituen gizarte zientzian: bata, emakumei buruzko datu eta teoriarik ez edukitzea, zientzian emakumeak gutxi ikusiak izatea ekarriz, eta bestea, datu eta ikerketa zenbait bazeudeneko kasuetan, berriz, datu horiek ideologia patriarkalarenak eta ez gizarte egoeraren araberrakoak ziren aurreiritzizko estereotipoz interpretatzen zirela. Erabiltzen ziren kontzeptuak eta hizkuntza bera ere, kutsu sexistaz blaiturik zeuden, eta hala izanik, berrikuspenera, eraiketa zientifikoaren oinarri beretik egin behar zen.

Beraz, gizarte zientzien joera androzentrikoa, gizartean antolaketa patriarkalaren isla ziren. Joera hau gainditzeko, prestatutako teoria eta metodo nagusiak berrikusi behar ziren, hau da, lehen aipaturiko lehenengo bi jardunei ekin. Zeuden teoriaren berrikuspen kritikoa, lanaren sexuaren araberrako banaketaren eta generoko sistemaren ikuspuntutik egin zen. Lanaren sexuaren araberrako banaketaren gaineko ikerketa, gizarte zientzien alor batean ematen ari zen jadanik, sexu ro-

len ikerketan, alegia; generoko sistemaren kontzeptua, berriz, patriarkatuaren teoriaren ondorio gisa atera zen. Bigarren kontzeptualizazio hau, alegia generoko sistema, arrazoi askorengatik, egokiagotzat hartu zen, patriarkatu kontzeptua gizarte sistema orotarako hedatzea baino.

Generoko sistemaren gaineko kontzeptualizaziora eraman zuen berrikuspen teorikoak eragin zituen ere, erabilitako metodo eta teknikak. Honakoan zalantzan jarri zen erabilitako objektibitate irizpidea, bai eta teknika koantitatiboak (teknika "gogorrak"), teknika koalitatiboak (teknika "bigunen") oposizioz erabiltzea. Gizarte zientziek bultzaturiko objektibitate irizpideak, ikuskera arrazionalista eta maskulinoaren marka zeramanez, ez zuen onartzen, zeregin zientifikoan bazirela emaitzak aldarazten zituzten osagai subjektiboak ere. Ikuspuntu subjektiboak balora zitezela proposatzen zen, beraz. Ikerketako teknika koalitatiboak erabiltzeari doakionean, berriz, esaten zen koantitatiboak bezain zorrotz zirela eta halatan, estatus bera behar zutela, generoaren gaineko ikerketan. Bi kasutan esaten zen ikerketa metodoak zabaldu egin behar zirela, "emakumeen banakako eskarmentu" deitzen zutena bereganatzearen. Izan ere, teknika koantitatiboak "gogor" deitzea eta koalitatiboak, berriz, "bigun", bazuen, berez, joera kontzeptual androzentrikoa.

Teknika koalitatiboaren rola berrikuste prozesu hau ez zen generoko ikasketetan bakarrik eman; beste alorretan ere eman baitzen. Gaur egun esan daiteke metodo koantitatibo eta koalitatiboaren arteko eztabaidak ez dituela gehiago aurkezten elkarren aurkako metodo bezala, baizik eta zabalitzen ari dela, ikerketetan bi metodoak elkarrekin erabiltzeak emaitza onak ematen dituela. Bi metodoak erabiltzen dira, batez ere ebidentzia empirikoa zuzenean jaso dezaketan ikerketetan. Alabaina, birkonsideratu behar izan da ere bigarren mailako iturrien erabilera, batez ere estatistikena.

Askotan, ikerketa koantitatiboa ezin da zuzenean egin eta Estatistika publikoek eskainiriko datuetan oinarritu behar da, erroldetakoetan edota bestelako inkestetakoetan. Honakoan ere egiaztatu zen joera androzentrikoak zeudela, eta Nazio Batuen eta EBren beraren iradokizunei jarraituz, berrikusiak izaten ari dira. Hau aplikatu zaio, ez bakarrik estatistiken erabilera zirkunstantzialari, baina baita ere gizarte adierazleetakoa deituriko ereduari.

Alabaina, berrikusketa teoriko honek izan zuen garrantzi handia izanagatik ere, erabili ahala ikusi zen bazela zenbait arazo. Esate baterako, sexu rola modu eksklusiboan aztertuz gero, garrantzi handiegia egotz dakieke eta ez ikusi biologia eta kulturaren artean dagoen harremana, eta halatan, hasiera batean kritikatzeko gure biologismoa errepikatzen da. Sexuaren kontzeptuak berekin dakarren biologismoa alde batera utzi nahi izan bada ere, eta horren ordez jarri, sexuari loturiko gizarte funtzioak eta identitatea eraikitzearen azaltzen diren alderdi sozialei begiratuko litzaiekeen kontzeptu soziologikoa, alegia generoa, sexu eta generoaren arteko bereizketak ez du, espero zen bezala funtzionatu. Generoaren gaineko teoria eraiki beharrean, kontzeptu hau sexu kontzeptuarekin nahasiz erabili da. Alde honetatik atsegin gertatu zait, goizean, Kristen Timothy-ri entzutea esaten, saiatu behar dugula sexuaz ere mintzatzeko, eta ez generoaz soilik.

Generoaren kategoria Akademian garatu guren teorikoki, azaldu nahi baikenuen gizon eta emakumeen gizarte egoera ez zuela biologiak finkatzen. Horrela seinalatzen guren, generoa alda zitekeela, eta horrela atek irekitzen genituen, politika publikoek egoera alda zezaten. Generoko

sistema, honako maila hauetan zehazten da: norbanakoena; honek bigarren mailako ezaugarri biologikoak ditu, bai eta norbanakoen identitateen eta psikologiaren garapena, bigarren maila, gizon eta emakumeek jokatzen dituzten roletakoa dugu, eta azkenik, norbanakoek gure harremanak aurrera eramaten dituguneko gizarte alorrena da. Generoak ez du zertan dikotomikoa izan behar, biologiak bezala. Halarik ere, maskulinoa eta femeninoa bereizteak indar handia dauka maila horiek eraikitzerakoan. Bi genero besterik ez dela suposatzen denez, alegia maskulinoa eta femeninoa, sexua bezalaxe dikotomizatu ohi da generoa, eta horrela ez da batere argi geratzen non amaitzen den biologia eta kultura hasten.

Kultura eta biologiaren arteko harremana, faktore askoren arteko harremanen menpe dago eta oso aldakorra da, eta halatan, diferentzia biologikoak daudelako, zuzenean inferitza gizarte diferentziak ere badaudela ez da beti egokia. Honek ekartzen du, generoko kontzeptuaren erabileran arazoak sortzea. Izan ere, generoa, sexua dikotomizatzen den bezala dikotomizatzeko joerak erakusten digu arazo nagusia ez dela sexuaren alderdi sozialak azaltzeko kontzeptua falta dela, baizik eta sexu eta generoaren artean ematen den harremana dela arazoa. Sexu rolaen kontzeptuak batu egiten ditu aldatzen ez den aldagaia (sexua) eta oso aldakor dena (kultura). Sexu rol edota genero terminoa bera ere bihurtzen da, halakoan, problematiko, ezen kultura, elementu aldaezin bihurtzeko arriskua baitago.

Generoaren gainean kontzeptualizatzean sortu den beste arazoa da, generoen arteko diferentziak daudela azpimarratzeak eramaten duela batzuetan, bi sexuen artean dauden berdintasunak ez seinalatzea, eta berdintasun hauek, ordea, diferentziak bezain handiak izan daitezke. Suposatuzat eman ohi da, sexu rola gizarte orotan ematen direnez, eta diferentziak beti ageri direnez, garrantziko jarduera oro edo identitate ezaugarri oro sexuaren arabera bereizten dela. Alabaina, hau ez da horrela beti; bi sexuetoek amankomunean bizi dituzten gauza asko daude. Baina diferentzien bila ibiliz gero, berdintasunak ez dira interes berdinarekin ikertzen, ez eta hauen eta diferentzien artean dagoen harremana ere.

Bi sexuek amankomunean dituzten ezaugarri eta jarduerak ikertzeko interes ezaren ondorioak ez dira ikerketan eta gizarte zientzian bakarrik azaltzen. Ikuspegi politiko feministatik ikusita, bidegabe diren eta gainditu behar diren diferentziak daudela du axola. Erabaki honetara iristeko, garrantzitsua da berdintasunak desberdintasunak bezain ongi ezagutzea, desberdintasunak zenbateraino aukerakoak diren ala kanpotik ezarriak diren jakin nahi badugu. Generoko diferentzien gaineko teoriak gain, generoko berdintasunen gaineko teoria ez edukitzeak ez digu uzten, politikaren esparruan, proposamen argia egiten, azalduz zein desberdintasun diren bidegabe eta zeintzuk ez.

Hirugarrenez, emakumeak orokorrean genero bezala hartzeak zaildu egin digu noiz edo noiz, emakumeek zenbait gizartetan edo gizarte talde jakin batzuetan duten egoera azaltzea. "Emakumeaz" mintzatzeko ohiturak berak ere ezkutatu egin du benetako errealitatea, alegia "emakumeak" ezkutatu ditu, emakume ezinbestez desberdin eta askotarikoak. Subjektu konplexua denez, emakumeetaz mintzatzeko, etengabean atera beharra dago, erabili ohi diren hitzetatik eta zehazten diren eremuetatik. Honen gainean esan behar da inor ez dela inoiz, gizonaren gizarte

egoeraren gaineko teoria globala egiten saiatu, ez baita uste, gizonak sinpleki eta adiera baka-
rrez har litekeen taldea osatzen dutenik.

Muga hauen gainetik, gizarte generoko sistemaren nozioa sartzea, beste edozer baino gehiago
erabiltzen da emakumeen egoerari buruzko ikerketetan. Aipaturiko beste abantailatz gain, sei-
nalatu behar da ere, kontzeptu honek ez duela adierazten, soilik emakumeak leku batean direla
eta gizonak bestean, baizik eta definitzen du ere, bi leku horiek elkarrekin lotzen dituen sistema.
Kontzeptualizatze sistema honek ez du emakumeen egoera bakarrik azaltzen, baina baita gizo-
nena ere, eta bien artean ematen den harremana. Hemendik abiatuta, esan daiteke gizartean alor
eta jarduera batzuetan emakumeak agertzen direla eta gizonik ez dagoela, eta bestetan, berriz,
kontrakoa gertatzen da, hau da, gizonak daude eta emakumerik ez. Alor eta jardun hauek elka-
rrekin lotuak dira eta biak dira gizartearen parte eta biak beharrezkoak, gizarteak funtzionatu-
ko badu.

Dena den, emakumeek generoko sistema honetan duten egoera azaltzeko, emakumeak zer diren
eta zer egiten duten hartu behar da abiapuntutzat eta ez ez direna eta egiten ez dutena.
Garrantzitsua da ikerketa, emakumeen presentziaren ikuspegitik egitea eta ez ausentzietatik, au-
kera ematen baitu hauek teoria eta azterketaren erdigunean jartzeko. Honek mundu pribatua
ekartzen du gizarte zientzien ikerketara, eta apurtzen du publikoa eta pribatua, gizartean banan-
duriko bi alor gisa hartzen dituen dikotomia zaharra. Ez daiteke esan emakumeak publiko den
orotik at daudenik, ez eta gizonak halaxe daudela pribatu denetik; bi biak daude leku bietan eta
zaila da jakitea non amaitzen den bata eta non bestea hasten. Garrantzi handiagoa dauka bi
munduen arteko loturak aztertzea, harremana aztertzea, eta ez presentzia edo ausentzia soilik.

Halatan bada, patriarkatuaren teoria, gizarte zientziak horretaz baliatzen hastearekin, ñabardu-
ren beharrean gertatu zen, eta honek eskatu zuen generoko sistema bezala birkontzeptualizatu-
a izan zedila edota sexu rolen gainean zeuden teoriak kritikoki berrikustea. Aldaketa hau interesga-
rria da, emakumeak erdigunean jartzen dituzten gizarte jardunak eta gizonezko eta emakumez-
koen rolen arteko harremanak ikerketzen jartzen baitu indar gehiena. Apurtu eginen litzateke, ha-
latan, maskulinoa normala dela esan eta emakumeen egintzak parametro horren arabera azter-
tzen dituen ikusmoldeetik abiatzen den joera androzentrikoa. Dena den, patriarkatuaren gaineko
kontzeptualizazioak garrantzizko elementua eransten zuen eta elementu hau ez da alde batera
utzi behar: sistema hau boterea erabiltzean oinarritzen dela eta zentzu honetan erakunde politikoa
dela dioen baieztapena, alegia. Izan ere, uler daiteke patriarkatua generoko sistema berezia
dela, bereizi gizonezko eta emakumezkoen arteko harremana menperatze eta men egite harre-
mana delako, eta bien artean hierarkia dagoela baitio.

2. *Gizarte adierazletako ereduak*

Gizarte adierazletako ereduak, politikak ebaluatzeko sistema gisa, Munduko Bigarren Gerra oste-
an sortzen da, biztanleriaren ongizatea neurtzeko eta aurrera eramanteko politiken eragina neur-
tzeko modu bezala. 1982an, OCDE-k txosten bat argitaratu zuen, ebaluaketa hauek egiteko gi-

zarte adierazle onak zeintzuk ziren azalduz. Honela zioen: 1) gizarte output-a azaldu behar zuten, eta ez input-a, hau da, aztergai zen politikak izandako atarramendua ebaluatu behar zuten; 2) erakundeetatik at egin behar ziren eta denbora tarte luzez aplikagarri behar zuten izan, halatan igarri ahal izan zitezkeen, unean uneko emaitzaz gain, emandako aldaketetako joerak ere; 3) politika publikoak eginez alda zitezkeen gizarte egoerak behar zituzten azaldu; 4) fenomenoaren azalpenaren ahal beste dimentsio erakutsi behar zituen, bistatik galdu gabe, fenomenoaren besteekin harremanetan dela ikusten uzten dituzten beraien arteko harremanak.

Ikuspegi teorikotik ikusita, hiru helburu ditu gutxienez, emakumeen gizarte estatusaren konparaketak. Lehen lehenik, jakitea ea sexu desberdintasunak unibertsalak diren ala ez, eta hala badira, nolako aldeak dituzten beraien artean eta nolako parekotasunak, alor desberdinetan (hezkuntzan, ekonomi onuran, osasunean, etab.). Bigarrenik, alor hauetan aldaera handiak daudenean, aztertu behar da zenbateraino dauden beste faktorei lotuta, hala nola faktore politiko, kultural edo ekonomikoei. Azkenik, sexu desberdintasuneko alde hauek zenbateraino esplikatu daitezkeen gizarte ezaugarri berezituarekin (halako edo horrelako gizarte edota erlijioarena edo halako edo horrelako garaikoa) ala gizarte faktore orokorren ondorio diren, edozein leku edo garaitan aplikatzekoak. Espainian, emakumeen egoeran aldaketa handiak egiten ari garen neurrian, generoko sistemaren lau mailetan, emakume eta gizon taldeen arteko konparaketa oso garrantzitsua da, generoko zein adierazle erabili behar ditugun jakitearren. Etxekoandre soilik izateak, edo lan merkatuan bakkari aritzeak edo lanegun bikoitza egiteak alde handiak sortarazten baititu emakumeen artean. Horrela bi emakume talde sortzen dira eta horien arteko aldeak adierazle bitartez neurtzeko aukera izan behar dugu.

Emakumeen gizarte egoeraren gaineko informazio estatistikoa lortzeko modu onena da, luzera, denboran zehar, eta zeharka ere erabili daitezkeen adierazleak edukitzea, une jakin batean, sektore desberdinen artean dauden aldeak ikustearren. Laurogeigarreneko hamarkadan, Nazio Batuen INSTRAW delakoak, aditu talde baten lan luzearen ondorioz, gizarte adierazletako eredu bat prestatu zuen, bere estatu kideak ikertzerakoan erabiltzeko asmoz eta nazioarteko konparaketak egiteko. Ereduak balio zuen ere emakumeen egoeran emaniko aldaketak ebaluatzeko. Ondoren, PNUD delakoak, giza garapeneko indizean emakumeen egoeraren gaia sartzeari erabaki zuen ere, bi indize mota ezarri: emakumeen garapen indizea eta emakumeen sustapen indizea. Nazio Batuen Erakundeak zeregin handia izan du, aukera berdintasuneko politiken erabilerari sustatzean eta gizarte adierazletako ereduari eta politika horien ebaluatzeari buruzko eztabaida lekua sortarazi du ere.

Gizarte adierazletako sistema batek ez du esan nahi, fenomeno bati buruz dauden datu estatistiko guztiak agortu behar direnik, esanguratsuenak diren datuak aukeratu behar direla baizik. Adierazle baten eta gizarte estatistiken arteko aldea da estatistikek ematen dutela, modu sistematikoa bilduriko zenbakizko gertaera multzo bat, eta adierazlea lortzeko, berriz, dauden estatistikan gordetako informazioa laburbildu beharra dagoela. Laburpen hau, neurtu nahi den oinarriko kontzeptuaren arabera egiten da, hala denboran nola espazioan ere. Adierazlearen sistema batek erraztu egiten du, emakumeek jasaten dituzten gizarte arazoaren diagnostikoa. Halarik ere,

honen faltan, dauden estatistikak erabiltzea garrantzizko abiapuntua izan daiteke diagnostiko hori egiteko.

Emakumeen gizarte egoerari buruzko informazio estatistikoa edukitzeko modu onena da, luzera, hau da denboran, eta zeharka, une jakin batean, sektore desberdinen artean dauden aldeak ikusteko erabil daitezkeen gizarte adierazleak edukitzea. Baina, nahiz eta herrialde bakoitzak eduki ohi dituen estatistikak, hauek ez daude beti tokiz toki bereziak. Halarik ere, erabil daitezke beti, jadanik eginak dauden estatistikak, nahiz eta hauen erabilerak bestelako esanahia hartzen duen halakoetan.

Emakumeen gizarte egoera eta generoko harremanak aztertzeke aukera emanen dizkiguten estatistikak lortzeko zailtasunen artean, hauen zehaztasuna dugu. Erroldak eta inkesta berezietuek oraindik dituzte beren diseinuan, datuen zehaztasunari kalte egin diezaioketen sexu estereotipoak. Esate baterako, informazio oinarritzat familia hartzerakoan, azken aldi hauetako erroldetan metodologia hobetu egin bada ere, oraindik ere badira, familia barruan ohiko lan banaketa sexuala ematen deneko ustea erakusten duten suposizioak. Honek ezkutatu egiten ditu, azken urteotan, famili unitateetan emaniko aldaketa asko. Horrelako beste adibidea dugu, ekonomi jardueren gainean eginiko inkestetan biltzen den informazioa, maiz ez baitute kontuan hartzen emakumeek nekazaritzan edota etxe lanetan egiten duten soldata gabeko lana.

Guztiarekin ere, mugatuak badira ere, estatistikak abiapuntu ona dira eta erabilgarriak dira, neurtzeko beste moduekin batera erabiliz gero. Emakumeen egoeraren azterketak ez du datu estatistikoetara soilik mugatu beharrik, informazio hau beste neurriekin osa baitaiteke, hala koantitatibo nola koalitatiboki. Datuak modu zuzenean lortzeak aukera ematen du, estatistiken erabileran gerta daitezkeen eskasiak osatzeko. Gainera, ezinbestekoa da, dimentsio kultural eta subjektiboak erantsi nahi baditugu, zeren emakumeek beren egoeraz duten iritzia garrantzi handikoa baita, generoko sistemak nola funtzionatzen duen ulertuko badugu.

Edozein ikusmolde metodologikotik abiatuta ere, kontitabibo nahiz koalitatibotik, eta jadanik eginak dauden estatistikak erabiliz gero, estatistika hauek gizarte adierazletako sistema bihurtuak edo bihurtu gabeak badira ere, hasi aurretik, metodologiako behar bat agertzen zaigu. Behar hau da, emakume eta gizonezkoentzat aurkituriko diferentzien gainean eginen den definizioa, baldin eta diferentziarik agertzen bada, noski. Emakumeen gizarte egoera azaltzeko egin daitezkeen edozein saioak abiapuntu bezala hartzen duen hipotesi nagusia da badirela diferentziak emakumeek eta gizonek gizartean duten egoeran. Diferentzia hauek, gainera, emakumeen aurkakoak omen dira.

Hemendik sortzen zaigu, diferentziak daudela egiaztatzeaz harat doan beharra, alegia zein kasutan erabaki daiteke diferentzia hauek bereizkeriaren erakusle direla. Honek eskatzen digu, bereizkeriaren kontzeptua zehaztea. Hau da, noiz diferentziek bereizkeriako kasua erakusten dituzten eta noiz ez. Esate baterako, emakumeak, espetxeraturiko biztanleriaren %50a ez izatea edo bihotzekoak jota hildakoen erdia ez izatea, bereizkeriaren adierazle al dira? Sexuen arteko desberdintasunaren adierazle den hau al da aldatu nahi ditugun faktoreetako bat? Sexuen arteko desberdintasuna ez da derrigorrez aurkako desberdinkeria. Bereizi behar ditugu, beraz, sexuen arte-

ko desberdintasuna eta bereizkeria. Eta areago, emakumeen aldeko diren sexu desberdintasunen kasuan, hauek mantentzea, bereizkeriaren aurkako politikaren parte al dira? Bereizkeria kontzeptua berak har ditzake definizio desberdinak, eta hartzen den definizio teorikoaren arabera, baldintzatu egiten da, horren aldeko datuen bilketa.

Lehen hurbilpen teorikoak erakusten digu, bereizkeriaz mintzatzerakoan neurtu nahi direla gizon eta emakumeen artean dauden aldeak onuren, zerbitzuen, ospe eta boterearen banaketan. Hauek banatzen desberdintasun sistematikoak gertatzen diren herrialdeetan esan daiteke sexu desberdinkeria dagoela. Gizarte berdinzalea litzateke, ordea, rol sexual berdin samarrak litzukeena, gizarteak berak ongi baloratzen dituen gauza edota lekutan. Bereizkeria horrela definitu ondoren, jarraian beste galdera baten beharrean gara, baldin eta bereizkeriaren aurkako ekintzak proposatu nahi baditugu: zergatik ematen da desberdinkeria hau?

Sexu desberdintasunari eta horren alde diskriminatzaileei buruzko diagnostiko baten zeregina da, nola adierazten den, eta dituen ezaugarri nagusiak azaltzea. Ahal den neurrian, komeni du bereizkeria honi buruzko datu koantitatiboak edukitzea, nahiz eta duen izaeragatik, koantifikagaitza den gizarte fenomeno hau. Koantifikatze arazoaz gain, seinalatu behar da inolako ikerketa partzialak ezin duela berez azaldu, generoko sistemaren konplexutasuna. Ikerketa askoren beharra dugu, erakutsiz gizarte alor bakoitzean zeintzuk diren bereizkeriaren ezaugarriak eta zenbateraino errotua dagoen. Garrantzi handikoa da ere, sektore desberdinen arteko eta esparru geografikoen arteko konparaketak egin ahal izatea, bai eta denboran zeharkoak ere.

3.

Aukera berdintasunerako politiken ebaluaketa

Aukera berdintasunaren estrategiari doakionean, iruditzen zait aukera berdintasuna, definitua izan den bezala, sufragisten eskariei eginiko erantzuna dela. XIX. Mendean gizartea berrantolatzen denean, publiko denaren eta pribatu denaren arteko aldea generoan sakonago errotuz eta generoaren arabera antolaturiko bi eremuak arras desberdinduz, sufragistek eskatzen dute emakumeentzako ere, mundu publikoan jarduteko aukera. Arazoa definitzen da, halatan, emakumeak mundu publikoan ez egote moduan eta horren arabera, aurrera eramane behar diren politikak dira, emakumeek ausentzia hori gainditzeko politika publikoak. Hauxe dugu aukera berdintasunerako politiken oinarritzko estrategia. Horrela, arazoaren diagnostikoak eskatzen du, emakumeak zenbateraino ez diren agertzen neurtzea. Nolako datuak erabiltzen dira horretarako? Lan merkatuan diren emakumeen portzentaia ezagutu nahi dugu, politikaren maila desberdinetan parte hartzen duten emakumeen portzentaia, kultura produkzioan dabiltzan emakumeen portzentaia, eta gizonezkoen zifrekin erkatzen ditugu. Emakumeak gizonekin erkatzen ditugu: zenbat emakume dago gizonezkoen aldean, eta emakume gutxiago badago, zuzendu beharreko desberdinkeria dela erabakitzen dugu. Horrela, emakumeen ausentzia ari gara neurtzen. Nazio Batuen adierazletako

ereduak berak proposatzen ditu horrelako adierazleak, eta aukera ematen digu, emakumeen ausentzia nola aldatzen den ezagutzeko.

Baina bakarrik emakumeen ausentzia azpimarratzeak, alde batera uzten ditu emakumeen presentziak. Feminismo modernoak aukera eman zigun, emakumeen ausentzia neurtzeaz harat zihoran azterketa egiteko. Erakutsi zen emakumeak mundu publikotik at ez zeudela, bizitzan ezer egiten ez zutelako edo gizarte leku edo rolik ez zutelako. Aitzitik, emakumeak bestelako jardun eremutan dabilta, mundu pribatuaren jardun eremutan, alegia. Alabaina, zeregin horiek ez dute balorazio berdina jasotzen; emakumeek aurrera eramaten dituzten mundu pribatuko zereginak ez dira inoiz agerikoak izan eta ez da bilatu nola neurtu zitezkeen. Izan ere, eremu honetan, gizonen ausentziaz mintza zitezkeen eta kontsideratu desberdinkeria lehena dela eremu publikoari eta eremu pribatuari ematen zaizkien balore desberdinak. Halatan bada, emakumeen ausentzia eta emakumeen presentzia neurtzeko adierazleak garatu beharko genituzke. Azken urteotan, aurrera egin da, hain zuzen ere, politika publikoetara feminismo modernoaren eskariak sartzeko ahaleginetan eta proposamenen ardatza aldatu da, ugaltze eskubideetaz, elkarrerantzukizunaz eta etxeko lanaz mintzatzeko.

Jokatzeke modu berri honekin batera, emakumeen presentzia nolakoa den eta nola aldatzen den aztertu ahal izateko adierazleak edukitzeko aukera emanen diguten estatistikak bilatu dira. Hortik hasi dira garatzen, esate baterako, denboraren erabilerari buruzko ikerketak, Nazio Batuek bere egin dituztelarik, bai eta beste ezaugarrien azterketa ere. Halatan beraz, emakumeen presentzia kontuan hartzeko asmoz, politikak berbideratzerakoan ere, presentzia hau neurtzeko aukera emanen duten adierazleak garatzen hasten ari dira. Horietako bat dugu emakumeen empowerment delakoaren gainekoa. Botere kategorია, gizon eta emakumeen artean dagoen harremana ikusteko ere erabili ahal beharko baikenuke. Emakumeen aurkako bereizkeriari aurre egiteko dauden politikak, birbanatze politikak dira eta horrexek bihurtzen ditu korapilatsu eta gaitz. Berrantolatu behar baita, nola banatzen zaizkien kolektibo desberdinei, gizarteak duen funtsezko pastelaren zatia. Nazio Batuen Erakundeak garaturiko sustatze indizea, bide horretatik doa. Lehen urratsa dugu, halere, zeren neurtzen duena, berriro ere baita emakumeak botere lekuetara zenbatean iristen diren. Ez du neurtzen, ordea, ea botere harremana aldatzen ari den ala ez. Beraz, uste dut alor honetan ere prestatu behar direla adierazle berriak.

Bereizkeriari aurre egiteko politiken eraginak ikusteko, adierazleren beharrea den beste alorra da gizartearen egitura bertan, hau da, gizartearen eremu desberdinetan, ematen den generoko dimentsioaren alorra. Ikusi beharko litzateke nola definitzen diren zenbait rol eta gizarteko zenbait leku, femenino edo maskulino bezala. Honek aukera emanen liguke aztertzeke ea egiten diren definizioak aldatzen ari diren eta ea desagertzen ari den horietako feminitate edo maskulinitate jorera.

Azkenik, emakumeen beraien artean izan daitezkeen aldeak ezagutu beharra dago ere. Azken urteotan ene ikerketetara sartu ditudan datuak, emakumeen belaunaldietan banaturik sartu ditut. Hiru emakume talde bereizi ditut, ardatz gisa transizio politikoa hartuz: transizio aurreko taldea, transizio garaiko taldea eta transizio ostekoa. Lehenean, 55 urtez goitiko emakumeak ditugu, bi-

garrenean 35 eta 54 urte bitartekoak, eta azkenean 34 urtez behetikoak. Herrialde honetan eman diren aldaketa gehienak eta emakumeak gizonekin erkatzerakoan ikusten ditugunak, transizio osteko emakumeengan dira eman eta halatan eragin handiagoa dute, emakume guztiak aldatu direla pentsatzean baino. Emakume taldeen arteko aldeak aztertzerakoan, asoziatuen dagoen aldagaia hauxe da. Baina gauza bera gertatzen da gizonen kasuan. Honek erakusten digu, adierazleak erabili behar direla, ez bakarrik gizonak eta emakumeak elkarren artean erkatzen, bi taldeak kategoria orokor moduan hartuz, baizik ikusi behar dugula, beraien arteko kolektiboetan ematen diren aldeak.

Hala gizon eta emakumeen arteko botere harremanei doakienean, nola egiturazko aldaketei doakienean ere, bi fenomeno hauek behar bezala neurtzeak aukera emanen liguke, politika publikotako modu berriei ekiteko. Empowerment-aren gaia Nazio Batuetako Erakundeak jarri zuen agenda publikoan Beijing-eko topaketan, eta badakigu gauza ez dela soilik emakume gehiago jartzea, baizik eta gizonen eta emakumeen arteko botere harremanak aldatzea. Gogora ekarri behar dugu, feministak patriarkatuaz mintzo ginela eta kontzeptu horrek berekin zeramala botere harremanen nozioa. Ondoren generoaz mintzatzera pasa ginen eta boterearen gaia zalantzan, anbiguo, geratu zen. Herrialde honetako belaunaldi gaztea da, izan ere —datuek diotenaren arabera, mundu publikora sartzeko aukera eman baitiogu— mundu publiko horretan, boterearen arazoarekin topatzen dena eta empowerment-aren beharra duena, soldata desberdinekin egiten baitu topo, lan merkatuaren bereizketarekin, etab. Arazoa ez da oraingoan etxekoandrea etxetik nola atera eta mundu publikora eraman; orain arazoa da, behin emakumeak hor jarritakoan, ikusten dela nola funtzionatzen duen gizonen eta emakumeen arteko botere harremanetako zirkuitoak. Jakin beharko genuke neurtzen zenbateraino ari diren emakumeak botere mailak igotzen.

Neurtzen saiatu beharreko beste gaia, lehen esan dugun bezala, egiturazko aldaketen gaia da. Emakumen bereizkeria ez da amaituko, horren sortzaile den oinarrizko egitura aldatu gabe. Halatan bada, aukera berdintasunerako politiketik, pertsonengan eta hauen jardunetan eragin nahi dituzte aldaketak. Baina pertsona hauek, gizon nahiz emakume, gizarte eremu jakinetan ari dira harremanetan. Hauek aldatu ezean, gizon eta emakumeengan, beraien arteko berdintasunaren balioa ezarriatik ere, aldagaitzak lirateke beraien harremanak. Errealitate hau neurtu beharra dago, beraz, eta aldaketarako ekintza publikoak proposatu. Hona iritsita, aipatu nahiko nuke EMAKUNDEren EEEPPa ebaluatzeko prestatu nuen metodologia.

Emakumearen Institutuko Zuzendaritza Kontseiluko kide nintzen, Administrazio Zentralaren Aukera Berdintasunerako Lehenengo Ekintza Plana prestatu genuenean eta plan hau autonomia erkidego-tako planetarako, eta azken aldian udaletxe askotarako, eredu izan zen. Oroitzen zait han izandako eztabaida, planik egin behar zen ala ez. (Beste herrialdetan ez da horrelako planik eman.) Planaren ebaluaketa memoriak egiten hasi zirenean, lehenik Administrazio zentrolean eta gero autonomia erkidegoetan, harritzen ninduen memoriak seinalatzen zutela, planean proposaturiko neurrien artetik zeintzuk egin ziren eta zein eremura iritsi ziren. Emakunderekin, EEEPParen ebaluaketa bilerak egiten hasi ginenean, nik seinalatzen nuen honek erakusten zigula plan horiek ez zirela benetako planak.

Plan bat ez da, aurrera eraman edo ez eraman daitezkeen neurrien proposamen hutsa, baizik eta adierazi ohi duela zein emaitza lortu nahi dituen eta zein baliapide dituen. Lehe plana egiteko prozesua gogoan, seinalatzen nuen lehen planen helburu nagusia izan zela, aukera berdintasunaren gaia agenda publikora sartzea. Halatan, oso baliagarriak gertatu zitzaizkigun, ondoren Beijing-en bultzatzeko gomendatu zitzaiguna, hau da, zeharkatasuna. Bestela esatearren, Administrazioari erakutsi zer egin behar zuen, nola ekin behar zion emakumeen aurkako bereizkeriaren gaiari. Planak proposatzen zituen neurriak oso neurri zehatzak izanik ere, ez zeuden zenbatuak. Esate baterako, emakumeen bularretako minbizia detektatzeko neurriak nahi zirela esaten zen, baina ez zen esaten ea 10.000 emakumeengana iritsi nahi zuten ala 20.000rengana, ala zenbatengana. Plan batek, ordea, egin ohi ditu horrelako zehaztapenak, bai eta laburki esan ere, biztanleriaren zein sektorengana iritsi nahi den.

Plan batetik bi gauza daude aztergai, eta honekin adierazleen gaira itzuliko naiz. Nahiz eta adierazle guztiek erakusten diguten, lehen aipaturiko arazo teknikoak eta guzti, emakumeen egoera nola aldatzen ari den, berez ez digute azaltzen, ea aldaketa horiek, politiken eraginez eman diren ala beste faktoreen eraginez. Erraz gerta zitezkeen politika publikoak zerikusirik ez izatea aldaketa hauekin. Politika jakin baten eragina ebaluatu nahi izanez gero, politika hori bera aztertu behar da, aurretiko eta ondorengo neurriak hartuz eta diseinu ia esperimental batekin. Lan ktramilatua dugu honako hau, politika bakoitza bere aldetik aztertu beharko bailitzateke. Eraginaren ebaluaketak eskatzen duen metodologiak bereizi beharko lituzkete politikaren eragina eta beste-lako faktoreen eragina.

EMAKUNDEren EEEPParen ebaluaketaren kasuan, ebaluaketarako metodologia garatzen hasi ginenean, nik seinalatzen nuen, ezen baldin eta planaren helburu orokorra bazen gaia agenda publikora sartzea, zergatik ez genituen aztertzen garatutako ekintza estrategiak eta gaia agenda publikora nola sartu zen? Eta halaxe iritsi ginen, ebaluaketan erabilitako bederatzi politika kategorietara, hiru politika mota nagusitan bil zitezkeenak: 1) Ezagupenak, ideiak, baloreak, etab. aldatzearen estrategia; 2) Bai Administrazio Publikoan aritzeko eta bai emakumeen elkarteei laguntzeko behar ziren egiturak sortzeko politikak, eta azkenik, 3) bereizkeriaren aurkako ekintza zuzeneko estrategiak, hiru jarduera maila zituena: norbanakoen maila, sorospenekoa eta egiturazkoa.

Egiturretako atal hau dugu garrantzi handienekoa emakumeen egoera aldatzeko. Ezin zaio emakumeen aurkako bereizkeriari amaiera eman, horren sortzaile den funtsezko egitura aldatzen ez badugu. Alabaina, aldaketa hau ezin egin daiteke edo ezin susta daiteke, soilik politika publikoen bitartez. Bada, noski, egituran egin beharreko aldaketaren parte bat, legeria, alegia, Estatuaren erantzukizun hutsa dena. Baina beste alderdi askotan gizartea da aldatu beharrean dena. Adibide baterako: atzo eztabaidatzen genuen, Soledad Blanco-k jakitera emaniko datu baten gainean, alegia European emakumeen lana %70 areagotu egin denekoaren gainean. Areagotze honen beste aldean genuen, emakumeek gizonek baino lan ezegonkorragoak, lan baldintza okerragoak eta bereizitua dituztela. Fenomeno honen aurrean galdetu beharko genuke: hala izanik, hobe al da emakume hauek etxekoandre izaten jarraitzea? Honako hau ebaluatzeke gai izan be-

harko genuke: zifra honetan zer da aurrerapen eta zer arazo? Zeren lan merkatuan bereizkeria kendu nahi badugu, politika publikak bultzatzeaz gain, garrantzizkoena baita lan merkatuan produkzio indarren arteko adostasuna izatea. Administrazioetik egin daitekeen guztiaren ondoren, azkenik sindikatuek eta enpresariak gauzatzen dituzte, hitzarmenen bitartez, lanean bereizkeriarik ez egiteko politikak. Politika hauek eskatzen dute, beraz, Administrazioaren eta gizarte erakunde- en arteko lankidetzaz.

Halatan bada, emakumeen egoeraren gaineko eta egoera horretan ematen diren aldaketen gaineko adierazle eredutarako eta politika publikotarako ebaluaketa sistema egokiak garatzea zaigu mekanismo onena, botere publikoak, bereizkeriaren aurkako ekintzen bide horretatik jarrai daitez- zen, ahalik eta helburua iritsi arte, hau da, emakumeek jasaten dituzten bereizkeria mota guztiak ezabatu arte.

Egun on jaun-andreak:

Gaur nahiko nuke zuekin batera ikusi, ekintza positiboaren alorrean Erkidego mailan eman diren esperientziak, alor hau funtsezkoa baita, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren eremuan Erkidegoak aurrera daraman politikan.

Aukera-berdintasuneko Europako politika eta legeriaren oinarriak, 1957ko Erromako Itunean aurki ditzakegu. Itunaren artikuluek, alderdi ekonomikoei begiratzen zieten batez ere. Itunaren xedapen sozialak, berriz, gai oso mugatuei buruzkoak ziren, hala nola langileak libreki ibiltzeari eta lehia libreari buruzkoak. Testuinguru honetan, Itunean, gizon eta emakumeen arteko lansari berdintasunari buruzko xedapena sartzearen helburua, emakumeek hartzen zuten lansari baxuagoak lehiarako ekar litzakeen distortsioei aurre egitea zen.

Nahiz eta 119. artikulua esaten zuen Estatu kide bakoitzak, lan berdinatik emakumeek eta gizonak lansari berdina hartu behar dutela dioen printzipioaren aplikazioa ziurtatu behar zuela eta ondoren mantendu ere bai, emakumeek enpleguan zuten egoera ez zen gehiegi aldatu hurrengo hamar urteetan.

Halatan bada, Ituna indarrean jarri zen garaian oraindik ere inongo Estatuak ez zuen inolako saiorik egina, 119. artikulua aplikatzeko. Bi gertakizunek aterako zuten artikulua hori zokotik, hiru-rogeitamargarren hamarkadaren hastapenean: 60. hamarkadaren amaiera eta 70. hamarkadaren hastapenetako mogimendu feministetako emakumeen lan eskariak eta Europako eremu publikoan lehen aldiz agertu zela 119. artikulua, 1971n Europako Justizia Auzitegiari aurkezturiko kasu batean —Defrenne kasuan, alegia— aipatua izan zenean.

70. hamarkada berriaren testuinguru politiko eta sozial honetan, Europako Erkidegoan indarrez zabaldu zen, ezen legezko esparrua garatzeak ekar lezakeela emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasun handiagoa. Harrezkero gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, Europar Batasunaren politika sozialaren helburu nagusietako bat izan da.

Legegintza lana handia izan da: zortzi Arzetarau lansari-berdintasunari, tratu-berdintasunari eta gizarte ongizateari buruz. Arzetarau hauek, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren zehaztapenekin, oinarri juridikoa eman dute, gizarteak aldaketa garrantzitsuak egin ditzan bai jarreratan, bai lan merkatuko ekintzatan eta bai emakumeen banakako eskubideen garapenean ere.

Legezko tresna hauen artean, gaurkoan eskuartean dugun gairako, seinalagarri zaigu, 1976ko otsailaren 9ko (76/207/EEE) Arzetaraua, gizonak nola emakumeak lana eskuratzeari doakionean, lanbide formakuntza eta igoeran eta lan baldintzetan berdin tratatzearen printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Arzetarau honek aukera ematen die Estatu kideei aukera-berdintasuna modu desberdinetan sustatzeko eta dauden desberdinkeriak ezabatzeke.

Halarik ere, 80. hamarkadan argi geratzen hasi zen Arzetarauaren xedapenak huts hutsean ez zirela aski, emakumeek lan bizitzan jasaten dituzten desberdinkeriak ezabatzeke. Ordurako argi zegoen, aukera-berdintasuna bete betean gauzatzea eragozten duten oztopo gehienak ez direla juridikoak, baizik eta gizartean, gizon eta emakumeen artean zereginak banatzeko dauden ohiko usteetatik datozela.

Halatan bada, Batzordeak ekintza positiboko hainbat egitarau prestatzen hasi zen, aukera-berdintasunari jartzen zaizkien juridikoak ez diren oztopoak gainditzeko.

Lehenengo egitarauak 1982tik 1985 bitarteko garaia hartu zuen eta emakumeentzat nolabaiteko aurrerapena lortu zuen enpleguaren eremuan. Baina batez ere argi azaldu zuen aldi berean eskuhartu behar zela eremu politikoan, sozialean eta ekonomikoan. Garai horretan Kontseiluak, 1984ko abenduaren 13an, Estatu kide guztien adostasunez eman zuen, emakumeei zuzenduriko ekintza positiboa sustatzearen gaineko gomendio bat.

Gomendio honek proposatzen die Estatu kideei, nazio mailan ekintza positiboko estrategia esplizitua har dezatela, hasiera hasieratik edozein erakundeko langileei eta enpresariei ekintza positiboaren interesa sor diezaieten eta lantokian ekintza positiboko egitarau bat abian jartzera bultzatzen.

Gomendioak, Estatu kideei aholkatzen die, besteak beste, behar diren neurriak har ditzatela ziurtatzeko ekintza positiboak, ahal bezainbatean, honako elementuak dituela :

- lan munduan aukera-berdintasuna sustatzeko dagoen beharrari buruzko informazioa eta sensibilizazioa hedatzea, bai bertako jendearen artean, bai eta jende guztiaren artean oro har;
- lantokian, emakumeen duintasunaren errespetua gordetzea;
- emakumeek lan merkatuan duten egoeraren gaineko ikerketa koantitatibo eta koalatitiboak;
- laneko aukera eta koalifikazio egokienak dibertsifikatzea;
- laneko aholkularitzako, orientazioko eta lanpostua bilatzeko zerbitzuetan, emakumeen langabeziaren arazo bereziak behar bezala ezagutzen dituzten behar beste langileak izanen direla ziurtatzeko behar diren neurriak hartzea;
- emakumeen kandidaturak sustatzea eta emakumeak kontratatzea eta karreran aurrera egiten laguntzea, presentzia urriegia duten sektore, lanbide eta mailatan, bereziki erantzukizuneko lekuetan;
- laneko baldintzak, antolamendua eta laneguna emakumeei egokitzea;
- laguntzako neurriak sustatzea, hala nola gizon eta emakumeen artean familiko eta gizarteko erantzukizunak hobeki banatzera zuzendurikoak;
- emakumeek bete betean har dezatela parte erabakiak hartzeko organuetan, baita langileen, patroien eta langile autonomoen ordezkari direnetan ere.

Honek erakusten digu zein zabalak diren Europa mailan aurreikusiriko ekintza positiboko neurriak.

Kontseiluak, gomendio honetan Batzordeari agindu zion ere, Estatu kideekin batera antola eta susta tezala Erkidegoko ekintza positiboaren gaineko informazio eta eskarmentua trukatu eta ebaluazioa sistematikoki egitea.

Aukera-berdintasunerako Erkidegoaren bigarren egitarauak 1986-1990 aldia hartu zuen eta aldi aktiboena izan zen Kontseiluak ekintza positiboari buruz emaniko Gomendioa aplikatzeari dokionean.

Aurrera jarraitu aurretik eman beharko nuke hemen ekintza positiboaren definizioa, Estatu kide guztietako hizkuntzatan kokatu den terminoa izanik, Europar Batzordeak amankomuneko definizioa behar zela ikusi baitzuen.

Definizio hau, Batzordeak 1988an, aukera-berdintasunerako Erkidegoaren bigarren egitarauaren barruan eginiko ekintza positiboetako gidak dakar.

Europar Batzordeak honela definitzen du ekintza positiboa:

“talde jakin bati zuzenduriko neurrien multzoa, zeinekin bereizkeria ez ematea lortu nahi den, edo eman dena ezabatu edota dauden egiturek, portaerek eta jarrerak ekartzen dituzten desabantailak abantailekin berdindu.”

Batzordearen gidak erakusten du nola ekintza positiboek, tratu-berdintasunaren gainean dagoen legeriaren osagarri izateko asmoa duten, errealitatean ematen diren desberdinkeriak ezabatzen lagunduz.

Ekintza positiboko egitaraua aplikatzeak lagun diezaioke erakunde bati bere politiketan eta lanpostuetako jardunetan eman daitekeen edozein bereizkeria aurkitzen eta ezabatzen, iraganeko bereizkeriak ekarritako ondorio gaiztoak zuzentzen eta sexuen arteko aukera-berdintasuna sustatzen.

Erkidegoaren ekintza positiboko lehen bi egitarauak aurre egin behar ukan zioten enpresetako ohiko jarrerari, zeinaren ustetan, bereizkeria ezabatzeko eta aurreko bereizkerien ondorioak berdintzeko ekintza positiboa moralki zuzena zen arren, enpresariarentzat karga erantsia baitzen, kontuan hartu gabe ekintza positiboa enpresa beraren alderako izan litekeela ere.

Erkidego mailan, ekintza positiboko esperientza pilotu anitz egin zirenez, ekintza positiboko ekimenak diseinatu eta aurrera eramateko metodologia garatu zen. Lan egiteko modu “zientifiko” hau, Estatu kideetako hainbat erakundeek (berdintasunerako erakundeek, sindikatuek, etab.) erabili dute, 1988an Europar Batzordeak prestaturiko ekintza positiborako gidaren printzipioak neurri handi batean hartuz, beraiek prestatu dituzten gidetan.

Europako gidak, ekintza positiboko egitarauan hiru etapa bereizi zituen: engaiamendua, azterketa eta ekintza. Gidak ez du halere, gauzak egiteko modu bakarra ezarri nahi. Europa erkidego anitza da, balore, ideia eta eskarmentu anitzekoa, eta ekintza positiboko egitarauak aniztasun hau onartu eta horren arabera jokatzen jakin behar dute.

Ekintza positiboko egitarau hauek eredu desberdinetan antola daitezke:

Lehenengo ereduan, emakumeek, lan merkatuan maiz jasaten dituzten desabantailazko egoerak zuzentzeko neurriak ditugu. Horrela ezabatu nahi dira, emakumeak gutxiago kontratatatuak izatearen eta laneko karreran aurrera gutxiago egitearen atzean dauden zergatiak, eskuhartuz bereziki lanbide orientazioan eta lanbide formakuntzan.

Bigarren ereduan, laneko eta etxeko erantzukizunen arteko nolabaiteko oreka eta erantzukizun horiek sexuen artean banatzerakoan ere oreka lortzea errazten duten neurriak ditugu. Honetan lehenetasuna ematen zaie, bada, laneko ordutegiak antolatzeari, umeen zaintzarako egiturak garatzeari eta langileak, nork bere arrazoiengatik (adibidez: ikasketak) edo familiko arrazoiengatik (adib.: ume bat zaintzeko) lana eten ondoren, lan bizitzara itzultzeari loturiko neurriei.

Hirugarren ereduak, berriz, ekintza positiboa erabiltzen du iraganeko bereizkeriak berdintzeko; honakoan ekintza positiboa berdintzailea da eta honek, kategoria batzuen aldeko tratua (adib.: kuoten sistema, helburu zenbatuak, etab.) legezkota bihurtzen du.

80. hamarkadaren bigarren erdialdeak, ekintza positiboa sustatzeko egituren garapen handia ekarri zuen. Nazioko nola eskualdeko berdintasunerako erakunde gehienek, Kontseiluaren Gomendioari jarraiki, ekintza positiboko egitarauak garatu zituzten.

Aukera-berdintasunerako Erkidegoaren hirugarren egitarauak (1990-1995) ez zituen legegintza eta ekintza positiboa baztertu, baina horrez gain, lehen aldiz heldu zion emakumeak gizartean oro har duen egoerari.

Garai honetan Batzordeak jarraitu zuen, gizarteko agenteekin, hau da, sindikatu eta enpresariekin, ekintza positiboko eredu egokiak sektore publiko eta pribatuan truka zitezten sustatzen, hala nola bere langileekiko politika berean ere.

Europar ekintza positiboak gero eta gehiago ikusiak dira, giza baliabideak ongi kudeatzeko tresna bezala, zeren eta helburua izanik langileen gaitasuna, eraginkortasuna, giza-ahalmena eta poza handitzea, enpresek eta erakundeek mozkin hobea atera beharko bailukete.

Europar Batzordearentzat ekintza positiboa, emakumeen egoera aldatzeko bigarren tresna eragilea da, lehena izanik, noski, berdintasunaren gaineko legeria.

Ekintza positiboaren aldeko zenbaiten ustetan, halere, legeria baino indartsuagoa litzateke tresna hau, legeria iristen ez dituen eremutaraino zaintzen baititu enplegua eta lan bizitza.

Dena den, kategoria bati lehentasuna ematen dioten neurri berezi zenbait, bi norbanakoen arteko —emakume eta gizon— berdintasun formaleko printzipioaren aurkakoa izan daitezkeenez, zehaztu beharra dago, ea desberdinkeriak ezabatzearen helburuz neurri horiek hartzea lege zilegi ote den.

76/207 Arteztarauak ez ditu bazter uzten, aukera-berdintasuna lortzeko diren ekintza positiboko neurriak eta halatan, Europako Justizia Auzitegiak, honekin zerikusia duten bi kasuen gainean eman behar ukan du bere iritzia: Kalanke eta Marschall kasuak, alegia.

1995ean Justizia Auzitegiak epaia eman zuen, Alemaniako laneko Auzitegi federalak aurkezturiko epaiketaurreko arazo bati erantzunez, kuota modu berezi bati buruzko kasu batean. Honakoxea dugu Kalanke izenez ezagun den kasua (C450/93), izan ere, ekintza positiboaren gaia Europa osoko egunkarietara zabaldu zuen kasua.

Kalanke jaunak aurre egin baitzion, Bremengo Land-ean indarrean zegoen ekintza positiboko estrategiari. Sistemak erabateko lehentasuna, baldintzarik gabe eta automatikoa ematen zion emakumeak sustatzeari, bi hautagaiek pareko kualifikazioa zutenean. Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak erabaki zuen sistema hori tratu-berdintasunaren printzipioaren aurkakoa zela.

Batzordearen ustez, Auzitegiaren epaia "interpretazio murriztailea" zen eta bere aldetik erabaki zuen Arteztarauarekin bat ez letorkeen kuota sistema bakarra litzatekeela, erabat zurrun izanik, norbanakoen egoerak kontuan hartzeko inolako aukerarik utziko ez lukeena. Interpretazio horren barruan, Estatu kideek eta enpresariak ekintza positiboko modu desberdinak erabiltzeko aukera lukete, baita kuota malguak ere.

Batzordeak orduan, puntu hau argituko lukeen arteztarauaren aldaketa proposatu zuen, bai eta Itun berrian bereizkeriaren aurkako artikulua berria sartzeko ere, halatan ekintza positiboa oinarriko legeen kategoriarara igoz.

Horren ordez, Itun berriaren testua gelditu den moduan, 141. artikulua berriaren 4. parrafoa dugu, non berresten baita:

“Lan bizitzan gizon eta emakumeen benetako berdintasuna bermatzeko asmoz, tratu-berdintasuneko printzipioak ez dio inongo Estatu kideri eragotziko, presentzia urriena duen sexuari lanbidean moldatzen laguntzeko edota laneko karreratako desabantailak berdintzen laguntzeko abantailak ematen dizkioten neurriak hartzea edo dituenak mantentzea.”

1997ko azaroan, Europako Justizia Auzitegiak, ekintza positiboari loturiko beste kasu bateko epaia eman zuen: Marschall kasua, alegia. Batzordeak Kalanke kasuarekin eginiko interpretazioa berretsiz, Auzitegiak esan zuen, sektore publikoko lanpostu igoseratan, dagokien posturako pareko koalfikazioa duten gizonetzko eta emakumezko hautagaiak izanez gero, emakumeei lehentasuna ematen dien nazioko legea ez dela Erkidegoaren zuzenbidearen aurka, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira eta hasiera beretik gizonetzko hautagaia baztertzen ez badu.

Epaia onartzen du, norbanakoei eskubideak ematera zuzenduriko tratu-berdintasunari buruzko legezko xedapenak ez dituztela, berez, dauden desberdinkeriak ezabatzen, baldin eta aldi berean gobernuak eta enpresek, emakumeek jasaten dituzten kalteei aurre egiteko ekintzak erabiltzen ez badituzte.

Marschall kasuko epaiaren ostean, berriz aztertu behar dira, Erkidegoaren eta naziotako zuzenbideetan, ekintza positiboari buruz dauden xedapenak, eta Batzordeak ziurtatu behar du, tratu-berdintasuna ez dela soilik izanen gizon eta emakumeentzat aukera berdina sortzea, baizik eta bere egitekoen artean hartu ahalko duela ere, lan bizitzan oro har, gizon eta emakumeen lekuen artean dauden egiturazko aldeak laburtzeko ekintza.

Marschall kasuko epaiak eragin positibo jakina du jadanik, Kontseiluak, aurtengo apirilaren 7an, hamar urteko prozedura baten ondoren, erabaki baitu, Erkidegoaren funtzionarioen Estatutuaren aldatzea, argi eta garbi azalduz tratu-berdintasunerako eskubidea eta Batzordeak garaturiko ekintza positiboko politikak egiaztatuz.

1. bis artikulua (berria):

“Lanbidean gizonen eta emakumeen artean erabateko berdintasuna modu jakinean bermatzeko, tratu-berdintasuneko printzipioak ez die eragozten Europako Erkidegoaren Erakundeei, presentzia urriena duen sexuari lanbidean moldatzen laguntzeko edota laneko karreratako desabantailak berdintzen laguntzeko abantailak ematen dizkioten neurriak hartzea edo dituenak mantentzea.”

Europar Batasuneko hamabost Estatu kideetan, ekintza positiboaren egoerari erreparatuz gero, hiru talde egin genitzake:

1. TALDEA: Italia, Luxenburgo, Espainia, Grezia, Belgika, Erresuma Batua, Portugal eta Frantzia. Nazioko legeriak ez du emakumeak kontratatu edo lanpostuz igotzeko inolako lehentasun sistematik aipatzen.

Halarik ere, herrialde hauetako batzuetan ez dago automatikoki baztertua, kontratatu edo lanpostuz igotzeko lehentasuneko eskubidea seinaltatzeko arauak, akordioak, ekintza-egitarauak edo jurisprudentzia sortzea.

2. TALDEA: Herbeherak, Danimarka, Suedia eta Finlandia.

Ekintza positiboa baldintza batzuekin baimentzen dituzten arauak dituzte. Zehazki, herrialde horietako legeek lanpostuak emateko lehentasunezko neurriak onartzen dituzte soilik denbora mugatu baterako badira.

Gainera, Suedia, Danimarka eta Herbeheretan neurri horiek aplikatu daitezke soilik presentzia urri-gia duen sexuaren alde.

Suedia eta Herbeheretan gainera emakume hautagaiek, gizonezko hautagaiek bezainbeste koalfikazioa behar dute.

Herbeheretan eta Danimarkan aholkua eskatu behar zaio, aukera-berdintasunerako Nazioko Komiteari.

Finlandian eta Suedian, ekintza positiboko neurriek, ekintza-egitarau baten barruan izan behar dute.

3. TALDEA: Alemania eta Austria.

Nazioko legeriak, ekintza positiboko neurriak hartzea xedatzen du.

Alemaniak eta Austriak, sektore publikoan bakarrik, lanpostua ematerakoan derrigorrezko kuoten sistema aplikatzen dute, gizonaren pareko koalfikazioa duen emakumearen alde, baldin eta %40aren muga Austrian eta %50ekoa Alemanian iritsi ez bada.

Zenbait Länder-etan, arrazoi sozial edota ekonomikoengatik araua indargabetu egin daiteke, besteetan, aldiz (Bremen eta Saxonia behean), %50eko parekotasuna iritsi arte, gizonezko hautagaien pareko koalfikazioa duten emakumeek lanpostutarako lehentasuna duteneko araua erabatekoa eta baldintzarik gabekoa da.

Amaitu aurretik aipatu nahiko nuke ere, bi hitzetan besterik ez bada, ekintza positiboek egungo egitarauaren esparruan duten lekua.

1996-2000 bitarteko aldia hartzen duen Erkidegoaren laugarren egitarauak, ekintzarako bere eremu desberdinen barruan ekintza positiboa sartzen du. Egitarauak honako helburuak ditu:

- aukera-berdintasunaren dimentsioa politika eta jardun guztietan errotzea sustatu;
- aukera-berdintasuna lortzeko gizarte eta ekonomiako agente guztiak mobilizatu;
- aldatzen ari den ekonomian aukera-berdintasuna sustatu, bereziki hezkuntza, lanbide heziketa eta lan merkatuko eremuetan;
- lana eta familiko bizitza bateratu;
- erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen partehartze orekatua sustatu, eta
- berdintasunerako eskubidea erabil dadila sustatu.

Egitarauaren ibilbidearen erdia ibili ondoren, esan dezakegu ekintza positiboa, eremu desberdinetan eginiko ekimenetan sartua dagoela. Konpararionera:

- Lana eta familiko bizitza bateratzeari doakionean, laneko jardun ez diskriminatzaile eta malguen bitartez.
- Aukera-berdintasuna enpresako produktibitatearen aldeko faktorea bihurtzeari buruzko debatan gizarteko solaskideak sartuz.
- Emakumeen onerako izanen diren lana antolatzeko modu berriak bilatzea: telelana, lanaldiak kudeatzeko modu malgua, etab.

— Emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan parte handiagoa har dezatela sustatuz, hartara, partehartze orekatuaren helburuaren alde eginez.

Laburbilduz, erran dezaket zenbaiten ustetan ez gaudela ekintza positiborako giro sozial eta ekonomiko aproposan. Aitzitik, azpimarratu behar dugu, ordea, ekintza positiboek enpresei ekar diezazkietela aukera berriak lehiakortasuna hobetzeko bidean, bai eta langileen eta gizarte osoaren mesederako ere.

Europako Batzordeak, ekintza positiboaren eremuan eginiko lanari jarraitu eta oraindik ere sendotzeko asmoa dauka, elkarlanean beti, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan lankide dituenekin: Estatu kideekin, berdintasunerako erakundeekin, eskualde eta tokiko agintariekin eta gizarteko solaskideekin. Batzordeak uste du berebiziko zeregina duela berak, ekimen berrien bultzatzaile gisa eta informazio eta eskarmentuen trukaketaren eragile gisa.

Zuen arreta bihotzetik eskertuz, zuen galderei erantzuteko prest naukazue. Esker anitz.

Emakumearen Institutua legez sortu zen 1983ko urrian eta bere jarduna antolatu du Emakume eta gizonen arteko Aukera-berdintasunerako Egitasmoen bitartez. Egitasmoak programako dokumentuak dira eta bertan adierazten dira helburuak eta helburu horiek lortzeko, egitasmoa indarrean den bitartean, aurrera eraman behar diren ekintzak.

Urte hauetan Emakumearen Institutuak berdintasunerako hiru egitasmo ukan ditu. Azkena 1997ko martxoan onartu zen eta 2000. urtea arte izanen da indarrean.

II. eta III. Egitasmoen aurkezte dokumentuek esaten dute, indarraldia amaitutakoan ebaluazioko txostena igorri behar zaiola Ministroen Kontseiluari eta indarrean den bitartean, berriz, egitasmoaren segimenduzko urteko txostena eginen dela.

Horretarako, bere garaian II. Egitasmoaren segimendu eta ebaluaziorako eredu bat diseinatu zen, eta eredu horri jarraituko gatzazkio gehienbat, III. Egitasmoa ebaluatzeko.

Emakumearen Institutuak erabilitako ebaluatze ereduak aurkeztu aurretik, zenbait gauza seinalatu nahiko nuke:

Lehenik esan, ebaluazioko ikerketak gero eta interesgarriagoak gertatzen ari direla sektore askotan, batez ere zeregin garrantzitsua dutelako, gizarte demokratikoei bete nahi dituzten gizarte programak sortzerakoan, planifikatzerakoan, garatzerakoan eta baloratzerakoan.

Bigarrenik esan, ebaluazio kontzeptua oso berria dela, zehatz eta sistematikoki egiten den jardura gisa ulertua, hogeita hamarreko hamarkadan sortu zen, alor honetako ikertzaile ospetsuenetakoa den Ralph Tyler-en eskutik. Aurretik ebaluazio saiotoxoak eginak ziren arren, Gizarte Zientzietako ikertze teknikak aplikatzera mugatzen ziren (inkestak, esperientzien konparaketak, etab.)

Hirugarrenik, ebaluazio kontzeptuak ez duela adiera bakarra, baizik eta gora behera handiak ukan dituela historian zehar, mende honen hasieran lehen urratsak egin zirenetik hona.

Eta azkenik, zenbaitek galdetuko dute, Zertarako ebaluatu, abiaturiko Egitasmo edo Programak? Gastu publikoa beti kontrolatu behar bada, oraingoa bezalako garai ekonomikoki estuan areago behar da kontrolatu. Gogoratu besterik ez dugu, programak ebaluatzeko booma eman dela hirurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik eta bereziki 1973ko petrolio-krisiaren ondorioz, honek beheraldi ekonomikoa ekarri baitzuen eta halatan gastu publikoa kontrolatu behar handia ere bai. Garai hauetan sortzen da, beraz, kontuak errenditu beharra (accountability).

Bestalde, agintari politikoek informazioa behar dute, sistemak —kasu honetan gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuneko sistema— arautzeko politika orokorreko erabakiak hartzen lagun diezaien.

Horrez gain, gizarte demokratikoetako iritzi publikoak eskatzen du, aurrera eramaten diren sistema, zerbitzu edo Programen gaineko informazioa eta jakin nahi du zertan erabiltzen den, ordaintzen dituzten zergetako dirua.

Berdintasunerako politikak ere ezin bestela eraman. Egitasmo berria abiatu aurretik jakin behar da nola joan den aurrekoa, eta areago, indarrean dagoena amaitu aurretik jakin behar da nola gauzatzen ari den, izan daitezkeen hutsuneak betetzearren.

Ebaluazioaz mintzatzerakoan, dagoen bibliografia ebaluazio mota jakinei buruz mintzo da, eta ebaluazio horiek guztiak programa berari aplikatu dakizkioke eta bakoitzak programaren alderdi bati begiratzen dio. Francisco Alvira-k (1991) honako ebaluazio motak bereizten ditu, besteak beste:

1. BEHARREN EBALUAZIOA. Dauden beharrak aztertzen dira, behar bezala ulertuz bat ez etortzea hautemandako egoera eta onargarria dena. Fase honetan aztertzen dira ere dauden baliabideak eta programari loturik egin diren ikerketak, eta lehentasunak ezartzen dira.
2. EBALUAGARRITASUNA EBALUATZEA. Aztertu behar da ea programa ebalua daitekeen. Dokumentuen azterketaren bitartez egiten da, norbanakoei elkarrizketak eginez, etab...
3. GAUZATZEA EBALUATZEA. Programa eta funtzionamenduko egitasmoa nola eramaten diren aurrera ebaluatzen da.
4. HEDADURAREN EBALUAZIOA. Aztertu behar da zenbateraino iristen den programa, helburu duen biztanleriarengaino.
5. EMAITZEN EBALUAZIOA. Emaitzak ebaluatzea, programaren eraginkortasuna ebaluatzea da. Programak zituen xedeak erdietsi dituen ala ez jakiteko informazioa biltzea da.
6. ERAGINAREN EBALUAZIOA. Emaitzen ebaluazioaren antzekoa da. Emaitzen ebaluazioan aztertzen da programak nolako emaitzak eman dituen, programaren helburu zen biztanleriari begiratu, eta eraginaren ebaluazioak berriz aztertzen du programak nolako eragina ukan duen biztanleria zabalagoan, nola edo hala, programaren helburu zen biztanleriarekin harremanetan dagoena halere.

Emakumearen Institutuko ebaluaziorako ereduarekin bilatzen da:

- Egitasmoa nola abiatzen den jakin eta zer nolako ekintzak egin diren egitasmoa burutzeko.
- Egitasmoak gauzatu zein emaitzak lortu diren aztertzen da, edo zehatzago esatearren, egitasmoak indarrean izan diren urteetan zehar zein aldaketak eman diren funtsezko eta garrantzitsutzat hartzen diren alderdietan.
- Aztertu nola ikusten duten egitasmoen gauzatzea, aurrera eramaten diren ekintzekin zuzenki lotuak izan diren pertsonen edo taldeen.
- Egitasmoak gauzatean azaldu diren eskasiak bilatu, bai eta azaldu diren aberastasunak ere, hurrengo egitasmoa prestatuko duten aukera-berdintasunerako politiketako arduradunek aintzat hartu beharko dituzten kontuak eta gomendioak seinatuz.

Institutuaren Berdintasunerako Egitasmoen ebaluaketa diseinatzerakoan kontuan hartu behar da egitasmoak elkarren jarraian doazela etengabe eta ezinbestekoa dela egitasmo batek nola funtzionatu duen jakitea, hortik ateratako ondorioak hurrengo egitasmoa prestatzerakoan baliatzeko. Honakoan ez gara, behin amaituz gero jarraipenik ez duen programa baten ebaluaketaz ari, aitzitik, ebaluatuko den egitasmoak oso antzeko eta hari jarraituz prestatuko diren egitasmoak dituzte.

Berdintasunerako egitasmoak ebaluatzearen kasuan, ekintzarako edo erabakiak hartzerako laguntza ez doakio soilik ebaluatutako egitasmoari, baizik hurrengoei ere.

Institutuaren egitasmoak ebaluatzeko proposatu eta erabilitako ebaluazioko diseinuak begiratzen ditu:

- Gauzatzearen ebaluazioa.
- Emaizten ebaluazioa.

Hala koantitatiboki nola koalitatiboki.

GAUZATZEAREN EBALUAZIOA eginez ezagutu nahi dira, Egitasmoan aurreikusitako jarduera guztiak banan-banan eta osoki betetzeko, Egitasmoa indarrean den bitartean, aurrera eramaten diren ekintzak.

Oraindik orokorregia den helburu hau beste bi hauetan zehaztu da:

- Egitasmoa zenbateraino bete den jakitea, hau da, zein jarduera eraman diren aurrera eta zeintzuk ez.
- Egitasmoa nola gauzatu den jakitea, hau da, egitasmoa gauzatzeko aurrera eraman diren ekintzak zehazki deskribatzea.

Ebaluaketa honen hasieratik bukaeraraino erabilitako prozedura eta informazioa biltzeko teknikak, honako hauek izan dira:

- 1) Adierazleak mugatu eta zehaztea II. PIOM (Emakumeen Aukera-berdintasunerako Egitasmoa) deiturikoaren kasuan, eta ekintzak mugatu eta zehaztea III. PIOM delakoan. II. PIOMaren ebaluaketarako, egoera bakoitzeko adierazleen zerrenda egin zen, baina adierazle kontzeptua estatikoegia zen eta ez zuen Egitasmoaren abiatze prozesuaz behar beste informazioa eskaintzen, eta halatan III. PIOM delakoa ebaluatzeko zerrendatu dira, jarduera bakoitza betetzeko aurrera eraman beharreko ekintzak.
- 2) Adierazle edo ekintza bakoitzerako, egitasmoa indarrean den urte bakoitzaren amaieran betetzen den fitxa bana diseinatzea. Fitxa hauen bitartez, honako datuen gaineko informazioa bildu nahi da adierazlea edo ekintza identifikatzeko datuak (alorra, helburua, ekintza,...), denboran kokatzekoak (hasiera eta bukaerako datak, benetakoak eta aurreikusiak), garatze maila, bete ez bada zergatik ez den bete, erabilitako dirua eta erabilitako adierazlea edo ekintza deskribatzea.
- 3) Informazioa biltzeko fitxak, Egitasmoa osatzen duten jarduera desberdinak aurrera eramatearren arduraren emakumearen Institutuko Unitateek betetzen dituzte, bai eta Ministeriotako Sail desberdinek, nork berari dagokion jarduerarena betez.
- 4) Fitxetan bilduriko informazioa aztertzea, eta
- 5) Urteroko eta amaierako txostenak egitea, informazioa aztertu ondoren.

Lehen aipatu dudana bezala, EMAITZEN EBALUAZIOAK bereizten ditu ebaluazio koantitatiboa eta ebaluazio koalitatiboa deitu ditugunak.

Ebaluazio koantitatiboak aztertzen du, Egitasmoetan proposaturiko egiturazko aldaketan azpian datzaten eta aldaketak eskatzen dituzten alderdi edo dimentsioen bilakaera. Sexuaren arabera estereotipoak hartzen dira kontuan, baloreak, berdintasuneko jarrerak, bizitzaren kalitatea eta denboraren erabilerak.

Aipaturiko alderdien bilakaera aztertzeko, bi datu bilketa egiten dira, horretarako propio prestatuturiko galdera sorta aplikatuz, Espainiako biztanle adinez nagusi direnen arteko lagin esanguratsuari, bi une desberdinetan.

Lehen aldia, Egitasmoa indarrean jartzen den unean. Hortik ateratako neurria, ikerketaren oinarritzko maila da. Bigarren aldia Test-ostekoa litzateke, hau da, Egitasmoaren indarraldia amaitu ondoren eginiko neurketa.

Horrez gain, datu hauen guztien azterketetan, kontrol taldea dago beti, gizonezkoen kolektiboak osatzen duena, alegia. Halatan bada, diseinuak testurreko neurria eta test-osteko neurria dituelarik, bai eta talde esperimentalak —emakumeak— eta kontrol taldea —gizonak—, esan daiteke diseinu ia-esperimentalak dela, Campbell eta Stanley-ren terminologia erabiliz (1973). Defini daiteke, beraz, kontrol taldea duen aurre eta osteko diseinu bezala.

Informazioaren bilketa egiten da, elkarrizketa egiten zaionari galdesorta etxean aplikatuz.

Neurturiko alderdiak eta erabilitako eskalak honakoak ditugu:

- a) Sexuko estereotipoak. Ezaugarrien estereotipia eta rolen estereotipia neurtzen dira. Lehen kasuan ikusten da ea zenbait ezaugarri emakumeei gizonezkoiei baino gehiago egotzen ote zaizkien, horretarako, Bem-en Inbentarioan oinarrituriko 17 itemetako eskala aplikatu da, non subjektu bakoitzari eskatzen baitzaio esan dezala emakumeen zein portzentaiak eta gizonen zein portzentaiak duten ezaugarrietako bakoitza. Rolen estereotipia neurtzeko 9 itemeko eskala erabili da, eta elkarrizketaturikoek beren adostasun edo desadostasun maila erakutsi behar diete ematen zaizkien esaldiei.
- b) Baloreak. Bitartekoen baloreak eta xedeetako baloreak dituen eskala batez neurtzen dira. Lehena jokabide egokiei doakie eta bigarrena berriz, izatezko xede egoerei doakie. Oraingoan ere eskatu zaie subjektuei esan dezatela aipaturiko baloreetako bakoitza genero bati edo besteari ote dagokion.
- c) Genero berdintasunaren aurreko jarrerak. Ikusi nahi da ea herritarrak emakumeek gizarte eremu guztietan berdintasunez partehartzearen aldekoak diren ala ez; hau da, neurtzen da zenbateraino nahi duten emakumeek beren ohiko familiarikoa ama eta etxeandrea papera aldatzea. 25 itemeko eskala erabiltzen da; bakoitzak esaldi bat dauka, eta esaldi horren gainean zenbateraino dauden ados edo desados esan dezatela eskatzen zaie inkesta egiten zaienei.
- d) Bizi kalitatea. Pertsonak bere bizitzako zenbait alderdiekin (heziketa, familia, bikotea, adiskideak, osasuna, egoera ekonomikoa eta aisialdia) zenbateraino gustora dauden neurtzen duten eskala zenbait antolatu eta aplikatzen dira.
- e) Denboraren erabilera. Erabilera horiek neurtzeko, inkesta egiten zaienei eskatzen zaie esan dezatela zenbat denbora eman zuten aurreko egunean, egin daitezkeen zeregin orotan. Egiteko hauek hiru bloketan dira banatuak: Norbanakoen beharrak, Etxeko lanak, Heziketa, Ordainduriko lana eta Aisialdia.

Ebaluazio koalitatiboak ezagutu nahi ditu, Egitasmoak aurrera eramaten parte hartu duten emakumeen kolektibo desberdinetako talde esanguratsuek eta ministerioetako sailletako ordezkariak eta bestelako unitate administratiboek Egitasmoen gainean eginiko balorazioa.

Eta horretarako bi bide erabiltzen dira:

- A) Elkarrizketa sakonak, Administrazioan berdintasunerako politikak aurrera eramatearen arduradunenek Egitasmoaren gainean egiten duten balorazioa ezagutzeko.

Halatan, bukatua den balorazio bakarrean, hau da II. PIOMaren balorazioan, Egitasmoak dituen hamar arloetatik zazpi baloratu ziren, Administrazio Publikoetako Ministeritzako, Justizia eta barne Ministeritzako, Lan Ministeritzako, Hezkuntza Ministeritzako eta Industria eta Osasuneko Ministeritzetako ordezkariak 11 elkarrizketa egin zitzaizkielarik.

- B) Eztabaida taldeak, emakumeen kolektibo zenbaiten ordezkariak osaturik. II. PIOMa ebaluatzeko eginiko zortzi eztabaida taldeetan, ondoko taldeetako ordezkariak hartu zuten parte:
- Emakumeen Ikasketetako Unibertsitateko Institutu eta Mintegiak.
 - Kulturara hurbiltzeko eta alfabetatzeko formakuntzako ikastaro edo programetan parte hartutako emakumeak.
 - NOW ekimenak, emakumeak lan munduan sustatu eta sar daitezzen bultzaturiko ikastaroetan parte hartzaileak.
 - Elkarrekin feminista, politiko, heziketako, gizarteko, etabarretako kideak diren emakumeak.
 - Administrazio edo enpresa publikoetan nola pribatuetan zuzendaritzako edo zuzendaritza aurreko postuak zituzten emakumeak.
 - Azken urtean haurra egin eta osasun zerbitzu publikoak artaturiko emakumeak.
 - Emakume baztertuen kolektiboetako kide edo laguntzaile diren emakumeak.

Elkarrizketa bakoitzerako eta eztabaida talde bakoitzerako, heldu beharreko gaien gidoia prestatu zen.

Emaitzen ebaluaketa egiteko diseinaturiko ebaluazio koalitatibo eta koantitatiboekin batera, helburu horretarako baliagarria da ere, Emakumearen Institutuak publikatzen duen *Mujeres en Cifras* (Emakumeak zifretan) aldizkaria. Aldizkari honek aldagai eta adierazle objektiboak ematen ditu eta helburu horretarako sortu ez bazen ere, erabiltzen da emakumeak garai jakin batean eta denboran zehar gizonetik nolako egoeran dauden jakiteko, honako arloetan: Demografia, Famili bizi-tza, Hezkuntza, Lana, Osasuna, Gizarte eta politikako Partehartzea, Bazterkeria eta tratu txarrak eta Gizarte Zerbitzuak.

Hortaz, erabilitako diseinua eklektikoa da, zeren eta metodologia koantitatibo eta koalitatiboa erabiltzeaz gain, parte koantitatiboak, metodo zientifikoan oinarriturik dagoenak, erantzun nahi baitie Administrazioan erabaki ahalmena dutenei eta bestelako hartzaileei: Egitasmoen helburu diren emakumei eta Ministerioetako Saitetako arduradunei. Ebaluazio hezitzailea da —inplementazioa— eta ebaluazio batukaria da —koantitatiboa—, eta....

Hasieran esan dudana bezala, gaur egun ez daiteke Egitasmo bat pentsa, ebaluazioa eta ebaluazioerako sistema edo metodoa aurretik prestatzen ez duena.

Ez da ordea erraza, hau Berdintasun Egitasmoetan egitea, zeren eta Egitasmo hauetako jarduerak eremu askotan eramaten baitira aurrera eta organismo asko eta asko ikutzen baitituzte. Baina ebaluazioaren garrantzia ere handia da, ordea, honen bitartez bakarrik jakin baitaiteke programa batek nolako kalitatea duen, egindakoaren eta emaniko diruaren eraginkortasuna zenbatekoa den eta diseina daitezke, beraz, lortu nahi dena lortzeko etorkizunerako jarraibide eraginkorrak, kasu honetan gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, alegia.

*Sarrera***1.**

Egun on.

Lehenik eta behin eskertu nahi diot Emakunderi, berdintasunerako politikak ebaluatzeari buruzko jardunaldi hauetan parte hartzeko egin didan gonbitea.

Antolatzaileek eskatu didate, Catalunya-n berdintasunerako egitasmoak aplikatzen ukan dugun eskarmentuaz mintza natzaizuela.

Uste dut zuek guztiek ongi ezagutzen duzuela berdintasunerako egitasmoaren kontzeptua, hala nola hauen filosofia ere bai.

Ez naiz, hortaz, alderdi teorikoetan sartuko eta ekintza egitasmo jakin batzuetaz mintzatuko natzaizue zuzenean, izan ere, Catalunya-n egindakoetaz, beraien edukia aztertuz eta, bereziki argira ekarriz, egitasmo hauek aurrera eramaten topatu ditugun oztopoak.

2.

*Catalunya-ko Generalitat-eko
Gobernuaren berdintasunerako
politikak*

Catalunya-n, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko politika, 1987. urtean abiatzen da.

Hasiera beretik beharrezkotzat hartu zen, funtsezko lau printzipiotan oinarritzen zen estrategia prestatzea:

- Horizontaltasuna, hau da, berdintasunerako politika, Gobernuaren eta bere sailen jardun guztietan sarturiko funtsezko printzipioa zen.
- Gobernu osoak konprometitu behar zuen, halatan horizontaltasuneko printzipioa ahalbidetu eta eraginkor izan zedin.
- Aniztasuna, hau da, emakumeek parte hartu behar dute, behar den "kopuru kritikoa" lor dadin, zeren eta berdintasunerako politiken eremuan emanen diren jarduerak berritzaileak behar baitute izan beti, arrakasta lortuko badute.
- Catalunya-ko Generalitat-eko Gobernuaren berdintasunerako politika, emakumeen behar eta lehentasunekin batera joan da aldatzen.

Behin oinarritzko eskubideak eta haien legezko onarpena lortutakoan, berdintasunerako politikak, pixkanaka, honako hiru helburu lortzera zuzendu dira:

- Emakumeak sustatzera, inolako presentzia edo presentzia urria zuten lekuetan.
- Aukera-berdintasunera eta berdintasunezkoagoa den gizartearen eraikitzeke oinarri sendoak ezartzera.
- Parekotasunera, hau da, erantzukizun publiko eta pribatuak partekatuz.

Hiru etapa horiek ez dira elkarren jarraian eta oraindik ere gaur egun, zenbait gizarte ingurutan eta zenbait sektore jakinetan, ahaleginak xede bat edo bestera zuzendu behar izaten dira.

Sustapena, berdintasuna eta parekotasuna dira, Catalunya-ko Generalitat-eko Gobernuaren jarduera-egitasmoei ukan dituzten ardatzak.

Jarraian zehaztuko dizkizuet.

3. *Emakumeen aukera-berdintasunerako Catalunya-ko Generalitat-eko Gobernuaren berdintasunerako egitasmoei*

Ongi dakizuen bezala, jarduera-egitasmoei, berdintasuna lortzeko ekintzen multzo bat da.

Catalunya-ko Generalitat-eko sail desberdinek eramatzen dituzte aurrera, zein bere eskumenaren arabera.

Egitasmo hauek bultzatzeko ardura, Institut Catalá de la Dona delakoak du, erakunde honek bultzatzen du gobernuaren berdintasunerako politika.

Orain arte hiru Egitasmo gauzatu dira, horietako bi, jadanik amaituak eta ebaluatuak daude.

Orain arte eginiko bi Egitasmoetan, Europar Batasunaren Batzordeak seinalaturiko norabideei jarraitu zaie, bai eta emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erkidegoaren programei eta Gobernuak sinaturiko beste hitzarmenei ere.

Lehen Egitasmoa 1989-1992 aldiari zegokion.

Bigarrena 1994-1996 aldiari zegokion.

Hirugarrena 1998-2000 aldiari zegokion.

Denen oinarrian dago, berdintasuna iristeko beharrezkoa dela, legezko onarpenaz gain, baita gizartearen egiturak eta norbanakoen jarrerak ere aldatzea.

4. *I.I. Egitasmoa ebaluatzeke irizpideak*

Argi azaldu nahi dizuet, bigarren Egitasmoaren ebaluazioa dela orain artean egin dugun ebaluazio osotuena, bai jardueren kopuruagatik, bai eta elkarri loturik partehartzen zutenen kopuruagatik ere.

Hain zuzen ere, 7 eremu, 56 helburu eta 157 ekintzatan zegoen egituratua.

Ebaluaketatik, positiboak izan ziren emaitzak baino areago azpimarratu nahi ditut ebaluaketarako irizpideak, bost alderdiei begira egin zirenak:

1. Hartzen zituen eremuak.
2. Politikaren ardatzak.
3. Egileak.
4. Kolektibo hartzaileak.
5. Aurrekontuetako gastua.

4.1.

EREMUEN EBALUAZIOA

Egitasmoa eremu desberdinetan zenbateraino gauzatu zen ebaluatzeko aztertu zen, Egitasmoaren eremu nagusietako bakoitzean zenbat ekintza egin ziren eta zein helburu eraman ziren aurrera.

4.2.

POLITIKAREN ARDATZEN EBALUAZIOA

Hiru ardatz hartu dira kontuan: sustapena, berdintasuna eta parekotasuna, izan ere lehen aipatu ditudanak.

4.3.

EGILEEN ARABERAKO EBALUAZIOA

Guztira 26 egile desberdin aurkitu ziren, nahiz eta partehartze maila desberdina den beraien artean.

Egile horien artean seinalatu nahi ditugu Generalitat-eko administrazioko sailak, gizarteko eragileak, unibertsitateak, emakumeen elkarteak, etab.

4.4.

KOLEKTIBOEN EBALUAZIOA

Jardunak zuzentzen zitzaizkion kolektiboari doakionean ere azterketa egin zitzaion eta 23 kolektibo bereizi ziren eta bi bloke nagusitan banatu:

- Politikaren kolektibo onuradunak, zeintzuk banatzen baitira:
 - Norbanakoaren bizitzako garaiaren arabera.
 - Laguntza eta arta berezia behar direneko egoeren arabera.
 - Gizarte dimentsio kolektiboaren arabera.
- Bitarteko kolektiboak, hau da, talde jakin baterako nahi diren helburuak erdiesteko baliatzen direnak; azpimarratu nahi ditugu:
 - Komunikabideak.
 - Ikasleen gurasoak.
 - Enpresak, patronalak eta sindikatuak.
 - Emakumeen elkarteak.
 - Eta abar.

4.5.

GASTUAREN EBALUAZIOA

Bosgarrenez eta amaitzeko, aurrekontuko gastuaren arabera ebaluatu da Egitasmoa, kontuan sarturik bakar bakarrik emakumeei edo berdintasuna sustatzera bereziki zuzenduriko gastuak, eta ez ekintza mistoak.

5.

III Pla d'actuació del Govern de la Generalitat de Catalunya per a la igualtat d'oportunitats per a les dones 1998-2000

II. Egitasmoaren ebaluazioaz, bai eta:

- Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako Erkidegoaren IV. Egitasmoan (1996-2000) dauden estrategiak .
- Emakumeei buruz Pekin-en 1995ean eginiko Munduko IV. Biltzarraren Ekintza Plataforma.
- Catalunya-ko emakumeen Nazioko Kontseiluaren bitartez (Consell Nacional de Dones de Catalunya) aurrera eramaniko partehartze prozesua.

Emakumeen aukera-berdintasunerako Catalunya-ko Generalitat-eko Gobernuaren III. Jardun-egitasmoa 1998-2000 (III Pla D'actuació del Govern de la Generalitat de Catalunya per a la igualtat d'oportunitats per a les dones 1998-2000) prestatu da.

Hirugarren Egitasmo hau Gobernuak urtarrilaren zazpian onartu zuen.

Dituen helburuak eta edukia laburtzen saiatuko natzaizue jarraian.

5.1.

HELBURUAK ETA EDUKIA

Lehenik seinالاتu behar da lehenego Egitasmotik hirugarren honetara bilakaera nabaria dela.

Lehenengo Egitasmoak emakumeak sustatzera zuzenduriko ekintzak zituen batez ere.

Bigarrenak aukera-berdintasunari begiratzen zion batez ere.

Hirugarren honek, aldiz, parekotasuna lortu nahi du eta generoko ikuspegia eremu guztietan ezarri.

Labur esateko, esan dezakegu hirugarren Egitasmo honen helburuak honako hauek direla:

- Gizartea parekotasunaren alde jarri.
- Gizon eta emakumeen artean gizarte hitzarmen berria ezarri.
- Egungo egiturak aldatu, gizonak eta emakumeek parekotasunez har dezaten parte eremu orotan.

Guztira Egitasmo honek biltzen ditu:

- 8 eremu.
- 28 helburu.
- 98 jarduera.

6. *Berdintasunerako politiketan generoko ikuspegia sartzeko eragozpenak*

Politika eta programetan generoko ikuspegia sartzeko topatzen ditugun eragozpenak bi bloke nagusitan bana ditzakegu:

- Egiturazkoak, edo kulturalak ere dei ditzakegunak.
- Aurrekontukoak deituko ditugunak.
- Egiturazko edo kulturazko eragozpenek bi alderdi dituzte:
 - Barneko alderdia, administrazioaren barnean.
 - Kanpoko alderdia, gizartean oro har.

Bi alderdiek osagai berberak dituzte, ukan ere funtsean hauek dituztelarik:

Portaera ikasi batzuk daude bai eta nagikeriaz aritzen diren egiturak, eta horietan aukera-berdintasunari loturiko diskurtsoa eta jarduna sartzeko, egokitze prozesu baten beharra dago, prozesu hau maiz oso motel izaten delarik, nahiz eta beti aurrerantz doan.

Eskema hau aplika dakioke administrazioaren funtzionamenduari ere, edota sindikatueta edo enpresetako egiturei, alderdi politikoei, etab.

Hau ez da gaindiezinezko oztopoa, baizik eta denborarekin eta maila orotan sentsibilizazio lan jarraitua eginez gainditzen dena.

- Arazotako bigarren multzoan aurrekontuko arazoak ditugu, lehen esan dugun bezala.

Arazo hauek ez dituzte berdintasunerako politikak bakarrik, baizik eta eremu eta sektore orori agertzen zaizkienak dira.

Baina berdintasunerako politikak berri samarrak nola diren eta etengabeen berritu beharrean nola diren, atzerakada ekonomikoak kalte handiagoa egiten die, ez gutxiago inbertitzen delako, baizik eta prozesua bizkortzen saiatzeko gastua handitzea zaila delako.

Hala eta guztiz ere, eta ene saioa gogoeta batekin amaitzeko, gaur egungo egitasmoak hobetzen saiatu behar dugu bai eta lanerako tresna berriak bilatzen ere.

Orain artean aurrera eraman diren Egitasmoak baliagarri eta eraginkorrak gertatu dira, eta halatan, Pekin-en erabakitako Ekintza Plataformak gomendatu egiten ditu biziki.

Halarik ere, ez dugu pentsatu behar Egitasmoak direnik jarduteko era bakarra.

Horrekin batera, beraien egitura eta ebaluatze metodologia hobetzen ditugun bitartean, metodo osagarriak bilatu behar ditugu, generoko ikuspegia eremu orotara eraman dezagun.

Badakigu prozesu motel eta korapilatsua dela, baina halere, uste dut esan dezakegula, jadanik gelditu ezinezko prozesua dela.

Eskerrik anitz.

1. *EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea*

EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea, 1988ko otsailaren 5eko Lege batez sortu zen eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren menpean dagoen Erakunde Autonomoa da. Funtsezko xedea du, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea, Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialetako eremu orotan.

EMAKUNDE Erakunde sustatzaile eta koordinatzailea da. Egiteko nagusia, beraz, gure Erkidego honetako Erakundeak gai honetan dinamizatu eta koordinatzea du, gizon eta emakumeen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko politika publikoen bultzatzaile izatea, alegia. Hala izanik, lana Euskal Administrazioaren barnera zuzentzen du, beronen hiru mailetan arituz: Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak.

Aldi berean, euskal herritar guztiak gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren alde sensibilizatu, hezi eta ohituratzeko ekintzak bultzatzen ditu ere, zeren eta proposatzen diren gizarte aldaketa sakonak ezin baitira eman Administrazioaren eskuhartze hutsarekin eta gizarte osoak bereganatu behar baititu ere.

2. *Ekintza Positiboko planen sustaketa eta koordinaketa*

Administrazioak Ekintza Positiboko Planak gauza ditzala sustatu eta gauzatze horren segimendua egiteko funtsezko egiturak honako hauek ditugu:

Administrazio orokorrarekin sustatze eta koordinatze lanak: Eusko Jaurlaritza	Sailen arteko Batzordea Lehendakaria buru Sail bakoitzaren ordezkari gisa Sailburuorde bat
Lurralde eta Toki Administrazioarekin sustatze eta koordinatze lanak: Aldundi eta Udalak	Lurraldearteko Batzordea Hiru Foru Aldundietako ordezkariak eta hiru hiriburuetako Udaletakoak

Euskal gizartean eskuhartzeko bide hauek erabiltzen dira:

ALDAKETA ERAGILEAK	<ul style="list-style-type: none">• EMAKUMEEN ELKARTEAK• GOBERNUZ KANPOKO BESTELAKO ERAKUNDEAK• ALDERDI POLITIKOAK• GIZARTE ETA EKONOMI ERAGILEAK
GIZARTEA SENTSIBILIZATU ETA MENTALIZATZEA	MINTEGI ETA JARDUNALDIAK GIZARTEA SENTSIBILIZATZEKO KANPAINAK

3.

Ekintza Positiboko Planak

Aukera berdintasunerako ekintza eta programen ardatza Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana dugu (aurrerantzean EEEPP). Emakunderi doakio Plan hau prestatu, sustatu, koordinatu eta ebaluatzea; Plan honek antolatzen ditu Euskal Administrazioak Legealdi bakoitzean aurrera eraman behar dituen gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politikak. Halatan bada, Plan honek Emakunderi berari ere ezartzen dizkio, berari dagozkion gaietan aurrera eraman beharreko ekintzak.

Emakunde sortzarekin batera "Emakumeek tratu eta aukera berdinak ukan ditzaten hartu beharreko Ekintza Positiboko Neurriak" onartu ziren, ondoren Ekintza Positiboko bi Plan onartu dira, lehena 1991-1994 Legealdirako eta bigarrena, oraindik indarrean dagoena, Legealdi honetarako.

Ekintza Positiboko bi plan hauek prestatzerakoan aukera eman zaie, bai Administrazioari berari, bai eta alor desberdinetan lanean ari diren profesional adituei ere parte hartze handia ukan dezaten, jardun eremu bakoitzean proposatu beharreko neurriak aztertu eta eztabaidatzeko lan mintegiak antolatuz eta Plan bakoitzak dituen jendaurreko azalpen faseetan bildutako iradokizun eta zuzenketak kontuan hartuz.

Horrez gain, bestelako elementuak ere hartu dira kontuan: Emakumeek gure Erkidegoan duten egoera berezia, gure Erkidegoak autogobernatzeko duen eskuduntza maila, estatuan nola European aurrera eraman diren aukera berdintasunerako beste planak aztertzea.

Bigarren EEEPPa prestatzerakoan kontuan hartu dira ere lehen planaren emaitzak. Plan bakoitza, Emakundek prestatu eta Zuzendaritza Batzordeak onartu ondoren, Jaurlaritzak onartzen du eta gero Eusko Legebiltzarrerara aurkezten da.

3.1.

EEEEPP-AREN FILOSOFIA ETA ESTRATEGIA

Planen funtsean den estrategia hiru zutabe nagusietan datza:

- Euskal Administrazioari Emakumeen aurkako bereizkeria ezabatzeko eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatuko dituen politikak eta neurriak garatzea ahalbidetuko dion tresna izatea.
- Aukera berdintasunaren ikuspegitik aritzeaz gain, —zeinaren funtsa baita Estatuak, ematen den edozein desberdinkeria zuzentzeko eta sexuen artekoak bereziki zuzentzeko, zeregin ahalik eta txikiena egin behar dueneko uste liberala— aritu beharra dago ere emaitza berdina lortzeko ekintza positiboko neurriak garatuz. Horretarakoxe prestatu dira Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planak eta ez Aukera Berdintasuneko Planak.
- Euskal gizartearekin batera eta hari estuki lotuak lan egin. Gizon eta emakumeen artean benetako aukera berdintasuna ezartzeak eskatzen du erakunde, organizazio eta gizarte jarduneko eremuak aldaraztea, hala alor publikoan nola pribatuan ere. Eskatzen du ere, aspaldian erroturiko balore eta jarrerak aldatzea. Aldaketa sakonak dira, beraz, botere publikoen jardun hutsarekin ezin lorturikoak. Behar beharrezkoa zaigu, beraz, aldaketa hauek eragin nahi ditugun gizarte eragile guztion artean, bai publiko eta bai pribatuen artean, koordinaketa egitea.

Planok helburu eta ekintza zenbait proposatzen dute, alor eta azpialorretan kokatuak. Ekintzak, botere publikoek gara ditzaketen beharrezko jardunen proposamen zabala dugu. Planok adierazten digute halaberean, Euskal Administrazioiko zein erakundeek behar duten hartu bereziki, neurri hauek garatzeko ardura. Aldi berean adierazten digute ere, zein kolektiboen alde hartuko diren neurri hauek edo nori zuzendu beharko litzaizkiokeen.

EKINTZA POSITIBOKO PLANAK

1989-1990

EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN EMAKUMEEK TRATU ETA AUKERA
BERDINAK UKAN DITZATEN EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK

1991-1994	1995-1998
EUSKADIKO EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOKO LEHEN PLANA	EUSKADIKO EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOKO BIGARREN PLANA
ALORRAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Zuzenbidezko Ordenamendua • Kultura • Hezkuntza • Enplegua, Formakuntza, Lan harremanak eta Segurantzza Soziala • Osasuna • Gizarte Zerbitzuak • Lankidetzza 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa egokitzeko eta arauzko neurriak • Kultura eta Komunikabideak • Emakumeen Partehartze Soziopolitikoak • Hezkuntza • Enplegua, lan bidezko formakuntza eta lan harremanak • Familiarekiko eta laneko erantzukizunak batera eramatea • Osasuna • Gizarteratzeko baliabideak • Lankidetzza
34 azpialor, 84 helburu, 324 ekintza	34 azpialor, 93 helburu, 396 ekintza

4.

EEEEPPa indarrean izan deneko urteotan, bai eta Ekintza Positiboko Neurriak genituen lehen urteetan ere, Euskal Administrazioa betetzen joan da proposaturiko ekintzak eta Emakundek, Planaren segimendua egin beharrez, urtean urtean egin denaren gaineko txostena prestatu du. Honetarako jardun memoriak prestatu ziren, Plan osoaren betetze maila ebaluatzeko ere balia zezaketen ebaluatze metodologia erabiliz.

Hortaz, Emakundek lehentasuna eman zion Plana ebaluatzeko diseinuari, ebaluazioa garrantzi handikotzat baitzuen, EEEPParen azken helburu estrategikoa den benetako aukera berdintasuna lortzeko jardunbide eraginkorrak irekitzeko ezinbestekoa baitzen.

Honen gainean seinalatu behar dugu oso zaila gertatzen dela aukera berdintasuneko politikak ebaluatzea; zailtasuna ez da gure Erkidego honetan soilik gertatzen, Estatuko beste zenbait planen ebaluaketan eta Europako Erkidegoko herrialdeetan ere oro har gertatu da zaila ebaluaketa. Honako arazo hau aipatua izan zen gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren gaineko Europako Erkidegoko III Ekintza Programa ebaluatzeko txostenean, non seinalatu baita, alde batetik irizpide zehatzak falta zirela programaren arrakasta "ona" ala "txarra" ebaluatzeko eta bestaldetik politika hauek emakumeen burujabetzan zituzten eraginak neurtzeko adierazle egokiak ez zeudela edo ez zirela behar bezalakoak.

Halatan bada, honakoan ere katramilatua gertatu da ebaluazioa diseinatzea. Kontuan hartu behar da, eremu anitzetan eta eragile askok garatutako ekintzak direla ebaluatzen. Bestalde, aniztasun handia dago, hala gai alorretan eta helburuetan nola eskuhartze moduetan ere.

Lehenengo EEEPParen ebaluazioa egiteko elkarlanean aritu ziren Emakunde eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Euskal Herriko Unibertsitateko adituak. Hortaz, seinalatu behar dugu ez dela Administrazioak berak eginiko autoebaluazio hutsa, baizik eta Unibertsitateen partehartzearekin ikuspegi objektiboago eta halatan, zuhurragoaz begiratu zaio Administrazioaren jokamoduari eta etengabeen egiaztatu dira ebaluazioaren tresnak eta emaitzak.

4.1.

EBALUAZIOAREN HELMENA

Edozein politika publikoa ebaluatzerakoan bi ardatz nagusi ikus daitezke:

- Politikaren eraginaren ebaluazioa, hau da, politika horrek erdietsi nahi zituen helburuei begiratuz, zein ondorio ukan dituen ebaluatzea.
- Politika publikoaren beraren ebaluazioa. Honakoan, azterketak baloratzen ditu, aurrera eraman den estrategiak dituen alde on eta txarrak eta gauzatu diren ekintzen ezaugarriak. Ebaluatze honi gainera dakioke ere, politika eta ekintzak aurrera eramateko ardura duten erakundeek zenbaterako ahalmena duten politika eta ekintzok gauzatzeko.

EEEEPParen ebaluazioari doakionean erabaki zen zaila litzatekeela haren neurrien eragina ebaluatzea. Planaren helburuen arabera euskal emakumeen egoera zenbat eta nola aldatu zen ebaluatzea zatekeen. Eta ebaluazio hau behar bezala egiteko oztopo gandiezinak zeudela ikusi zen, gure inguruko herrialdeetan ere gertatzen den bezalaxe.

Zaila da erabili behar diren tresnak antolatzea. Gizartean ematen diren aldaketak, ohiko hainbat adierazle elkarren artean erkatuz neurtu ohi dira, hala nola emakumeen lanpostuen tasak aztertzea, emakumeek hezkuntza sistemaren maila desberdinetan duten partehartzea edo jasotzen dituzten gizarte laguntzak aztertzea. Alabaina, gizartean ematen diren aldaketak behar bezala neurtzeko, bestelako adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak ere behar izateaz gain, lanerako erabiltzen den lagina zabaltzea eskatzen du ere. Adierazle berri horiek erabiltzeko aurrekontu askoz handiagoa beharko litzateke.

Bestalde, adierazle hauek ez digute, besterik gabe, argi azaltzen ea aldaketak eman diren aurrera eramaniko politika publikoen karira ala politika horiekin zerikusirik ez duten bestelako faktoreen eraginez. Ez dute, beraz, ebaluatzen, aurrera eramaniko egintzek, eman diren aldaketetan ukan duten eragina. Gainera, halako ebaluazioak ekintzaren garapenaren parte behar du izan, hasiera hasieratik. Hau da, planifikatu eta ebaluatzea batera antolatuko lirateke hasieratik. Plana prestatzerakoan prest eduki behar dira jadanik, ondorengo ebaluazioan erabiliko diren tresnak. Halaberean, beharrezko informazioa sistematikoki bildu beharko litzateke, plana aurrera eraman bitarte osoan.

Zailtasun tekniko horiek eta aurrekontuko arazo horiek aintzat harturik, ebaluazioa bigarren ardatzera mugatzea erabaki zen, hau da, EEEPP-k proposaturiko politikak berak ebaluatzea, bai eta aurrera eraman behar dituzten erakundeei doakionean ere, alegia Euskal Administrazio Publiko osoa.

Halarik ere, Emakundek urtero egiten du, nahiz eta ebaluazioaren barne ez izan, emakumeek Euskadin bizi duten egoeraren gaineko eta egoera horren bilakaeraren gaineko txostena.

4.1.1.

EBALUAZIO MOTAK

Eginiko aukerari egokituko litzaiokeen metodologia ezartzeko asmoz, gure ebaluazioaren ardatzak ezarri zituzten hainbat Mintegi egin ziren. Aldi berean, Estatuan aurrera eramaniko Aukera Berdintasunerako hainbat Planei eginiko ebaluazioak aztertu ziren ere. Ebaluazio hauen ondorioz bereizketa bat jarri zitzaigun agerian, hots: ez dela gauza bera jarduera memoria eta plan horietako politika eta egintzen ebaluazioa.

Jarduera memoriak adierazten digu, plan batean proposaturiko zenbat egintza gauzatu diren eta nork egin dituen. Aztertutako plan zenbaitetan, jarduera memoria, plan horren ebaluaziotzat izan da hartua. Halatan ebaluazioa da plana zenbateraino bete den ikustea, zein neurrian gauzatu dira proposaturiko egintzak. Horrelako memorian ez da agertzen, aukeraturiko jardunbideen azterketa, eta ez da ere zehazten egindakoaren aukeraketa zenbateraino egokitzen zaion, Planak zuen estrategia orokorrari. Ez da, beraz, egindakoa proposatutakoarekin alderatzen, ez bada zein egintza bete den eta zein ez esateko soilik.

Ebaluazio mota hau, neurri handi batean, planak definitu, antolatu eta garatu diren moduaren ondorio dira. Plan bat defini daiteke, egin daitezkeen egintza sail baten moduan, aurretik egintza horien helburu den estrategia aztertuz edo aztertu gabe. Halakoetan, Plana, jardun orokorreko esparrua da, aurrera eraman daitezkeen ekintza zehatzen proposamenak baditu ere.

EEEEPPa, azken urteotan aurrera eramaniko aukera berdintasunerako beste planak bezalaxe, plan orokorra da, helburu orokorrak ditu eta ekintza zehatzen proposamenak ere, seinalatu gabe zein helburu zehatz erdietsi nahi diren.

Hala egin ere da, Plan hau martxan jartzearekin gai berria jartzen zelako abian, ordurarte Euskal Administrazioaren jardun politiko sistematiko eta planifikatuaren barruan ez zegoena. Hortaz, lehen urratsa, lortu nahi ziren helburu orokorrak zehaztea zen, eta lehen etapa honetan, beraz, ezin pentsa zitekeen, lehentasunak ezarri eta gauzatzeko egutegi zehatza ezartzea.

Horrez gain, EEEEEPPa plan orokorra da, Administrazioarako oro har eginiko lan proposamena delako. Eta halatan ezin zehatzago izan, zeren eta inplikaturiko administrazio bakoitzaren —orokorra, lurraldekoa edo tokikoa— aurrekontu ahalmena eta eskumenak desberdinak baitira eta bakoitzak zehaztu behar du bere plan berezia, EEEEEPPak seinalaturiko esparru orokorretik abiatuz.

4.1.2.

EEEEPP-A EBALUATZEAREN HELBURUAK

Lehen urteetan beraietan ere, jardun memoria baino zertxobait gehiago litzatekeen ebaluazioa lortu nahi zen. Ez zen bakarrik jakin behar zein egintza bete ziren eta zeintzuk ez ziren bete, baizik eta jakin nahi zen ere zein eduki eta izaera zuten egintza horiek. Halatan bada, informazioa biltzeko fitxa eta galdesortek gero eta alderdi gehiago biltzen zituzten.

Halatan erabaki zen ebaluazioak honako hiru alderdi nagusiak behar zituela:

- Zein egintza bete ziren jakiteaz gain, jakin behar zen ere nola bete ziren eta zein motakoak, zein klasekoak eta zein estrategiakoak ziren. Horretarako bi sailkapen ezarri dira: lehena EEEEEPParen alor eta azpialorren arabera, zeintzuetan argitzen baita zenbateraino bete den plana; eta bigarrenik, aukera berdintasunaren aldeko eskuhartze mota desberdinen eta izaeraren arabera sailkatuz.
- Egintzen hartzaile izan diren kolektiboak ezagutzea. Horretarako, aurrera eramaniko jardueren onuradun izan ziren gizarte talde desberdinen gaineko informazioa bildu zen.
- Politika mota hau, Euskal Administrazio Publikoaren eguneroko jardunean zenbateraino errotu ziren ezagutzea, hau da, zenbateraino sartu zituen Administrazioak bere ekintza agendan. Jakin nahi izan zen nola ikusten zuen Euskal Administrazioak bere egitekoa horrelako politika publikoetan eta nola eraman zuen hori bere jardunetara.

4.1.3.

METODOLOGIA

Hiru alderdi hauek aztertzeko informazioa bi tresnetatik atera zen:

- Euskal Administrazio Publiko osoari zuzenduriko urteko jardunen gaineko galdesorta, non zehazki galdetzen baitzitzaien zein egintza garatu zituzten, nolakoak ziren (helburuak, tresnak eta aplikatzeko bideak), erakundean eginiko lana (parte hartzen zuten langileak, eskainiriko baliabideak, ekimena, dinamismoa eta ebaluaziorako sistemak), jardunean aritutako erakundeak eta nolako kolektiboek zuzenduak ziren.

Galdesorta honek, ekintzen gaineko eta ekintzok, helburu metodologikoak betetzeko aurrera eramateko moduen gaineko datu hauek eskatzen zituen, informazioa ez zedin izan jarduera memoria hutsa, baizik eta aukera eman zezan egindakoa eta ezarritako dinamikak sakonkiago aztertzeko. Informazioa fitxetan biltzen zen eta informatikoki lantzen zen, ondoren aztertua izan zedin. EEEPPa indarrean izan zen bitartean urtero egindako txostenak informazio honetan oinarriturik egin ziren.

Informazioa lortzeko arazoak izan dira, beste herrialdetan gertatzen den bezala, Europar Batzordeak, bere planen ebaluazioan dioenez, zeren eta galdesortak ez baitira behar bezala betetzen edota areago, bete gabe geratzen dira. Konpondu beharreko beste arazoak izan ziren informazioari eman beharreko tratamenduarena, oso informazio konplexua baitzen.

Halarik ere, zailtasunak zailtasun, bildutako datuen kopuruak aukera ematen digu, behar beste zehaztasunez jakiteko, ez bakarrik zenbateraino gauzatu diren egintzak, baizik eta eskuhartze publikoan ematen diren joerak ere.

- Baliatu dugun bigarren tresna, Euskal Administrazio osoari, 1993. urtean igorritako inkesta berezia izan da; inkesta hau egin zen jakiteko nola ikusten zuen Administrazioak gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politikekin zuen konpromisoa eta zenbateraino sartuak ziren politika hauek erakunde bakoitzaren eguneroko jardunean, halatan jakin genezan haietako bakoitzak sortua ote zuen bere ekintza dinamika berea, etorkizunerako ekintza iraunkorra garatzeko gai izanen zena.

Ebaluazioaren funtsezko hiru gaiei doakienean: 1) Eginiko jarduerak eta hauen nondik norakoa 2) Kolektibo hartzaileak eta 3) Administrazio Publikoaren partehartzea, hiru ardatz hauen eta sorturiko kategoria analitikoaren arteko elkarrekintza ezagutu nahian, sistematikoki elkarren artean zeharkatu egin dira, halatan ezagutu ditzagun nolako eskuhartze publikoa eman den eta honen gaiean Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezarritako joerak.

JARDUEREN KATEGORIZAZIOA: ESKUHARTZE PUBLIKOKO DINAMIKETARA HURBILTZEN

Administrazio publikoak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean eginikoaren azterketa koalitatiboa egin asmoz, eta urtero, botere publikoen jardueren ebaluazio memoria Legebiltzarrean aurkezterakoan Emakunderi egin zaizkion iradokizunei jarraiki, horri zuzenduriko ekintzen tipologia analitikoa prestatu da.

Honen egiteko, kontzeptu analitikoetatik eta gauzaturiko jardueretarako ezarritako helburuetatik abiatuz, lehen lan unitate gisa jarduera (1). Horri jarraituz, jarduera mota desberdinak bereizi zi-

(1) "Ekintza" terminoa erabiltzen da, II EEEPPan proposaturiko ekintzak aipatzeko. Hauek orokor eta orientabidezkoak izanik, Administrazioaren erakunde eta maila desberdinetan zehazteko, "jarduera" deitu zaio aurrera eramano programa edo egite zehatz bakoitzari. Halatan bada, "ekintza" bat aurrera eramateko hainbat "jarduera" eman daitezke, oso ekintza gutxi direlarik, helburua berezkoa izanik, jarduera bakar batez gauzatuko liratekeenak.

ren, eta hauetako bakoitza azpimota zehatzagoetan zatitu zen. Tipologia honek, jarduera guztiak hartzen ditu bere barnean eta enpirikoki eraiki zen, azpimotetan ahalik eta zehaztasun handiena lortzen saiatuz. Motak, bestalde, helburuak analitikoki sailkatuz sortu ziren.

Eraikitako tipologiak bi irizpide ditu kontuan: 1) Nolako egintza den, hau da, zer lortu nahi den eta nori zuzentzen zaion; 2) jardueraren eduki zehatza, gizarte alorrari edo hartzen duen gaiari doakionean.

Lehen irizpidea sortzen da aukera berdintasun edota ekintza positiboko politika modu desberdinen gaineko definizio kontzeptualetik, lehen aipaturiko bidetik. Bigarrena, gauzaturiko jarduera bakoitzerako galdesortan zehazten ziren lorturiko datu enpirikoen arabera.

Lehen irizpidearen arabera bederatziz jarduera mota ezarri ziren. Bigarrenari jarraiki, berriz, bederatziz mota orokor horien barruko jardueren azpimotak finkatu ziren. Hortaz, batera erabili dira irizpide analitikoak eta nabaritasun enpirikoa. Honen ondorioz, honako jarduera mota eta azpimotak ematen dira:

JARDUERA MOTAK ETA AZPIMOTAK

1. KULTURA/AISIA.

- 1.1. Oinarrizko formakuntza.
- 1.2. Trebetasunetako formakuntza.
- 1.3. Aisia eta Kirola.
- 1.4. Kultura orokorra.

2. INFORMAZIOA/AHOLKULARITZA OROKORRA.

- 2.1. Eskubideak eta baliabideak.
- 2.2. Enplegua.
- 2.3. Erakundeen jardueren gainean.
- 2.4. Indarkeria eta tratu txarrak.
- 2.5. Familia.

3. SENTSIBILIZAZIOA.

- 3.1. Elkarrerantzukizuna.
- 3.2. Baterako hezkuntza eta estereotipo sexistak.
- 3.3. Baliabideak/eskubideak/aukera berdintasuna.
- 3.4. Hizkuntza modu ez sexistan erabiltzea.
- 3.5. Tratu txarrak/sexu erasoa.
- 3.6. Emakumearen egoera orokorra.
- 3.7. Osasuna.
- 3.8. Sexualitatea.

4. GENEROKO EZAGUTZA SORTZEN.

- 4.1. Ikasketak, ikerketak, txostenak, monografiak.
- 4.2. Hedapena, jardunaldiak, trukeak.
- 4.3. Diru laguntzak.

5. PROFESIONALENTZAKO FORMAKUNTZA.

- 5.1. Formatzaileen formakuntza.
- 5.2. Honako profesionalentzako formakuntza:
 - Hezkuntza.
 - Osasuna.
 - Administrazioako langileak.
 - Zuzenbidea.
 - Polizia.
 - Ikertzaileak.
 - Gizarte laguntzaileak.
- 5.3. Profesionalentzako aholkularitza.

6. BEREIZKERIAREN AURREKO EKINTZA ZUZENA.

- 6.1. Norbanakoenganako ekintza zuzena.
 - Lan bidezko formakuntza.
 - Aholkularitza: Juridikoa, enplegua.
- 6.2. Egituraren gaineko ekintza zuzena.
 - Legezkoa/arauetakoak.
 - Enplegu sustapena.
 - Gizarte zerbitzuak.
- 6.3. Sariak eta ekintza positiboak.
- 6.4. Sorospenekoa/bereizkeria leuntzeko zerbitzuak.
 - Zerbitzu bereziak.
 - Osasun/sexualitate programak.

7. EMAKUMEEN ELKARTEAK SENDOTZEA.

- 7.1. Aholkularitzarako formakuntza.
- 7.2. Elkarteetan biltzea sustatzea:
 - Zuzeneko sentsibilizazioa.
 - Aisia/kulturaren bitartekoa.
- 7.3. Diru laguntzak ematea.
- 7.4. Politiken diseinua/erakundeen koordinaketa.
- 7.5. Aholkularitza.

8. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN GENEROKO GAIAK SARTZEA.

- 8.1. Egitura bereziak sortu eta kudeatzea.
- 8.2. Hizkuntza modu ez sexistan erabiltzea.
- 8.3. Erakundeen koordinaketa maila desberdinetan: Euskadiko Autonomia Erkidegoa, Espainiar Estatu eta Nazioartekoa.
- 8.4. Dokumentuak, hedapena.
- 8.5. Erakundeek beste erakundeak diruz laguntzea.
- 8.6. Erakundeei aholkuak ematea.
- 8.7. Ikasketak/informazio bilketa.

9. NAZIOARTEKO LANKIDETZA.

- 9.1. GKE-ak.
- 9.2. Administrazioak + GKE.

Ikus daitekeenez, tipologia hau eraikitzeko erabilitako irizpide hauetako bakoitzak eskuhartze maila desberdinari begiratzen dio eta kunplitzen duten estrategia orokorraren arabera sailka daitezke.

1. Kultura/aisiakotzat sailkaturiko jarduerak ez dira bereziki zuzentzen, emakumeek bizi dituzten desberdinkeriazko egoerei irtenbidea berehala ematera, baizik eta gehienetan emakumeen aisialdia eta kultura orokorrean sustatzera zuzenduriko jarduerak izan ohi dira. Neurri hauen bitartez apurto nahi da etxean egoteak emakumeei dakarkien isolamendua, bai eta ondoren emakumeek beren egoeraren gaineko gogoetak egin ditzaten lagundu.
2. Informazioko jarduerak ematen dute, azpimotetan aipaturiko gaien gaineko informazio zehatza.
3. Sentsibilizazioko jarduerak berriz, informazioaz harat doaz eta emakumeak banaka eta taldeka, bizi dituzten bereizkeriazko egoerak azal ditzaten bultzatzeaz gain, biztanleria oro har ere sentsibilizatu nahi dute emakumeen eskubideen alde eta bereizkeriazko egoerak arbuia ditzaten. Halatan bada, sentsibilizazio jarduerak honen gaineko iritzi publikoa sortarazi nahi dute.
4. Kategoria honek generoko ezagutza sortzeari begiratzen dio eta bere barne hartzen ditu, emakumeen egoera bereziari buruzko datuen eskasia arintzera zuzenduriko jarduera guztiak, bai eta emakumeentzako aukera berdintasun eza nondik datorren eta nola ematen den ezagutzera zuzendurikoak ere.
5. Profesionalen kolektiboek zuzenduriko formakuntzari doakionean, esan behar da kategoria honek bere barne hartzen duela profesionalen beren lana diskriminaziorik gabeko irizpideekin egiteaz gain, generoen arteko berdintasuneko ikuspegiz ere egiteko aukera emanen dien formakuntza eta aholkularitza, hartara profesional hauek bihur daitezten, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikaren hedatzaile.

6. Zuzeneko ekintzak berriz, bere barne hartzen ditu, emakumeentzako aukera berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzera edota bereizkeria ezabatzen argi eta garbi zuzenduriko ekintzak. Ekintza zuzeneko hiru maila bereizi dira: 1) emakumeei banaka zuzenduriko ekintzak, maiz gai hainbaten gaineko formakuntza eta aholkularitza lanak izan ohi direnak; 2) emakumeen aurkako bereizkeriako egoera zenbait berehala leuntzera zuzendurikoak; 3) gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzera zuzendurikoak, bai egiturazko aldaketan bitartez, bai eta ekintza positiboko neurrien bitartez. Honelako hauek sakoneko aldaketak dakartzate, edo legetan edo birbanaketa ekintzetan (familiei laguntzeko zerbitzuak edo emakumeen enplegua sustatzea).
7. Emakumeen elkarrekin sendotzeko ekintzak deiturikoek oso garrantzizkotzat hartzen dute jardun publikoak emakumeen partehartze soziopolitikoak sustatu eta laguntzea eta horretarako bereziki laguntzea emakumeen eskubideen alde egiteko helburua duten elkarrekin.
8. Administrazio Publikoan generoko gaiak sartzearen kategoriak bere barne hartzen ditu, ekintza positiboko politika publikoak aurrera eramateko mekanismoak abiarazteko ekintzak. Honetarako behar da, alde batetik politika hauetarako egitura bereziak sortzea eta bestalde, lehentasunezko ekintzetarako programak diseinatu eta planifikatzea, beste erakundeekiko koordinaketa antolatzea eta Administrazioan ohikoak diren portaerak aldatzea.
9. Nazioarteko lankidetzaren izeneko kategorian sartuko genituzke, garapen bidean diren herrialdeetako emakumeak garapen horren egile eta diru laguntzen onuradun izan daitezkeen zuzenduriko jarduerak.

Bederatzi mota hauek, bestalde, hiru mailatan bildu dira, bakoitzak duen jardun estrategia orokorraren arabera:

1. Ezagutzaren gainean aritzea, jendea jakinaren gainean jarriz, sentsibilizatuz eta heziz.
2. Zuzeneko bereizkeriaren aurka eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde jardutea.
3. Bereizkeriaren aurkako politikari ekiteko egiturak eta erakundeak sortaraztea: erakunde publiko eta pribatuak.

Hiru mailak garrantzi handikoak izanik ere, gizon eta emakumeen arteko gizarte berdintasuna eraikitzearen alde modu sakon eta zuzenagoan lan egiten duena bigarrena dugu. Lehen aipatu dugun bezala, ekintza hauek gizon eta emakumeen arteko benetako aukera berdintasunerako bidea irekitzen dute eta emakumeen aurka ematen diren bereizkeriazko egoerak ezabatu nahi dituzte; honen eskatzen du, bai norbanakoen portaera bai eta gizartearen antolamendua errotik aldatzea. Lehen jardun mailak arlo ideologikoa aldatu nahi du, halatan gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria txartzat hartua izan dadin eta kultura demokratikoan onartezina. Hirugarren mailak, bereizkeriaren aurka aritzeko xedea duten erakunde berezien —hala Administrazioaren nola gizartearen— beharrari begiratzen dio. Halatan beraz, bai lehena eta baita hirugarrena ere, bigarren mailako zuzeneko politikak garatu ahal ukaiteko aurrebaldintzak zaizkigu.

Lehen mailan kultura/aisialdiko jarduerak ditugu, informazio eta aholkularitza orokorrekoak, sentsibilizaziokoak, generoko ezagutza sortaraztekoak, formakuntzakoak eta lankidetzakoak.

Bereizkeriaren aurkako ekintza zuzena bigarren mailari dagokio. Lehen aipatu dugun bezala, honakoan bereizi behar ditugu banakako ekintza zuzena, sorospenekoa, egiturazkoa eta ekintza positibokoa. Sorospenekoak bereizkeria leuntzeko zenbait zerbitzu eskaini besterik ez du egiten. Banakakoa aukera berdintasunerako estrategiaren parte da bete betean. Egiturazkoa eta ekintza positibokoa, berriz, bereizkeriaren euskarri den antolakuntza sozialean aldaketak eragin nahi dituen, hau da emaitzen berdintasuna lortu nahi duen ekintza strategiaren parte dira.

Hirugarren mailan, berriz, agertzen dira Administrazio publikoan generoko gaiak sartzeko ekintza motak eta emakumeen elkarteak sendotzekoak.

Tipologia honek, eta hiru mailatan sailkatzeak aukera ematen digu, beraz, Euskal Administrazioa, EEEPP-a gauzaten nolako bideetatik ibili den jakiteko, gehien egin diren jarduerak kontuan harturik.

Seinalatu beharreko metodologiako beste arazoa dugu jarduera guztiak modu berean hartu direla, beraien artean mailaketarik egin gabe. Esate baterako, jarduera bakoitzak eskatzen dituen baliabideen arabera aldeak izan daitezke (baliabide materialak, langileenak, denborazkoak, etab.). Galdesortan eskatu ziren datu hauek, baina ez zitzaizkigun erantzun eta halatan ezinezkoa gertatu zaigu jardueren arteko bereizketa hau egitea. Era berean, zenbait jarduera unean unekoak izan daitezke eta besteak berriz, luzapen eta sakontasun handiagoko programatzat har daitezke.

Honek azterketa zertxobait desitxura dezake, zeren eta eginiko jardueren kopuruaren arabera eginen baita azterketa hau, hauen arteko hierarkiarik seinalatu gabe. Halarik ere esan dezakegu zenbatze soil honek argi uzten duela zein joerak dauden eta erakusten du ere zein bidetik joan den, Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko 1991-1994 Plana aurrera eramaterakoan.

4.2. II EEEPP-AREN EBALUAZIOAREN METODOLOGIA

Lehen EEEPP-aren ebaluazioaren eskarmentuaren ondoren aldaketa handiak egin ziren II EEEPP-aren ebaluaziorako. Lehenik eta behin, ebaluazioari helburu berria eransten zaio. Halatan bi ditugu orain ebaluazioaren helburu orokorrak:

- Euskal Administrazio Publikoa konpromisu handiagoz lot dadila Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Emakumeentzako Ekintza Positiboko II Planaren Ebaluazioan (II EEEPP-a)
- II EEEPP-a ebaluatzea.

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOA KONPROMISU HANDIAGOZ LOT DADILA EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOKO II PLANAREN EBALUAZIOAN.

Helburu bereziak

- Erakunde Publikoek konpromisu eta partehartze handiagoak ditzatela Ebaluazioan.
- Erakunde Publikoek Ebaluaziorako eskainitako informazioa handitu eta hobetzea.

Erakunde Publikoen konpromisua eta partehartzea handitzeko asmotan, gehiago zehaztu zen II EEEPP-aren zein jardun Eremu eta Azpieremutan, bai eta Helburu eta Ekintzatan inplikaturiko zegoen bere eskuduntzengatik, Euskal Administrazio Erakundeetako bakoitza. Hau da, Administrazio Orokorreko 21 Erakundeetako bakoitzarentzako dokumentu berezi bana diseinatu zen (Jaurlaritzaren Sailak, Erakunde Autonomoak, Elkarte Publikoak), Foru Aldundietarako bat eta Udaletarako beste bat; dokumentu hauek hiru zatitan egituratuak ziren: Ekintzak eta bakoitzari loturiko adierazleak, ekintzak eta adierazleak zazpi kategorien arabera sailkatuak, eta zegozkien ebaluaziorako tresnak.

Horrez gain, prestatuturiko materialen helburu eta edukiak eman eta azaltzeko bilerak antolatu ziren. Administrazio Orokorrekin bilerak egin ziren, Sailen Arteko Batzordearen bitartez (bertan Eusko Jaurlaritzako Sail guztiak eta hauen Erakunde guztiak baitaude ordezkatuak) eta bilera hauetan, Jaurlaritzako Sail bakoitzak eta Erakunde Autonomo bakoitzak prestatuturiko materialaren zirriborroa eman zitzaientzen, egin beharreko aldaketak seinala ziezazkien. Horrez gain, Sail bakoitzak izendatu zuen Emakunde, Jaurlaritzako Sailak eta bere Erakunde Autonomoen arteko koordinaziorako arduradun bat. Ondoren, banakako bilerak egin ziren, batzuetan politikoekin eta bestetan teknikariek eta bilera haietan aurkeztu eta eman zitzaientzen behin betiko dokumentua.

Foru Aldundiekin erabilitako estrategia berdina izan zen. Banakako bilerak egin baitziren arduradun politikoekin eta materiala eman zitzaientzen. Ondoren, informatze bilerak egin ziren, Aldundietako departamentu edo Arlo desberdinetako teknikariek.

Udalen kasuan, zuhurtasunez, bilera hauek egin ziren soilik 2.000 biztanletik gora dituzten Euskadiko Autonomia Erkidegoko Udalekin (halatan EAEko biztanleriaren %95a hartuz.). Gainerako udalei dokumentua postaz igorri zitzaientzen, edukiaren azalpenekin eta helburuekin batera.

EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOKO II PLANAREN EBALUAZIOA.

Helburu bereziak

- Ezagutu zer nolako jarduerak egiten diren Euskal Administrazio Publikoaren hiru mailatan (Jaurlaritzako Sailak eta Erakunde Autonomoak, Foru Aldundiak, eta Udal aketa Mankomunitateak). Informazio koantitatibo eta koalitatiboa biltzen da.
- Eginiko jardueren hartzaile diren kolektiboak ezagutzea.
- II EEEPP-aren betetze maila ezagutzea. Hau da, aztertu ea zenbateraino betetzen ari diren Planak proposaturiko ekintzak.
- Jarduera guztien multzoa baloratu, balorazio hauetatik bidera dadin II EEEPP-aren gauzatzea, berau indarrean den bitartean.

4.2.1.

EBALUAZIORAKO TRESNEN DISEINUA

Lehen ebaluazioan gairitu beharreko zailtasuna izan zen, aurretik ezarritako adierazlerik ez edukitzea. Halatan bada, lehen fasean, II EEEPP-a prestatzarekin batera, bertan proposaturiko ekintza bakoitzerako adierazleak definitzeari ekin zitzaion (396).

Bestalde, II EEEPP-a, 396 ekintza zituen dokumentu anitza eta berariazkoa izanik, zailtasun handiak zeuden proposaturiko ekintza anitzei erantzun ziezaizkiekeen Tresnak prestatzeko (I EEEPP-a ebaluatzerakoan galdesorta bakarra erabili zen eta eskatzen zuen informazio handiagatik oso korapilatsua gertatu zen).

Berrikusi beharreko beste aldea tipologiaren aldea dugu, zeren eta haien erabilera korapilatsua gertatu baitzen, alde batetik batera aztertzen zitelako eskuhartze mota eta gaiak eta beste aldetik tipologia desberdinetako jardueren sailkapena egiten zelako jarduerari loturik emaniko informazioetik abiatuz eta hau ez zen beti behar bezain zehatza.

Zailtasun hau gairitzeko zazpi Kategoria nagusi definitu dira, non sailkatu egin baitira II EEEPP-an proposaturiko ekintza guztiak, eskuhartze motaren arabera. Kasu bakoitzean landuriko gaien gaineko informazioa, kolektibo hartzailearen gainekoa eta jarduera gauzatu deneko modu zehatzaren gainekoa ebaluazioan bildu eta aztertzen dira, baina ez dira sailkatze honetarako iritzi.

Kategoria horiek honakoak ditugu:

1. Sentsibilizazioa, Informazioa, Hedapena.
2. Orientazioa, Aholkularitza, Laguntza.
3. Formakuntza.
4. Ikasketak, Ikerketak eta Ebaluazioa egitea.
5. Baliabideak Zabaldu eta Egokitzea.
6. Koordinazioa, Lankidetzak, Trukea.
7. Arau Juridiko eta Sozialen gaineko Eskuhartzea.

1. SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, HEDAPENA: Kategoria honetan sartzen dira, II EEEPP-aren bederatzi eremutan proposaturiko gai desberdinen gaineko sentsibilizazio maila igotzea, informazio egokia areagotzea eta informazio desagokoa gutxitzea, bai kolektibo bereziei eta bai biztanleriari oro har ere zuzenduriko hainbat jardueren bidez (hitzaldiak, mintegiak, iragarkiak, liburuskak, etab.).

2. ORIENTAZIOA, AHOLKULARITZA, LAGUNTZA: Sail honetako ekintzek mota desberdinetako laguntza, orientazioa edota aholkularitza eskaini nahi dituzte (legezkoa, psikologikoa, lanbidekoa, heziketakoa,...), zerbitzu baten bitartez edo materialen bitartez, gomendioen bitartez, etab.

3. FORMAKUNTZA: Ekintza hauek kolektibo oso desberdinen heziketa orokorra edo berezia aldatu, hobetu edo areagotu nahi dituzte (emakumeak, profesionalak, irakasleak, enpresariak, politikariak, etab.). Sail honetako zenbait ekintzek formakuntzako programa berriak sartzen dituzte edo ezarritako programetan modulu berriak sartzen dituzte, etab.

4. IKASKETAK, IKERKETAK ETA EBALUAZIOA EGITEA: Kategoria honetan sartzen diren ekintzek, alor oso desberdinetan zabaldu nahi dute ezagutza (osasun fisiko edota psikologikoan, lanean, hezkuntzan, hizkuntzan, etab.).

5. BALIABIDEAK ZABALDU ETA EGOKITZEA: Kategoria honen barruan sailkaturiko ekintzek, gure Erkidegoak dituen baliabide ekonomikoak, pertsonalekoak, materialak, gizartearenak aldatzen dituzte, baliabideak sortuz, emanez, emendatuz, egokituz.

6. KOORDINAZIOA, LANKIDETZA, TRUKEA: Ekintza hauen helburua, gizarte eragile edota erakundeen arteko koordinazioa, lankidetzak eta trukea areagotzea da, horretarako jardunaldiak, biltzarrik, bilerak, hitzarmenak, eta abarrak antolatuz.

7. ARAU JURIDIKO ETA SOZIALEN GAINEKO ESKUHARTZEA: Ekintza mota hauekin, bereizkeria sortzen edo bultzatzen duten egoerak aldatu nahi dira. Emakumeei eta gizarteari oro har zuzenki edo zeharka on egiten dieten ekintzak dira, edo bestela, egoera larrian dauden kolektiboetara zuzendurikoak (familia kargak dituztenak, ezintasunen bat dutenak, menpekotasunen bat dutenak, kondenaren bat dutenak, etab.), honako hauek egintza berezia behar baitute aukera berdintasuneko plan baten onurak hartzeko.

Hala prestatuturiko Ebaluazio Adierazleek, nola II EEEPP-aren ekintza guztiak aipaturiko zazpi kategoria horietan sailkatzeak aukera eman dute ebaluaziorako tresnak diseinatzeko. Azken emaitza 7 galdesorta dira, ekintza kategoria mota guztietarako bana.

Zazpi galdesorteen lehen zatia denentzako bera da eta 11 item ditu: buruturiko ekintza deskribatzea, Planaren zein ekintzari dagokio jarduerak, zenbaterainoko harremana dago Planaren markaturiko ekintza eta buruturiko jardueraren artean (5 puntuko likert eskala, 1= ezer ez/ 2= zertxobait/ 3= dexente/ 4= handia/ 5= erabat), jarduerak horrekin bete nahi ziren helburuak, jardueraren hastapen data, jarduerak gauzatu duen Erakundea, Erakunde laguntzaileak, nolako laguntza, jardueraren lekuak, diruzko inbertsioak, buruturiko jardueraren kolektibo hartzaileak.

Gainerako galderak kategoria bakoitzerako bereziak dira eta Administrazio Publikoaren jokaera sakonago eta modu koalitatiboagoan aztertzeak aukera ematen dute (landuriko gaiak eta arazoak, nolako jarduerak egin den —jardunaldi, hitzaldi, ikastaroak, materialak,...—, jarduerak bakoitzean emandako orduak, partaideen kopurua, adina, sexua,...).

4.2.2.

EMAITZAK AZTERTU ETA AURKEZTEKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK

Galdesorteen bidez bilduriko informazioa lau sailetan banatzen da:

- EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN HIRU MAILEN JOKAERA

Euskal Administrazio Publikoak dituen joerak ezagutzeko asmoz, Erakundeek II EEEPP-ari loturik egindako ekintzak deskribatzen dira. Datu hauek aztertzen dira:

- Buruturiko ekintzak kudeatu dituzten Erakundeak.
- II EEEPP-aren zein Eremutan aritu dira.
- Zein mailatan (kategoriatan) eskuhartu dute.
- Egintzen hartzaile diren kolektiboak.
- Buruturiko jardueretan lagundu dituzten Erakundeak.
- Zein baliabidez lagundu dute Erakunde horiek.
- Planaren zein Eremutan lagundu dute.

- KOLEKTIBO HARTZAILEAK

Ebaluazio honen behar beharrezko aldea da ezagutzea Erakunde Publikoek aurrera eramano egintzak zein kolektiboek zuzentzen zaizkien. Hau funtsezkoa da baloratu nahi baditugu, alde batetik eginiko jardueren eta hartzaileen kolektiboen artean dagoen koherentzia eta bestaldetik, kolektibo bakoitzak gizartean edo lanean duen partehartzearen arabera egiten zaien kasua. Honako informazio hau ematen da:

- Jardueren hartzaile diren kolektibo bereziak.
- II EEEPP-aren eremuen arabera jardueren hartzaile diren kolektibo orokorrak.
- II EEEPP-aren azpieremuen arabera jardueren hartzaile diren kolektibo orokorrak.
- Eskuhartze kategorien arabera jardueren hartzaile diren kolektibo orokorrak.

- II EEEPP-AREN GAUZATZE MAILA

Atal honen helburua da II EEEPP-a gauzatzen urtetik urtera egiten diren aurrerapenak ezagutzea. Horretarako biltzen den informazioa honakoa da:

- II EEEPP-an proposaturiko ekintzen eta gauzaturikoen arteko erkaketa.
- II EEEPP-aren bederatzi eremuetako bakoitzean aurrera eramano jarduerak.
- II EEEPP-aren azpieremutako bakoitzean aurrera eramano jarduerak.
- II EEEPP-aren bederatzi eremuetako bakoitzean, zein mailatan (Kategoriatan) eskuhartu den.

Horrez gainera, Erakunde desberdinek II EEEPP-a gauzatzen hartu zituzten konpromisuak zenbateraino bete dituzten jakin nahian, erkatu egiten dira Erakundeek gauzaturiko Planaren ekintzak eta bere garaian bere gain hartu zituztenak, zeinak argi agertzen baitira “Administrazioa ebaluazioan parte handiagoa har dezala” atalean.

- KATEGORIA BAKOITZEKO BERARIAZKO EMAITZAK

Atal honetan, zazpi kategorია edo eskuhartze mailatako bakoitzean aurrera eramano jardueren gaineko informazio koantitatibo eta koalitatiboa ematen da. Informazio hau jasotzen da, kategoría hauetako bakoitzean ezarritako ebaluaziorako adierazleetatik.

1. Kategoría: Sentsibilizazioa, Informazioa eta Hedapena

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramano jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramano jardueratan landuriko gaiak.
- Planaren zein Eremutan kokatzen dira.
- Gehien erabilitako metodoak (hitzaldiak, liburuskak, mintegiak,...).
- Jarduera hauetan emaniko batezbesteko orduak.

- Argitaraturiko aleen batezbesteko kopurua (liburuskak, kazetak, liburuak,...).
- Horrelako jardueren onuradun zuzenak (kopurua, sexua, adina).
- Jarduera hauen hartzaile diren kolektiboak.
- Jarduera hauek aurrera eraman dituzten Erakunde Publikoak.
- Jarduerotan emaniko dirua.

2. *Kategoria: Orientazioa, Aholkularitza eta Laguntza*

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramaniko jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramaniko jardueretan landutako gaiak.
- Planaren zein Eremutan kokatzen dira.
- Gehien erabilitako metodoak (aholkularitza teknikoa, baliabideen gainekoa, zuzeneko aholkularitza, lanekoa,...).
- Argitaraturiko aleen batezbesteko kopurua (material didaktikoak,...).
- Horrelako jardueren onuradun zuzenak (kopurua, sexua, adina).
- Jarduera hauen hartzaile diren kolektiboak.
- Jarduera hauek aurrera eraman dituzten Erakunde Publikoak.
- Jarduerotan emaniko dirua.

3. *Kategoria: Formakuntza*

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramaniko jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramaniko jardueretan landutako gaiak.
- Planaren zein eremutan kokatzen dira.
- Formakuntza motak (aurreformakuntza, formakuntza teoriko praktikoa eta praktiken bitarteko formakuntza).
- Jarduerotan emaniko batezbesteko orduak.
- Horrelako jardueren onuradun zuzenak (kopurua, sexua, adina).
- Jarduera hauen hartzaile diren kolektiboak.
- Jarduera hauek aurrera eraman dituzten Erakunde Publikoak.
- Jarduerotan emaniko dirua.

4. *Kategoria: Ikasketak, Ikerketak eta Ebaluazioa egitea*

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramaniko jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramaniko jardueretan landutako gaiak.
- Planaren zein eremutan kokatzen dira.
- Jarduera hauek aurrera eraman dituzten Erakunde Publikoak.
- Jarduerotan emaniko dirua.

5. *Kategoria: Baliabideak Zabalduta eta Egokitzea*

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramaniko jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramaniko jardueretan landutako gaiak.
- Planaren zein eremutan kokatzen dira.
- Jarduera motak (baliabide edota zerbitzu batekin jarraitzea, baliabide edota zerbitzuak bultzatu edo laguntzea, baliabide edota zerbitzuak emendatzea eta egokitu eta malgutzea).
- Nolako laguntza edo sustapena eman den (diru laguntzak, tokiak, sariak, zerga arintze).
- Zenbat zerbitzu edo leku berri sortu den edo areagotu diren.
- Egokitze bideak (ordutegiaren malgutasuna, egutegiarena, oztopoak kentzea,...).
- Jarduera hauen onuradun zuzenak izan diren norbanakoak, familia unitateak, erakundeak (kopurua, sexua, adina).
- Jarduera hauen hartzaile izan diren kolektiboak.
- Jarduera hauek aurrera eraman dituzten Erakunde Publikoak.
- Jarduerotan emaniko dirua.

6. *Kategoria: Koordinazioa, Lankidetzak, Trukeak*

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramaniko jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramaniko jardueretan landutako gaiak.
- Planaren zein eremutan kokatzen dira.
- Jarduera mota (bilerak, baterako egitasmoak, hitzarmenak, biltzarrak, jardunaldiak).
- Jarduerotan aritutako kolektiboak (Erakunde Publikoak, Profesionalak,...).

7. *Kategoria: Arau Juridiko eta Sozialen gaineko Eskuhartzea*

- Jardueren kopurua.
- Zenbateraino lotzen dira aurrera eramaniko jarduerak, II EEEPP-an proposaturiko ekintzetara.
- Aurrera eramaniko jardueretan landutako gaiak.
- Planaren zein eremutan kokatzen dira.
- Jarduera hauek aurrera eraman dituzten Erakunde Publikoak.
- Jarduerotan emaniko dirua.

Horrez gainera, Erakunde desberdinek II EEEPP-a gauzatzen hartu zituzten konpromisuak zenbateraino bete dituzten jakin nahian, erkatu egiten dira Erakundeek gauzaturiko Planaren ekintzak eta bere garaian bere gain hartu zituztenak.

4.3.

LABURPEN GISA

4.3.1.

EBALUAZIO TRESNEN EKARPENAK

Galdesorta hertsia diseinatzearekin gutxitu egin da, Erakunde Publikoek emaniko erantzunen kodifikatzaileak sar zezakeen ikuspuntu partzialaren arriskua. Honela Erakunde Publikoek benetan gauzaturiko egintzak hobeto ezagutu daitezke.

Informazio koantitatiboaz gain, informazio koalitatiboa ere lortu da (eskuhartze metodoak, landuriko gaiak, kolektibo hartzaileen sexua, adina,...).

EEEEPP-an proposaturiko ekintzak zazpi kategoriatan biltzeak, berriz, aukera eman digu, zailtasun maila desberdina duten eskuhartze mailaz mintzatzeko. Eta honek aukera eman digu jakiteko ea gauzaturiko egintzak oinarri oinarrizko mailakoak diren (sentsibilizazioa, orientazioa) ala egintza horiek zuzentzen diren, aldiz, bereizkeriazko egoerak sortarazten dituzten oztopoak kentzera (formakuntza, baliabideak, gizarte eta legezko arauen gaineko eskuhartzea).

Garrantzizko beste ekarpena dugu, agerian jartzea zein alde dagoen Ekintza Plan terrikoaren eta Erakunde desberdinek aurrera eraman dituzten egintzen artean. Informazio hau funtsezkoa zaigu etorkizuneko Planak prestatzeko.

Halaberean, ebaluazio adierazleek erakutsiko digute nolako bilakaera egin duten gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako politika publikoek.

4.3.2.

II EEEPP-A GAUZATZEKO ARDURADUN DIREN ERAKUNDE PUBLIKOEN GAINEAN

Egiaztatu da Erakunde Publiko gehiagok eman dutela egin dutenaren gaineko informazioa.

Nabarmena izan da jasotako galdesorten emendatzea.

4.3.3.

AURKITURIKO ALBOKO HAINBAT ONDORIO

II EEEPP-a ebaluatzeko erabilitako diseinu hau garrantzizko erreferentzia gertatzen ari da, Erakunde Publiko zenbaitek prestatu dituzten edota prestatzen ari diren Lurraldeko edo Udaleko Planen ebaluazioa diseinatzeko.

4.4.

II EEEPP-AREN EBALUAZIOAREN MUGAK

Zailtasun handikoa gertatzen ari zaigu Administrazioko Erakunde guztiek aurrera daramatzaten egintzen gaineko informazioa eman diezaguten. Halatan bada, urtero edota legealdiaren amaieran biltzen ditugun emaitzek ez dute, aurrera eramaten ari den guztia erakusten. Honek eskatzen digu eskuhartze estrategien diseinua antola dezagun, ahal den neurrian zailtasun hau gainditzeko moduan.

Jadanik aipatu dugun garrantzi handiko beste muga dugu ebaluazio metodologia honek ezin duela ebaluatu horrelako Planen "arrakasta" edo "porrota". Ez du erakusten ea emakumeen egoeran

eman diren aldaketak beraiei esker gertatu ote diren. Horretarako aterabidea izan zitekeen, diseinu ia esperimentalak lituzkeen ebaluazioak eginen lituzketen programa bereziak diseinatzea. Baina aterabide hau ez da gaur egun posible, bai II EEEPP-aren diseinuagatik, bai eta diru kostu handiegikoa litzatekeelako ere.

Zailtasun handiak daude, horrelako ebaluazioek dituzten nahi eta beharrei egokitu litekeen esparru teorikoa aurkitzeko. Gaur egun ez ei dago, metodo zientifikoak dituen eskakizunei erantzun eta horrelako Plan baten konplexutasun osoa hartzeko bezain malgu den ebaluazio eredurik (egintza desberdinak, kolektibo desberdinak, jardun eremu desberdinak, Erakunde egile desberdinak,...).

Bibliografia

- CAMPBELL, D.T. (1969). "Reforms as Experiments", in *American Psychologist*, 24; in SUBIRATS, J., 1989, *Análisis de Políticas y Eficacia de la Administración*, Madrid, Instituto Nacional de Administración Pública.
- CRONBACH, L. J. (1982). *Designing Evaluations of Educational and Social Programs*, San Francisco, Jossey Bass.
- EMAKUNDE (1991). *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana 1991-1994*, Gasteiz, Emakumearen Euskal Erakundea.
- EMAKUNDE (1995). *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II Plana*, Gasteiz, Emakumearen Euskal Erakundea.
- ROSSI, P. H. & FREEMAN, H.E. (1985). *Evaluation. A systematic Approach*, London, Sage.
- SUBIRATS, J. (1989). *Análisis de Políticas Públicas y Eficacia de la Administración*, Madrid, Instituto Nacional de Administración Pública.

"Esparru Ideologikoa"

ISEL RIVERO Y MÉNDEZ

Espainian ONUk duen
informazio Zentroko
zuzendaria

ROBIN EVONNE MORGAN

Nazioarteko aholkularia
genero gaitan

"Gizarte mugimenduak"

**M^{re} ÁNGELES RUIZ-TAGLE
MORALES**

Emakumeen europar Lobby-
aren espainiar lehendakaria

NIEVES PÉREZ ALONSO

Euskadiko Emakumeen
Elkarteen Batzordeko Aholku-
-emailearen ordezkaria

Erabaki

hartzeko

unetan

emakumeen

sarbiderako

estrategiak

Arratsaldeon:

Emakumearen berdintasunaren alde bi esparruetan ari gara batera lan egiten. Nazioko esparrua bata eta esparru orokorra bestea. Biak elkarren osagarriak dira, zeren eta emakumeen nazioko eta eskualdeko organizazioek Nazio Batuetara eramaten baitituzte beren kezkek, ideiak, estrategiak, ikerketen emaitzak eta, garrantzizkoena, beren eskarmentuak.

Berrogeita hamaika urtez Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialerako Batzordeak berdintasuna lortzeko egin du lan. Bere lehenengo hogeita hamar urtetan, emakumea argi eta garbi diskriminatzen zuten nazioko legeak aldarazten eman zituen, hala nola botua, jabegorako eskubidea, gozoz ezkontzeko eskubidea, hiritartasunerako eskubidea, etab.

Alabaina, legeei doakienean zerbait lortu badugu ere, praktika oso eskasa da.

Emakumearen aurkako Bereizkeria mota guztien gaineko Hitzarmena ia 15 urtez izan bada ere indarrean, Estatuek, hitzarmeneko artikulua garatzen erakutsi duten ganora falta nabarmena izan da.

Beijing ondoren argi eta garbi geratu da munduko emakumeak bat datozela, berdintasuna oraindik lortzeke dagoela onartzen. Denok uste genuen, Beijing-en, gerra hotzaren borroka ideologiko politikoa alde batera utzia zelarik, errazago izanen zitzaikeela berdintasuna lortzea.

Ez da horrela gertatu, ordea. Sobietarren inguruko Estatu Independienteetako Erkidegoko emakumeek, ikuspegi marxistak ekarritako abantaila guztiak galduak zituzten. Areago oraindik, erligiozko borroka hasia zen katolikoen artean, kristau ortodoxoen artean eta juduen artean ere. Gainera, aurretik lortuak ziren gizarte abantaila asko galdu zituzten ere, hala nola haurtzaindegia, amatasun baimenak, etab.

Herrialde hauetako askotan emakumearen gizarte egoera, garapenerako bidean diren herrialdeen mailara jaisten hasi da.

Gauza gutxi egiten da arlo guztietan, Beijing-eko ekintza plana aurrera ateratzeko.

Zerk eragozten du, ororen adostasunez hartutako erabaki horiek behar besteko indarra egin dezaten?

Europar, herrialde guztiak lehentasuna eman diete Europako Erkidegoa osatzeari eta Ipar Atlantikoko Hitzarmeneko Erakundea (IAHE/NATO) indartzeari.

Boterearen barnebidetan emakumea ia ez da inon agertzen, salbuespen bakarra Estatu Batuetako Estatuko Idazkaria delarik, Zortzikoen eta IAHEko Aholku batzordeetan parte hartzen baitu.

Nazio Batuetako zuzendaritza 1985ean osorik gizonen eskutan zegoen. Horrenbestera inoiz zen horrela, ezen Erakundeak urtero egiten duen Erakundearen argazkian, non Idazkari Nagusiaren bulego osoa agertzen baita, agentzia berezitetako zuzendari orokor guztiak ere sarturik, emakume bakar bat ere ez zegoen.

Argazki hau NBE-ko emakumeen taldeak Batzar Nagusiko korridoretan argi eta garbi erakutsi zuen eta nabarmen uzten zuen Nazio Batuek gizonen eta gizonentzako elkarte eskusiboa zela. Ingelesez honi Stag Club deitzen zaio, alegia Oreinen Elkarte, eta ez dira emakumeak onartzen.

Batzar Nagusiak, Emakumearen Batzorde Juridikoaren gomendioari jarraiki, emakumeak izendatuak izan zitezten bultzatzeko kuotak ezarri zituen. Portzentaia aldatu egin da, baina asmoa zen 2000 urterako emakumeak %50a izatea zuzendaritzako postuetan. Dagoeneko %37a lortu da eta gaur egungo Idazkari Nagusiak hitz eman du milurtekoa betetzerakoan portzentaia goratu egingen duela. Eta ekin ere, ekin dio zeregin horri, zeren Idazkariorde Nagusi emakume bat izendatu baitu, Kanadako Louise Frechette, izendatu ere.

Hala eta guztiz ere, emakume gehienak ez gara iristen, erabaki garrantzitsuenak hartzen diren lekuetara.

Galdetu ere ez zaigu galdetzen.

Herrialdez herrialde, kulturako eta erlijiozko arazo desberdinek eragozten digute gizonen berdina izatea. Erlijiozko fundamentalismo guztiak daude argi eta garbi emakumearen partehartzearen aurka.

Mendebaldeko herrialdeetan, emakumeak ez daude alderdi politikoetako erabakiak hartzen dituzten goi karguetan. Eta neure buruari galdetzen diot, hortaz, zerk eragozten digu, boterea erdiesteko behar diren elkartasun politikoak ezartzea?

Solaskide ditudan taldeekin gustukoa zait gogoratzea Eleanor Roosevelt eta Minerva Bernardino-ren adibidea. Bata Franklin Delano Roosevelt Lehendakariaren alarguna, eta bestea, Dominikar Errepublikako karrerako diplomatikoa.

Ba al zenekiten bi emakume hauen eginahal, tema eta uste osoari esker eman zela orain dela 50 urte Giza-eskubideen Aldarrikapen Unibertsala?

Honek erakusten digu, emakumeak botereko eta erabakiak hartzeko lekuetara iristen direnean eta bere gain hartzen dutenean botere hori, alda dezaketela, kasu honetan aldatu ere nazioarteko zuzenbidearen araugintza.

Laurogeigarren hamarkadan "kristalezko muga" deitu zena aipatzen zen. Emakumea gizarteko alde guztiertara sar zedin paperean jarritako neurriek higi ezinezko oztopoa topatzen baitzuten. Gailurrak ikusten genituen, baina ezin genituen iritsi. Gizonek, oraindik ere ez dute boterea gurekin partitu nahi. Gizonen arteko anaitasunezko loturak, "bonding" deiturikoa, estuegiak dira, biologikoak.

Japonian badira exekutiboek elkarrekin joaten dira geishengana edota saunetara. Estatu Batuetan ere, gizonezko exekutiboek emakumeak baztertzen dituzte zenbait jardunetan, hala nola poker jokoan, edota lana amaitu ondorengo erraketako partiduetan. Zenbait herrialde latindarretan gizonak dominoan aritzeko biltzen dira eta arabiar herrialdeetan berriz, mentazko tea hartu eta ur pipak erretzera biltzen dira. Jardun hauetan denetan, ez behiala baina gaur egun, emakumea baztertua da, areago, funtsezkoa da emakumeari sartzen ez uztea.

Sauna hauetan, poker joko hauetan, askotan ordu txikiak arte luzatzen direnak, egun eta gaueko domino jokoetan, hauetan denetan erabakiak hartzen dira. Emakumeek ez dute pareko aisialdirik, edota dituztenak ez dira sendoak, gizarte egitura batez eraikiak, usu edo ohitura bihurtuak.

Baztertze egoera honetan emakumea ikustezina bihurtzen da, zeren eta eskenatokian agertzen garenean, bertan ez bageunde bezalaxe baita.

Kontra egiteko bi modu ditugu. Bata ikusgai izan gaitzela errekerituz, halatan neskek bestelako ereduak ukan ditzaten beren bizitzetarako, eta bestea, geure artean biltzeko egiturak antolatzea, geure eskarmentuak elkarren artean truka ditzagun.

Esaten ari naizena ez da ezer berri, halere. Amerikar feministek sakonki eztabaidatu dute eta egiten dituzten proposamenak ez dira gutako askok geure bizitzan nola oro har ezagutu dugunaren oso bestelakoak.

Gutako zeinek ez du somatu nola hozten den giroa bilera aretoan sartu garela eta gure presentziaren aurrean gizonak altxatu direnean, emakumeenganako errespetu keinu batez, edo esandakoa idazteko eskatzen digutenean, idazkariak garela suposatuz. Bi jokaerak, pertsona berdinen artean eman beharko litzatekeen portaeraren aurkakoak dira.

Bestalde, gutako zeinek ez du somatu, bilera batera iristerakoan, erabakiak ordurako hartuak ditzutela eta han egiten ari garena, urteurrenaren argazkian edo postalean hutsunea bete besterik ez dela.

Horraz gain esan behar da gizonak ez duela nahi, ukatu egiten dela, familiaro bizitza berdintasunez partitzera. Geuk diraugu, besteak zaintzeko ardurak karreatzen. Hau horrela den bitartean, guk geuk ere exijitu gabe lanak bana daitezela, geure semeei erakutsi gabe etxeko lanetan parte hartzen, jokabideak ez dira aldatuko.

Norbanakoarena politikoa da. Eta politikoa den guztia botereari lotua dago.

Nire ustez, bi bideetatik jarraitu beharra dago, nazioko esparrua, norbanakoaren alorra hartzen duena, eta munduko esparrua. Baina erne jarraitu behar dugu, argudioak ematen, kexatuz, bultzatuz. Oraingo honetan, Beijing-en erabakitakoa bete dadin, adibidez. Bururatzen zaidan beste bidea, oraingoz garrantzitsua iruditzen zait, alegia, alderdi eta joera desberdinetako emakumeen arteko koalizioak egin behar ditugu. Koalizio hauen bidez indarrak batu behar ditugu eta alderdietako gizonak, gobernuetako gizonak eraman behar ditugu, botuetan adierazitako indar politikoa izan daitekeenarekin itunak egitera. Europako alderdien egiturak zurruneziak dira halere, eta ez du aukera ematen ordezkari edo diputatu batek bere alderdiaren bloketik at eman dezan botua.

Baina heldu den milurtekoan politika alderdietatik askatu egingen da eta militante xeheen borondateari lotuko zaio berriro. Argi eta garbi azaltzen zaigu hau, zeren eta aniztasun politikoak eta aniztasun kulturalak, barneratze politika eskatzen baitute eta ez baztertze politika. Eta argi egiten zaigu ere, ikusirik nola hizkuntzako eta etniako gutxiengoak mintzo direla orain, lehen herrialde kolonizatuak mintzo ziren moduan, autodeterminazioaz mintzo baitira. Ziur naiz biztanleek, boto emaileek nahiago luketela sistema malguagoa, non beren interesak hartuko liriatekeen kontuan, zeinahi alderdiren interesak hartu beharrean kontuan.

Beste arazoa zuzeneko botua dugu. Zeren eta edozein herrian alkate lan ederra egin duen emakumeak legebiltzarrerara aurkeztu nahi badu bere burua, alderdi baten barruan joan gabe, independente bezala aukeratuko baitute. Alderdien egituren bitartez erabiltzen da ohiko botere patriarkala eta gizonak eraikitako egitura hauek zahar kutsua dute jadanik.

Funtsezkoa da emakumeak politikaren bideetara hurbiltzea, boterearen bidera alegia, tokiko botereen bidez, zeren eta han lor baitezakete berariazko laguntza, hau da, botuen laguntza.

Boterea tokiko gobernuetara hedatzeak, bizitza publikora gehiago lotu nahi duten emakumeei lagunduko lieke.

Emakumeen arteko aliantzak ere funtsezkoak dira, beren alde neurriak har daitezten.

Emakume aurrerakoiek, hemen Espainian, kontratu sozial berria burutu dute. Baina gizonezkoen laguntza behar dute alderdietan dokumentu hori irakurria eta eztabaidatua izateaz gain aurrera eraman ere eraman dadin.

Honen alde lobby egiten zenbat emakume biltzen direnaren arabera aterako da aurrera.

Errepikatua iruditu badakizueke ere, mintzaldi hau amaitzeko, emakumeak bizitza publikoan duen papera aztertzeko Nazio Batuek deituriko adituen talde batek ateratako ondorioen laburpena egin nahiko nizueke:

- Emakumeak justiziaren aldeko eta politikaren dimentsio etikoaren aldeko interes handia erakusten du, neurri handi batean berak ezagutu duen bidegabekeriaren karira.
- Emakumeak adimen handia dauka, lehentasunak finkatu eta zeregin korapilatsuak egiteko, zeren eta familiar, lanean eta komunitatean kasu egin diezaien eskatzen dioten elkarren aurkako indarren arteko oreka lortzen saiatu behar ukan baitu beti.
- Emakumeak oso ongi daki adostasuna eta bat etortzea zein garrantzitsuak diren, gizarte harremanen erdigunean izaten baita.
- Emakumeak interes arras bizia du belaunaldi berriekin eta halaxe esaten du.

Denok jarraitu behar dugu, xedaturiko helburuetara iristeko lanean. Gizartean nola sortzen garen ere aztertua izan da, alde guztietarik aztertu ere: partehartzea, gizarteratzea, desberdintasun ekonomikoak, kulturalak. Ikerketa, estrategia eta ekintza plan hauen ondorioz generoko ikuspegiaren kontzeptua sortu da. Konpromiso politiko handiagoa falta zaigu, ordea. Honi eman behar diogu lehentasuna datorren milurtekoari begira.

Eskerrik asko.

Egun on ahizpa eneak:

Hasteko eskatu nahi nizueke, enekin batera txalotu ditzazuen Biltzar hau antolatzen aritu diren guztiak, ez Emakundeko zuzendaritza bakarrik, baizik eta langile guztiak ere. Ziur naiz beraietako inork ez duela ukan, burua garbitzeko edota behar bezala lo egiteko denbora sei astetan bederen, zeren eta honelako biltzarra antolatzea masokismoko ekintzaz gain, balentria handia baita ere! (Txaloak)

Azken hamarkadotan Emakumeen munduko Mugimendutik sortu den gertakizun zirrargarrienetakoa "emakumeen historia" erreibindikatzea izan da, eta horrela agerian jartzen zaigu, emakumeak historian zehar ukan duen zeregin ordurarte ezkutua baina halere garrantzitsua izan dena, aurreko mendeko —bai eta aurrekoetako ere— gizarte aurrerapenerako mugimendu guztien aitzindari eta protagonista nagusi gisa.

Nolabait ere ez da harritzekoa, zeren eta gai guztiak baitira "emakumeen gauzak".

Emakumeak gizakien gehiengoa gara kopuruz, eta hala gauza guztiek dute gurekin zerikusia. Biztanleria analfabetoaren bi herenak gara —hala bada, hezkuntza "emakumeon gauza" dugu. Errefuxiatuak biztanleriaren %90 gara —hala bada, gerra eta bakea "emakumeon gauzak" ditugu. Lurra lantzen dutenen artean gehiengoa gara (Afrikako nekazal lanetako %80a emakumeek egiten dute), hala bada, nekazaritza, nekazal tratuak eta ekologia "emakumeon gauzak" ditugu. Munduko biztanleria pobreaken hiru laurdenak gara, hala bada, garapena eta zorra "emakumeon gauza" ditugu. Isuri toxikoak, pestizidak eta istripu nuklearren lehenengo biktima emakumeen ugalketa sistema da, minbizia sortaraziz eta ume hilak eta desitxuratuak erditzea eraginez, halatan beraz, ingurugiroa eta energia "emakumeon gauzak" ditugu. Nolaz eta joera eta kolore guztietakoak garen, arrazakeria, zahartzarua eta elbarritasuna "emakumeon gauzak" ditugu. Eta noski, bi alorrek dute, kulturen gainetik, erabateko eragina emakumeengan: ugalketa askerako giza eskubideak eta sexu aukerarako giza eskubideak.

Oraingo honetan ez dugu denbora, ekologia/ingurugiroa bezalako gizarte mugimenduetan emakumeen zeregina sakonki eta kultura desberdinak zeharkatuz, aztertzeko (esate baterako: XIX. mendean hasten diren Ellen Swallow European eta Rachel Carson Estatu Batuetan eta ondoren Wangari Mathai Kenian), emakumeen zeregina aztertzeko kolonietako eta kolonia berrietako borroka iraultzaileetan (nabarmenki saldua izan zen argeliar emakumeen mugimendua edota Afrikan, Erresuma Batuen aurka aritu zen lehenengoa izan zen Me Katilili), nazioko eta munduko mugimendu pazifista eta antimilitaristetan eginikoa, osasun eta ongizaterako mugimenduetan, haurren ongizatearen aldeko kontzientziazio lanetan, espetxeetako aldakuntzan, ekonomiaren balioa handitzen, osasun publikoan eta giza eskubideen alde. Izan ere, emakumeak izan dira, nahiz eta ez diren aintzat hartuak, aitzindari eta abiarazle, ameslari, oinarrien jartzaile eta antolatzaile eta aurrelariak mundu osoan sortu diren mugimenduetan: Pazifikoko Uharteetan ezarri ziren lehen zonalde desnuklearizatuak, arrazakeriaren aurkako Estatu Batuetako eskubide zibilen mugimenduetan, Latinoamerikako etorkinen lana antolatzen, Afrikako garapen jasangarrirako mugimenduetan, Indiako mikroredituko ekonomietan (Ella Bhat-ek eman zion hasiera mugimendu honi, baina meritua Grameen-i ematen diote, ordea.), Europako bakearen aldeko aktibismoan, etab.

Guztiarekin ere, aztertu behar dugu zein bidetik bereganatu duten gizonen iraganeko mugimendu hauen kontrola; modu sistematiko samarrean bereganatu baitituzte mugimendu hauek —salbuespen nabari batekin, alegia Emakumeen Nazioarteko Mugimendua bera—, eta ikusiko dugu nola emakumeen presentzia, ikuspuntua eta aitzindaritza gainbeheratu, ukatu eta erauziak izan ziren gizonen mugimendu hauen kontrola hartzearekin batera.

Prozesua patroia baten arabera gauzatzen da, izan ere barregarri eta ernegarria den patroia. Prozesu hau marraztu egin nuen, idatzi nuen honako liburu honetan: *Deabru Maitalea: Terrorismoaren Sexualitateari buruz*, eta zuekin partekatu nahi dut orain:

1. Emakumeak arazo batez ohartzen dira, oharrak elkarren artean konparatu eta izena ematen diote arazoari, zerbait egitea erabakiz.
2. Emakumeak pasatzen dira, beren eguneroko borrokatik (haurrak esklabuen salerosleen atzaparretatik edo armadetatik ezkutatzuz, janaria beren senitarteko gosetuentzat ezkutuka gordez, kexu gutunak idatziz), beste emakumeekin batera lan taldeak osatzera (guraso taldeak, elizako ki-deak, "egintza onetako" elkarteak, auzo elkarteak, emakumeen taldeak, etab.). Mugimendu hauek guztiak borondatezkoak dira. Taldeak informalak dira, arinki egituratuak eta itxaropenez eta borondate onez beterikoak.
3. Talde hauek gizonak bultzatu egiten dituzte, konbentzitu egiten dituzte eta limurtu, borroka horretan parte har dezaten: nekazal negozioko baserriaren lekua hartzen ari da, kale kantoian semaforoa jarri behar da, ez gendake hondakin toxikotako zabortegea horren hurbil ukan beharko, gure herriskak putzua behar du, etab. Fase honen itxurapena eginez esan genezake "mesedez Jorge, etor hadi nirekin bilerara. Probetxugarria da. Benetan gustatuko zaizu".
4. Gizonen, azkenik, parte hartzen dute. Gaia garrantzitsu bihurtzen da, beraz, "emakumeen gauza" izateari uzten baitio. Gizonen gidaritza hartzen dute. Emakumeek uzten diete, lasaiturik, gizonen interesa erakutsi baitute eta zerbait egitera doazelako esperantzaz. Badakite gizonen seriozki hartuak izanen direla eta argi da, bestalde, gizonen ez direla gehiago bileretara joanen beraiak ez badira buruzagiak.
5. Gizonen denbora baliotsua denez, buruzagiaren postuak ez dira gehiago borondatezkoak izanen, gizonen ordaindu egin behar zaie eta horretarako dirua lortu behar da. Emakumeek dirua lortzeko borondatezko lanak egiten dituzte (saskiak edota pastak egin eta salduz, etab.).
6. Gizonentzat emakumeak gaiaren osagarriak dira, dagoeneko zerbait Politiko bihurtu baita. (Tautologikoki, emakumeen gauza bada, ez da garrantzizko gauza eta garrantzizko gauza bada, ez da emakumeen gauza). Emakumeen gauzak definitzerakoan miopiazko soa botatzen dute gizonen, eta hala emakumeak komunitate politikotik egotzi egiten dituzte, esanez besterik gabe, ordurarte taldea konbentziturik zeudenentzat bakarrik mintzo zela. Orain berriz, gizonen benetako "mugimendua" sortuko dute, hau da, gizonen beste gizonen egiten diete aurre.
7. Zorigaiztoko eraldaketa ematen da, alegia, lerratze bat zintzotasun etiko eta espiritualeko jarraitik (orain sentimental eta ameslaritzat hartuko dena, emakumeentzat soilik) sasizuzentasunezko jarrerara. Aurreko aktibismoa elizaren bati lotua bazen, esate baterako, emanen den eraldaketa izanen da, ziur aski, funts espiritual batetik erlijiozko fanatismora pasatzea. Praktiko denaren eta

metafisiko denaren arteko haustura ematen da, lehen fundamentalismo materialistan galtzen delarik eta bestea berriz, era desberdinetako erlijiozko fundamentalismoetan.

8. Zatitze honen ondorioz “on nagusiaren” engainua agertzen da, eta honek berriz, sortzen du “ona lortzeko edozer egin daiteke” jarrera. Abstrakzioen bidean aurrera egin ahala, jatorrizko gaia ahaztea ere gerta daiteke. Behin puntu honetan, emakumeek adierazten duten egoera ezin eramana kontserbadorismotzat, txepelkeriatzat, liberalismotzat edota konplotzat arbuatua izan da. Egoera hau onartzeak bereizten ditu neskak emakumeengandik.

9. Ordezkaritza itxi hau, sasizuzentasuna eta on nagusi abstraktua elkartuz, gizotasuna agertzen da benetako arazo gisa. Gizotasuna eduki ala ez eduki, borroka egin ala ez egitean datza orain. Erretorika, tresnak, armak eta uniformeak, gizotasuneko identitatearen feitiixe bihurtzen dira. Horren ondorioz, irtenbideak itxi egiten dira: kausa baten alde bizitzetik —bizi kalitatea hobetzeko borrokatuz adibidez— kausa baten alde hiltzera dagoen aldea korritu baita. Dena argi dago. Indarkeria, beraz. Zalantzarik edo eragozpenik erakusten dutenak traidoreak dira.

10. Itxaropenezko politika, etsipenezko politika bihurtu da. Helmuga abstraktuegi eta erabateko-egia da hara iristeko, baina gizotasuna ezin da halere, gutxiagorekin asetu. Zinismoa agertzen da, bai eta zirikatze eta polarizatze estrategiak. Garai batean, helburutzat garaipen humanistikoa zuenak orain du xedetzat suntsidura garbizalea. Martirioa, alegia. Estatuak hala agintzen baitu. Politikaren azpiko politika gizotasuna zen.

(Zentzugabe hau behar den ikuspegiz ikusteko modua, alderantziz jartzea da eta hala imajinatzea jendea harro harro agertzen dela “emakumeen borroketan” herioa emanez hiltzen direlako). Behin eta berriz, emakumeak ezabatzea muinetaraino sartzen da aldaketa politikoa deitzen denaren teorian eta praktikan, halatan egitura politikoa bere horretan utziz. Orain artean eman den iraultza orotan ikusi dugu (beharbada “irabiamendu” deitu beharko genituzke horrelako “iraultza” horiek). Oraindik ere, hala gertatzen dela ikusten dugu Hirugarren Mundua askatzeko borroketan, betiere emakume “gogor” batzuk daudelarik ere, noski, eta emakume gehienak, berriz, etsi etsian indarkeria ez bezalako estrategiak bilatzen ari dira. Eta ezabatze hau berdin berdin ematen da, behin eta berriz, hala izendaturiko buruzagiek nola matxinaturikoek “emakumeen gauzak” deitzen dituztenen gainean duten interes eza edo hitz hutsezko interesa agertzen dutenean.

Oraindik oraingo historiako hiru adibidetxo eman ditzadan, prozesuaren erakusgarri:

Estatu Batuetako eskubide zibilen aldeko mugimendua emakumeen eskutik jaio zen, emakumeek antolatu baitzuten, Estatu Batuetako hegoaldeko beltzentzako elizetan. Emakumeen taldeetako (diakonesak, “topaketak eta andereak” klubak) kide egite zabal honen erroak Afroamerikar emakumeen hiru mendetako aktibismoan zeuden jarriak. Balore handiko sistema bihurtua zen, familiak babestu eta erresistentzia egiteko, esklabutzaren debeku itogarrien pean ere. Erresistentzia ekin-tzen arteko bat, Lurpeko trena sortzea izan zen.

Esan ohi da giza eskubideen aldeko Estatu Batuetako mugimendua Montgomery-n, Alabama-n sortu zela, 1955. urtean, Rosa Parks-ek autobuseko aurreko aldeko jarlekutik altxatzeari uko egin zion egunean...nekatutik baitzen. Bitarte horretan, Mississippi-n Fanie Lot Hammer zen eskubide berdintasunaren eragile politikoa, eta milaka emakume ari ziren halaberean, herrialdean zehar la-

nean, antolakuntzan eta zirikatuz. Hala eta guztiz ere, "mugimendua" azaleratzen zenean, gizonen gidaritzaz agertzen zen, nahiz eta gizon hauen indarkeriarik gabeko taktikak, mugimendua sortu zuten emakumeen urtetako eragina izan ziren, eta taktika horiek, emakumeek goratutako predikariek bere egiten zituzten. Indar Beltza sortzearekin "gizontasuna" agertu zen. Indarkeriarantz behertzen hasi ziren orduan. Eta polizia eta Pantera Beltzen arteko tiroketetan amaitu zen dena, edota polizia eta Askatasunerako Armada Sinbiotikoaren edota Polizia eta Armada Beltz Askatzailearen arteko tiroketetan; orduetik hona emakumeak errautsak garbitzen eta kondarrak biltzen aritu dira.

Patroiari begira iezaiozue. Estatu Batuetako ingurugiroaren aldeko mugimendua Ellen Swallow-ek hasi zuen, ekologia disziplina zientifiko gisa sortu zuelarik; emakume hau, Massachusetts-eko Teknologia Institutuan (MIT) onarturiko lehen emakumea izan zen. Herrian zabalduago dago Rachel Carson-en izena, ingurugiro mugimenduaren aitzindari bezala eta esaten da hasiera eman ziola mugimenduari *Udaberri isila* liburu idatziz. Garai haietan, ekologia gai "biguntzat" hartzen zen; gizonak oso lanpetuak baitziren larrua salbatzeko ahaleginetan, lege zirriborroak erretzen eta Vietnam-go gerraren aurka egiten (eta egiten oso modu gerlarian bakezaleak izateko). Alabaina, azken urteotan, ingurugiroarekin zerikusia duten gauzatan aritzea gizonezkoen gauza bihurtu da. Bitarte honetan —emakumeek manifestaldietan eta eseraldietan parte hartzen zuten bitartean eta bulego txikiak langile zirelarik— gizonen taktikak gero eta borrokariagoak bihurtu ziren. 1985. urterako "ekoterrorismoa" agertua zen.

Patroiari begira iezaiozue. Estatu Batuetako ongizaterako eskubidearen mugimendua hasieratik izan da emakumeen gaineko mugimendua, emakumeek egin eta emakumeentzako. Halarik ere, hasierako benetako aitzindariak —beraiek ere diru laguntzak jaso zituztenak edo jasotzen ari zirenak— gizonen kendu zituzten, behar bezain oldakor ez zirelakoan. Emakumeak ongi zeuden gaia mahi gaienean jartzeko, "arazoa sakonki bizitzeko", arazoaren "biktima" gisa azaltzeko, baina ekintza gizonen erabaki eta zuzendu behar zuten, ordea. Theresa Funiciello, lehenengo antolatzaileetako bat, kritikatu izan zen, zeren eta bere azterketa teoriko zuhurrak eta bere diskurtso sutuak jendea mugiaraz bazezaketen ere, berak ez baitzituen emakumeak eta haurrak bultzatu nahi, zaurituak izateko arriskua sortzen zieten taktiketan parte hartzera. Gaur egun oraindik dio: "ez dut besteren umeekin eginen neure ume neurekin eginen ez nukeena". Ongizaterako Eskubidearen aldeko Nazioko Erakundea kide kopuru gorenera igo ondoren... desegin egin zen. Handik zenbait urtetara Funiciello eta beste hainbat emakume oraindik ari dira orduko kondarretan lanean eta jadanik xarma galdu duen gaia antolatzen. Gizonezko buruzagiek, berriz, gizartekintzako burokraziako lanpostu erosoak bereganatu dituzte bitarte horretan.

Ez da, beraz, harriztekoa emakumeak boterea eskatzeko prozesuan lehen lehenik boterea birdefinitzen hastea: boterea, ez zerbaiten gainean, baizik eta zerbaiterako, ...aldaketa sakona egiteko, alegia.

Honek esan nahi du emakumeak azkenean konturatu direla, kezkatzen dituztenagatik borrokatzearen funtsa beren buruengatik borrokatzea zela, beren eskubideengatik, beren gaitasun politiko eta ekonomikoarengatik, erabaki organuetara iristeko borrokatu eta aldaketari buruz kultur des-

berdinetako emakumeek duten ikuspegi berezkoaren alde. Zeren eta, dibertsitatea onartzen dugularik ere, gizartea errotik aldatuko lukeen ikuspegi eraldatzaile bera baitugu.

Patriarkatua hitz bakar batez definitu beharko banu "zatitze" hitza aukeratuko nuke.

Mundua kategoriatan eta konpartimentutan zatituz: jendea arrazen arabera, sexu, adin, gaitasun, klase, sexu joera, hiritartasun edota etniaren arabera bereiziz. Legea eta justizia elkarren artean bereiziz, sexua eta maitasuna ere bereiziz. Planetaren gainean marrak asmatu eta nazioko mugak arriz —alabaina Txernobileko eragina bere kasa dabil, mugak zeharkatuz eta Estatu Batuetako euri azidoa ez da Kanadarekiko muga gelditzen, ez du esaten: "Kasu! Ez dut Kanadaren gainean erori behar! Estatu Batuetako euri azidoa naiz ni!". Halako zatiketa, pixkat pentsatuz gero, erabat psikotikoa da.

Indar feminista orokorra definitzeko hitz bakarra aukeratu beharko banu, koherentzia hitza aukeratuko nuke. Adibide baterako, ulertzea gainpopulazioari buruzko proposamenik ezin egin dezaitezula, lekuko emakumeek galdetu gabe eta, emakumeek eskatzen dutenari jarraituz, biztanleriako programekin batera diru sarrerak sortzeko proiektuak, trebetasunak erakusteko proiektuak eta alfabetatze proiektuak egiten ez badituzu. Beste adibidea: Nazio Batuen sistema ezagutu eta beraren Hitzarmenak modu eraginkorrez baliatzea (bereiziki Emakumeen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatze Hitzarmena eta Eskubide Zibil eta Politikoen gaineko Nazioarteko Klausula, bai eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala), geure borrokarako fresna indartsuak izan baitaitezke. Emakumeek halaxe egin zuten mundu osoan, oso modu eraginkorrez egin ere, Nazio Batuen 80. hamarkadako Biltzarretan (Rio-n ingurugiroaz, Kopenhageko gailur sozialan, Viena-n giza eskubideetaz eta Kairo-n biztanleriari buruzkoan), jokaera honen adibide nabariena dugu, Emakumeek buruzko Pekingo Mundu Biltzarraren ondorioz eman zuten idatzi sendo askoa.

Hau guztiaren eragina izugarri ona izaten ari da, eragin demokratiko eta aldatzailea, hain zuzen ere GKEek gobernuen, Nazio Batuen eta sektore pribatuaren gainean, eta oro har gizarte osoan duten eragina da, eta lan honetan emakumeek dute zeregin nagusien ardurak.

Amaitu aurretik zenbait puntu:

- Geure estrategiek indarrak batu egin behar dituzte, sistemaren barruan lan egin eta kalean manifestatu ere bai. Emakumeen ahizpatasunak, indartsu eta unibertsala izateaz gain, estrategiko eta sofistikatua ere izan behar du.
- Erne izan behar dugu indarkeriazko erantzunaren aurrean —gaur egun bereiziki begiratu indarkeria gogorrenari: erlijiozko fundamentalismoa, alegia, zeren eta fundamentalismo honek mundu osoan, emakumeak baititu helburu, esan gabe daraman agenda politikoan. Fundamentalismo hauek guztiak helburu berdin berdinak dituzte, elkarrengandik bereizi nahi izanagatik ere: estemista hinduek, fundamentalista islamikoek, Estatu Batuetako eskuin muturreko kristau protestanteek, fundamentalista budistek, Israelgo judutar ortodoxia gero eta handiagoak, etab. Eta, nolaz ez, hemen Espainian ere, Opus Dei manipulatzaile handiak. Beste herrialde eta kulturetako feminista ausartak fundamentalistei aurre egiteko egiten ari direnaz ikasi behar dugu, geuk ere etxean aurre egin diezaiegun, globalki pentsatu eta lekuan lekukoa nola egin ikasiz.

- Beti gogorarazi behar diogu geure buruari, dugun zeregina sistema aldatzea dela eta ez berak gu alda gaitzala onartzea, gogoratu behar dugu ere ez garela ari emakume sailtxo barentzat boterea lortzeko, baizik eta jendetza handia gaitu eta boterearen izaera bera aldatzeko.
- European eta bereziki Espainian ezin onar dezakegu gehiago partitueganako leialkeriek emakumeak manipulatu eta zatitzea. Euskal Herriko emakumeek ulertu beharko lukete autonomiaren beharra eta zein garrantzitsua den Emakumeen Mugimendu Autonomoa izatea, eta honek partiduei indar egitea, emakumeak hautesle gisa kontuan har ditzaten; ez zaie partiduei gehiago utzi behar emakumeak manipulatzeko eta feminismoaren kemena, gizonezkoen gidaritzaz definituriko helburuetan hustutzen.
- Ausartak izan zaitezte. Ez zaitezte zeuen oinazearen, amorruaren eta ikuspegiaren beldur izan. Azken finean, iraultza honen azken xedea maitasuna baita. Ez maitasun melenga, Disney kutsukoa, baizik maitasun bortitz, ordaina eta aldaketa eskatzen dituen (eta hau gizontzat lausengarria litzateke, baldin eta konturatuko balira).

Oparia dakarkizuet: "Emakumearen sinesbidea", Pekin-en aurretik idatzi nuen eta Isel Rivero-k, adeitsu eta trebeki itzuli du espainolera. Beste bederatzi hizkuntzetan ere eskura daiteke, Estatu Batuetako Emakumeen Mundu Osoko Ahizpatasunerako Institutuaren bitartez. Eta amaitzeko, boterea opa dizuet, bai eta ongi erabil dezazuen behar den dohaina ere.

Esker anitz.

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot EMAKUNDEri eta bere zuzendariari, luzatu digun gonbitea, Europako Feministen Lobbyaren (EFL) eta Europako Emakumeen Lobbyaren (CELEM) beraren ere abiapuntua izan zen gai honetan parte har dezagun. Gonbite honekin generoko politiketaz mintzatzeko solaskide egokitzat hartzen baikaituzue; har dezatela beste Erakunde eta taldeek hau eredu gisa, beraiek ere eskain diezaguten emakumeoi gizarte zibilean behar dugun lekua. Nire azalpenak hiru atal izango ditu:

1. Lehen atalean, zenbait hausnarketa orokor egingo ditut sarrera gisa.
2. Bigarren atalean, gaur egun erabakiak hartzeari doakionean "Emakume" taldeak bizi duen egungo egoera aztertuko dut eta botere politiko, ekonomiko, kultural eta sozialera iristea eragozten diguten oztopoak aipatuko ditut banan-banan.
3. Hirugarren atala, helburua lortzeko geure ikuspuntutik ikusten ditugun estrategiak aztertuko ditut.

1.

Sarrera

Sarrera gisa esango dut, ezen handia izanik ere Mugimendu Feministaren erreibindikazio historikoak lortuz geuk emakumeok egin dugun aurrerapena, legezko berdintasuna edo berdintasun formala lortuz, argi dagoela benetako berdintasuna, XXI. mendeari begira, oraindik lortzeke dagoela.

Espainiako emakumeok legeen esparruan berdintasuna lortua dugu eta eguneroko bizitzan, ordea, desberdinkeria pairatzen dugula argi ageri zaigu, ikerketa sakonik egin gabe ere.

Mugimendu Feministak bultzaturiko generoko ikuspegiko Berdintasunerako Politikek kendu dituzte, bai, historian zehar legeetan eta erakundeetan izan ditugun oztopoak, eta hauek funtsezkoak gertatu dira politika hauek garatzen eta emakumearen irudi berria sustatzen, baina hau guztiagatik ere nabarmena da zein berdintasun eskasa dagoen eta zenbat bereizkeria, zenbat geratzen zaigun beraz, egiteko, milurteko berrirako geure helburua, alegia benetako berdintasuna, iritsi arte. Guri, emakumeoi, lehen interesdunak baikara, dagokigu, benetako berdintasuna lortzea eragozten diguten oztopo horiek kentzea, eta egiteko horretan gizarte osoa sartu behar dugu.

Argi da emakumeak gizartean duen zeregina aldatzeak (lan merkatuan sartzea, hezkuntza, legeria berria, etab.) ezinbestekoa bihurtu duela gizartearen egituraren aldaketa ematea, generoko ikuspegitik.

Oraindik ere indarrean diraute, gizarte patriarkalak sorturiko egiturek, lana gizartean sexuaren arabera zatitu eta gizarte sexista antolatu zuenean, emakumeoi eremu pribatua emanaz (ordaingabeko lana, familia, seme-alaben zaintza, etab.) eta gizonei berriz, eremu publikoa (boterea, kultura, lan ordaindua). Badugu garaia gizarte-kontratu zaharkitu hau salatu eta emakumeok, geure etorkizunaren jabe eginik, generoko gizarte-kontratu berria eskatzeko, gizartea beste erara egitura dezagun. Gizon eta emakumeen arteko harremanak, gizarte-zientzien alorrean oinarritu behar ditugu (generoa) eta ez biologiarenean (sexua). Gizon eta emakumeen arteko lankidetzeta eta

konpromiso modu berria sortu behar dugu, baztertzearen ordeztartekatzearen kultura sortuz, gizon eta emakumeen artean partekaturiko gizartearen sortzeko aukera emango duten baloreak sustatuz.

Baina gizarte patriarkal honetako egiturei aurre egin eta txarrean utz ditzagun, generoko kontratu berri honi eutsi behar diote, hala norbanakoek bakanka eta beraien artean, nola egiturek eta erakundeek ere, gizarte berdinzaleagoa, solidarioagoa, demokratikoagoa eta partehartzeari irekiagoa eraikitzeko ahaleaginean.

Hortaz, Mugimendu Feministaren eskariak sakonagoak dira orain, dagoeneko ez baita aski berdintasun eskubidea lortzea, baina gizarte patriarkal honen egiturak aldatu nahi dira, zeren eta eragozten baitigute (beste gauzen artean) boterea, enplegua, etab. iristea, hau da, benetako berdintasuna lortzea.

Halatan, lana (ordaindua eta ordaingabea), familia, aisia, boterea, etab. partekatzea, eraiki nahi dugun gizartearen oinarria dugu. Espazio publiko eta pribatuak trukitzea, gaur egungo gizarteetan jadanik ezarritako bizikidetasunezko araua behar du izan.

Lehen aipatu dugu, generoko kontratu berri honen lorpena izango litzatekeela boterea partekatzea, halatan emakumeek parte hartuko luketeelarik era guztietako erabakiak hartzen: erabaki politiko, kultural, sozial, etab. Hau lortzeko ezinbestekoa zaigu parekotasun kontzeptua (Parekotasunezko Demokrazia) onartua izatea, Organizazio politiko, Sindikal, Kultural, Sozial, etabarreko antolakuntza eta egituretan, bai eta Erakundeetakoetan ere.

Alderdi Politikoei eskatu behar zaie ere, ekintza positiboko neurriak har ditzatela, halatan emakumeek aukeratuak izateko eskubidea erabil dezagun, eta horretarako parekotasun kontzeptu hau Hauteskunde Sistemetan sartu behar dugu.

Baina Erreibindikaziotik lorpenera pasatzea guri dagokigu, emakumeoi, eta neurri handi batean lortuko da, Emakumeen Mugimenduan egiten dugunaren arabera. Eginahalak batu egin behar ditugu, Emakumeen sareetan antolatuz eta emakumeen arteko ituna edo generoko ituna eginez, gure helburuak erdietsiko baditugu.

2. *Gaur egungo egoera eta oztopoak*

2.1. GAUR EGUNGO EGOERA

Emakumeak erabaki politikoetan parte hartzen hasi ginen sufragio unibertsala lortu zenean. Europar Batasuneko hamar herrialdetan XX. mendearen hastapenetan lortu zen (1920). Beste lau herrialdetan Munduko Bigarren Gerra ostean eta Espainian Errepublikaren garaian (1931).

Bide luzea egin ondoren, erabaki politikoetan (Europar Parlamentuan, Naziokoan, Autonomiakotan eta Udalekoan) emakumeen partehartzearen portzentaia horrela dago:

EUOPAR PARLAMENTUA


Espainiako Emakumeen portzentaia Europar Parlamentuan:

1989ko Hauteskundeak	%15	(9/60)
1994ko Hauteskundeak	%32,8	(21/64)


Europar Parlamentua pasatu da, 1989an %19 Emakume izatetik guztira, gaur egungo %32,8ra. Espainiak, 1994ko hauteskunde horietan aurrerapen handia egiten du, Europar Batasuneko Estatu kideen artean laugarrena izatera iritsiz. Gaur egun zazpigarren lekua dauka, Austria, Suedia eta Finlandia sartu baitira Erkidegora.

Europako Emakumeek (LEF) antolatu eta Espainian Europako Emakumeen Lobbyrako koordinadorak (CELEM) jarraituriko "Emakume gehiago Parlamentura" kanpainak atarramendu ona izan zuen, beraz.

NAZIOKO PARLAMENTUA



Gaur egun, 1997an Partido Popularrak Gobernua osatu ondoren aulkiak berrantolatu direlarik, horrela daude:



AUTONOMIETAKO PARLAMENTUAK	_____	%19,5
ALKATE	_____	%6,5
ZINEGOTZI	_____	%21,52

Espanian, emakumeen partehartzea, Diputatuen Kongresuan, esate baterako, Europako batez-bestekoa baino altuxeagoa da, 1989ko hauteskundeetan zenbait alderdi politikok ekintza positiboko neurriak hartu zituztenetik (KUOTA), hauteskundeetarako beren zerrendatan emakumeen presentzia ziurtatzeko.

Halatan beraz, 1977ko lehen hauteskundeetan portzentaia %6,3koa besterik ez zen, 1989an "KUOTA" ezartzen denean 14,6koa izatera pasatzen da, 1993an berriz %16koa eta 1996an %22koa.

Neurri berezi hau ezartzen duten alderdiek erruz emendatzen dute emakumeen portzentaia, halatan osoko portzentaia ere goratuz, hauteskunde prozesu desberdinetan.

Halatan, adibide baterako, alderdi politiko handienek nolako aldaketak egiten dituzten ikus ditzagun:

PARTIDO POPULARREKO EMAKUMEAK		PSOE-KO EMAKUMEAK	
	%14 (1993)		%17 (1993)
KONGRESUA		KONGRESUA	
	%14 (1996)		%27 (1996)
	%9 (1993)		%17 (1993)
SENATUA		SENATUA	
	%9 (1996)		%23 (1996)

(PPko aukietan eginiko ordezkaketak direla eta portzentaia hauek handitu egin dira)

Halatan bada, egungo egoera lehengoa baino hobea dugu, baina ibilbide luzea dugu halere oraindik; zeren eta kuotaren bidez erabaki politikoak hartzeko guneetan eman den emakumeen partehartzearen igoera, beste erabakiak hartzeko guneetan eman ez denez (komunikabideak, organu konstituzionalak, aholku organuak, ekonomikoak, kulturalak, sozialak, etab.), asimetria gertatzen ari baita, organu horiek beren kideak aukeratzeko moduaren araberrako asimetria gertatu ere.

Emakumeen hutsune nabarmenenak honakoak ditugu, besteak beste:

- Estatuko Idazkaritzak.
- GOI edo BEHE ganberatako Lehendakariak.
- Autonomietako edo Batzar Autonomoetako Lehendakariak.
- Parlamentuko Taldeetako edo Batzordeetako bozeramaileak.
- Auzitegi Konstituzionala.
- Estatuko Kontseilua.
- Unibertsitateetako Kontseilua.
- Hizkuntza Akademia.
- Unibertsitateko Gizarte Kontseiluetako Lehendakariak.
- Komunikabideak:
 - Irrati eta telebista publikoko erakundearen Zuzendari nagusia.
 - Irrati Telebistako Administrazio Kontseilua.
- Komunitate Zientifikoa.
- Etabar.

Beste erabaki gunetarako ez dago estatistikarik edo oso zaila da hauek eskuratzea. Halatan esan dezakegu, emakumeen ikustezintasun ilunenak, estatistikak eskuratzeari doakionean, honakoak direla, besteak beste:

- Organu konstituzionalak.
- Aholku Kontseiluak.
- Ekonomi eta finantz boterea eskuratzea.
- Komunikabideak.
- Etabar...

Erabaki gune hauetara ere iristea ezinbestekoa zaigu, EMAKUME taldeak BOTERE hautabidea osa dezan, eta ez soilik ERAGINA, gaur dugun bezala.

2.2.

OZTOPOEN AZTERKETA

Derrigorrezkoa zaigu eta ezinbestekoa, gaur egun oraindik dirauten oztopoak aztertzea, hartara zehazt ditzagun ondoren, oztopo horiek nola gainditu.

Oztopo horiek egiturazkoak eta soziokulturalak ditugu, izan ere honako hauek:

- Pentsamolde patriarkala, zeinaren arabera alor pribatua eta publikoa emakumeei bata eta gizonari bestea banatzen zaizkien, hasierako hausnarketa orokorretan adierazi dugun bezala.
- Estereotipo sexistak oraindik ere mantentzen dira, komunikabideen, familiaren, eskolaren eta abarren bitartez.
- Bizitza politikoaren funtzionamendua oraindik gizonen eremuan oinarritzen da (hautakunde sistemaren funtzionamendua, hautagaiak aukeratzeko bideak, etab.). Eredu honek demokrazia eskasia dauka, ez baitie emakumeei (biztanleen %52a), eguneroko bizitzako alor guztietan erabakiak hartzeko aukera ematen.

- Gizartearen antolakuntza eta familiko eta etxeko zereginak ez banatzeak ez die emakumeei, beren famili bizitza eta lanbidezkoa batera eramaten uzten.

3. *Geure helburua erdiesteko estrategiak*

Emakumeak botere politikora iristeak lagun dezake, gero bizitza publikoko esparru desberdinetako —ekonomiko, sozial, laneko, kultural, etab.— beste erabaki guneetara ere iristeko bidea irekitzen. Bi estrategia mota: bata globala eta besteak bereziak, bi mota hauek Gizon eta Emakumeen arteko Aukera-berdintasunerako Politikari lotuak daude; politika horren bitartez bultzatu nahi da emakumeek alor guztietako erabakiak hartzen parte hartzearen aldeko giroa sortzea eta benetako berdintasuna lortzea, partekatzean oinarrituriko gizartea eraikiz.

ESTRATEGIA GLOBALA. Estuki lotua da Generoko Politikei; erabakiak hartzeko guneetara iristeko interesgarrienak honakoak ditugu:

1. Gizon eta emakumeen arteko Aukera-berdintasuna sustatzeko Tokiko, Autonomiako eta Nazioko Mekanismoak ezartzea, emakumeak bizitza aktiboaren alor guztietara sartzen lagunduko duten Generoko Politika Planekin.
2. Familiko eta lanbideko bizitzak bateragarriak izan daitezela sustatzea. Bikotean familiko eta etxeko zereginak banatzearen aldeko politikak, eta emakumeak ordaingabeko lanetik askatuko dituzten gizarte zerbitzuak egituratzea.
3. Hezkuntza sistema, gizonak eta emakumeak gizartean dituzten zereginen gaineko aurreiritziak aldatzeko baliatzea.
4. Komunikabideak, emakumeen irudi baikorra hedatzeko baliatzea.
5. Emakumeen lanbidezko jarduna sustatzea, ekonomikoki buruaski izan daitezen eta politikan aritzeko gai direla ziurta dezaten.
6. PAREKOTASUNEZKO DEMOKRAZIA aurrera eraman dadin lagundu eta indar egiten duten Emakumeen Taldeak bultzatu.

ESTRATEGIA BEREZIAK

Emakumeek bizitza publikoan parte har dezaten sustatzeko ekintza positiboko neurriak hiru ardatzen inguruan bil ditzakegu, izan ere, hiru ardatz horiek, estrategia berezi horietarako euskarriak izango dira. Ikus ditzagun:

- A. Emakumeei, dituzten erantzukizun demokratikoak ikustarazi, bai eta emakumeen kolektiboarekin (gurekin) duten konpromisoa ere.
- B. Sistema politikoaren funtzionamenduan aldaketak egin.
- C. Estrategia hauen alde zeharka egingo luketen laguntzazko neurriak. Neurri hauek antola daitezke epe motzera, ertainera edo luzera, kasuak kasu, eta Gobernuak bidera ditzakete, edo Alderdi Politikoen edo Emakumeen Gobernu Kanpoko Elkarteek (GKE), etab.

A.1. EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK, emakumeek kontuan har ditzaten beren erantzukizun politikoak, hiritartasuna betebeharra bezala eta generoko kolektiboarekiko konpromiso bezala hartuz. Emakumeak motibatzea bilatzen da, ezagupenak emanez, kultur demokratikoa praktikatzuz eta emakumeek gizartean betidanik bete duten papera baloratuz eta onartuz, halatan legitimatuz emakumeek politikan partehartzeko duten eskubidea eta gogoia.

Horretarako garrantzi handikoa da:

- Informatuak egotea, interesa sortu dakien.
- Sentsibilizazio kanpainak egitea, eta dagoeneko politikan ari diren emakumeek, beren aldetik beharko dute:
 - Beste emakumeei lagundu politikako erabakiak hartzen diren lekuetara iristen.
 - Emakumeen interesak azaltzen dituzten Aukera-berdintasuneko politikak sustatu.
 - Emakumeen artean elkartasunaz aritu.
 - Emakumeen sareak baliatu, GENEROKO ITUNA eginik.

A.2. EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK, sistema politikoaren funtzionamendua aldatzeko.

Historian zehar, bizitza politikoa gizonezkoen kulturak kutsatu du. Hortaz, "klase politikoa feminizatu" egin behar da, eta horretarako:

- Emakumeek politikan presentzia izan dezaten, eta behin-behineko neurri gisa, "Kuoten" sistema indartu behar da, harik eta parekotasunezko demokrazia ezarriko den arte.

Lehen aipatu dugu zein eragin handiak daukan kuotak, erabaki politikoetan emakumeen presentzia desberdina kontrolatzeko tresna bezala.

Baina kuota koantitatiboaren eragina, koalitatiboarekin bateratu behar da, aukeratutako emakumeak, generoko kolektiboarekin lotuak senti daitezten. Argi utzi behar da emakumeen aurreapena mugimendu horren egintzei esker lortu dela eta gutako inork ezin iritsi zezakeela, bere kabuz.

Kuota horiek jarri behar dira ere Alderdi Politikoetako egituretan eta haien erabakiak hartzeko lekuetan, eta betetzen ez direnean zehapen eraginkorrak jarri beharko lirateke.

- Hauteskunde Sisteman parekotasunezko irizpide horiek ezarri beharko lirateke. Gizon eta emakumeen partehartze orekatua (Parekotasunezko Demokrazia) bermatuko duten neurri juridikoak ezarri, legerian aldaketak eginez, hartara partehartze hori ez dadin gobernu jakin baten edota alderdi politiko baten agintarien menpe izan.

Neurri hau ezarri dituzten herrialdeetan positiboa izan da. Arrakasta segurua ekartzen du.

Gaur egun Belgikak du soilik neurri hau indarrean, erabili duten gainerako herrialdeetan balio gabetu egin baitute, konstituzioaren aurkakoa zelakoan.

Europako Emakumeen Lobbyaren Espainiako Koordinadora (CELEM) bide horretan ari da lanean, Hauteskunde Sistema Erreformatzeko egitasmo batean, Parekotasun irizpidea ere sartuz.

- Hauteskunde sistemek Emakumeen presentzia politikoan duten Eragin Bereizgarriaren Ebaluazioa.

Gai honi buruz, Europar Parlamentuak lan dokumentu bat argitaratu berri du, non erakusten baitu ordezkapen proportzionalako hauteskunde sistemak emakume gehiago eramaten dituela

ordezkari politikoko postuetara, gehiengoaren sistemak baino, betiere emakumeak hautatuak izateko aukera duten postuetan jarriak badira.

- Alderdi Politikoei hartu beharreko neurriak, emakumei bertako jardueretan partehartzen laguntzeko, jarduera hauetan denbora beste erara antolatuz, jarduera hauek famili bizitzarekin bi sexuei bateragarri gerta dakien zainduz.

Emakumeentzako (bereziak) agintarien formakuntza programa ezartzea, bai eta giza baliabideen (emakumeen) Datu basea ere, alderdira afiliaturiko edota independente izanik gertuko ideologiakoak diren emakumeen izenak eta lanbidezko itzaropenak zehaztuz.

A.3. BESTE NEURRI LAGUNTZAILEAK, aurreko estrategiei zeharka laguntzen dietenak:

- Politikan eta bestelako erabakiak hartzen nolako partehartzea dagoen erakusten dituzten Estatistikako Datuak sexuen arabera ezagutzera eman, hartara gizartea kontura dadin demokraziak duen eskasiaz eta horren ondorioz.
- Hizkuntzako sexismoa ezabatzea. Gizakien artean bi kide mota daudela ohartarazi, eta halatan izendatu egin behar dira, emakumeak ikusiak izan daitezela (izenik ez duenak ez du izana).
- Emakumeen elkarteak (Emakumeen sareak) antolaturiko sentsibilizazio kanpainak, emakumei erabaki guneetara sartzeko oraindik ere eragozten dien "kristalezko muga" ikustera emanez eta nola hautsi erakutsiz. Emakumezko hautagaiak proposatu.

Amaitu aurretik aipatu nahi dizuet ere, Europar Batasunak, Batzordearen eta Emakume Adituen Sarearen bitartez lagundu duela neurri hauek bultzatzen, Herrialde kideei, emakumeek erabaki guneetan partehartze orekatua har dezaten sustatzeko politika hauek aurrera eramateko tresnak emanez.

Horretarako Gida bat ordaindu du, Monique Leijenaar-ek egina (Herbeheretako Unibertistateko Zientzia Politikotako Irakaslea eta Holandako aditua "Emakumeak erabaki guneetan" Europar Sarean), Adituen Sare honen lankidetzarekin, Batzordearen jarrera ofiziala adierazten ez badu ere.

Gida honek lagundu nahi die Europar Batasuneko herrialde desberdinetako Gobernu, Alderdi Politiko eta Emakumeen GKE-ek (Gobernuz Kanpoko Elkarteak), emakumeek botere handiagoa izatearen aldeko jarrera gauza dezaten, kargu politikoetan emakume gehiago sartzeko politika zehatz eta globalen bitartez.

Gobernu askok, Espainiakoak ere barne, bere kabuz abiatu dituzte, emakumearen partehartze politikoa areagotzeko ekintzak, baina isolatuki, politika orokorraren barruan sartu gabe egin dituzte. Falta zaiguna, beraz, politika eta estrategia zehatzak dira, bai eta horiek aurrera eramateko borondatea.

Gida honek bi parte ditu:

1. Lehenengoak arazoa aztertu eta Herrialde Kideetako egoera zenbakitan ematen du, bai eta emakumeak erabaki politikoetan partehartzearen aldeko argudioak eman ere.
2. Bigarren parteak, nazioko politika programa baten antza du (NPP) eta horrela, Herrialde Kide bakoitzeko Gobernuak, gizonak eta emakumeak erabaki politikoaren guneetan orekatuak izatearen helburua lortzeko abiatu beharko dituen ekintza eta planen zerrenda egiten du.

Hortaz, ez da aski Aukera-berdintasunerako Plan batean aipatzea “Gizonak eta emakumeak kopuru orekatuetan parte har dezatela erabakiak hartzen”, baizik eta hitza eman behar da zehazki nola, noiz, zein bidetik, zenbat denboran eta zein diruarekin eramango den aurrera emakumeak bizitza aktiboan parte hartzeko politika hau.

Horretarako Emakumeen Organizazioek eta Emakumeen Sareek erne egon behar dugu, noiznahi eta nonahi gure eskubideak eskatuz, hartara azkenik lor ditzagun.

Gaur egungo politika eta demokrazia emakumeen beharrea dira.

1.

Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko 1988ko otsailaren 5eko Legeak, 3. artikuluan ezartzen du, erakunde honek aurrera eraman behar dituen egitekoen artean, harremanak eta partehartzeko bideak ezartzea, Erakundearen helburuak lortzen lagun dezaketen Elkarte, Fundazio eta bestelako Erakundeekin, bai eta beste Autonomia Erkidegoetako, Estatuko eta Nazioarteko pareko Erakundeekin ere.

Nortasun juridikoa eta berezko aurrekontua eman zaizkionez, Erakundeak bere egitekoetan autonomia handia dauka, hala funtzionala nola ekonomikoa ere.

Halatan bada, Emakunde Lehendakaritzara atxikia izateak, organikoki Lehendakariaren menpean zuzenki egonez, aukera ematen dio honelako Erakunde honi, Gobernuaren ekintza osoa alderik alde zeharkatzen duen Plana egiteko, honen koordinaketa eta segimendua horizontalki egiten delarik, eta aukera ematen dio ere Eusko Jaurlaritza eta Foru eta Tokiko Administrazioa osatzen duten gainerako Sail eta Erakunde Autonomoekin solasean zuzenki eta jario errazez aritzeko.

Legeak duen beste alderdi positiboa da behartzen duela, Legealdi bakoitzaren hastapenean, Emakundek proposaturiko eta gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna tratatzen duten oztupoak ezabatzeko neurriak dituzten Planak onartzera, ondoren Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan aurrera eramanez direnak. Ekintza Positiboko Planak deiturikoak alegia. Plan hauek aurrera eraman dira, hala Administrazioan —hiru mailatan— nola Emakundek “aukera-berdintasunerako aldaketa egileak” deitu dituenarekin.

“Egile” hauen guztien artean erreferentzi garrantzitsua dira Euskadiko esparru osoan lan egiten duten Emakumeen Elkarteak.

Elkarte hauek, topalekuak sortzeko eta harremanak, norbanakoaren garapena eta taldearen osotasuna bultzatu nahi zuten emakume talde txikien emaitza izan dira.

Azken urteotan, talde hauetako asko, emakumeei sostengua emateko elkarren laguntzarako Elkarte bihurtu dira. Elkartze mugimendu honen oinarrian gizartean partehartzea dago, gizakia- ren ideia baikorra dute, gizakia bilakaeran ikusten baitute, osoki garatzeko joera duen izaki bezala, eta aldi berean bere ongizatea eta bere inguruarena bilatu eta lortzeko gai dena. Norbanakoak ikas dezala eta gizartean eta taldeetan gara dadin laguntzen saiatzen dira. Esan dezakegu, beraz, emakumea mundu pribatutik mundu publikora igarotzen dela talde hauetan.

Mundu pribatuan murgildurik diren emakumeak, publikoan ere duten balioaz eta zein ongi maneiatzen direnaz jabetzen dira eta bizi duten gizartean ematen diren aldaketetan partehartzen dute.

Baina emakumeak talde gisa ager daitezten, beren lehentasunak ezarri eta defenda ditzaten, partehartzeko esparru egokia behar dute, hala alderdi politikoetan, sindikatuetan eta hiriko elkarteetan nola emakumeen elkarteetan ere.

Horretarako, beraiei dagozkien erabaki kolektiboak prestatzen, proposatzen eta gauzatzen diren leku orotan parte har dezatela sustatu beharra dago. Ekintza Positiboko Planen helburuen artean dago, kontuan harturik botere publikoek zaindu behar dituztela beti herritar oren eskubideak,

emakumeek beren gain hartzea, beren eskubideen erabilera eta defentsa, eta bete betean jardun daitezela, herritar diren bezainbatean herri mailan dagozkien zereginetan.

Horrez gain, eta emakumeen eskariak berariaz planteatzen direnez, Administrazio publikoarekiko harremanetarako esparrua ematen duten eta jadanik irekiak ditugun komunikaziorako bide egonkorak bultzatu behar ditugu.

Bide horretatik, Batzorde Aholku emaileak, Emakumeen Elkarte eta Emakumearen Euskal Erakundearen arteko komunikaziorako bidea izan nahi du, halatan sor dezagun, euskal gizartean emakumeen papera aldatzeko proposamenak, kritikak eta ekarpenak egiteko elkargunea eta horretatik emakumeen partehartze aktiboagoa susta dadin.

2.

Eginkizunak

Batzorde Aholku emaileak honako eginkizunak ditu:

- a) Emakumearen Euskal Erakundeari proposatzea, beraren helburuak erdiesteko egoki derizkion neurriak.
- b) Botere Publikoen jarduerari buruz Erakundeak urtero egiten dituen Memoria, Ebaluazio Txostena eta Jarduera Plana ezagutzea eta horien gaineko txosten lotesle ez dena egitea.
- c) Erakundearen kudeaketa eta funtzionamenduari buruzko urteko Memoria ezagutzea, bai eta Erakundearen Aurrekontua ere, horren gaineko txosten lotesle ez dena eginez.
- d) Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritzari proposatzea, sexu bien arteko berdintasuna eta emakumeek bizitza politikoan, kulturean, ekonomikoan eta sozialean parte har dezatela sustatzeko egoki derizkion neurriak.
- e) Erakundeak emanen lizkiokeen gainerakoak.

3.

Partehartzea

Emakumearen Euskal Erakundearen Batzordea osatzen dute, Emakumearen Euskal Erakundea eta estatutuetan helburu bakartzat emakumeen defentsa eta sustapena duten eta parte hartzea eskatu duten Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeen Elkarteak eta Fundazioak.

Elkarteak eta Fundazioak, beren helburuen arabera, dauden lau jardun alorretako bere gustuko diren atxikiko dira:

- Alor sozio-kulturala.
- Formakuntza alorra.
- Artapen/sanitate alorra.
- Gogoeta feministako alorra.

4.

Osaketa eta funtzionamendua

Batzorde Aholku emailea Osoko Batzarran eta Azpibatzerdeetan aritzen da.

Osoko batzarra horrela osatzen da:

- Lehendakaria: Emakunde/ Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaria.
- Lehendakariordea: Emakunde/ Emakumearen Euskal Erakundearen Idazkaria. Hau, hala behar denean, Lehendakariaren ordeztaruko da.
- Idazkaria: Emakundeko Informazioko eta Elkarteetako Arduraduna, hitza eta botua duelarik.
- Emakundeko Ikerketa, Planifikazio eta Dokumentazioko arduraduna eta Emakundeko Formakuntzako arduraduna.
- Batzordekideak: Hamabi batzordekide, Batzorde Aholku emailea osatzen duten Elkarte eta Fundazioen ordeztari, Lurralde Historikoetako jardun alorretatik bana.

Osoko Batzarra gutxienik urtean hiru aldiz, lauhilekoan behin, biltzen da, Lehendakariak deituta, Gai zerrendan seinalaturiko gaiak eztabaidatzeko.

Sektoreko azpibatzerdeak, Batzorde Aholku emailean parte hartzea erabakitzen duten Lurralde Historikoetako kolektiboek osatzen dute eta hiruilekoan behin biltzen dira gutxienik, Jardun alor bakoitzeko Ordeztariak deiturik, eta betiere Osoko Batzarra egin aurretik, horretarako Gai zerrendan diren gaiak presta ditzaten.

5.

Batzordekideak hautatu eta berritzea

Batzorde Aholku emailea osatzen duten batzordekideak hautatzeko, jardun alorretako Elkarten eta Lurralde Historikoen artean gehiengo botatuz egiten da, hau da Sektoreko Azpibatzerdeen bitartez.

Hautaturiko batzordekideak bi urtez aritzen dira kargu horretan, urtero haietako erdia berritzen delarik.

6.

Antolakuntza eta proposamenak

Batzorde Aholku emailearen Osoko Batzarrak, hasieran, Euskadiko emakumeentzat Plan berritzaila abiatzen ari zenez, ia erabat honako hiru alderdiak eztabaidatzen igaro ziren:

- 1) Emakundek informazioa eman zezala, Erakundearen helburu, egitasmo eta jardueren gainean, bai eta Batzordearen jardunbideak ezartzeari buruz.
- 2) Elkarten sarea nola egitura zitekeen aztertu.
- 3) Azpibatzerdeak antolatu, Emakundek Elkartei eman behar ziren informazioa bidera zezaten, bai eta Elkarteek egin zituzketen proposamenak bildu eta zituzten beharrak ezagutu.

Berehala ikusi zen, Zuzendaritza Batzordeen funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko oinarriko ezaupideak emanen lituzketen Jardunaldi edota Ikastaroak antolatu beharra.

Emakundek kontuan hartu zuen proposaturikoa eta harrezkero programatu eta aurrera eraman ohi ditu helburu askotako mintegiak, hala nola:

- Diru laguntzak behar bezala tramitatzerakoan lagundu eta aholkuak eman.
- Jarduera egitasmoak diseinatu eta aurrera eraman.
- Ebaluatzeko moduak eta berauen metodologia ezagutu eta garatu.
- Lanerako dinamika desberdinak aztertu.

Jardunaldi hauek oso probetxugariak iruditu zaizkie Elkarteei, bertan jasotako edukiez gain, partehartzaileentzat pertsonalki aberasgarri gertatu baitzaie. Topaketak eskarmentuak eta egitasmoak elkarren artean trukatzeko ere baliatu dituzte, eta ikusi da ere, Elkarreek proposamen desberdinak eginagatik ere denek dutela helburu berbera: emakumeek bizitza publikoko eremu guztietan partehartze handiagoa ukan dezatela.

Proposatu zen ere, mota honetako Elkarreek ez zezatela Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaindu, eta lortu ere lortu zen, behar ziren gestioak egin ostean.

Batzorde Aholku Emailetik proposatu zen sinadurak biltzea, Irungo Udaletxeko zinegotzia den Maribel Castelló-ri gure sostengua erakusteko, Emakumeak Alardean partehartzearen alde egin duen lanagatik.

Diru biltzea erabaki zen, Vatikanok U.N.I.C.E.F.-i, diru hori abortuak egiteko erabiliko zelakoan eman ez dizkion 300.000 pezeta lortzeko.

Proposatu zen izena aldatzea "gogoeta ideologikoa, feminismoa edota lesbianismoa" alorrari, "mugimendu feminista" deituz.

7.

Aurrean dituen eragozpenak

A) DIRU LAGUNTZEN GABEZIA

Batzorde Aholku emailean dauden formakuntza alorreko Emakumeen Elkarreek diru sarrera urriagoak dituzte azken urte hauetan, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak, lanbide formakuntzako ikastarotarako laguntzak murriztu egin dituelako. Ikastaro hauek emakumeek eskatu eta ongi baloratzen dituzte, lan mundura sartzeko aukera ematen dieten zenbait lanbide ikasteko baliagarri baitzaizkie, oinarritzko formakuntza soilik bada ere.

Ikastaro hauetara joan ohi diren emakumeek lan merkatuan sartzeko arazoak ukan ohi dituzte, baina pixkanaka aurkitzen dute bidea, ekonomia formalean ez bada ere —izan ere, guztien nahia dena— azpiko ekonomian bederen; baina honek ez du esan nahi emakumeen kolektibo honen bizi dituen egoerak kontuan hartu behar ez direnik.

Emakumeen Elkarreek nabaritzen dute ere diru laguntzen eta sostengu ekonomikoaren murrizketa, Udaletxeek gero eta diru laguntza urriagoak ematen baitizkiete horrelako elkarteei.

B) EMAKUNDEREN ATXIKITZE ALDAKETA

Komunikabideen bitartez iritsi zaigu, Jaurlaritzak aldatu nahi duela Emakunderen atxikitzea, hau da, behar bada heldu den Legealdian Erakunde hori Kulturako Sailaren menpe egon daitekeela, Lehendakaritzarenean egon beharrean, orain den bezala.

Azpimarratu nahi dugu Erakunde sortu zenean ez zitzaiela kasualitatez edo arinki eskatu alderdi politikoei Lehendakaritzara atxiki zezatela.

Hautabide horren aldeko argudio nagusia izan zen, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren gaiak, Administrazioaren maila guztiak hartu behar zituela, dela Tokiko Administrazioa, Probintziakoa edo Autonomiakoa, eta horrelako atxikitzeak soilik ziurta zezakeela Emakumearen Erakunde berdintasunez aritzea Administrazioaren instantzia guztiekin.

Gure ustez, bestelako atxikitzeak adieraz dezake: edo herri honetako politikariek ez dutela ulertzen emakumeen problematikak gizarteko bizitzaren eremu guztiak hartzen dituela, edo bestela, eta okerrago dena, horretaz jabetu badira ere, korapilatsuegia zaiela eta murriztu egin nahi dutela, benetako dimentsio politiko eraginkorrik gabeko pasadizo kurioso hutsa izatera.

Emakunderen erakunde maila jaitea ez zaigu iruditzen inondik ere laguntzen duenik, Erakundearen 2. artikulua biltzen duen funtsezko xedea betetzera.:

"... Emakumearen Euskal Erakundearen funtsezko xedea da emakumearen eta gizonaren arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea, Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialeko eremu orotan. Horretarako Erakundeak bere helburutzat hartzen ditu, sexuen arteko berdintasunaren aldeko baldintzak sustatzea eta berdintasun hori legez nola egitez gauzatzea tratatzen duten oztopoak kentzea, bai eta halaberean, emakumearen aurka Euskadin eman daitezkeen bereizkeria mota guztiak ezabatzea..."

Bestalde, uste dugu atxikitze aldaketak ez liokeela Erakundeari bere eginkizunak betetzen utziko, ez liokeela beraz, utziko honako eginkizunak aurrera eramaten:

- Aurrean aipaturiko xedek iristeko norabideak finkatzea eta Autonomia Erkidegoko botere publikoek aplikatu ditzatela bultzatzea.
- Legeriaren segimendua egin eta lege aldaketen proposamenak egitea.
- Emakumeen egoeran eragina duten Autonomia Erkidegoko botere Publikoek garatu beharreko jardura egitarauaren arteko koordinatze neurriak bultzatzea.
- Aholku eta lankidetzaren eskaintza, Eusko Jaurlaritzako, Aldundietako eta Udaletako Sailei, proposaturiko xedek iristeko.

Batzorde Aholku emaileak, hau guztiagatik, hitz ematen du lan egingen duela, Emakunde orain arte bezala atxikia izan dadin, bai eta aurrekontua mantentzeaz gain, emendatu ere emenda dakion.

C) PENTSIOAK BERMATZEKO FONDOA

Gogora ekarri nahi diegu ere, hala Gobernuak kideei nola gainerako Alderdi Politikoei ere, legealdi honen hasieran hitz eman zutela abian jarriko zutela, banandu edo dibortziatu diren, baina

senar ohiak pentsioa ordaintzen ez dien emakumeentzako Pentsioak Bermatzeko Fondoa. Oraindik ez da ezer egin, ordea.

Batzorde Aholku emaileak behin eta berriz errepikatuko du fondo hori sortu beharra dagoela eta ongi derizkion bideak ibiliko ditu, datorren legealdian Gobernuak osatuko duten alderdiek bete dezaten emandako hitza.

Azkenik, eta hauteskundeak heltzear ditugularik, azalpen hau amaitu aurretik, alderdi politiko guztiri proposamen bat egin nahi diegu, alegia: jar ditzatela emakume gehiago hauteskunde zerrendetan eta bereziki benetan hautatuak izateko aukera duten lekuetan.

Gauza bera eskatzen diogu sortuko den Eusko Jaurlaritzari berriari, Sailburu, Sailburuorde, Zuzendari, etabarrei doakienean. Ez ditugu hauek hitz hutsak, badira postu horietarako behar bezain trebe diren emakumeak, zeregin hori behar den erantzukizunez eta buru belarri aritzeko prest diren emakumeak, baldin eta beren alderdiek beren gain konfidantza osoa jartzeko prest badira.